

Úrsula Luna Velasco

Gipuzkoako museoetako jarduera didaktikoak 1902-2014

Iñaki Díaz Balerdi Dk. jaunak (Euskal Herriko Unibertsitateko Artearen Historia eta Musika Saileko irakasle titularra) onetsitako historia ikerketa. Lan honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gipuzkoari buruzko ikerketa historikoak egiteko bekak programaren barruan 2014. urtean beka jaso zuen.

Trabajo de investigación histórica avalado por el Dr. D. Iñaki Díaz Balerdi (profesor titular en el Departamento de Historia del Arte y Música de la Universidad del País Vasco), becado en 2014 dentro del programa de Becas de investigación histórica sobre Gipuzkoa de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

San Sebastián, 2021

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Kultura, Lankidetzeta, Gazteria
eta Kirol Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de Cultura,
Cooperación, Juventud y Deportes



ARCHIVO GENERAL
DE GIPUZKOAKO
ARTXIBO OROKORRA

Bekak / Becas saila Gipuzkoako Artxibo Orokorren bildumetako bat da eta Gipuzkoari buruzko ikerketa historikoak egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen dituen bekekin burututako lanak.

Bekak / Becas es una de las colecciones del Archivo General de Gipuzkoa, que reúne trabajos realizados con las becas de investigación histórica sobre Gipuzkoa concedidas por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Erreferentzia bibliografiko gomendatua (ISO 690-2):

LUNA VELASCO, Úrsula. *Gipuzkoako museoetako jarduera didaktikoak. 1902-2014* [linean]. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2021 [kontsulta: urtea-hilabetea-eguna]. World Wide Weben eskuragarri:

<<http://www.artxibogipuzkoa.gipuzkoakultura.net/libros-e-liburuak/bekak-becas13.pdf>>.

Referencia bibliográfica recomendada (ISO 690-2):

LUNA VELASCO, Úrsula. *Gipuzkoako museoetako jarduera didaktikoak. 1902-2014* [en línea]. San Sebastián: Diputación Foral de Gipuzkoa, 2021 [consulta: año-mes-día]. Disponible en World Wide Web:

<<http://www.artxibogipuzkoa.gipuzkoakultura.net/libros-e-liburuak/bekak-becas13.pdf>>.



Liburu hau hurrengo **Creative Commons** lizentziaren mende dago:



[Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa \(CC BY-NC-ND 4.0\)](#)

Lizentzia honek obra partekatu, birbanatu edozein bitarteko edo formatutan eta kopiatzeko aukera ematen du, baldintza hauek betez:

- **Aitortu** — Aitortza egokia egin behar duzu, lizentziaren esteka eman behar duzu eta aldaketak egin diren adierazi behar duzu.
- **Ez Komertziala** — Materiala ezin duzu erabili merkataritza-xedeetarako.
- **Lan Eratorririk Gabe** — Materiala nahasten, eraldatzen edo horretan oinarrituz sortzen baduzu, ezin izango duzu aldatutako materiala banatu.

Este libro está bajo la siguiente licencia **Creative Commons**:



[Reconocimiento-NoComercial-SinObraDerivada 4.0 Internacional \(CC BY-NC-ND 4.0\)](#)

que permite compartir, copiar y redistribuir el material en cualquier medio o formato, bajo las siguientes condiciones:

- **Reconocimiento** — Debe reconocer adecuadamente la autoría, proporcionar un enlace a la licencia e indicar si se han realizado e indicar si se han realizado cambios.
- **No Comercial** — No puede utilizar el material para una finalidad comercial.
- **Sin Obra Derivada** — Si remezcla, transforma o crea a partir del material, no puede difundir el material modificado.

Argitalpena / Edita:

Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa

Kultura, Lankidetzta, Gazteria eta Kirol Departamentua / Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes

Gipuzkoako Artxibo Orokorra / Archivo General de Gipuzkoa

<http://www.artxibogipuzkoa.gipuzkoakultura.net/libros-e-liburuak/index.php>

<http://www.artxibogipuzkoa.gipuzkoakultura.net/libros-e-liburuak/index-es.php>

Maketazioa / Maquetación: ACC

GIPUZKOAKO MUSEOETAKO JARDUERA DIDAKTIKOAK 1902-2014

Ursula Luna Velasco

Donostia, 2015

José Ignacio Tellechea Idígoras beka 2014

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
*KULTURA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA***





HITZAURREA

Ursula Lunak egindako ikerketa, eta aurrean daukagun lanean, Gipuzkoako museoetan egindako jarduera didaktikoei buruzko lehenengo hurbilketa sistematikoa planteiatzen da. Aspektu ezberdinak (jarduetako motak, baliabide espazialak, giza baliabideak, etab.) aztertuz gero, balorazio orokorra egiteko baliabide oso erabilgarria argitu du egileak, hurbilketa partzialak eta ikerketa puntualak gainditzen.

Dena den, aipatutako lorpenak inolaz ere ez dira helmugak kontsideratzen, baizik eta tesi doktoralaren oinarri eta abiapuntu. Eta ziur nago tesi hori laister egongo dela prest, beste baliabide ezin hobea eskaintzen museoei buruzko analisiak sakontzeko.

Iñaki Diaz Balerdi

Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasle Titularra

Artearen Historia eta Musika Saila



SIGLAK ETA LABURDURAK

AIFA	Albaola Itsas Faktoriako Artxiboa
AKUA	Azkoitiko Udal Artxiboa
AMA	Armagintza Museoko Artxiboa
ANPA	Anduetza Parketxeko Artxiboa
ARPA	Arditurri Parketxeko Artxiboa
AZUA	Azpeitiko Udal Artxiboa
BUA	Beasaingo Udal Artxiboa
CA	Chillida-Lekuko Artxiboa
CBMA	Cristobal Balenciaga Museoko Artxiboa
DEGZA	D'Elikatuz Elikadura eta Gastronomia Zentroko Artxiboa
DEM	Donostiako Elizbarrutiko Museoa
DMS	Donostiako Museoen Sarea
DMSA	Donostiako Museoen Sareko Artxiboa
DUA	Donostiako Udal Artxiboa
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EAEHAAN	Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren Artxibo Nagusia (Eusko Jaurlaritza)
EBMA	Euskal Burdinbidearen Museoko Artxiboa
EJ	Eusko Jaurlaritza
EUA	Eskoriatzako Udal Artxiboa
EZMA	Eureka Zientzia Museoko Artxiboa
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia
GFAAA	Gipuzkoako Foru Aldundiko Artxibo Administrazioa
d.g.	datarik gabe
GOE	Gipuzkoako Ozeanografia Elkarte
GOF	Gipuzkoako Ozeanografia Fundazioa
GPS	Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioa
HLE	Heziketa Libreko Erakundea
HMT	Herri Musikaren Txokoa
Ibid	Ibidem (latinezko "leku berean")
IBMA	Igartubeiti Baserri Museokoko Artxiboa
IDUA	Idiazabalgo Udal Artxiboa
IEA	Ingurugiro Etxeko Artxiboa
IMA	Ibarraundi Museoko Artxiboa
IPA	Iturraran Parketxeko Artxiboa
IRUA	Irungo Udal Artxiboa
Irud	Irudia
I.Z.	Interpretazio Zentroa
KF	Kutxa Fototeka
K.K.	Kultur Kudeaketa
KMLHD	Koldo Mitxelena Liburutegiko Hemeroteka Digitala



KOZNAB	Kultur Ondarearen Zuzendaritza Nagusiaren Argazki Bilduma (Gipuzkoako Foru Aldundia)
K.S.	Kultura Saila
K.Z.	Kultura Zerbitzuak
LBPFA	Lizarrusti-Barandiaran Parketxe Hedatuko Artxiboa
LFA	Lenbur Fundazioko Artxiboa
LUA	Larraulgo Udal Artxiboa
MCRA	Museum Cemento Rezola Artxiboa
MMA	Makina-erremintaren Museoko Artxiboa
MIMA	Mater Itsasontzi Museoko Artxiboa
MNE	Museoen Nazioarteko Eguna
N.P.	Natura Parkea
OEMA	Oiasso Erromatar Museoko Artxiboa
Op. Cit.	Aipatutako lana
OUA	Ordiziako Udal Artxiboa
PA	Photomuseumeko Artxiboa
P.H.	Parketxe Hedatua
PUA	Pasaiaiko Udal Artxiboa
RMA	Real100 Museoko Artxiboa
Sic	Latinezko "honela idatzia"
SMA	Sagardoetxea Museoko Artxiboa
STMA	San Telmo Museoko Artxiboa
STMAD	San Telmo Museoko Artxibo Digitala
SUA	Segurako Udal Artxiboa
TGA	Tolosaldea Garatzeneko Artxiboa
TTNTZA	TOPIC Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroko Artxiboa
UUA	Urretxuko Udal Artxiboa
ZAHM	Zarauzko Arte eta Historia Museoa
Z.E.	Zientzia Elkarteak
ZMA	Zumalakarregi Museoko Artxiboa
Z.T.	Zerbitzu Turistikoak
ZUA	Zeraingo Udal Artxiboa



AURKIBIDEA

SARRERA.....	8
Lehen atala: 1902-1936	10
I. ALDAKETEN GARAIA	11
Museo modernoaren aztarnak	11
Gipuzkoaren egoera	13
II. GIPUZKOAKO MUSEOAK.....	16
Museo berriak	16
III. GIPUZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA	23
Jarduera motak	23
Bisitariak/ publikoa	25
Jardueretarako baliabideak.....	28
Bigarren atala: 1936-1970	33
I. MUSEOAK ISILPEAN	33
Hauts arteko objektuak	33
Diktadura: nazio berria, eredu berriak.....	33
Espainia isolamendutik atera nahian	34
ICOM. Museoen garai berriaren hasiera.....	35
II. GIPUZKOAKO MUSEOEN BIZIRAUPENA.....	37
Museo zaharrak	37
Museo berriak	40
III. GIPUZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA	44
Jarduera motak	44
Bisitariak/publikoa	45
Jardueretarako baliabideak.....	47
Hirugarren atala: 1970-1990.....	52
I. HAIZE BERRIEN HELDUERA	52
Frankismoaren amaiera	52
Trantsizioa eta demokraziaren lehen urteak	52
Kamaleoien garaia: Museoak azala aldatzen	53
Museoak: ardura berria.....	54
II. GIPUZKOAKO MUSEOAK ESNATZEN HASIAK	56
Museo zaharrak	56
Museo berriak	60
III. GIPUZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA	68
Jarduera motak	68
Bisitariak/ publikoa/ erabiltzaileak	72
Jardueretarako baliabideak.....	75
Laugarren atala: 1990-2000.....	85



I. FORMULA BERRIEN BILAKETA.....	85
Hamarkada zaratatsua.....	85
Museoak bidea egiten.....	86
II. GIPUZKOAKO MUSEOAK ABIADURA HARTZEN	88
Museo zaharrak	88
Museo berriak	93
III. GIPUZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA	101
Jarduera motak	102
Bisitariak/ publikoa/ erabiltzeak.....	111
Jardueretarako baliabideak.....	117
Bosgarren atala: 2000-2014	129
I. XXI. MENDEKO MUSEOAK	128
Guggenheim efektuaren distirak itsututa.....	128
Kaosaren ordena	130
II. GIPUZKOAKO MUSEOEN <i>BOOM-A</i>	133
Museo zaharrak	133
Museo berriak	144
Museo sareak eta elkarlanak	161
III. GIPUZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA	163
Jarduera motak	163
Bisitariak/ publikoa/ erabiltzaileak	183
Jardueretarako baliabideak.....	188
ONDORIOAK	194
INFORMAZIO ITURRIAK.....	196
ARTXIBOAK.....	196
BIBLIOGRAFIA	197
ESKERTZEKOAK.....	209
ERANSKINAK.....	210
I. eranskina: Gipuzkoako museoen irekiera urteak	211
II. eranskina: Gipuzkoako museoen kudeaketa orokorra eta hezkuntza sailak (2000-2014).....	213
III. eranskina: Gipuzkoako museoetan burutu diren jarduera didaktikoak (1902-2014).....	216



SARRERA

Lan hau Gipuzkoako Museoetako jarduera didaktikoen ikerketa da, historian zehar instituzioaren baitan zein Gipuzkoako historian emandako aldaken baitan aztertua. Bestalde, museoen hezkuntza arloan sortu, garatu eta aplikatu diren jarduera didaktikoak aztertzen dira, XX. mendeko lehen urteetatik abiatuz azken urteetako egoerara heldu arte.

Azken hamarkadetan, Gipuzkoan – beste hainbat lurraldetan bezala –, museoen irekieraren *boom* bat bizi izan dugu. Urte gutxiren buruan ia XX. mende osoan garatu diren proiektuak bikoiztu dira, gertaera horrek gizartean emandako aldaketekin bat egiten duelarik. Museoa instituzio bezala ulertzeko modu desberdinak, museologia eta museografia teoria eta joera berriak eta hezkuntzak jokatu duen paperaren eboluzioa ez da era isolatu batean gauzatu. Hots, Gipuzkoan emandako aldaketa sozial, politiko eta ekonomikoak oinarria izan dira gure museoen sorrera eta biziraupenerako.

Honen baitan, adierazgarria da Gipuzkoako Museoen antolaketa eta kudeaketarako azken urteetan pauso garrantzitsuak burutu direla GFAk, baina oraindik lurraldeko museoen historia eta hauek aurrera eramandako proiektu didaktikoak era osatu batean aztertu dituen ikerketarik ez da burutu; aldiz arkitektura lan garrantzitsuei, bildumei edota bisitarien mugimenduari buruzko txosten eta artikulua ugaritu dira. Horrek, ezinbestean eraman gaitu ikerketa honen muina planteatzera: Zer eskaini dio museoak publikoari lurraldeko lehen museoaren irekieratik gaur egun arte? Nola bete da museoari datxekion hezkuntza funtzioa Gipuzkoako Lurralde Historikoan? Zein baliabide izan ditu horretarako?

Galdera hauei erantzuteko arazo nagusia iturri dokumentalen baitan aurkitu da: artxibo bakarrean zentralizatu gabeko dokumentazioa existitzen da, museo edo Udal bakoitzak gordetzen duena eta askotan sistematizatu gabe aurkitzen dena. Zenbaitetan, jarduera didaktikoei eman zaien garrantzi eskasiaren frogak izanik, aurrera eramandako programen frogak dokumentalik ez da gorde; bai ordea bisitari datuen txosten osatuak. Beste kasu batzuetan ordea, museoaren egitasmoari buruzko txosten osatuak gorde dira, dokumentazio idatzizkoa, grafikoa edota ikus-entzunezkoak osatuta.

Ikerketa osoak orden kronologiko bat agertzen du, non abiapuntua 1902an irekitako San Telmo Museoa den, hortik 2014. urtera heldu arte. Lehen atalak XIX. mendetik XX. menderako mugan kokatzen gaitu, aldaketa historikoen baitan Gipuzkoako Lurralde Historikoak jasandako eraldaketa nagusiak agertuz eta aldi berean mundu mailan museoaren instituzioaren baitan emandako berrikuntzak azalduz. Oraindik ere hezkuntza museoaren funtzio nagusi kontsideratzen ez bazen ere, gure museoetan aurrera eramandako zenbait jarduerak etorkizunean izango zenaren oinarriak finkatu zituzten.

Bigarren atala garai ilunenen isla da, Guda Zibila eta diktadura urteetako alegia. II. Errepublikarekin sortutako ideia berritzaileak eta museoetako lanen lehen bultzadak deuseztatu eta Nazio berriaren inposaketaren baitan garatu ziren urte haietako programa homogeen eta zuzenduak. Honela, panorama estatiko batean murgildu zen gizarte baten baitan eskasak izan ziren, biziraupenaren baitan oinarritzen zelarik instituzio hauen egunerokotasuna. Urte luze hauetako azterketaren ondoren, garai berriei ekin eta 70. hamarkadako aldaketen lehen izpiak agertu ziren. Hirugarren atalean, oraindik diktaduraren azken urteak barne hartuta ere, mundu mailan museologiak izandako aldaketa nabarmenenak aztertzen dira, gure lurraldera 80ko hamarkada arte helduko ez zirenak. Gipuzkoako museoaren lehen programazio didaktikoak eta publikoaren jarreraren zein baliabideek bizitako berrikuntzak etorkizuneko aldaketak sustatzeko abiapuntua izan ziren.

Laugarren atalean bi mendeen arteko mugan eman zen esnatzea agertzen da: demokraziako lehen urteen ondorengo egonkortzea, munduari irekiera eta politika berriek museoetan izandako lehen eraginak. Hezkuntza



funtzioaren barneratzearekin batera museoak beste arlo batzuen protagonista berriak bilakatu ziren, instituzioak berak izan zuen izaera eta erabilera dibertsifikatu zelarik gure lurraldean.

Eta azkenik, bosgarren atalean XXI.mendearekin batera lurraldean eman zen museoen boom-a agertzen da: zentroen irekieren eztanda honek publikoaren dibertsifikazioarekin eta baliabideen baitan emandao aurrerapenekin bat egiten zuen, garai berriei aurre egiteko instituzioak egokitze prozesu jarrai batean murgildu zirelarik, hausnarketarako espazioa geroz eta eskasiagoa zelarik.

Honekin batera, kronologikoki banatu diren atal bakoitzaren amaieran inauguratutako eta itxitako museoen mapa bat txertatu da. Eranskinen atalean irekiera eta itxiera urteak zehaztu dira banaka eta bide batez, XXI.mendeko kudeaketa erak zein historian zehar museoek eskaini dituzten jarduera didaktiko motak laburbiltzen dituzten taulak gehitu dira.

Zenbait ohar

Lan honetan agertu diren museoen aipamenak GFAk *Gipuzkoako Lurralde Historikoko Museoak Antolatzeako Planean* (2009) jasotakoak izan dira, hala nola *Gipuzkoako Museoak* web atariaren bitartez argitalpenetik gaur egun arte eguneratuz joan den zerrendan agertutakoak. Hortaz ekipamenduen museo izaeraren inguruko inolako eztabaidarik ez da ezarri, kontzeptu eta definizioaren zein hauen sailkapenaren erabakiak Foru Aldundiaren irizpideekin partekatuz.

Honekin batera, oinarritzkoa da esatea hau ez dela ikerketa finitu eta itxia; hots, aurrerantzean emango diren ekintzek osatuko dute oinarri bezala planteatu den jarduera didaktikoen errebisio hau, eta aldi berean, jaso ez diren egitasmo eta proiektuentzako ateak irekita uzten dira. Izan ere, azterketa hau burutzeko helburuak ez dira datu base baten osaketa edota zerrendatze batean oinarritu, baizik Gipuzkoako Museoetan eman diren aldaketa nagusiak, egitasmo berriak eta hezkuntza funtzioak izan duen protagonismoa ezagutzea. Hortaz, agertu diren museoetako baliabide zein ekintzen aipamenak adierazgarrienak kontsideratu direnak edota egungo egoeran eragin zuzena dutenak izan dira; kontutan izanik garrantzizkoak izan diren museo askoren ekimenei buruzko dokumentaziorik ere ez dela gorde.

Lan hau ordea bada antolaketa proposamen bat, ehun urte baino gehiagoz museoek lurraldean izan duten eragina eta burututako proiektuak azaleratzen dituenak. Eta aldi berean sailkapen proposamen bat ere da, hezkuntza funtzioaren barnean protagonista diren elementuak aztertu eta ulertzeko modu eraginkor bat planteatu nahi duena baina inolaz ere mugiezina; hots, etorkizuneko proposamen eta aldaketen menpe egon daitekeena.

Azkenik, planteatu den ikerketa honek Gipuzkoako artxibo ezberdinetan lurraldeko museoek buruz existitzen den dokumentazioa bilatu, aztertu eta sailkatzea izan du helburu, jaso denaren ikuspuntu orokor bat izan eta hutsuneak betetzen saiatzeko oinarri bat finkatzeko. Aurrerantzean gai honen inguruaren egitekoa izango da dokumentatu gabe dagoena bilatu, jaso eta zabaltzea, horrek Gipuzkoako Museoen eboluzio historikoa zein bertatik burutu diren jarduera didaktikoak ezagutu eta ulertzen lagunduko digutelako.



Lehen atala: 1902-1936



I. ALDAKETEN GARAIA

XIX.mendearen bigarren erdia aldaketa ekonomiko, sozial eta politiko handiko garaia izan zen. Espainian, monarkiaren boterea zalantzan jartzen zuten taldeak sortu, industrializazioarekin batera gizarte berri bateranzko pausoak eman eta kultur adierazpen desberdinak agertu ziren, giro aurrerakoiago baten isla sumatzen ari zelarik. Azken hamarkada horietan izandako jazoerek nabarmenki eragingo zuten XX. mendeko historian. Euskal Herrian bilakaera historikoan oinarritutakoak izan ziren hainbat gertakizun pairatu ziren - industrializazio prozesu eraginkorra, ekonomiaren suspertzea eta nazionalismoaren agerketa; guztia kultur eta hezkuntzaren garapen aipagarriarekin bat eginik – eta honen baitan Gipuzkoako lehen museoek irekiera eman zen.

Museo modernoaren aztarnak

Museum Central des Artes: eredu baten jaiotza

Museoen jatorri eta sorrerari buruzko hipotesi ezberdinak existitzen badira ere, gaur egun ezagutzen dugun instituzioari lotutako ezaugarri historiko garrantzitsuenak azpimarratzen dituzte aditu gehienek: aurre-historiako zibilizazioek bildutako objektu sakratuetatik hasi, Greziako “mouseion” terminoaren agerpenetik pasa eta ondorengo mendeetan sortu ziren Elizako altxor, bitxikerien ganbera, kabinete, erret bilduma eta galeria pribatuetaraino helduz.

Guztietan, hein batean, museo modernoak izango zenaren zantzuak agertzen hasiak ziren, baina ez zen XVIII. menderarte emango benetako eraldaketa bat: Ideia ilustratuek ekarritako pentsamolde eta ideia berriak hedatzearekin batera gizarte modernoaren garaiari hasiera eman zitzaion. Horren baitan, mendeetan zehar kleroa, burgesia, Erret Familia eta aristokraziak sortutako bilduma ugari publikora irekitzen hasi ziren. Halaber, sortutako lehen museoetako bat eta Europan zehar nagusitu zen ereduak Frantziako *Museum Central des Artes* izan zen, 1793.urtean inauguratua – egungo Louvre Museoa – ; honetan oinarriturik jaio ziren Espainia, Italia, Alemania eta Belgika bezalako lurraldeetako aurreneko museoak.

Estatu Batuak: hezkuntzaren bidea

Amerikan aldiz, Estatu Batuak izan zen herrialde aurrerakoiena museologia arloan. Bertan ez zen existitzen Erret Familia batek mendeetan zehar jasotako bilduma aberats bat; baina bai ordea ondasun eta dirutza ugari familia boteretsu asko, klase sozial altu berri bat, museo askoren fundatzaile eta laguntzaile ekonomiko nagusia. Gainera, bertako museoek jaiotza eta funtzioa Europakoarekin alderatuz oso bestelakoa zen: hauek sortzez funtzio hezitzaileak izateko eratuak izan ziren, eta ez bilduma baten kontserbazio eta kontenplazio hutserako. Horrek eragin zuen museologia arloan hezkuntzaren inguruko teoria eta lan ezberdinetan aurrerakuntza nabariak izatea jada XIX.mende amaieratik, eta egun mundu osoan ezagunak diren programa berritzaileen sorkuntzari ekiteak. Estatu Batuak izan zen, XX.mendeko 20 eta 30eko hamarkadan, hezkuntza proiektuak museoetan, euren ospea sustatzen zuelako eta programa pedagogikoek publiko zabalago eta heterogeneoagoa erakartzen zuelako (Anguiano, 2008: 214-215) eta aldi berean zerbitzu publiko bat eskaintzen zuen instituzio bezala aldarrikatzen zutelako euren burua: “American museums reflected this shift in founding documents which identified them with civic virtues of public service, education, and social stability” (Abt, 2006: 130).



1.3. Espainiako bildumak eta museoak

Espainiako lehen museoek sorrerak gizon kultu eta ilustratu batzuen lan eta esfortzu gogorretik abiatutako proiektuak izan ziren, garai aztoratueta ondataren zainketa eta bildumen zabalkundeaz arduratu zirenak (Géal, 2002). XVIII.mendean zenbait museoek proiektuak agertu baziren ere, benetako abiapuntu nagusia *Museo Real de Pinturas* izan zen – egungo Prado Museoa – zeinak 1819.urteetik aurrera eredu garria izan zen instituzio bilakatu zen. Pradorekin batera Probintzietako Museoek irekiera bat garatzen hasi zen, batez ere Arte Ederren kontserbazio eta erakusketara bideratutakoak. Azken hauen jaiotza desamortizazioaren ondoren bildutako ondata material ugaria egokitzeko espazio beharra zein elite lokalaren ondasunen babeserako lanean oinarritutakoa izan zen; baina baita kulturalki espazio horien beharra izan zuen egoera pairatu zuelako garaiko gizarteak (Fornells, 2003).

XIX.mendean, aurreko hamarkadetan suertatutako eraldaketa guzti horien bultzada nabari bat izan zuten instituzio ezberdinek, egonkortze baterako bidea irekiz eta XX.mendetik aurrera benetako garapen azkar bat pairatuz. Museo berri askoren oinarria, bilduma ezberdinetan egoteaz gain, garaian ospetsuak bilakatu ziren Erakusketa Unibertsaletan egon ziren, mundu garaikidearen erakusleho garrantzitsu bilakatu zirenak. Hauek museo efineroak eta behin behinekoak izan ziren, modelo berrien finkatzerako funtzia bete zutenak eta museoek biderkatzearen estimuluetako bat. Bolañosek dioen moduan (2008: 271) erakusketa unibertsalak museoek frogatu eremu bat izan ziren, garaiko industrializazioak, kapitalismoa, kolonialismoa, masa kontsumoa eta abarren isla bihurturik.

Honekin batera, Probintzietako arte, historia, etnografia eta beste hainbat gairen inguruko erakusketak ere zabaltzen eta hedatu ziren penintsula osoan zehar. Aldi baterako erakusketa haien sortzen zuten jakin-mina eta interesak, zein lurralde bakoitzak gordetzen zituen ondasun aberasgarriaren ezaguerak eragin zuten hiriburu eta eliteek horren kontserbazioaren alde egin eta espazio iraunkorrak sortu nahi izateak.

Museoek Nazioarteko Bulegoa

XX.mendeko museoek sorrera eta instituzioaren egonkortzean berebiziko aldaketa suposatu zuen 1927.urtean Parisen sortutako Museoek Nazioarteko Bulegoa – Oficina Internacional de Museos (OIM) –. Honen baitan eratu zen “(una) Nueva comunidad museológica internacional de todos los museos del mundo” (Bolaños, 2008: 329). Bulegoaren jaiotzarako aurrekari izan ziren mundu mailako museoek bizi izandako lehen krisia, museoek benetako funtzioaren inguruko hausnarketan sortzen hasi zirenean. Adu ezberdinek museoan espazio hila bezala definitzen zituzten, instituzio elitistak eta garaikideak ziren artegintzari eta teoria zientifiko ezberdinei bizkarra emanaz funtzionatzen zutenak; momentuan gertatzen ari zenaren isla izateko kapazitate eza kritikatzeko zioten. Izan ere, museoetan objektuen pilaketa ematen zen instituzio guztietan, objektua zentratutako diskurtsoa nagusitzen zen, kontserbaziora soilik dedikatutako lantaldeak existitzen ziren, eta orokorrean bildumak era egokian kudeatzeko profesionalen gabezia orokorra zela salatzen zuten.

Instituzioaren inguruko birplanteaketa hori Lehen Mundu Gerraren ondoren indartsu zen, ondataren zainketa eta berreskurapenerako tresna eraginkorraren eztabaidaren barnean. Museoek Nazioarteko Bulegoa lehen pausoa izan zen, zeinak bilkurak egin, ikerketak sustatu, elkarlanak abian jarri eta difusiorako lehen tresnak zabaltzen zituen – horien artean 1946 arte argitaratutako *Museum* aldizkaria – (Hernández Hernández, 1992; Mairesse, 1998).

Espainiar legedia: ondataren babesa

Espainian ondataren inguruko legediaren abiapuntu nagusia 1900.urteetan kokatu zen, Instrukzio Publiko eta Arte Ederren Ministeritzaren sorrerarekin eta Arte Ederretako Zuzendaritza Nagusiarekin, aurreko mendeko legedia oso eskasa baitzen Frantzia, Italia edo Britainia Handikoarekin konparatuz (García Fernández, 2007: 3). Zuzendaritza ente berrien lehen urteko lanean batera “la legislación iba regulando la organización de sus servicios, la puesta en marcha de nuevos organismos, como los patronatos, o la creación de nuevos museos en ciudades de provincia” (Bolaños, 2002: 52).



Legediaren barnean, ondarearen babes eta kontserbazioarekin zein museoen sorrera eta funtzionamenduarekin estuki loturik zeuden Lege eta Dekretu desberdinak ezarri ziren mendearen lehen herenean. Aipagarrienetakoak ditugu 1911ko uztailaren 7ko Legea, indusketa artistiko eta zientifikoak burutzeko eta aurri eta antzinako objektuen kontserbaziorako¹. Ondare Historiko Artistikoaren inguruko lehen lege espainola izan zen.

Honekin batera, 1913ko uztailaren 21eko Errege Dekretuaren bitartez Arte Ederretako Udal zein Probintzi museoak sortzeko erregulazioa ezartzen zen². Bide batez, Dekretu honek lehen aldiz museoa eta gizartearen arteko loturaren garrantzia azpimarratzen zuen. Museoa ez zen biltegi soila izango – ez behintzat teoriarik – eta funtzio publiko bat izateko bideari hasiera eman zion. II. Errepublikako lehen urteetan, ondare artistiko eta historiko nazionalaren defentsa eta kontserbaziorako legerik nagusienetakoa ezarri zen, 1933ko maiatzaren 13ko Legea. Ondare erregistro zabala egin eta espainiar Estatu osoko monumentuen zerrendak osatu ziren (Díaz Balerdi, 2010a).

Beraz, XX.mendeko lehen urteetan finkatu ziren legediaren arabera hobekuntzak eta aldaketak ematen hasi ziren eta ondarearekiko interes bat sustatu zen: Museoetako patronatuak sortu ziren, publikoari zuzendutako jarduerak antolatzen hasi ziren, langileria kontratatu, difusiorako lanak egiten hasi, eta beste hainbat neurri martxan jartzen hasi ziren, gerra zibilak eta ondorengo diktadura urte luzeek gelditutako .

Gipuzkoaren egoera

Espainia, XX.mende hasieran, nabarmenki atzeratuta zegoen herrialdea zen: landa lurretako egoera industrializatzen hasiak ziren hiriekin talka egiten zuten, demografikoki zein kulturalki zabalduz joan zen hesia eraikiz. Gainera, Madrilgo gobernu zentralistak erabat bazterturik uzten zituen biztanleriaren beharrak eta klase sozial ezberdinen arteko desberdintasunak oso nabariak ziren. XIX.mendean eman ziren gobernu aldaketek ere eragin handia izan zuten: monarkiaren berrezartzeak ez zuen aldaketa gehiegirik ekarri gizartearen modernizazioari dagokionez; are gutxiago Primo de Riveraren diktadura garaia. II. Errepublikak basamortuan oasi bat suposatu bazuen ere, laster Gerra Zibilaren hasierak hautsiko zuen ordura arte eraikitzen hasitakoa.

Gipuzkoan ere egoera antagoniko baten errealitatea bizitzen zen mende hasieran: Alde batetik, Espainiako Erret Familiaren presentziak Donostiako udaldietan hiriaren ospea zabaltzea ekarri zuen, laster goi klaseen hiriburu eta elkargune nagusi bilakatu zelarik.. Baina bestetik, oraindik tradizioetan errotutako gizartea zen nagusi landa eremuetan, hiri nagusietan bizi ziren aldaketen zantzurik nabaritu gabe. Bien bitartean lurraldeko ondarearen babesa eta biztanleriaren historia, artea eta zientziekiko interesa hedatzen joan zen, atzerrian sortzen hasiak ziren museo eta arte gune berrien ildotik kultur espazio berriak jaiotzen hasi zirelarik.

Hiriburuko glamourra vs landa eremuak

XIX.mende amaieran Donostia giro kosmopolita, ireki eta kultuaz gozatzen zuen hiri bat zen, Erret Familia eta geroz eta ahalmentsuagoa zen burgesiaren presentziaz bultzatua (*Zulaika, 2002; Arrieta, 2012b; Sada, 2009*). Isabel II.ak udaldiak hiriburuan igarotzeko tradizioari hasiera eman zion, honek eskaintzen zituen itsasoko ur eta klimatologiaren onurak zirela eta; ordutik espainiar Erret Familiak udako garaia Donostian emango zituen. Gortearen luxu zein *glamour* giro hark atzerriko zein Espainiaren beste probintzietako aristokrazia eta goi mailako familiak erakarri zituen, benetako garai oparoari hasiera eman zitzaiolarik.

Oro har, Donostiak giro ezin hobe eskaintzen zuen: klima atsegina, leku lasaia eta batez ere, bisitari berriei zuzendutako hamaika entretenimenduren eskaintza. Zezenketak, lehiaketak, dantzaldiak, erakusketak eta jokoak

¹ Espainiako Gobernua (1911, uztailak 8). Ley y Reglamento de Excavaciones y Antigüedades. In Gaceta de Madrid, 189 zkia [online]. In <http://www.boe.es/datos/pdfs/BOE/1911/189/A00095-00096.pdf> (2015ko apirilaren 3an ikusia).

² Gipuzkoaren kasuan, ordurako San Telmo Museoa irekita zegoen.



nahasten ziren birsortzen hasia zen hiri modernoan, non komunikabideak hobetu ziren – trena iritsi zen Donostia 1864an – , merkataritzak bultzada handia jaso zuen eta hiriaren zabalkundeari hasiera eman zitzaion. Honekin batera kulturarako eta aisialdirako gune mitikoen irekiera ere eman zen garai honetan: Igeldoko Jolas-Parkea, Victoria Eugenia Antzokia, Maria Cristina Hotela, La Perla bainutokia, Gran Kursaal, etab. Turismoaren beharrei erantzuteko³ 1927.urtean CAT – Centro de Atracción y Turismo – zentroa ireki zen⁴, aurreko urteetan Propagandarako Komisioak betetzen zituen funtzioak aurrera eramateko asmoaz.

Turismoarekin batera, hiriaren garapenean berebiziko garrantzia izan zuen Lehen Mundu Gerrak; Espainia lurralde neutral mantenduz nolabaiteko eragin positiboak ekarri zituen Gipuzkoara: hazkunde ekonomiko handia, industriagintzaren sustapena eta produkzioaren gorakada; neutraltasunak eskaintzen zuen giro lasaiak atzeritar asko erakarri zituen, askok Donostian eta Gipuzkoako kostaldean euren bizitokia ezarriz. Bide batez, atzeritar intelektual eta aristokrata askorekin batera iritsi ziren hona ideia berritzaileak eta kultur panorama garaikidearen zipriztinak, eta horren sustapenean lan egiten hasi ziren elkarte eta instituzio ezberdinak jaio ziren (Sada, 2008). Gipuzkoako gainerako zonaldeetan, eta batez ere barnealdean, oraindik oso atzeratuak zeuden nekazal lurrak mantentzen ziren, eredu zaharkituetan oinarrituta eta hiriburuan bizi zen garapen ekonomiko eta kulturaletik urrun. Industria esparru zehatzetan espezializatutako enpresen txikien agerpenak zonalde konkretuen garapena ekarri bazuen ere, langile mugimendua oso berantiarra izan zen beste lurraldeekin konparatuz, Gipuzkoan aurrerakuntza sozio-ekonomiko atzeratua pairatuz. Mende hasieran orokortutako landa eremu hauen egoera baserri giroan murgildutako gizartearena zen; Eliza eta tradizioak finkatutako baloreei tinko eusten zieten eta honek modernizazioa ekiditen zuten atzerakoiak ziren mugimenduak babesten jarraitzen zuten (González Rodríguez, 1988).

Hezkuntzaren garrantzi berria

Politikoki zein ekonomikoki aldaketak ematen hasteaz gain, XIX. mendearen erdialdetik Espainian hezkuntzarekiko bestelako aurre-pausoak eman ziren. Ilustrazioaren eraginez hezkuntzaren funtzio soziala eta ekonomikoaren garrantziaz jabetzen hasi Espainiako hainbat sektore, gizabanako berriaren trebakuntzarako ezinbesteko erreminta zela pentsatuz; hori dela eta hezkuntzaren lehen legeak ezartzen hasi eta sistema antolatzeari ekin zioten. Gipuzkoan landa eskolak eta Bizkaian auzoko eskolak nabarmendu ziren, biztanleria guztiarengana hezkuntza zerbitzua eskaintzeko helburua zutenak.

XIX.mende amaiera eta XX.mende hasieran emandako berrikuntza nabarienen artean ditugu Madrilen 1878.urtean sortutako HLE: Heziketa Libreko Erakundea (ILE: Institución Libre de Enseñanza), non hezkuntza ofizialetik at ziren ideia pedagogiko berriak⁵ zabaltzen eta praktikan jartzen hasi ziren (Martínez Medrano, 1999): atzeritik etorritako ideia aurrerakoiak, askatasun zientifikoa, moralaren erreforma, laizismoa,... beti ere giza kontzientziaren aldaketaren inguruan lan egin eta Estatuak inposatutako irakaskuntza katoliko eta tradizioaletik at gizabanako berriaren eraketarako hezkuntza erreminta nagusitzat hartuz (Escolano, 2002).

Honi loturik, II. Errepublikara garaiko ekintza kulturalik berritzaile eta interesgarrienetako bat Misio Pedagogikoak izan ziren. Hauen helburua hirietako azpiegitura eta ekintzetara heldu ezin zen landa lurreko biztanleriara kultura eta hezkuntzarako baliabide ezberdinak eramatea zen, horretarako karabana ibiltariak antolatuz eta herriz herri

³ Zaragozan antolatutako Lehen Turismo Kongresuan Donostiako alkatea izan zen ordezkari bezala. Bertan Espainiako beste lurraldeen aurrerapen maila nabaritu zuen, batez ere Kataluniari dagokionez, zeina turismoaren inguruko entitate ezberdin ugari sortuak zituen. Horren baitan sortuko zen Donostian ere funtzio hori beteko zuen Zentroa. "Representación del Ayuntamiento en el Primero Congreso Internacional de Turismo y de los Sindicatos de Iniciativas celebrado en Zaragoza, 1908", DUA. Sig: 281/10.

⁴ (2006). Orígenes del Centro de Turismo. *El Diario Vasco*. In http://www.diariovasco.com/pg060212/prensa/noticias/San_Sebastian/200602/12/DVA-SSB-174.htm (2015ko martxoaren 15an ikusia).

⁵ HLEk bultzatutako proiektuen artean aipagarria da Instrukzio Publikoko Museoa, 1882. urtean sortua; gerora Museo Nazional Pedagogikoa izena hartu zuena. Zentro honen funtzio nagusia irakasleen trebakuntza egoki bat eskaintza zen, pedagogia berrien lanak, materialak eta baliabideak eskainiz.



mugituz⁶. Espainiako gune ezberdinetara eraman ziren⁷, 1931. urtetik aurrera, Musika eta Zinematografia zerbitzua, Herriaren Antzerki eta Koroa eta Herriaren Museoa deituriko moduluak. Misio hauetan hezkuntza ez formalaren estrategiak jarri zituzten abian: Izaera ludikoko jarduerak ziren, esperimendazioan oinarrituta. Zoritxarrez, oso denbora gutxi iraun zuen ekimen honek eta gobernu aldaketarekin batera desagertu ziren; gainera, herrietako biztanleria txiroak bizirauteko oinarritzko baliabideak besterik ez zituen nahi momentua eta era arrotzean ikusten zuten hirietatik etorritako intelektualen jarduera oro.

Alabaina, horrelako berrikuntza pedagogikoak zirkulu txikietan eta oso gune konkretuetan soilik garatu ziren. Eskola orokorrak tradizioan oinarritutako irakaskuntza itxia, pasiboa eta memorian oinarritutakoa mantendu zuen urte luzez; errealitatean gizartearen gehiengoaren analfabetismoa ezabatzeke neurriak ez ziren nahikoak izan eta XX. mendearen lehen herenean existitzen zen panorama, oraindik ere, oso desegokia zen.

Lurraldeko ondarea eta difusioa

Hezkuntzaren antolaketa eta hobekuntzekin batera, eta Donostiako hiriak jasotzen zituen turista eta goi klase taldeen interes berriei erantzuteko, XIX. mende amaieratik oso ohikoak bilakatu ziren erakusketa ezberdinak antolatzen hasi ziren. Bertako ondarearen garrantziaren azpimarratzea eta publikoaren erantzuna adierazgarria izanik ezinbestean sortu ziren museo eta kulturgune berriak sortzeko proiektuak. Aipagarriak dira, besteak beste, 1896. urteko Pintura eta Eskultura Erakusketa, Donostiako Arte Ederren Elkarteak antolatutik “(con el) “deseo de ofrecer un mero aliciente a la colonia forastera que nos visite durante la estación veraniega”⁸. 1897 urtean Industria Artistikoen Erakusketa Probintziala izan zen eta 1899. urtean Arte eta Historia Atzera Begirako Erakusketa antolatu zuen Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte Ekonomikoak, honen funtzioaren inguruko adierazpenek jada bestelakoa zen izaera bat nabarmentzen zutelarik: “El propósito [...] no se concreta a organizar una exhibición de objetos más o menos raros o curiosos, sino que desea dar al concurso un carácter práctico y educativo”⁹. Erakusketa hauetatik abiatuta sortu ziren hainbat iniziatiba kultural; zenbaitzuk museoaren sorreraren muinak izan zirenak – Udal Museoa/San Telmo; Itsas Jauregia - Aquariuma – .

⁶ Tapia, G. (zuz.). (2007). *Las Misiones Pedagógicas: 1931-1936* [dokumentala]. España: Acacia Films.

⁷ Euskal Herriaren Araba eta Bizkaiko zonalde batzuetara bakarrik iritsi ziren, 1933-1934 bitartean. Recalde Rodríguez, I. (2002). *Las Misiones Pedagógicas en el País Vasco. Boletín de la Institución Libre de Enseñanza*, 47, 107-122.

⁸ “Exposición de Pintura y Escultura, organizada por la Sociedad de Bellas Artes de San Sebastián”. DUA Sig: 278/14.

⁹ “Exposición de Arte Retrospectivo, organizada por la Sociedad Económica Vascongada de Amigos del País”. 1899. DUA. Sig: 278/16.



II. GIPUZKOAKO MUSEOAK

Gipuzkoan – zein Euskal Herrian – mende berriarekin batera sortu ziren lehen museoak. Hasierako hamarkadetan Donostiari estuki loturik eta batez ere kostaldeko herrietan eman zen fenomeno hau, non atzerriko bisitariek ekarritako ideia berriek zein hiriaren izaera kosmopolitak eragiten zuen kulturaren aldeko interesa biztanleriaren sektore zabalagoetara heltzea. Horrekin batera, Espainiar gobernuak mende berriarekin batera ezarritako legediak ere berebiziko garrantzia izan zuen, lehenbizi museoetako arautegia ezarri eta gerora II. Errepublika garaian eman aurrera eraman ziren jarduerak berritzaile guztiei esker.

Museo berriak

1. Donostiako Udal Museoa / San Telmo Museoa

Donostiako Udal Museoa Gipuzkoan ireki zen lehen museoa izan zen. Mende hasierarekin batera inauguratutako zentro hau espazio txikietan eta oso aurrekontu baxuarekin funtzionamenduan egon zen urte luzez, museoaren izaera eta funtzioaren inguruko ideian ados jartzen ez ziren aditu eta politikarien eztabaida jarrai batean murgilduta zegoelarik (Arrieta, 2012b). Hala ere, garairako berriak ziren ekintzak martxan jarri zituen eta erabateko erreferente bihurtu zen kulturaren sustapena eta historiaren ezagutzarako Donostian, beste hainbat kultur gunerekin batera turismorako derrigorrezko bisita-leku bilakaturik.

Museoaren aurrekariak

Museoaren irekieraren jatorria 1899an kokatu behar dugu, aurrez aipatutako Arte eta Historia atzera begirako erakusketan, Arte Ederren Jauregian egin zena. Helburua lurraldearen inguruko ideia ilustratuak eta ezaguera artistiko-historikoak hedatzea zen (Gomez Izaguirre, 1952). Ekitaldi horrek arrakasta izugarria izan zuen, hiriko zein probintziako ondarearen aberastasuna agerian uzten baitzuen. Bisitariak ez ezik, instituzio nagusiek ere babestu zuten ekintza hau – Gipuzkoako Aldundiak, Donostiako Udalak eta Gasteizko Apezpikutzak (Arrieta, 2009) – . Inaugurazio egunean Erret Familia ere bertan izan zen, horrek berebiziko bultzada eman ziolarik erakusketaren garrantziari¹⁰:

“inauguró la Familia Real en esta Ciudad, en 12 de Agosto de 1899 la Exposición Histórico-Arqueológica, organizada por la Sociedad Económica Vascongada de los Amigos del País, abogó S. M. la Reina Regente para que se crease un Museo en San Sebastián”¹¹

Antolatzaileek ere helburu bezala hartua zuten museo posible baten irekiera:

“si el éxito correspondía á (sic) las esperanzas, dicha Exposición podría servir de base a la fundación de un Museo Municipal, histórico, artístico y arqueológico, siguiéndose así el ejemplo de varias grandes poblaciones del Extranjero, cuyos hoy hermosos y florecientes Museos, hán tenido todos el mismo origen indicado.”¹²

¹⁰ (1899). Exposición histórica y de Artes Retrospectivas. *Euskal-Erria: revista bascongada*. San Sebastián, 41, 2 sem 1899, 142-147. KMLAD. Sig: (KM)178876.

¹¹ 1902ko urriaren 5eko saioa. STMAD. A.L. 1. 2 or.

¹² 1902ko urriaren 5eko saioa. STMAD. A.L. 1. 2 or.



Egoera honen aurrean, Donostian Udal Museo bat sortzeko lehen pausoak ematen hasi ziren. Lehenbizi museoaren sorrerarako Komisio bat antolatu zuten; gerora, 1900ko urtarrilean, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte Ekonomikoaren Patronatua Orokorrean museoaren sorrera onartua izan zen eta 1900eko irailean dagoeneko Museoeko Patronatua osatu zen Udalaren onespeneraren ondoren (Fornells, 2003). Oro har, Gipuzkoako Aldundiak museoaren sorkuntzaren babesa adostu zuen 1901eko maiatzean (Arrieta, 2012b).

Nazioko edo Europako beste museo batzuk ez bezala, Donostiako Udal Museoak ez zuen berezko bilduma propio bat, erret edo aristokrazia jatorrikoa. Hori horrela izanik, Patronatuak herritarren kolaborazioa eskatu zuen: zirkular bat idatzi eta zabaltu zen hirian, objektuak dohaintzan eman edo deposituan uzteko deialdia eginez eta museoaren bilduma osatzeko helburuaz. Aldi berean instituzio ezberdinei laguntza eskatzen ere hasi ziren: Gipuzkoako Aldundiak baiezkua eman zuen, hala nola Espainiako Gobernuak. Lehen urteak lokal txiki horretan igaro zituzten, behingoz Udalak erakustokia instalatzeko espazio bat eskaini zien arte.

Lehen egoitza (1902-1911)

1902ko urriaren 5an ofizialki inauguratu zen “Donostiako Museo Historiko, Artistiko eta Arkeologikoa”, Alfonso XIII.a erregearen presentziaz. Museoa Arte eta Lanbide Eskolako eraikinean kokatu zen lehen urteetan, Andia eta Garibai kaleen artean, beste funtzio batzuk betetzen zituen espazio partekatuan.

Hasierako urteetan Patronatuak gogor jarraitu zuen bildumaren osaketa eta katalogazioarekin, aldi berean instalakuntzei egokitutako erakusketa antolatzen ari zelarik, izan ere jasotako piezak izaera oso ezberdinekoak ziren eta bilduma heterogeneoa osatzen zuten. Lehen unetik museoak bisitari ugari jaso zituen, hiri turistikoaren garai zoriontsuenak bizitzen ari ziren bitartean; goi klaseen aisialdirako beste espazio berri bat suposatu zuen. Egunero irekitzen zen, goiz eta arratsalde, eta sarrera doakoa zen (Fornells, 2003).

Udal Museoa beste museo proposamenetarako erreferentzia bihurtzen hasia zen, eta arrakasta honek bere zilegitasuna azpimarratu besterik ez zuen egiten. Bilbo, Iruña edo bestelako hirietan honelako ekimenak abian jartzeko eredu bilakatu zen museoa, babes ekonomiko eskasarekin arrakasta handia lortu izanagatik.

Bigarren egoitza (1911-1932)

Arte eta Lanbide Eskolako lokaletan museoa ireki zen unetik argi zegoen instalakuntza haiek oso espazio gutxi eskaintzen zutela, bai bildumaren hazkundearen erritmoa jarraitzeko – bildumako piezentzako biltegiaren beharra, pertsonalaren barne lanetarako espazioak, erakusketaren zabalkuntza –, hala nola bisitarien harrerarako. Patronatuak lehen urteetatik Udalari honen berri eman zion; hala, Gipuzkoako Aldundiaren laguntzaz, 1905. urtean egoitza berri bat altxatzeari ekin ziolarik Urdaneta kalean, arazo horien irtenbide moduan. Eraikin berrian kokatuko ziren Arte eta Lanbideen Eskola berria, Udal Liburutegia eta Museoa bera.

Bigarren egoitzan egondako epean bildumaren berrantolaketa eman zituen Patronatuak ordu gehienak. Udal Museoak etnografia ataleko bilduma handitu zuen era erabakiorrean azken urteetan; pieza ugari bildu eta bultzada berezia eman zitzaion zientziaren arlo honi, garaian burutzen ari ziren indusketa arkeologikoekin batera garatu zelarik. Egoera honetan Udal Museoan etnografiaren nagusitasuna azpimarratzeko neurriak hartzea defendatu zituzten batzuk, Aranzadiren influentziaz batez ere, zeina euskal folklorearen indartze baten alde agertu zen hasieratik. Honela, Gipuzkoako lurralde historikora mugatutako bilduma zabaltu eta Euskal Herriari buruzko museo bat izateko norabidea hartzen hasi zen (Arrieta, 2012b). Gipuzkoako Aldundiak, museoaren izaera lokalista batetik lurralde osoaren interesari erantzuteko bidera salto egin zuela ikusirik, diru-laguntzak handitu zituen. Gainera, museoko sail berria eratu zen, Museo Etnográfico Vasco hartu zuena, garaiko etnografo esanguratsuenek babestu zutena (Fornells, 2003).

Bitartean, hiriaren garrantzi turistiko eta kulturalaren hazkundea areagotzen hasia zen. Bigarren egoitzaren inaugurazioaren ondoren, Donostian sinbolo bihurtu ziren beste bost azpiegitura nagusi ireki ziren: Maria Cristina hotela, Victoria Eugenia antzokia, La Perla, Igeldo parkea eta lurrazpiko trena edo *topoa*. Museoa ere, noski,



turismoaren sustapenerako elementu oinarritzkoa bihurtu zen, honela azpimarratu zuelarik garaiko alkateak, Marino Tabuyok, bere agintaldia amaitzean:

“Añadió que confiaba que los futuros Ayuntamientos, comprendiendo el interés grande que para el Fomento del Turismo y de la cultura-artística popular, tienen los Museos en todas partes, habían de seguir ayudando poderosamente. [...] abogando por el fomento intelectual del Turismo en San Sebastián, indica la conveniencia de proteger eficazmente al Museo etc.”¹³

Bilduma handituz eta bisitariak geroz eta ugariagoak izanik, laster sumatu zen Urdaneta kaleko eraikinean berriz ere espazio falta zutela; Patronatuak erreklamazio jarraituak egin zizkion Udalari egoitza berri bat egokitzeko.

“...la falta de sitio y del gran entorpecimiento que esto causa al importante y progresivo florecimiento de la Sección Etnográfica Vasca, que tan gran desarrollo ha adquirido. [...] vistas dichas grandes dificultades en aumento, con que se lucha por falta de espacio, [...] siendo debida esta violenta situación en plena y próspera marcha y florecimiento, principalmente al rápido e importante desarrollo adquirido por el Museo Etnográfico Vasco en formación...”¹⁴

Hirugarren egoitza (1932tik aurrera)

Patronatuaren erreklamazioak entzunda, Donostiako Udala zenbait urtetan aritu zen museorako egoitza berri baten bila. Azkenean pasealeku berriaren aldamenean eta Urgull mendiaren magalean kokatzen zen dominikarren komentu bat aukeratu zen espazio egokien bezala; aurrez militarren kuartela izandakoak urteak zeramatzan abandonatuta. 1929an eraikinaren berreraikuntza lanak hasi ziren, Udal Museoaz gain Liburutegia ere bertan kokatuko zelarik. Lanak Urcola eta Juan Alday arkitektoen esku egon ziren, Ignacio Zuloagaren laguntza eta kolaborazioa izan zutelarik, batez ere aretoetako instalakuntzen antolakuntzarako.

1932eko irailean inauguratu zen egoitza berria, instalakuntza egokiago batzuek hornitutako eraikina izanik, fatxada berri batekin eta komentuko elizan Jose María Sert artistaren 17 mihisez ipinita. Halere, eraikuntza berriak ez zituen museoaren arazo guztiak konpondu eta Patronatuko Aktetan etengabeko kexua agertu zuten jarduerak antolatzeko aukera ezintasunaren aurrean; oinarritzko diru-laguntzarik jasotzen ez zutelako edo jasotakoa eskasegia zelako museoaren mantenurako.

Argi dago hasieratik San Telmo museoak administrazioaren uztea pairatu zuela:

“...manifiesta que es inconcebible que un Museo instalado como el actual no tenga ingresos; que de haberse contado con ayudas económicas se hubieran podido organizar Exposiciones que sirvieran de atractivo. Encarece la necesidad de ocuparse con todo interés por el Museo, y termina manifestando que el Museo para tener vida ha de entrar en fase distinta pues con el Reglamento actual jamás podrá desarrollarse”¹⁵

Gipuzkoan bizitzen ari zen egoera politikoak berak ez zituen erraztasun asko eskaintzen kultura arloko jarduerak garatu ahal izateko, eta beraz, lanean hala nola aritu ziren lehen urte hauetan Patronatuko kideak zein museoak langileak, aurrekontu eskasa izanik ere aurreraikuntza nabariak eginez. Dirudienez egoitza berriko instalakuntzen arazoekin, instituzioen aldeko uzteaz eta funtzionamendu egoki baterako zailtasunekin igaro zirela museo berriaren lehen urteak, 1936an Guda Zibila hasi zen arte.

¹³ 1913ko abenduaren 29ko saioa. STMAD. A.L. 3. 61-61v orr.

¹⁴ 1916ko urriaren 17ko saioa. STMAD. A.L. 4. 33-33v orr.

¹⁵ 1934ko azaroaren 26ko saioa. STMAD. A.L. 6. 1v or.

2. Victor Hugo Etxea

1843an Victor Hugo Pasaia iritsi eta herriko etxe batean hartu zuen ostatu. Bertako badiak inspiraturik idatzi zituen idazlan batzuk eta baita grabatuak egin ere¹⁶. Zenbait urte beranduago, 1902an, Gipuzkoan erbesteratutako Paul Déroulède eta Marcel Habert frantsesek Pasaia bidaia egin eta Victor Hugo bizi izan zen etxea hori aurkitu zuten¹⁷. Eraikinaren garrantzi historikoaz jabeturik, hura berreskuratu eta museo bat ipintzeko nahia agertu zuten, horretarako Pasaia Udalarekin harremanetan jarri zirelarik. Etxearen irekierarako zenbait objektu eta dokumentu ekarri ziren Pasaia, Victor Hugoren logela bera bizi izan zen garaian bezala egokitu eta publikoari erakutsi ahal izateko:

“durante su estancia en esta provincia, el ilustre hombre publico, D. Pablo Deroudele [...] queriendo honrar la memoria del brillante escritor y excelente poeta Victor Hugo [...] reunió algunos objetos artísticos y otros que por haber sido usados por el inolvidable poeta, tienen gran valor histórico y con ellos formo un Museo en Pasajes de San Juan, en la misma cas que habito el autor de tantas bellas páginas”¹⁸

1902ko abuztuaren 14an, Victor Hugoren heriotzaren ehungarren urteurrena ospatzeko jaia antolatu zen Pasaian, frantziar erbesteratuen eta Udalaren arteko lankidetzarekin, “que se celebraría una fiesta popular que coincidiría con la colocación oficial de unas lápidas”¹⁹. Horrekin batera, museoan bildu ziren objektu guztien inbentario bat osatu eta gorde zuen Pasaia Udalak²⁰ museoaren irekiera egin zelarik.

Ondorengo urteetan Udalak museoa zegoen pisuaren alokairua ordainduko zuen eta bisitatu nahi zuen orok aukera izan zuen etxera ikusteko. Zenbait urtetan horrela funtzionatu bazuen ere, hainbat dokumentuk agertzen digute 1910. urtetik aurrera alokairuaren ordainketaren inguruan²¹ arazoak sortu zirela: “El conflicto procede de la retirada de las subvenciones oficiales y particulares y falta de pago del alquiler a la propietaria de la casa”²².

Badirudi honi aurre egiteko Déroulèderen arrebak eta Pariseko Victor Hugo Elkarteak bere gain hartu zutela pisuaren alokairua zenbait urtez. Baina, lehen Mundu Gerraren iristearekin, Elkarteak ordainketaren etena iragarri eta museoko piezak beste toki batera lekualdatzeko eskatuz idatzi zion Pasaia Udalari 1915. urtean²³, objektu guztiak Udalarena zen lokal eramatea erabaki zirelarik: “Ha quedado solucionado el caso, trasladando el citado Museo, desde la habitación que ocupó Victor Hugo, en 1843 a la Casa Consistorial de Pasajes y así no se llevaran a París los objetos coleccionados”²⁴. Museoa itxi eta bilduma eraikin ofizialetik atera zen, hainbat urtetan bildumak bere horretan iraun zuelarik.

3. Armagintza museoa

XX. mende hasieran ordura arte existitzen ez ziren hezkuntza mota berriei garrantzia ematen hasi zitaion. Horien artean langile mugimenduak, sindikalismoa eta industrializazioaren garapenarekin batera sortutako langileentzako

¹⁶ Victor Hugo Etxea. In <http://www.oarsoaldea-turismo.net/eu/ezagutu-oarsoaldea/gure-museoak/victor-hugo-etxea.html> (2014ko abenduaren 11an ikusia)

¹⁷ Kamio, A. (2009, martxoak 15). Victor hugo Y pasaia: Viaje a las raíces de una unión que aún prevalece. GARA. In <http://gara.naiz.eus/paperezkoa/20090315/127235/es/Victor-hugo-Y-pasaia-Viaje-raices-una-union-que-aun-prevalece>. (2014ko abenduaren 14an ikusia).

¹⁸ Donostiako Frantziako Kontsul Nagusiaren eskutitza Pasaia Udalari 1915eko ekainaren 19an. PUA. Sig: 622-22.

¹⁹ “Documento del descubrimiento de la casa de Victor Hugo en Pasajes”. PUA. Sig: 662-22.

²⁰ “Inventario del Museo de Victor Hugo de Pasajes” Firmado por el Alcalde Fernando Irigoyen. PUA. Sig: 662-22.

²¹ “Carta de Josefa Otero al Ayuntamiento de Pasajes sobre el alquiler de la Casa Victor Hugo”. Noviembre de 1910. PUA. Sig: 622-22.

²² 1915ko uztailaren 2ko saioa. STMAD. A.L. 3. 134v or.

²³ Donostiako Frantziako Kontsul Nagusiaren eskutitza Pasaia Udalari 1915eko ekainaren 19an. PUA. Sig: 622-22.

²⁴ 1915ko azaroaren 2ko saioa. STMAD. A.L. 3. 151-151v orr.



Eskola-tailerrak ugaritzen hasi ziren (Bolaños, 2008). Gipuzkoari dagokionez Eibarren armagintzaren industria indartsuari loturik ireki zen Armagintza Eskola 1914.urtean.

Eskolaren osagarri bezala, Armagintza Museoa²⁵ inauguratu zen ere, lurraldeko lehen museo-eskola izan zena. Museoaren irekiera aurretik eibartar kargu ezberdinek hainbat herrialdetara bidaiatu zuten eskola-museo modeloak ezagutu eta proiektu berrian oinarritzat hartzeko ideiak jasotzeko. Donostiako Udal Museoa gertatutakoaren antzera, museoko bilduma jatorri ezberdineko piezaz osatu zen, hainbat pertsonen dohaintzari esker: herriko tailerretako fabrikatzaileek, partikularrek eta Gerra Ministerioak emandako objektuez osatua: “La nueva Escuela de Armería posee un interesante Museo. Este Museo, que servirá de recreo y saludable enseñanza, ha sido donado gratuitamente por un crecido número de particulares amantes de Eibar y de su Escuela de Armería” (Escuela de Armería de Eibar, 1914: 91).

Industriarekin lotutako museoak sortzearen ideia produkzioarekin estuki lotuta zegoen: ikasleek erreferente errealak zituzten eta ikasteko modeloak zuzenean ikusteko aukera. Horrela jakinduria praktikoa eta intelektuala uztartzear abian jartzen zen, eskulanaz gain gizabanakoaren bestelako garapena bermatzen baitzuten; beraz, museoaren sorrerak eta funtzionamenduak estuki zuen lotura armagintza eskolako ikasleen lanarekin, hauentzako eredu izateko jaio baitzen: “armagin gazteek ofizioaren oinarri teorikoak eta praktikak eskuratuko zituzten; teknologia berrien inguruko ezaguera jasoko zuten”²⁶.

4. Zuloaga tailer-etxea

XX.mende hasieran artista eta pertsonaia ospetsuen etxeak, tailerrak zein honen bizitzari loturiko edozein espazio musealizatzeko joera eman zen (Bolaños, 2008). Zumaian, Ignacio Zuloagak familiarena zen Santiago Etxean zuen bizitokia: etxea, tailerra eta ermita txiki batez osatzen zen eraikin multzoa. Espazio horretan tailer-etxe bezala inauguratu zuen bere museoa 1921.urtean, lagunak eta garaikideak ziren artisten obrak eta lan propioak biltzen zituen bilduma erakutsiz “(con) cuadros del Greco, Ribera, Vicente López, Carnicero, y esculturas de Rodin, que es valiosísima manifestación de arte retrospectivo” (Rico de Estasen, 1932:95).

Zuloaga museoa estuki lotuta zegoen San Telmo zein Armagintza museoari. Lehenengoari, bertan kolaborazio lan ugariak egin zituelako Ignacio de Zuloagak, instalakuntza eta museografiari dagokionez, Patronatua lagunduz, aholkuak emanaz, etab. San Telmo Museoko akta liburutetan zenbait aipamen egiten dira Zuloagaren museo propioaren irekierari buruz²⁷. Bigarrenari, jaiotzez eibartarra zelako eta aitak²⁸ herrian bertan fabrika bat zuelako. Aita bildumazale amorratua ere bazen, eta urte luzeetan bildu zituen tresna eta tramankulu ugari. Ignaciok herentziaz jaso zuen aitaren bilduma aberats hori eta beste artisten lanen zein obra propioaz osatzen joan zen, museoan erakusgai ipini zuena gerora.

5. Itsas Jauregia- Aquariuma

XX. mendeko lehen hamarkadan itsasoko zientziekiko interesa pizten hasia zen gipuzkoar batzuen artean. Batez ere bi gertaerek bultzatu zuten ozeanografiarekiko jarrera berriaren sorrera hau: Alde batetik, Alberto I Monakoko printzeak kantauriar itsasoa nabigatzen zuen garai haietan, laborategi-barku batean kanpaina ozeanografiak burutuz. Bestetik, Alfontso XIII.a Nazioarteko Itsas Erakusketa bisitatu zuen 1907an Burdeos, eta bertan ikusitakoak interes handia zuela adierazi zuen, Espainian ere ozeanografiaren inguruko ikerketak burutuko zituen

²⁵ Eibarko Udal. Armagintza Museoa. Historia. In <http://www.armia-eibar.eus/eu/museoa/museo> (2014ko urtarrilaren 12an ikusia).

²⁶ Ibid.

²⁷ 1927ko apirilaren 22ko saioa. STMAD. A.L. 6. 120 or.

²⁸ Plácido de Zuloaga, Ignacio de Zuloagaren aita, damaskinatugintzara dedikatzen zen eta eskultorea ere bazen, armak zein bestelako objektuak edertzeko teknikan aditua eta horretan nabarmendutakoa.



talderik ez izatea (Sada, 2008). Gauzak honela, eta Donostian itsasoarekiko harremana estua izanik, ozeanografiaren inguruan ikerketa lanak egiten hasiak ziren zenbait pertsonen indarrak batu eta 1908ko irailean Gipuzkoako Ozeanografia Elkarte sortu zen – SOG (Sociedad Oceanográfica de Guipúzcoa) – (Laburu, 1986). GOE ordutik aurrera hasi zen lanean, jarduera ezberdinak burutuz. Museoaren sorrerarako ekintzarik aipagarriena dugu 1913an inauguratu zen *Exposición Histórico Naval Oceanográfica Vascongada*, Herriaren Adiskideen Elkarte Ekonomikoak eta Gipuzkoako Aldundiaren laguntzaz antolatutakoa. Erakusketa honek berebiziko arrakasta izan zuen biztanleriaren artean eta oso bisitatu izan zen; horren ondorioz espazio batean erakusketa iraunkor bat egokitu behar zelaren ideia zabaltu zen Elkarteko kideen artean.

Museoaren aurrekaria (1915-1928): Aldamar Zineak

Sortutako material aberatsa zela eta, Miramar zinema zaharreko eraikinean Museo Ozeanografikoa inauguratu zen 1915an, gerora Itsas Jauregian kokatuko zen museo eta akuarioaren aurrekari kontsideratu daitekeena. Honekin batera, 1917.urtean Akuario txiki bat inauguratu zela Aldamar kaleko eraikinaren beheko zonaldean, honek ere jende andana erakarri zuen (Sada, 2008).

Museoak hasieratik bisitari ugari jaso zituen, baina oraindik ere oztopo ugari aurkitzen zituen Elkartek bere nahiak aurrera eramateko, batez ere espazio falta eta aurrekontu baxuari loturik. Hala ere, urte horietan goi mailako ikerketak burutzeari gogor ekin zioten eta zientzia komunitatean leku esanguratsu bat lortu zuten.

Museoaren aurrekaria zen honek – eta baita gerora Itsas Jauregiak - aurreko mendeko Zientzia Akademi edota Kabineteetako izaerarekin parekotasunak eskaintzen zituen, egungo museo terminologiatik aldenduz: ikasketarako eta ikerketarako espazioak ziren, laborategi eta liburutegia bezalako zerbitzuak eskaintzen zituenak eta orokorrean gizon ilustratu eta kultuei bideratutako erakusketak osatuz. Gainera, garaiko komunikabideek arreta berezia jartzen zuten Elkartek buruturiko jarduera ezberdinei, eta orduko prentsan ugariak ziren hauei buruzko artikulak, horrek ere biztanleriaren interesa piztu eta geroz eta publiko dibertsifikatuagoa erakarrit.

1 irud: Untzi Museoa²⁹ 1925an
(C BY-NC-ND-3.0-ES 2013 /
KUTXATEKA/ FOTO CAR funtsa/
Ricardo Marin)



Egoitza ofiziala (1928tik aurrera): Itsas Jauregia- Palacio del Mar

Museo berri bat eraikitzeko proiektu ezberdinak sortu ziren urtetan zehar, kokaleku egokiena eta antolakuntza aproposena bilatu nahian. Aldamar kaleko eraikinaren gainean solairu berri bat eraikitzea izan zen proposatutako ideietako bat; bestea Urgull mendiaren magalean eraikin berria altxatzekoan. Azken honen aukeraketaren ondoren 1925.urtean onartu zen portuko muturrean Itsas Jauregia deituko zen eraikina altxatzeko proiektua, eta obrei ekin zitzaion hiru urtetan amaitutzat eman zirelarik.

²⁹ Untzi museoa Itsas-Jauregiaren aurrekaria da, ez egungo Untzi Museoa (GFA).

1928ko urriaren 1ean ofizialki inauguratu zen Donostiko Aquariuma, Alfontso XIII.a erregea eta bere emaztearen presentziarekin. Oraingoan ere, prentsan museo berriari buruzko aipamenak ugariak izan ziren, eta bisitari kopurua ere altua izan zen ondorengo hilabeteetan: “Durante los días sucesivos tanto los periódicos locales como los de Madrid, principalmente, se volcaron con reportajes y artículos laudatorios [...] El desfile de visitantes era continuo” (Laburu, 1986: 199).

Itsas Jauregia deituriko eraikinean bertan gune ezberdinak banatu ziren: Alde batetik, Akuarioa zegoen, espezie bizi ezberdinak gordetzen zituzten pizsinekin. Bestetik, Untzi eta Historia Museoa zegoen, lehenbiziko egoitzan sortutako museoaren piezak berreskuratuz. Eta azkenik Museo Ozeanografikoa. Eraikin berria inauguraturik, lanean hasi ziren Elkarteko kide ezberdinak, museoaren oparotasuna eta funtzionamendu egokiak etengabeko gorabeherak bizi izan zituelarik ondorengo urtetan.



III. GIPUZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA

Gipuzkoako museoen funtzioen artean – garaiko europar museo gehienetan gertatzen zen bezala – hezkuntzak lekua izatetik oso urrun aurkitzen ziren oraindik XX.mende hasieran. Institutuzio hauek bilduma baten kontserbaziorako gune ziren nagusiki, katalogazio eta zaharberritze lanetako jardueretara bideraturik, difusiorako argitalpen eta ekintza solte batzuez osatzen zutelarik lana. Izan ere, “la constitución de los museos públicos no garantizó su apertura y democratización real. Realmente, el destino del museo, en tanto que espacio para el almacenamiento de una cultura fosilizada y para la contemplación silenciosa, pasiva y reverente [...] perduró a lo largo del siglo XX” (Pastor Homs, 200: 29) Bigarren Mundu Gerrak eta horrek ekarritako aldaketak iritsi arte.

Beraz, erakusketa aretoak publikora irekitzeaz gain³⁰, eskasak ziren herritarrei eskaintzen zitzaizkien aukerak museoeko bildumak hobeto ulertzeko. Alabaina, ezin daiteke ahaztu museo modernoak oraindik instituzio “gazteak” zirela eta gizartean betetzen zuten funtzioaren inguruko eztabaidak eta norabideak oso desberdinak izan zirela munduko gune ezberdinetan – Estatu Batuetako eta Europako tendentziak desberdinduz –. Museologia bera, zientzia bezala, hainbat hamarkada beranduago jaio eta egonkortuko zen, eta Espainiara teoria eta ideia berriak oso berandu heldu ziren (Díaz Balerdi, 2006).

Hala ere, XIX.mendearen amaieran Espainian ezarritako hezkuntza legeek museoen hezkuntza funtzioari buruzko zertzelada batzuk agertu zituzten – oraindik ere minimoak – eta espazio hauek irakaskuntzarako tresna bezala erabiltzearen garrantziari buruzko zenbait aipamen egiten ziren, hala nola museoaren zerbitzu publikoaren izaeraren azpimarratzea. Horien artean, 1901eko Errege Dekretuan agertutako museoetako jardueri buruzko lehen aipamenak³¹, zein eskolako haurren bisitaldien inguruko erregularizazioaren beharra³². Baina prozesu guztia oso motela izan zen, eta oraindik ere aditu taldeei bideraturiko ekintzak izan ziren nagusi (Hernández Hernández, 1992).

Jarduera motak

Gipuzkoako lehen museoek ez zuten jarduera programazio bat izan; pentsa daiteke beharren – edo finantzazioaren – arabera antolatu eta eskaintzen zirela ekintza ezberdinak museotik. Garai honetan irekitako museoen artean programazio jarraitu eta erdi egonkor bat izan zuten bakarrak San Telmo Museoa eta Itsas Jauregia- Aquariuma izan ziren. Biak hiriko kultur eta aisialdi zirkuituan barneratu ziren hasieratik: San Telmoren kasuan beste kultur ekitaldietako egoitza nagusietako bat bilakatu zen, museoaren proposamenak beste instituzio eta elkarteekin nahasten zirelarik; Itsas Jauregia aldiz Donostiako beste kultur gune batzuez baliatu zen jarduera ezberdinak aurrera eramateko.

³⁰ Gipuzkoako museoek politika ezberdinak jarraitu zituzten publikoaren irekierari dagokionez, San Telmo eta Itsas Jauregiak soilik izan zutelarik dinamika jarraitu bat arlo horretan – ordutegi finkoen ezartzea, tarifak, langileen kontratazioa, eta abar –.

³¹ “Art 3: *organizarán series o cursos de conferencias prácticas que sirvan para difundir los conocimientos generales entre la masa común del público*”. 1901ko azaroaren 21eko Errege-Dekretua, Estatuko Artxiboen Arautegia onartzen duena. Gaceta de Madrid, 1901ko azaroaren 26a)

³² “Art 5: *Los profesores y profesoras de instrucción primaria de las poblaciones donde existan museos, deberán visitar éstos con sus alumnos dos veces por lo menos durante cada curso.* / Art6: *Los profesores de segunda enseñanza de las asignaturas que pueden tener aplicación práctica en los museos, acudirán a ellos con sus alumnos tan frecuentemente como estimen oportuno*”. 1901ko azaroaren 21eko Errege-Dekretua.



1. Bisita gidatuak

Garaiko museoek, publikoari ateak irekitzeaz gain, zenbait jarduera eskaintzen hasi ziren bisitariak erakarri eta herritarren kultura maila igotzeko helburuaz. Horietako bat bisita gidatuarena izan zen: museoan – edo kanpoko – pertsona batek bisitari talde bati erakustaretoetan zeuden piezak erakustean zetzan, datuak eta azalpenak transmitituz. Pentsa daiteke bisita gidatu hauek oso kasu berezietan eta eskaerapean egiten zirela; orokorrean bisitatiek euren aldetik museoak ikusten zutela alegia.

San Telmo Museoan akta liburuetan bisitari zerrenda luzeak jasotzen badira ere, oso gutxitan aipatzen da publikoari bisita gidatuak egin izana. Dirudenez zenbaitetan, taldearen izaera edo bisitarien garrantzia zela eta, aurrez eskatutako bisita gidatu bat egiten zitzaizkien museoetara. Itsas Jauregiaren kasuan pentsa daiteke dinamika berdina jarraitzen zela, eta orokorrean bisitari orok erakusketa era autonomoan ikusten zuela, gida baten laguntza gabe. Honekin batera, badirudi Victor Hugo Etxea turistek irekitzen zitzaizela, baina inongo bisita gidaturik egiten zitzaizkien frogarik ez da topatu.

Beste museo pribatuetan gertatu ohi zen bezala, Zuloaga tailer etxea publiko oso murriztuari irekiko zitzaion: “se abren a amigos, ilustrados, curiosos o interesados anónimos, en una suerte de socialización patrimonial que busca hacer partícipes a los demás de los tesoros acumulados con tesón” (Díaz Balerdi, 2010a: 24), beti ere instituzio museistiko ofizialak eskatzen zuen zurruntasun eta profesionaltasunetik aldendutako ekintza bat izanik.


2. Hitzaldiak

Museoetako ikerketa lanak zabaltzeko zein bildumari lotutako edozein gairen inguruko hedatze lanetarako hitzaldiak izan ziren ekintza burutuena garai honetan, eta jende asko erakartzen zuten gainera.

Ozeanografia Museoan lehenbizi eta gerora Itsas Jauregia izan zenak hitzaldi saio ugari antolatu zituen; gogoratu behar dugu ozeanografiaren gaia modan zegoela XX.mende hasieran, batez ere Erret Familien eskutik eta atzerititik Kantauriar Itsasora ikerketak burutzera etortzen ziren taldeei esker eta komunikabideek argitaratzen zituzten albiste ugariei esker. GOEk hasieratik hainbat hitzaldi programatu zituen. Aipatzen den lehenengoetarikoa dugu 1911ko hitzaldia, J. Woolonghamen eskutik emandakoa (Sada, 2008); baita hurrengo urtean antolatuakoa ere, non aipatzen zen: “el doctor Odón del Buen dará dos conferencias con proyecciones probablemente, los días 14 y 15 de Septiembre próximo, siendo el tema «La Oceanografía moderna y los trabajos científicos del Príncipe de Mónaco»”³³.

San Telmo Museoan hitzaldi gutxiren aipamenak egiten dira. Gerra Zibila baino urtebete lehenagoko dokumentazioan soilik aurkitu daiteke 1935an “Euskal-Antzertiruntz” hitzaldia antolatu zela, Antonio Labayenen eskutik (Beola, 1999).

*2 irud: Antonio Labayenen hitzaldia San Telmo
Museoan (CC BY-NC-ND-3.0-ES
2013/ KUTXATEKA/ FOTO CAR funtsa/*



3. Ekitaldiak eta ospakizunak

³³ (1912, abuztuak 27). La exposición «ECHENA». La Voz de Guipúzcoa. In http://liburutegidigitala.donostiakultura.com/Liburutegiak/catalogo_archivo_ficha.php?dp_id=145&y=1912&m=8&fecha=1912-8-27&dpf_id=1736879 (2015ko maiatzaren 14an ikusia)

Donostian kokatzen ziren bi museoak hiriko jarduera sozio-kultural askotan partehartzaile izan ziren. Horrela, mota ezberdineko izaera zuten hiriko ospakizun eta ekitaldiei lotutako jarduerak antolatu zituzten, hala nola museoarekin erlazionatutako ekitaldiak. Honelakoetan programazio interesgarria osatzen zen, jarduera mota ezberdinez osatuta eta egun zein asteetan luzatzen zena.

San Telmo Museoan, 1932.urtean bigarren egoitzaren inaugurazio ekitaldi ezberdinak antolatu ziren: erakusketa bat, Juan Allende Salazarren hitzaldia eta musika emanaldiak – Donostiako Orfeoia, Falla eta beste konpositore batzuenak – eskainiz:

“quedan señalados el de apertura y clausura como actos principales para la inauguración del nuevo edificio de San Telmo, abarcando ocho días, e intercalados entre ambos otros actos, tales como audiciones musicales [...] así como también conferencias sobre temas de cultura e historia artística [...]. constituirán espléndidos números suficientes por sí solos de llenar un interesante programa.”³⁴

Museo Ozeanografikoak 1921.urtean lehen aldiz antolatu zuten Donostiako Zientzia Astea, zeinak “trataba de influir en el ambiente de la ciudad, demostrando que los fines de la Sociedad Oceanográfica donostiarra, y sus exigencias, hijas de su madurez, requerían un mayor desenvolvimiento, fuera de los estrechos límites de sus locales, que le impedían en su desarrollo natural” (Laburu, 1986: 164). Jardunaldi honek benetako garrantzia izan zuen eta GOEk Madril, Cadiz zein Zaragozako hizlariak ekarri zituen ekitaldiaren ospea areagotu nahian.

Bisitariak/ publikoa

XIX.mendeko museoetako bisitarien gehiengoa goi klaseetako taldeetara murrizten bazen ere, mende berriarekin batera bisitari mota zabalduta eta biztanleriaren sektore ezberdinetara iristearen gertaera eman zen. Bisitari zifren inguruko lehia egungo gaia dela badirudi ere, XX.mende hasierako museoetan ere publiko kopuruaren garrantzia azpimarratzen zen, askotan jardueren edota museo beraren arrakasta zenbakietan oinarritzen zelarik.

San Telmo Museoko akta liburuetan bisitari zerrenda luzeak agertzen dira, baita hileroko kopuruak ere. Itsas Jauregiaren kasuan beranduago jasotzen hasi baziren ere, laster agertuko zuten Akta liburuetan bisitarien zifren jarraipen bat.

San Telmoko bisitariei dagokienez interesgarria da arrakastaren oinarria bisitari kopuruan ezartzen hasiak zirela oso goiz:

“Comunica el Señor alcalde que la Corporación Municipal, se há enterado con agrado del movimiento de visitantes [...] y al propio tiempo felicita la Alcaldía, «por el progresivo aumento que se nota en las personas que acúden á dicho centro, prueba evidente de la importancia que vá adquiriendo de día en día y de las aficiones artísticas de nuestra Ciudad»”³⁵

Gainera, San Telmo museoko dokumentuetan irekiera urtetik jada bisitari kopuruen zenbaketa ematen da, eta ospetsuak edo garrantzitsuak diren pertsonaien izenak ere zerrendatzen zituzten³⁶, horrek instituzioari bestelakoa zen arrakasta eta izena ematen baitzion. Publikoaren jarrera eta museoaren funtzionamenduaren beharrei erantzunez “Bisitarientzako Arautegia”³⁷ idazteko beharra ikusi zen, non irekiera ordutegia eta bisitarientzako sarrera doakoa zela aipatzen zen, besteak beste.

³⁴ 1932ko maiatzaren 6ko saioa. STMAD. A.L. 5. 164-164v orr.

³⁵ 1908ko urriaren 9ko saioa. STMAD. A.L. 2. 91 or.

³⁶ Urteek aurrera egin ahala dokumentazio lan zehatz hau uzten joan zen.

³⁷ 1903ko otsailaren 13ko saioa. STMAD. A.L. 1. 126 or.



1. Turistak

Garai honetan irekitako museoak kostaldean aurkitzen ziren – Armagintza Museoa salbu – eta horrek lotura estua zuen mende hasieran Gipuzkoako kostaldeak eta batez ere Donostiak bizi zuen oparotasunarekin. Udaldiak bertan igarotzen zituen Erret Familiarekin batera eta etorritako burges eta aristokrata taldeekin, turista kopurua asko handitu zen eta hauei aisialdiko denbora betetzeko jarduerak eskaini beharrak eragin zuen azpiegitura zein ekintza aukera zabal baten osaketa donostiar instituzio ezberdinen eskutik. Horien artean, atzerriko jendea erakartzeko tresnetako bat museoak izan ziren. Museoetako bisitarien portzentaje handi bat turistek betetzen zutela ongi ezagutzen zuten garaiko agintariek: “El Señor Alcalde, por motivos de patriotismo y de ilustración, y considerando que los Museos, son uno de los medios más eficaces del fomento del turismo, tiene decidido empeño y lo vá logrando en conseguir, que el de San Sebastián continúe como hasta ahora, adquiriendo cada día mayor incremento”³⁸. San Telmo Museoko aktetan etengabe errepikatzen denez, “Este progresivo movimiento de visitantes, [...] procede en gran parte, de turistas extranjeros (sic) ó nacionales, venidos sueltos ó en caravanas, [...] muestra inequívoca, de que los Museos, cual suele afirmarse, son uno de los medios de acción más eficaces del Turismo”³⁹.

Baina 1914tik aurrera, nazioarte mailan ematen ari zen egoera politikoak nabarmenki eragin zuen Gipuzkoan, eta noski, museoetako bisitarien tipologia ere aldatuz joan zen. Lehen Mundu Gerra hasia zen eta Espainiak neutral aldarrikatu zuen bere burua; atzerritar eta erbesteratu asko mugatik honantz lekualdatu baziren ere, beste herrialdeetatik zetozen turista taldeen jaitsiera ere ekarri zuen⁴⁰: “Descenso natural de visitantes con motivo de la guerra europea. No hay mas caravanas turísticas. [...] se nota el movimiento natural decrecientes de visitantes extranjeros y forasteros”⁴¹ eta “Como ya anteriormente, se viene notando con motivo de la Guerra Europea, la ausencia de las Caravanas de Turistas nacionales y extranjeros que antes tanto visitaban San Sebastián y este Museo”⁴². Alabaina, atzerritar bisita gutxitzeak bertakoen jarrera aldatu zuen, honek eragin zuen, “(que) el número de indígenas, para visitar el Museo Vasco, (sea) cada día mayor”⁴³.

Museo Ozeanografikoa eta gero Itsas Jauregia ere, atzerritarrentzako bisita leku derrigortua bilakatu zen hasieratik, izan ere “el Palacio del Mar se trataba de un elemento de atracción muy envidiable para los forasteros y extranjeros que llegaban a San Sebastián” (Laburu, 1986: 177). Baina Donostiako hiriak eskaintzen zituen aisialdirako hamaika entretenimenduren artean egoteaz gain, Itsas Jauregiak turistez gain jakitun eta eruditoentzako gune bilakatzea ere zuen helburu: Laburuk aipatzen duenez (1986: 176), 1925.urteko artikulua batean honakoa argitaratu zuen kazetari batek:

“Camio quería que al lado de las grandes pagodas del vicio y del placer, hubiera también un gran palacio de investigación, rico de cantidad y calidad, con muchas galerías recorridas por los sabios y los eruditos... Y también por los profanos.[...]. El palacio sería visitadísimo. Sus vitrinas y sus estanques y sus pérgolas serían el paraíso del veraneante curioso”

³⁸ 1913ko maiatzaren 30eko saioa. STMAD. A.L. 3. 42v or.

³⁹ 1909ko abenduaren 28ko saioa. STMAD. A.L. 2. 145 or.

⁴⁰ Iñaki Arrietak (2012b) adierazten duen moduan, garai honetan etorritako atzerritarren kopuruaren inguruko eztabaidak daude historiatzaileen artean. Lehen Mundu Gerrako udaldietan bisitarien etorrera handitu edo gutxitu zelaren inguruko aldeak agertzen dituzte. Halere, San Telmo Museoko Aktetan argi adierazten da atzerriko karabanak asko gutxitu zirela eta hori aski nabari zela museoeko bisitari kopuruan.

⁴¹ 1914ko urriaren 22ko saioa. STMAD. A.L. 3. 106v or.

⁴² 1915eko azaroaren 2ko saioa. STMAD. A.L. 3. 154v or.

⁴³ 1917ko urriaren 18ko saioa. STMAD. A.L. 4. 102 or.



2. Ikasleak

Bisitari aditu zein turistez gain, hezkuntzako maila ezberdinetatik zetozen ikasleak ere museoetako publiko esanguratsua bilakatu ziren. Horien artean aipagarria da Udal Museoaren kasuan, hasierako hamarkadetan gerturatzek ziren bisitarien talde handi bat Arte Ederretako ikasleak zirela, obrak ikusiz eta kopiagintzaren bitartez marrazkia eta pintura ikasteko bildumako obraz baliatzen zirenak. Gogoratu behar dugu Arte eta Lanbide Eskolarekin partekatu zuela museoak eraikina lehen bi egoitzetan; honek oraindik eta erlazio estuagoa eragiten zuelarik arte ikasle eta museoaren artean. Hauez gain, eskari ugari zituzten argazkiak atera edo “(para) venir a estudiar y copiar al Museo, se acordó acceder con satisfacción [...] , por demostrar esto, que empiezan a despertarse las aficiones artísticas de San Sebastián”⁴⁴.

Oraindik hezkuntza formalera zuzendutako eskaintza zehatz bat egiten ez bazen ere, laster Donostiako museoek eskola ezberdinetako ikasle taldeak jasotzen hasi ziren. San Telmoko lehen urteetan Frantziatik zetozen ikasle taldeak izan zirela nagusi⁴⁵ – bizilagun herrialdean garatuago zegoen eskolaz kanpoko hezkuntza jarduerak burutzea, pedagogia berriaren baitan garatutako pentsamendua sortua zelako, hala nola Alemanian eta Ingalaterran –. Baina Lehen Mundu Gerrarekin batera, kanpotik etorritako bisitarien kopurua jaitsi zen, eta horrek ekarri zuen aldaketa nabari bat ere, non probintziako eskoletatik taldeak maizago bisitatzen hasten diren. Horren baitan, Donostiako Udalak zein Museetako Patronatuak berebiziko ahaleginak egin zituzten bertako ikasleen bisitaldiak ugaritzeko:

“Visitas Corporativas y Escolares [...]. La Junta tomó nota con sumo agrado de las visitas corporativas y escolares que desde hace algún tiempo vienen efectuándose, tanto por Colegios de San Sebastián como de la Provincia y Vitoria”⁴⁶

Itsas Jauregia eraiki baino lehenago, Aldamar eraikineko Untzi Museoa ireki zenean, jakin dezakegu ikasle taldeak ere gerturatzek zirela eta hauek hartzeko arauak ezartzeko beharra ere ikusi zuela GOEk: “También establecieron precios especiales para los colegios, siempre que anunciara con anticipación la visita” (Laburu, 1986: 152). Horren berri ere ematen zen garaiko prentsan: Laburuk aipatzen duenez (1986: 190), Gil Bare kazetariak 1927.urtean egunkari batean argitaratu zuen berriaren arabera “antes de finalizar el curso se recibe con agrado en el Museo la visita de los escolares que asisten a las escuelas públicas, quienes, acompañados de sus maestros, realizan instructivos desfiles”. Hala nola idazle berak jasotako artikulua batean, 1932an La Voz de Guipúzcoa agertutakoa:

“resulta el detalle simpático de la concurrencia de grandes masas escolares que proceden de toda España en viaje de instrucción y que no dejan de ver con afán esa atrayente instalación marítima [...] a todos los cuales se les facilita la entrada completamente gratis, estimulando a los señores profesores que les acompañan, para que prodiguen esas visitas” (Laburu, 1986: 221).

3. Bestelako bisitariak

Museoen demokratizazio idealerako bidean, adituez gain helduen bestelako taldeak erakartzeko ahaleginak egin ziren. XX.mende hasieran langilekoaren trebakuntza intelektualerako ezinbestekoak ziren museoetako bisitak antolatzen ere hasi ziren. Sindikatu edota fabriketatik antolatutako ekintza hauek aurrez praktikan jartzen hasiak ziren Ingalaterran, non Victoria&Albert museoa gauez irekitzen hasi zen langile klaseak bisitatu ahal izan zezan (Bolaños, 2008). Gipuzkoan ere, langile klaseen geroz eta indar handiagoa antzemanda, aristokrazia eta goi

⁴⁴ 1902ko ekainaren 30eko saioa. STMAD. A.L. 1. 99 or.

⁴⁵ 1904ko maiatzaren 30eko saioa. STMAD. A.L. 1. 164v or.

⁴⁶ 1915ko uztailaren 2ko saioa. STMAD. A.L. 3. 139 or.



burgesiako bisitariez gain talde hauen agerpena eman zen museoetan. Horien froga San Telmo museoan aurkitzen dugu, non langileen bisitaldien estimua agertzen zen:

“Visto con agrado el acuerdo de la Federación de las Socd. Obreras de visitar corporativamente el Museo.[...]. A indicación del Señor Alcalde, se acordó felicitar a la Federación de las Sociedades Obreras, por el gran ejemplo de cultura popular que ha dado la misma con su última visita corporativa al Museo.”⁴⁷

Jardueretarako baliabideak

1. Giza baliabideak

Museoen irekieraren baitan eta hezkuntza jardueren praktikari dagokionez, ezinbestekoa da instituzioaren barne parte hartu izan zuten langileei buruzko informazioa biltzea. Oro har, XX.mende hasierako museoek zenbait hezkuntza jarduera aurrera eramanez eta publikoarentzako zerbitzu konkretuak eskaintzen bazituzten ere, funtzio horretara bideratutako sail baten sorrerarako hamarkada asko itxaron beharko dira. Izan ere, oraindik garai honetako eguneroko lanak bildumen kontserbazio eta erakuste hutsean oinarritzen ziren, aurreko mendeko kontenplazio eta plazerrean oinarritutako museoetako bisitaldien baitan. Europako beste herrialdeetan ez bezala – adibidez, Ingalaterran – non bisitari motaren araberrako gida eskaintza bat egiten zen, Espainian afizionatu kultuak bildumak eta obrak ezagutzeko eta gozatzeko gidaririk behar ez izatea defendatzen du (Géal, 2002).

Bisita gidatuak eta aldi baterako erakusketak izan ziren museo bertako pertsonalak sortu eta bideratutako ekintza bakarrak – hitzaldiak, kontzertuak eta bestelako jarduerak kanpotik kontratatutako profesional eta adituek esku uzten baitziren –. Hauek turistaren iristearekin zein gizarteko beste segmentu batzuen bisitaldiekin prestatzen hasi ziren; gizon kultuez gain bestelako publikoari ere bildumaren ezaguera eskaintzeko nahiaz.

Hauei buruzko oso datu gutxi gordetzen badira ere, taldeen bisitaldiekin batera zenbait aipamen egiten dira, non adibidez, bisita gidatuak egiteko arduradunari buruzko datuak ematen diren. San Telmo Museoan kontserbadore kargua betetzen zuen pertsona⁴⁸ izan zen funtzio hau betetzeko arduraduna, izan ere:

“Hasta fines del siglo XIX los museos estuvieron al cuidado de conservadores honorarios, gentes de prestigio, eruditos o filántropos [...]. Con la llegada del siglo XX se tiende, cada vez más, a nombrar conservadores a especialistas en campos específicos relacionados con la naturaleza de los fondos museográficos” (Díaz Balerdi, 1988: 447).

Museoko Patronatua museoaren funtzionamenduari antolakuntzaz eta erabakiak hartzeaz arduratzen bazen ere, kontserbadorearen figurak berebiziko protagonismoa izan zuen hasieratik⁴⁹. Honen lana gaur egungoena baino zabalagoa zen: katalogazioa, piezen errestaurazioa, edozein kontsultara erantzuna ematea eta katalogoak idaztearena zen, besteak beste. Horren baitan, jakin dezakegu zenbaitetan taldeen bisita gidatuak egiteko arduradunak ere bazirela: “La Federación local de Sociedades Obreras, en 26 Noviembre, manifestaba deseos de visitar corporativamente el Museo y que les explicára y dirigiéra (sic) el Conservador”⁵⁰. Honi lotuta, kontserbadoreak bere gain hartzen zuen lan kopuruari erreferentzia eginez, ez da harritzekoa bere soldataren igoerari erreferentzia egiten dioten aipamenak aurkitzea San Telmoko aktetan: “El Conservador dio cuenta de sus

⁴⁷ 1915ko apirilaren 19ko saioa. STMAD. A.L. 3. 117v or.

⁴⁸ San Telmoko lehen kontserbadorea Pedro M. Soraluze izan zen, 1901-1902tik aurrera karguan egon zena. STMAD. A.L. 1.

⁴⁹ Honekin batera, museoeko eraikinean bertan lanean aritzen ziren beste langileak ere baziren, baina hezkuntza jarduerekin inolako harremanik ez zutenak: aretoetako zaindariak, atezainak, garbitzaileak eta instalakuntza lanetako espezialistak.

⁵⁰ 1907ko abenduaren 24ko saioa. STMAD. A.L. 2. 54v or.



trabajos de Catalogación y de los de Secretaría y Conservación del Museo, ocupándose con este motivo nuevamente la Junta acerca del excesivo trabajo que pesa sobre dicho funcionario, dado el desarrollo que ha adquirido este Establecimiento”⁵¹.

Itsas Jauregiaren kasuan ere jarduerak burutzeko pertsonal espezializatu finkorik ez zen existitzen, beraz, imaginatu dezakegu tarteka eta beharren arabera, Elkarteko kide ezberdinak izango zirela taldeei bisita gidatuak egiteko arduradunak. Hala ere, badirudi Gipuzkoako Aldundiak ere honetan laguntza eskaintzen ziela, 1932an Eusko Ikaskuntzako talde batek egingo zuen bisitaren harira Elkartetik bidalitako gutun batean adierazten den bezala:

“con sumo gusto me pongo a disposición de la Sociedad de Estudios Vascos de su digna presidencia, para la visita que [...] realizará[...] si interesa [...], puede Vd. Dirigirse a la Excm. Diputación de Guipúzcoa, a fin de que designe persona competente que explique, a la vista de los objetos expuestos los hechos más culminantes que representan” (Laburu, 1986: 220)

Zuloaga tailer-etxearen kasuan, artista berak lagun edo adituei ireki eta erakusteko ardura izango zuela pentsa daiteke. Victor Hugo Etxeari dagokionez, eraikinean bertan bizi zen familiak logelako atea ireki edota Udalak berak izango zuen arduradunen baten esku geratuko zen funtzio hau. Armagintza Museoan, aldiz, agian Eskolako zuzendari edo goi arduradunen bat izango litzateke interesatuei ateak ireki eta bisitaldia egiteko funtzioa beteko zuena.

2. Baliabide espazialak

Jarduera ezberdinen programazioak leku esanguratsurik betetzen ez zuenez museoaren egunerokotasunean, museoek ez zituzten espazio bereziak egokitu jarduera hauek aurrera eramateko; hots, ekitaldi bakoitzerako leku bilaketan museoan bertan egokien zena aukeratzen zen, edota museotik at beste instituzio batzuen espazioak erabiltzen ziren.

San Telmo Museoaren azken egoitzan komentuko eliza bilakatu zen, ez soilik museoko jardueretarako eskenatoki nagusia, baizik hiriko beste elkarte askorentzako gunea: dantza, koru eta musika taldeen entsegu eta ekitaldiak, kongresu, afari, festa, eta beste hainbat jarduera antolatzen ziren bertan. Honek Patronatuari etengabeko buruhaustea ekarri zizkion: Alde batetik, kulturarekin erlaziorik ez izateak museo beraren eta espazioen funtzioaren hausnarketa batetara bultzatzen zituen; Bestalde, instituzioaz kanpoko jarduerak eragiten zituzten gastuak – argia, lan orduz kanpoko langileen soldata – eta sorrarazten zituen instalakuntzetako hondatzeak museoaren ardura izaten zirelako⁵². Horrekin batera, museoko erakustaretoak ere izan ohi ziren aldi baterako erakusketak zein hitzaldiak antolatzeko gunea aproposak, askotan erakusketa iraunkorreko piezak aldi baterako ipinitako obrekin nahasten zirelarik.

Itsas Jauregiko ekintzen kasuan, ia guztiak eraikin ofizialetik at egin ziren: gainera, dirudienez eraikin berriaren diseinuan jarduera hauetara bideratuko zen espaziorik ez zen gehitu – bai ordea laborategiak – eta horrek eragin zuen Donostiako Udaleko zein Probintziako Aurrezki Kutxako aretoak erabili behar izateak, berriz ere hiriko jarduera kulturalak eta museotik antolatzen zirenen arteko fusio bat emanaz.

Itsas Jauregia eraiki zenean, GOEk zuzendutako proiektua izanik ere, hezkuntza jarduerak aurrera eramateko espaziorik ez zen gorde: erakusketarako gunea, bulegoak eta laborategiak hartu zuten eraikinaren gunea osoa (Laburu, 1986).

⁵¹ 1915ko uztailaren 2ko saioa. STMAD. A.L. 3. 138v or.

⁵² Akta Liburuetako aipamenetan etengabe ageri dira jarduera eta ekitaldi hauei erreferentziak. STMAD.



3. Baliabide materialak

Museoek bisitarietara ateak irekitzean – hala nola atzerriko museoetan egiten ari zenaren berri izatean – laster konturatu ziren publikoak erakusketako lanen ulermenerako elementuak oinarritzekoak zirela. Bisitari mota ezberdinen hezkuntzarako baliagarriak izan ahal ziren baliabide material zehatzen falta nabari zen mendeko lehen hamarkadetan zehar, eta horrela izango zen urte luzez. Hala ere, ahaleginak egin ziren publikoari nolabaiteko ulermena errazteko: kartelak ipintzea, museoeko mapak egitea, gida txikiak, eta abar.

San Telmo Museoan 1906an argitaratu zen lehen katalogoa, bisitari garrantzitsuei eta adituei oparitzeko erabilia izan zena askotan⁵³ eta 1913an bigarren bat osatu zen⁵⁴. Katalogoaren ideia goiztiarra ere agertzen da GOEko Patronatuaren akta batean: “Se trató en la junta directiva de la conveniencia de confeccionar, cara al verano, una guía ilustrada del Acuario, que era muy solicitada por los visitantes” (Laburu, 1986: 204). Honetaz gain, pentsa daiteke San Telmo eta Itsas Jauregia-Aquariumean sortutako gidak banakako bisitarietara erabiliko zituztela, jarduera programatuetatik at elementu lagungarri moduan. San Telmoren kasuan adibidez etengabeko aipamenak egiten dira museoeko bildumetan oinarrituta sortutako postalen inguruan, hauek propagandarako elementu kontsideratzeaz gain zenbaitetan irakasleei ere oparitzen zitzaizkielarik: “como deferencia y propaganda a la vez han donado Colecciones de Postales del Museo entre otros a los profesores del Pedagogium Español de Munich”⁵⁵ edota “se entregaron 3 Colecciones de postales a los Sres. Profesores de Logroño”⁵⁶. Postal hauek eskolan bertan euskarri izango zitezkeen gai ezberdinen azalpenak burutzerakoan.

⁵³ 1906ko urriaren 13ko saioa. STMAD, 2. A.L. 13v or.


⁵⁴ 1913ko azaroaren 7ko saioa STMAD. 3. A.L. 54 or.

⁵⁵ 1914ko irailaren 21ko saioa. STMAD. A.L. 3. 100 or.

⁵⁶ 1914ko maiatzaren 28ko saioa. STMAD. A.L. 3. 83v or.



GIPUZKOAKO MUSEOAK. 1902-1936



Legenda:

 1902-1936 bitartean irekitako museoak

Bigarren atala: 1936-1970

I. MUSEOAK ISILPEAN

Hauts arteko objektuak

II. Errepublikak ekarritako kulturaren urrezko aroaren amaiera laster iritsi zen Espainiara. 1936an hiru urtez luzatuko zen Gerra Zibilar hasiera eman zitzaion: Araba eta Nafarroa lehen hilabeteen bertan izan ziren erreboltarien esku; Gipuzkoa eta Bizkaia 1937ko erdialdera arte mantendu zirelarik (Montero, 2008). Bi bandoen arteko borrokek luzeak gerraosteko urteetan ere luzatu ziren; izan ere, “la guerra y sus consecuencias supusieron un corte radical para toda la cultura, de signo progresista o no, pues un buen número de intelectuales o murieron o tuvieron que emigrar más allá de nuestras fronteras” (López Rodríguez, 2010: 373).

Ondare historiko-artistikoaren aldetik, eredu ugariaren desagertzea eta suntsiketa ekarri zuen, historiaren zati bat ezabatuz (López Rodríguez, 2010) eta bi bandoek lehen unetik espoliazioa eta aurkariaren ondarearen kontrako bandalismo neurrigabe bat erakutsi zuten (Bolaños, 2008). Egoeraren larritasuna ikusirik gobernuak zenbait neurri hartu bazituen ere, Estatu osoan zehar zabaldu zen gerra hartako landa lurretako egoera kontrolaezina bihurtu zen, eta gerratean murgilduta zeuden biziraupena ziurtatzea soilik zen garrantzitsua. Horren ondorioz altxor askoren desagertzea zein lekualdatzea eman zen, espoliazioa praktika ohikoa bihurturik eta batez ere atzerriko herrialdeei egindako objektuen salmenta zenbatu ezina zelarik. Museo batzuetako piezak kontserbatzeko helburuaz zenbait bilduma atzerriera eramanez babesteko – Prado Museoko obren lekualdatze famatua Ginebrara – . Euskal Herriari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak lanean jarraitu bazuen ere, frankisten iristearekin batera dekadentzia garaia hasi ziren eta ordura arte kultura arloan eta ondarearen inguruan egindako lan guztia baztertuta geratu zen.

Diktadura: nazio berria, eredu berriak

Francoren diktadurak historiaren garai ilunenari hasiera eman zion; erregimenak ezarritako ildoen baitan, aurkariaren zigortze eta zapaltze dinamika etengabekoan murgilduta eta beldurra nagusitzen zen gizarte bat nagusitu zen. Gainera, gerraosteak hiru urteetan bizi izandakoen ondorioak jaso zituen, ekonomikoki lur jota eta nazioarte mailan atzeratuta zegoen herrialdea bihurtuz.

Honekin batera, diktadurarekin kulturaren gainbeheraren lehen urteei hasiera eman zitzaion, izan ere, “(el) modelo de dictadura tradicional militar y conservadora no se sintió atraída en política cultural [...] (como) el fascismo italiano que mantuvo una protección patrimonial importante” (Tusell, 2003: 23). Oro har, aurreko garaietan abian jarritako edozein ekimen liberal eta berrikoiaren usaina zuen edozer ezeztatu eta zigortzen zen, mende hasierako kultura oparotasun garaian hasiera guztiz zanpatuz. Horren aurrean nazio berriaren baloreen goraiapamena soilik baimentzen zen, edozein ekintza kutsu militar edota erlijiosoaz bustiz eta Francoren irudiaren laudorio jarraitu batean oinarrituz. Oro har, arraza espainola eta horrekin erlazioa zuen guztiaren azpimarratzean zetzan edozein jardura kultural, helburua indibidualismoaren ezabatzea zelarik (Bolaños, 2008). Egoera hau Espainiaren lehen urteetako politika autarkikoarekin gehituta, herrialdearen isolamendua eragin zuen.

Gauzak honela, “vinieron malos tiempos para los hechos culturales, máxime si eran hechos culturales vascos” (Laburu, 1986: 249), edozein adierazpen euskalduna zigortzeari ekin zitzaiolarik, honek, “Espainiaren Unitatea arriskuan jartzen zuelako” (Montero, 2008). Ezarritako kontrol zurrunaren baitan edozein ekimenek erregimenaren filtertik pasatu behar zuen, nahi edo beharren arabera moldatzen zirelarik. Museoen baitan ere kultura bakar baten erakusleho izan behar zuten, hau izan zelarik “(otra de las) acciones que el régimen llevó a cabo con el objetivo de homogeneizar las diferentes culturas existentes dentro del Estado o de reducirlas a meros «tipismos» dentro de la identidad nacional” (Arrieta, 2012: 80). Horrela, museoak iragan estatiko, zoriontsu eta irreal baten gordailu



bilakatu ziren (Bolaños, 2008) edozein berrikuntza edota mezu ofizialetik at zegoen adierazpenen desagertzearekin.

Hezkuntzaren indarra

Hezkuntza arloak ere sufritu zuen “(una) eliminación de todo rastro de la política educativa republicana” (Dávila, 2004: 72) eta nazional-katolizismoan oinarritutako eredu baten baitan lanean hasi ziren sortutako edota berreskuratutako antzinako instituzio ezberdinak. Honela Sanchez Erauskinek (1998) bonbardeaketa kultural gidatua deiturikoaren objektu bihurtu ziren haur eta gazteak, doktrina nazional katolizistaren baitan hezitako belaunaldiak etorkizuneko Estatuaren izaera betikituko zutelakoan. Egoera horren baitan, frankismoak “borró de la memoria histórica cualquier suceso relacionado con épocas anteriores a la guerra o que no favoreciesen la nueva ideología” (Montero, 2008: 469).

Espainia isolamendutik atera nahian

Munduko erregimen totalitarioen erorketarekin, Espainiak ordura arte jarraitutako bidetik atera eta aurpegi berri bat erakusteko beharra izan zuen. Izan ere Europako Estatu demokratiko berriein batera Nazio Batuen Erakundean sartzeko lehen pausoak ematen hasi zen Franco, diktadura zorrotz eta bortitz baten lainopean zegoen herrialde bati ateak irekitzeko hamaika oztopo existitzen zirela ikusita ere. Mundura irekitzeko nahi hau ordea maskara demokratiko bat besterik ez zen izan (Montero, 2008), isolamendu politiko eta ekonomikotik irteteko eta aldi berean salbu mantentzeko estrategia bat. 1955an NBE-n sartu ostean, Francok egonkortze plan ezberdinak sustatu zituen, atzeratuta eta zaharkituta geratu zen gizarte eredu baten garapena ziurtatu nahian; horrek eragin zuen Gipuzkoan eta Bizkaian emandako industrializazio prozesu indartsuan eta atzerriko kapitalen sarreran – nahiz eta 70ko hamarkada arte guztizko egonkortasuna ez zen lortu –.

Egoera berriaren baitan “la vida cultural se diversifica y abandona sus obsesiones de posguerra” (Bolaños, 2008: 412); oraindik ere guztizko askatasun idealera heldu gabe. Ustezko irekiera horretan, Francok arte garaikideko zenbait erakusketa baimendu eta Bienal zein Azoka ezberdinetan parte hartzea onartu zuen, kultura modernoaren adierazle ziren artelan haiek jarrera berri baten adierazle zirelakoan; eta horren baitan politika kulturala indartu zuen, babes ekonomikoa eskainiz eta difusio lan esanguratsua sustatuz Europa zein Ameriketara batez ere (Tusell, 2003).

Hezkuntza

Hezkuntza gizartearen kontrolerako erreminta nagusia izaten jarraitu zuen; finkatutako ildoak jarraitu behar zituzten irakasleen baitan zorrotzasunez frankismoaren balore eta ideien transmisioa egin zutenak. Elizaren kontrol zurruna eta diktaduraren oinarri ideologikoen kanpoan garatu ziren ideia pedagogiko berrien helduera oztopatu zuen – XX.mendeko lehen hamarkadan iristen hasiak zirenak – eta hortaz, arlo honetan ere, modernizazio behar bat nabarmendu zen. 60ko hamarkadan Escolano Benitok “explosión escolar” deiturikoa gertatu zen (2002: 176): industrializazioak ekarritako erdi mailako klaseen handitzea eta nazioarteko irekierak modelo berriekiko ikusmirak zabaldu zituen. Lanbide heziketak eta erdi mailako ikasketak burutzeko eskaeraren handitzea gertatu zen, eta baita unibertsitatekoa ere – maila txikiagoan, noski –. Horrekin batera, irakaslearen mugimenduek, langileenei loturik, hezkuntza alternatiba berriak proposatzeko abiapuntu izan ziren. Eta bitarte horretan pedagogia berritzaileak ere klandestinitatean abian jartzen hasiak ziren, Katalunian adibidez (Escolano, 2008). Euskal Herriaren kasuan lehen ikastolak sortu ziren, isilpeko lan batean boluntario taldeen eskutik eta euskal kultura zein euskara beraren biziraupenerako sutsuki borrokatu zutenen laguntzaz, Euskal Eliza nagusiki (Dávila, 2004).

Turismoa heldu da



Garai berri honen baitan sortu eta sustatu zen fenomeno esanguratsuenetako bat eta 60ko hamarkadan mailarik gorena lortu zuena turismoarena izan zen; Espainian produktu kontsumoaren igoera, hazkunde demografikoa, hirien handitzea eta landa lurren uzteak eragin zuten gizarte estiloaren aldaketa gauzatzea. Aipagarria da garai honetako turismoak ez zuela erlazio handirik erakusten XIX.mende amaieratik gipuzkoar kostaldeak eta batez ere Donostiak bizi izan zuen oparotasun garaiarekin. Aristokrazia eta Erret Familiarekin batera etorritako goi klaseko aditu eta intelektualetatik, “erdi mailako klasea” deiturikoaren mugimendu masibo bati ekin zitzaion, langile arruntez osatutako familiek oso bestelakoak ziren ohitura eta aisialdiaz gozatzeko estiloak bereganatuz (Gómez Alonso, 2006). Horrekin batera, garai berriari egokitutako erregimen baten pean sortu zen Informazio eta Turismoko Ministerioa, Manuel Fraga buru zuenari. Sail berri honek herritarrengana heltzen zen informazioa kontrolatzea zuen helburu (Rojas, 2006), zentsura eta zapalkuntzaren aurpegi atsegina bilakaturik. Honela, turismo kanpainak, aholkularitza bibliografikoa, prentsa eta inprenten kontrolak eta beste hainbat ekimen martxan jarri ziren. Beraz, errealitatean oraindik ere Espainia gris, totalitarista eta frankistaren aurrean, postalezko irudi bilakatu nahi zituzten familiaren irudi idealak zabaldu ziren, ordura arte ezagutu ez zen ongizatea eta kontsumo gizarterako sarrerak populazioaren isilpeko jarrera mantentzea lortu zuenari.

ICOM. Museoen garai berriaren hasiera

Museoen historia modernoan eman zen gertaera nagusienetako bat UNESCOren baitan ICOMen sorrerarekin batera etorri zen, 1946an eratutako gobernu kanpoko erakundea (Álvarez eta Benjumea, 2011) “de museos y profesionales, dirigida a la conservación, mantenimiento y comunicación del patrimonio natural y cultural del mundo, presente y futuro, tangible e intangible”⁵⁷. Bigarren Mundu Gerraren ondorengo Europa suntsitu bati aurre egin nahian, ondarearen berreskurapena eta babesean oinarrituko ziren politika berriak sortzea beharrezkoa suertatu zen. Horrekin batera, ordura arte museologiaren baitan bazterturik geratu ziren arloren inguruko ikerketa eta hausnarketarako espazioak sortu ziren, instituzioaren baitan eragin nabaria izanik (Bolaños, 2008). Museoak pixkanaka elite bati zuzendutako espazio itxi eta estatikoak izatetik nazioen identitateari loturik eta munduaren historiaren erakusleho irekiak bihurtzeari ekin zioten.

CECA: Comisión Internacional para la Educación y la Acción Cultural

Museoen funtzio tradizionalen inguruko hausnarketak garai honekin batera garatu ziren; bilduma bateko piezak kontserbatu, zaharberritu eta ikertzeaz gain, espazio hauek funtzio didaktiko bat ere betetzen zutela defendatzen hasi ziren aditu askok. 1963an arlo berri honen inguruko sail berria eratu zen ICOMen baitan, CECA izena hartu zuena, aditu ezberdinak elkartu eta jardunaldi zein bileretan sortutako ideietan oinarritzen zituzten museoetako hezkuntza proposamen berrien inguruan lan egiten zutenak (Zabala eta Roura, 2006).

Museoen krisia⁵⁸

Museoaren izaera elitistaren aurkako kritikak XX.mende hasieratik gauzatu ziren, mugimendu artistiko ezberdinetako protagonistek manifestu eta adierazpenen bitartezko museoaren ezeztatze publikoa burutuz. Bigarren Mundu Gerraren ondorengo gertakizun historiko ezberdinek ordea “estimularon la aparición de nuevos y singulares museos así como de una renovación de la ciencia de los museos que vino a denominarse, *nueva museología*” (Carreño, 2008: 83). Tendentzia honen sorrerari estuki lotuta egon ziren 68 *maiatzeko* gertaerek,

⁵⁷ ICOM. Definizioa. In <http://www.icom-ce.org/contenidos09.php?id=27> (2015ko maiatzaren 24an ikusia).

⁵⁸ Hezkuntza sistemaren krisia eta honek ekarritako ondorioak esparru guztietara ondorengo atalean azaltzen dira, gizarte berri baten isla izango ziren eztabaida eta hausnarketak 70ko hamarkadatik aurrera nabarmendu eta zabaladu zirelako.



museoa instituzio bezala eztabaidan jarri zuten ahotsak geroz eta gehiago zirelarik eta aldi berean espazio hauen hezkuntza funtzioa, komunitatearekiko lotura eta garapen sozialerako tresna aldarrikatuz.



II. GIPUZKOAKO MUSEOEN BIZIRAUPENA

Gipuzkoako museoek baitan berrikuntzarako espazio gutxi geratu zen gerraosteko diktadura garaiko urte luzeetan, eta garai honetan biziraun zein sortu ziren museoak “se acomodan a las directrices del régimen triunfante y sirven de manera fiel a sus fines y objetivos” (Díaz Balerdi, 2010a: 35). Europa mailan zein Estatu Batuetan museologia arloan ematen ari ziren berrikuntzetatik urrundurik, lurraldeko museoak erritmo geldo baten baitan egin zuten aurrera, gizarteari bizkarra ematen lan egiten jarraitu zutelarik eta oraindik ere oso talde murriztuari zuzendutako ekintzen programazio umilen bidez.

Museo zaharrak

1. San Telmo Museoa

Gerra Zibilak gizarteko esparru guztietan izugarrizko aldaketa suposatu zuen moduan, museoek egunerokotasunean ere horrenbestez gertatu zen. San Telmo museoko aktetan ikusi daitekeenez Patronatua ez zen apenas elkartu⁵⁹, egoera ezegonkorrak, Batzarreko kideen izaera politikoak eragindako arazoak eta aurrekontu eskasiak ezarritako mugak pairatu behar izan zituzten (Fornells, 2003). Garai honetan museoa – beste hainbaten moduan – erregimen berriaren laudorio gune bat bilakatu zen, nagusiki Espainiaren historia militarren erakusle bihurturik: Moscardó jeneralaren omenezko espazioa erreserbatu zen, Toledoko Alcazarrari buruzko areto bat sortu, Guda zibilari buruzko areto berria eratzeke piezak biltzen hasi eta beste hainbat izan ziren hartutako neurriak; beti ere “exaltación de los valores viriles del militarismo”-ren baitan (Escolano, 2008: 191). Erregimen berriaren menpe geratuko zen bildumaren antolaera berria, hala nola burututako jarduerak ere, helburua izanik “poder convertir [...] el Museo en su centro digno de la nueva España”⁶⁰. Horrekin batera, Patronatuak argi adierazten zuen moduan, museoaren funtzio nagusia zen “contribuir a elevar la cultura del pueblo al mismo tiempo que sirven de gran utilidad a cuantos se ocupan en las nobles manifestaciones intelectuales, artísticas e históricas”⁶¹. Oro har, 40ko hamarkada kultura etapa interesgarri bat bezala definitu zuten Patronatuko kideek, aurrera eramandako ekintza kultural guztiei erreferentzia eginez.⁶²

Bien bitartean, Aranzadi Zientzia Elkarteak sortu zen 1947. urtean, eta museoko lokal batean ezarri zuen bere egoitza (Arrieta, 2012b). Honek eragin zuen museoko bildumaren inguruan ordura arte burututako jardueretatik haratago etnografia, arkeologia eta paleontologiaren bezalako zientziek protagonismoa hartzea⁶³. Aranzaditik burututako ikerketa heterogeneoen eta gai ugariaren lanketek museoko birplanteaketa etengabe baterako proposamenak agertu zituen, mende osoan zehar luzatuko zen eztabaida bati hasiera emanez non etnografia eta Arte Ederren arteko *borroka* mantendu zen⁶⁴. Honi loturik, 1957ko Patronatuaren Araudi berrian aipatzen zenez, ordutik aurrera

⁵⁹ 1936 eta 1937 bitartean hiru bilerak besterik ez dira egiten, eta bertako aktek informazio eskasa eskaintzen digute.

⁶⁰ 1939ko abenduaren 14ko saioa. STMAD. A.L. 6. 40 or.

⁶¹ “Memoria justificativa de su gestión durante el año 1941 San Telmo”. DUA. Sig: 3766/10. 1 or.

⁶² 1941ko otsailaren 15ko saioa. STMAD. A.L. 6. 48 or.

⁶³ Nahiz eta aurreko egoitzetan jada etnografiaren garrantziaz jabetzen hasiak ziren eta bilduma honen handitzearen aldeko lana egin zen.

⁶⁴ Bi atalen banaketaren inguruko eztabaida luzeak izan ziren mende osoan zehar: Arte Ederak beste gune batera lekualdatzearen planak burutu ziren, Miramar Jauregian ipini eta Erregeordetza Museoa eratzeke asmoz, edota etnografiari protagonismoa eman eta gaia ardatz hartuko zuen San Telmo museoaren birplanteaketa bat bultzatu zen.



ez ziren soilik arte objektuak bilduko, baizik “otros científicos y arqueológicos que sirvan para difundir la cultura en sus distintas modalidades”⁶⁵. Aldi berean, 1958.urtean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik funts etnografikoa erosteko diru-laguntza jaso zuen museoak, pixkanaka zientzia honekiko lanak sustatzen joan zirelarik. Gauzak honela, museoaren birplanteamenduaren eztabaida agerian geratu zen berriro eta museoa bizitzen ari zen egoerak ere eragin zuzena izan zuen berritze garai bat sustatzeko, izan ere aipatzen zenez museoa “languidece falto de una gestión eficaz que permita un desarrollo del mismo y se empiezan a notar los primeros síntomas de fracaso de su funcionalidad” (Aguirre, 1995: 39). Honen aurrean Aranzadi Z.E.ak 60ko hamarkadan “Museo del Hombre Vasco” proiektua aurkeztu zuen⁶⁶, lanaren sarreran aipatzen zen moduan San Telmoren egoera ezegonkorragi aurre egiteko irtenbide bezala:

“El actual museo [...] resulta de muy escaso interés [...]. Dedicado mayormente a la exhibición de obras pictóricas mediocres que no despiertan interés en los visitantes, y cuya sección de Etnografía se halla incompletísima, montada de forma abigarrada y nada didáctica”⁶⁷

Proiektu honetan publikoaren interesak ere beherakada nabaria jaso izanaren ideiak gogorki kritikatzeko zuen museoaren egoera:

“Prescindiendo de la densa población indígena provincial y local que parece despreciarlo-ignorarla en el mejor de los casos – , teniendo solo en cuenta las cifras de veraneantes y turistas [...] nada puede hablarnos con más elocuencia del fracaso de una institución que debiera ser para nosotros gloria y orgullo”⁶⁸

Alabaina, proiektu berriak museoaren izaeraren inguruko planteamendu bat ere ekarri zuen, ordura arte agertu ez zen ardura didaktikoaren agerpenaz: “Don Luis Peña [...], aún reconociendo que el proyecto tenía ambición, expuso que su contenido podía estar exhibido didácticamente, de forma que cualquier objeto sirviese para despertar la curiosidad del visitante, permitiendo a este profundizar”⁶⁹. Honi lotuta kultura jarduerak indar berezia hartu zuten 60ko hamarkadatik aurrera, programazio geroz eta osatuagoak burutzeko ideiaz, eta museoa bera – Espainiaren isolamendutik ateratzeko bideari jarraiki – Europara irekitzen hasia zen eta ICOMera atxiki zen 1969.urtean⁷⁰. Proiektu guzti hauek ordea instalakuntzen egoera penagarria eta langilego prestatuaren gabeziarekin talka egiten zuen.

2. Victor Hugo Etxea

Victor Hugo Etxea hainbat urtetan museo bezala itxita egon ondoren, 30eko hamarkadan eraikina José de Oruetaren eskuetara pasa zen, zeina “jatorriz bizkaitarra zen, nahiz eta Erreterria eta Pasaian kokatuta zegoen industrialaria izan. Bi udalerrri horietan galdategiak zituen. Berak etxerako dokumentazioa eta objektuak biltzearen ardura hartu zuen. 1934an Jose jauna hil zenean, bere semeak, Antonio de Orueta jaunak, etxea jarauntsi zuen.”⁷¹ Antoniok aitaren nahia jarraitu eta museoaren irekierari ekin zion era pribatuan. Badirudi 60ko hamarkadaren inguruan zenbaitzuei irekitzen zitzaizkiola atea, bisitariek Victor Hugoren logela izan zena ikusteko aukera

⁶⁵ “Reglamento del Patronato de los museos Municipales de San Telmo y de la Casa de Oquendo, 1957”. DUA. Sig: 3766/16.

⁶⁶ “Proyecto borrador para la instalación de un Museo del Hombre Vasco (Antropología, Prehistoria, Arqueología y Etnología) en el Museo Municipal de San Telmo”. STMA. Sig: 56/8. 1 or.

⁶⁷ Ibid. 2 or.

⁶⁸ Ibid.

⁶⁹ 1961ko martxoaren 11ko saioa. STMAD. A.L. 7. 155v or.

⁷⁰ 1969ko maiatzaren 9ko saioa. STMAD. A.L. 9. 81 or.

⁷¹ 1802-2002. Victor Hugo. Jaiotzaren berrehun urteurrena. In <http://www.pasaiaibai.com/victorhugo/euskera/pasaia.htm> (2015ko otsailaren 2an ikusia).



zutelarik: “Entonces servía el museo, pero a título particular, y el funcionamiento de la casa se reducía a que cuando venían algunos turistas franceses o alemanes y convencían a la casera para que se la mostrase”⁷².

Museoaren egoera eta irekieraren kezkak nagusitu ziren garaian, eta Udalak berak ere Victor Hugo Etxearekin egin behar zenaren inguruan eztabaidatu zuen hainbatetan, beti ere argi izanik “(que) por razones de cultura y turismo, conviene mantener e incluso convertirlo de nuevo en Museo Público”⁷³. Gipuzkoako Gobernadore Zibilak ere gutuna bidali zion Pasaiaiko alkaterari eraikin honekin egin ahal zenaren ideiak planteatuz: “puede ser, tratado y acondicionado debidamente, un motivo de atracción turística y sentimental para el turismo internacional”⁷⁴. Honi jarraiki, Victor Hugo Etxea Interes historiko-artistikoko eraikina izendatua izan zen 1964. urtean; baina honek aldaketa gutxi ekarri zituen bizitzan ari zen egoerara. Hamarkada guztian zehar errepikatu zen turistentzako irekiera puntualaren dinamika berdina baina nahiko informazio eskasa eskainiz eta bere kudeaketak esku pribatuetan jarraitzen zuelarik, 1966.urtean *El Diario Vascok* Pasaiaiko turismoari buruzko argitaratutako berri batean aipatzen zuen moduan:

“Habitó en una casa en la calle de San Juan [...] Es un primer piso muy visitado por los turistas, especialmente franceses. [...] Una amable señora que vive una veintena de casas adelante guarda la llave de la “casa de Victor Hugo” [...] Pero el viajero quisiera saber cuánto tiempo estuvo Victor Hugo en Pasajes, conqué motivo, qué hizo en tan bello lugar, [...]. Pero allí no hay nada”⁷⁵

Gauzak honela, eta museo bera galtzeko arriskuan zegoela ikusirik, 70eko hamarkadan Antonio de Oruetak hainbat kudeaketa lan hasi zituen etxea instituzio baten menpe gera zedin, horren irekiera eta funtzionamendu hobia eskainiko ziolakoan⁷⁶.

3. Armagintza museo

Armagintza Eskolak eta museoak ikasleen trebakuntza lanetan aurrera jarraitu zuten urte hauetan. Aldaketa nagusia 1960 inguruan eman zen: Eskolak lanerako espazio gehiago behar zuenez handitze obra batzuk hasi ziren, honek ere museoari eragin ziolarik (“Escuela de Armería de Eibar”, 1964).



3 irud: Escuela de Armería de Eibar. Museo
de armas. 1962
(Juan San Martín/ AGG-GAO_JSM00578)

⁷² García Sánchez, J. (1983, abenduak 10). “La casa de Victor Hugo en Pasajes”. *La Voz*, 24. PUA. Sig: 622-22.

⁷³ “Certificación del Ayuntamiento. Pleno en sesión celebrada en día tres de 1963”. PUA. Sig: 622-22.

⁷⁴ “Carta del gobernador civil de Guipuzcoa al alcalde de Pasajes. 5 de julio de 1963”. PUA. Sig: 622-22.

⁷⁵ El Diario Vascoko albiste zatia, 1966ko irailaren 20koa. PUA Sig: 622-22.

⁷⁶ Antonio Orueta Rivero eta Udalaren arteko korrespondentzia, 1972eko maiatzaren 23koa. PUA. Sig 622-22.

Piezen antolakuntza berrirako lanak hasi zituen garaiko Eskolako zuzendaria zenak eta bide batez museografiaren inguruko hausnarketa baten ondoren aretoak moldatu ziren berriz ere publikoari irekitzeko. Honekin batera 1964an Museoko bigarren katalogoa argitaratu zen, piezen inbentarioaz gain museoaren izaera berriari buruzko informazioa jaso zelarik.

4. Itsas Jauregia-Aquariuma

Gerra Zibilaren iristeak eta ondorengo diktadurak zenbait urtetako geldiunea suposatu zuen Aquariumeko funtzionamenduari dagokionez, baina GOEaren indarra eta sustraitze popularraren ezaugarriek "le permitió ir resistiendo año tras año sin extinguirse totalmente, funcionando más por inercia que por otra cosa" (Laburu, 1986: 249). Hala ere gerraosteko urteetan ekintza gutxi eraman ziren aurrera eta edozein jarduerak kutsu politikoa hartu zuen; Aquariuma ere abandonaturik geratu zen eta Patronatua ez zen apenas elkartu. 1945 arte itxaron beharko zen indarra hartu eta berriz ere era eraginkor batean funtzionamenduan jartzeko. Egoera lasaiago baten pean, zenbait aditu komunikabideetan ozeanografia gaiei buruz idazteari ekin zioten, gerra aurreko garaietan hedatu zen moduan, "lo que se traducía en una creciente afluencia de visitantes al Palacio del Mar" (Laburu, 1986: 307). Alabaina, errealitatean Aquariumak egunerokotasuneko errutina batean murgildu zen (Sada, 2008) eta Patronatuaren garairik oparoenak iristeko oraindik zenbait hamarkada beharko ziren.

Urte hauetako funtzionamendu ia automatikoak hamarkada luzez iraungo zuen beste arazo batera bideratzen zituen Elkarteko kideak: Itsas Jauregiko instalakuntzen berritzearen beharra. Izan ere, kokapenagatik eta baita Aquariumaren ezaugarriengatik, mantenu jarraitu bat suposatzen zuen. Jada 1955.urtean GOEko lehendakariak "reorganizar y modernizar las instalaciones" (Laburu, 1986: 322) helburu nagusia dela adierazten du. Bitartean, bisitari kopuruaren hazkundea biderkatzen joan zen.

5. Ignacio Zuloaga tailer-etxea

Gerran zehar eta gerraoste garaian, Zuloagak bere lanetan jarraitu zuen, aldi baterako erakusketa ezberdinak burutuz munduko gunek ezberdinetan. Neguak Madrilen eta udak Zumaian igarotzen zituen⁷⁷, pentsa daiteke egonaldi laburretan funtzionamendu berdinez jarraituko zuela museoak, gerturatutako lagunei erakusteko espazio bat bezala. 1945an Madrilen hil ondoren, tailer-etxea familiaren esku geratu zen.

Museo berriak

6. Oquendo Etxea

Donostiako Gros auzoan Manteo Etxea bezala ezagutzen zen XVI.mendeko eraikina existitzen zen. Etxe hau Antonio Oquendo almirante ospetsuaren aita eraiki zuen, udaldiko jauregi moduan erabiltzeko helburuaz, eta belaunaldiz belaunaldi Oquendo familiako kide ezberdinek jaso izan zuten etxearen jabetza, XIX.mendean San Millaneko markesaren esku geratu zen arte.

XX.mendearen lehen hamakadetan Donostiako Udala hasia zen hirigintza proiektu ezberdinak martxan jartzen zenbait zonalde urbanizatzeko. Horren baitan markesarekin adostasun batera iristeko lanean hasi ziren, espazio

⁷⁷ "Ignacio Zuloaga". Zuloaga Fundazioa. In <http://loszuloaga.com/esp/los-zuloaga/ignacio-zuloaga/> (2015ko otsailaren 22an ikusia).



hark hirigintza proiektu berrian izango zuen funtzioa zela eta. Hainbat tirabiren ondoren, 1939.urtean San Millango Markesak Oquendo Etxea dohaintzan eman zion Donostiako Udalari⁷⁸. Eraikinaren balio historikoa antzemanda, bere zaharberritze lan eta erabilerari buruzko proiektuari ekin zitzaion. Hasieran Fundazio edo Biltzar independente bezala eratu zen arren, gerora erabaki zen “que ese establecimiento histórico se incorpore al Patronato de San Telmo, como Sección dependiente del mismo, a los efectos de organización y funcionamiento del Museo que se instale”⁷⁹.

Erreforma lanei ekin eta San Telmo Museoko Patronatuaren baitan utzi ondoren, badirudi 40ko hamarkada inguruan etxea oraindik ere erabat abandonaturik aurkitzen zela⁸⁰. Bultzada berri bat emateko garaia zelakoan, Patronatuko kide ezberdinek museoaren irekierarako beharrezkoak ziren lanak egiteko deia egiten zioten Donostiko Udalari: “con la mayor urgencia se embellezcan sus alrededores, aislando la finca con el decoro conveniente y poniéndola en condiciones de que se instale el referido Museo para que pueda ser visitado por el público, construyendo así otro elemento más de cultura para la ciudad”⁸¹. Baina oraindik ere museo beraren funtzioaren eta instalakuntzen inguruko zalantzak nagusi ziren: Hasiera batean Oquendo almiranteari loturiko ondasunen erakusketa bat antolatzeke nahia agertu zuten: “el proyecto que es convertir el caserío en Museo colocando en sus salas banderas, útiles de guerra, etc”⁸². Gerora, 1949 inguruan, garai historiko zehatz bati dedikatutako Museoa izango zela adierazi zuten, XVI.mendeko jauregien barnealdean simulatuko zuen espazioa atonduz, horretarako behar zelarik “(un) informe especificando las obras, muebles y efectos que a su juicio son necesarios para habilitar la Casa Solar de Oquendo, convirtiéndola en Museo de recuerdos de los Oquendo, Blas de Lezo, los Churruca, así como haciendo de él una evocación de la época de su construcción”⁸³.

1950. urtean azkenik Oquendo Etxea inauguratu zen – Almirantearen Etxea bezala ezagutzen zena – , Hiriaren VIII. Urteurrenaren ospakizunerako programaren parte bezala⁸⁴. Museoaren funtzioa zen “(convertirse en) una atrayente lección de historia para el visitante”⁸⁵. Urteurrenaren egunerako jarduera ezberdinak antolatu ziren: Pasaiaiko portutik kainontzi baten sarrera, Gerrako Marinak aurkeztua⁸⁶, museoaren inaugurazioa, Javier Mendizabal Escuadrako kontraalmirantearen eskutik hitzaldi bat, eta abar.

Zenbait urtetan publikoari irekita egon ondoren, badirudi 60ko hamarkadan oraindik ere museoaren funtzioaren inguruko arazoak aurkitzen zituela Patronatuak, zeren “(existe) poco material gráfico y de archivo disponible para aprovechar allí”⁸⁷, Eraikinari funtzio bat emateko helburuaz proposatu zen “acondicionar una sala de conferencias para disertación en ella de temas de San Sebastián”⁸⁸.

Musearen norabide finko baten eza, bilduma propio eta indartsu baten erakusketa eta beste hainbat arrazoik eragin zuten 1966.urte inguruan jada museoa nahiko abandonaturik egotea. Egoera horren aurrean hiriko talde batek bere egoitza Oquendo Etxean instalatzeko eskaera egin zuen, zentroari bultzada emango zioten jarduerak proposatzen zituztelarik:

“(El) Grupo Doctor Camino de Historia Donostiarra. [...] petición que hacía este grupo solicitando instalar su sede oficial en la Casa de Oquendo, [...] (se podría) aprovechar la circunstancia de entrada del Grupo

⁷⁸ Sada, J. (2008). “La casa natal de Oquendo”. *El Diario Vasco*. In http://www.diariovasco.com/prensa/20070422/san_sebastian/casa-natal-oquendo_20070422.html (2015ko martxoaren 8an ikusia)

⁷⁹ 194ko martxoaren 10eko saioa. STMAD. A.L. 6. 93v or.

⁸⁰ 1942ko maiatzaren 5eko saioa. STMAD. A.L. 6. 51v or.

⁸¹ 1947ko irailaren 4ko saioa. STMAD. A.L. 7. 31-31v orr.

⁸² 1939ko abenduaren 14ko saioa. STMAD. A.L. 6. 41 or.

⁸³ 1949ko azaroaren 14ko saioa. STMAD. A.L. 7. 64 or.

⁸⁴ Sada, J. (2008). Op. Cit.

⁸⁵ “Memoria Patronato de Museo”. DUA. Sig: 3766/15. 1 or.

⁸⁶ Sada, J. (2008). Op. Cit.

⁸⁷ 1961ko irailaren 28ko saioa. STMAD. A.L. 8. 58 or.

⁸⁸ Ibid.



para revitalizar la casa, [...] sin desvirtuar el primitivo origen de casa solariega y de museo de recursos del almirante Oquendo”⁸⁹

Eskaera honen aurreko jarrera eta erantzunen inguruan ezer gutxi jakin daitekeen arren, 80ko hamarkada arte Oquendo Etxeak bere funtzioak eta erabilera definitu gabe jarraitu zuela suposa dezakegu.

7. Urgulleko Historia Militarren museoa

Urgull mendia Donostiako hiriko gune estrategikoa izan da historikoki, militar egoitza ezberdinak bertan kokatu direlarik mendeetan zehar. Eraikin nagusia dugu Motako Gaztelua, XII. mende inguruan eraikia izan zena eta ondorengo mendeetako gerrateen ondorioz behin eta berriz berreraikia. Defentsa gune honetan bestelako espazio batzuk ere eraiki ziren, eta historian zehar erabilera ezberdinak eman izan zaizkie.

Motako Gaztelua 1813ko gertaeren ondoren erabat abandonatua geratu zen, eta XX. mendearen hasieran honen berreraikuntza eta berreraipenerako beharrak ikusi ziren. Udalak lursail horiek erosteko tramiteak hasi zituen, 1921ean lortu zuen arte (Laburu, 1986). Donostiako Udalaren jabetza osoa 1928.urtean gauzatu zen⁹⁰, eta honen ondoren eraikinekin zer egin erabakitzea izan zen eman beharrekoa. Honen aurrean bertan museo bat ezartzeko ideia nagusitu zen, espazioaren erabilerarako funtzio ezin hobetzat harturik. Urgulleko museoa osatu bitartean proiektua San Telmoko Patronatuaren esku geratu zen, arkitekturako berritze lanak udalaren aldetik burutu zirelarik.

1959an jada erreformetarako memoria bat aurkeztu zuen museoko patronatuak⁹¹ eta hurrengo urtetik aurrera gazteluaren erreforma lanei ekin zitzaizkien⁹². Urte askotako eztabaiden ondoren 1963. urtean inauguratu zen Urgulleko Historia Militarren Museoa, garaiko turismo ministroa zen Manuel Fraga bertan egon zelarik⁹³, eta 1964.urtean jada Patronatuaren Araudia formalizatu zen, “Patronato el Castillo de Santa Cruz de la Mote y del Monte Urgull” izenapean⁹⁴.

Gazteluko museoaren bitartez, uste zenaren arabera, “se obtendría, [...] el importante resultado de consolidar y asegurar la conservación de los edificios de interés histórico [...], una interesante labor de educación de las masas ciudadanas, [...] y un importante centro de atracción y visita para los considerables contingentes de turistas que pasan por nuestra ciudad”⁹⁵. Baina errealitatean, lehen hamarkadetan museoak erakusketa iraunkor eta dinamismorik gabeko instituzio bezala funtzionatu zuen, Urgull mendira igotzen ziren bisitarientzako ustekabeko helmuga moduan.

8. Miniatura Militarren Museoa

60ko hamarkadan Motako gazteluaren zaharberritzearekin batera Urgull mendiko beste hainbat azpiegitura berri ziren. Horien artean Damen Bateria deiturikoa aurkitzen zen, non eraikin txiki batetan “la Caja de Ahorros Municipal

⁸⁹ 1966ko maiatzaren 24ko saioa. STMAD. A.L. 7. 163v-164 orr.

⁹⁰ “Memoria referente a la rehabilitación del Castillo del Monte Urgull” 1959. Firmado por Jose Luis Banus y Aguirre. Patronato Museo. STMA. Sig: 56/12.

⁹¹ Ibid

⁹² “Aprobación del plan de rehabilitación el Castillo del Monte de Urgull por parte de la Junta del Patronato e los Museos Municipales de San Telmo y de la Casa de Oquendo”. STMA. Sig: 56/12.

⁹³ “Inauguración del museo histórico militar del monte Urgull por el Ministro Fraga Iribarne el año 1963”. KF. Marin Funtza SIG FALTA. In http://www.kutxateka.com/index.php/Detail/Object/Show/object_id/180753 (2014ko otsailaren 8an ikusia)

⁹⁴ 1964ko otsailaren 14ko saioa. STMAD. A.L. 8. 135v or.

⁹⁵ “Memoria referente a la rehabilitación del Castillo del Monte Urgull. 1959”. Firmado por Jose Luis Banus y Aguirre. Patronato Museo”. STMA. Sig: 56/12.



estaba dispuesta a hacer suya [...] (la) idea de instalación de una Biblioteca, infantil circulante y quizás también, como un aliciente más, al montaje de una colección de soldaditos de plomo”⁹⁶.

Horrela, 1963an Miniatura Militarren Museoa ireki zen, urte gutxi batzuetan funtzionamenduan egon zena. Museoaren historiari buruzko dokumentuek diotenez,

“exhibe una valiosa y completa colección formada por 25.000 soldados de esta casa de todas las épocas, los que con su más variados y vistosos uniformes y en rigurosas formaciones militares, o reproduciendo episodios bélicos más destacados de la historia, con su más perfecto y ambientado montaje, constituyen antiguas estampas del pasado ejecutadas con la mayor fidelidad y rigor histórico”⁹⁷.

9. Julio Beobide tailer-etxea

1928an Julio Beobideren osabak, Manuel Beobidek, Zumaian zuen lursail txiki bat oparitu zion. Artistak itsaso alboko eremu horretan Kresala etxea eraiki zuen, Ignacio Zuloagaren etxebizitzatik oso gertu ere aurkitzen zelarik. Bertan lan egin eta bizi izan zen Beobide ia bizitza osoan. Tailer-etxean gordetzen ziren zirriborro, pieza eta lanerako tresnak bere horretan mantendu eta familiak museo bezala ireki zituen etxearen ateak 1969.urtean⁹⁸. Orduetik museoaren kudeaketa familiaren esku geratu zen.

⁹⁶ 1962ko urtarrilaren 12ko saioa. STMAD. A.L. 8. 67 or.

⁹⁷ “Guía del Castillo de Santa Cruz de la Mota”. STMA. Sig: 298/4. 14 or.

⁹⁸ Inaugurazioari buruzko informaziorik aurkitzen ez den arren, badirudi artista hil bezain pronto agertu zuela familiak espazio hori museo bezala irekitzeko asmoa.



III. GIPUZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA

Jarduera motak

1. Bisita gidatuak

Aurreko hamarkadetan bezala, pentsa daiteke 1970 arte museoetako ateak publiko guztiari irekitzen baziren ere, bisita gidatu programatuen eskaintza ez zela era egonkor batean gauzatu. Taldeen zein banakako bisitariek museoak era autonomian ikusiko zituzten, nahiz eta seguruenik eskaeraren arabera bisita gidatuak ere aurrera eramango ziren. San Telmo eta Akuarioko aktetan aipamen gutxi batzuk jaso dira talde zehatzei lotuta, baina orokorrean esan daiteke ez zela era egonkor batean gauzatu eskaintza mota hau.

2. Hitzaldiak

Hitzaldiak dira hamarkada hauetan arreta gehien jasotzen duten jarduera motak museoetako arduradunengandik. Izan ere, oraindik publiko aditu bati zuzentzen ziren museoak eskaintako ekintza gehienak, nahiz eta museoaren demokratizaziorantz bidea irekitzen hasia zen. Normalean museoari lotutako gaiak ardatz hartuta antolatzen ziren hitzaldi hauek. Itsas Jauregia-Aquariumak hitzaldi ezberdinak eskaini zituen garai honetan, eta askotan hitzaldi hutsak izatetik haratago bideo edota diapositibez laguntzen ziren hauek. Gehienak museoko eraikinetik at antolatu ziren (Laburu, 1986).

San Telmo Museoan hitzaldiak antolatzearen helburuak ziren “atraer al público, acostumbrarle a visitar el Palacio Municipal [...], crear en torno al Museo de San Telmo un ambiente de simpatía y de belleza”⁹⁹.

Baina hitzaldien izaerak, arte eta historia gaietatik at, ezin izan zuen egoera politiko eta erregimen berriaren ideietatik aldendu, batez ere gerra zibila amaitu eta lehen urteetara. 1942an Propagandako Ordezkarri Nazionalaren Aholkulari Delegatua zenari, M. Torres López¹⁰⁰, hitzaldi ziklo bat egiteko baimen eskaera egin zion Museoko Patronatuak. Baiezkoa eman bazuen ere, ohartarazi zien “que además de la parte cultural, interesa a esta Delegación Nacional de Propaganda que alguna de esas Conferencias sea de tipo político y doctrinal exclusivamente”.

1940-1942 bitartean hogeitaz hitzaldi ezberdinen aipamenak egiten dira San Telmo Museoko aktetan, geroko urtetan eskaintza hau ia desagertu zelarik. 60ko hamarkadaren amaieran San Telmo Museoan hitzaldiak maizago antolatzeko ideia agertu zuten Patronatuko kide batzuk:

“el señor Valle Lersundi sugirió la idea de concretar quincenalmente otras conferencias gratuitas, de tipo artístico, [...] en las que podrían intervenir de manera continuada los más destacados valores de la localidad, y, de vez en cuando, verdaderos profesionales de la especialidad, que con su presencia prestigiasen los actividades culturales de este Museo”¹⁰¹

⁹⁹ 1941ko otsailaren 15ko saioa. STMAD. A.L. 6. 48 or.

¹⁰⁰ 1942ko abuztuaren 11ko saioa. STMAD. A.L. 6. 55v or.

¹⁰¹ 1966ko apirilaren 12ko saioa. STMAD. A.L. 9. 31v-32 orr.



3. Ikuskizunak

Ikus-entzunezko emanaldiak ez ziren jarduera ohikoa izan museoetan garai honetan: publikoak aretoak bisitatu eta piezak ikusteaz gain eskaintzen ziren ekintza nagusiak erakusketak eta hitzaldiak izan ziren.

San Telmo museoko eliza hiriko talde ezberdinentzako emanaldi gunen izan zen komentuko egoitzaren inauguraziotik aurrera; bertan koru eta dantza emanaldiak oso ohikoak bihurtu ziren, beti ere museoko Patronatutik antolatutako jarduerak zirelarik. Hala ere, aipagarria da 1937-1940 bitartean hitzaldi-kontzertuak deiturikoak antolatu zirela, non ilustrazio musikalen bidez egiten ziren hizlarien emanaldiak, "para el goce de la música, como para el saboreo de toda obra de arte"¹⁰², garaian berrikuntza nabaria suposatuz museoetako eskaintzaren barnean. Honetaz gain ganbara kontzertu txikiak antolatzen hasi zirela aipatzen da 1937tik aurrera, Quintento Larrocha edota Cuarteto Aglaren eskutik¹⁰³ emanaldiak eskainiz, baina apenas aurkitzen dira museoak zuzenean antolatutako bestelako ikus-entzunezkoen jardueren berri.

4. Ikastaroak

Ikastaroen eskaintza ez zen hain ohikoa izan museoen eskutik. Hala ere, aipagarria da GOEk eskaini izan zituela ozeanografiari loturiko zenbait ikastaro, baita Itsas Jauregiaren eraikuntzaren aurretik ere. Gogoan izan behar dugu Elkartek zituen funtzio nagusien artean ikerketa eta difusioa aurkitzen zela, eta horren baitan ozeanografia gaietan trebakuntza eskaintza bat egitea oinarritzakoa zen. 1939an aurkitzen dugu lehen ikastaro aipamena, Celso Arévalezaren eskutik antolatutako lehen ozeanografia eta pisziakultura ikastaroarekin, ondorengo hamarkadetan zabalduko zen jarduera izanik.

5. Ekitaldiak/ Ospakizunak

Museoetan hiriari zein museoen historia propioari lotutako egun berezien ospakizunak momentu garrantzitsuak bilakatu ziren instituzioentzat: aukera ezin hobea ziren mota ezberdinetako ekintzak aurrera eramateko, komunikabideetan agertu eta bide batez publikoa erakartzeko aitzakia bihurtu. San Telmo Museoa dugun lehen aipamenak 1941 eta 1942an aurkitzen ditugu, non Liburuaren Festa izenekoak antolatu ziren. Honen baitan liburuaren erakusketa bat edota hitzaldiak egiten ziren programazioaren barne¹⁰⁴. Aquariumen aldiz, ospakizun nagusia GOEren 50.urteurrena izan zen. Hitzaldiak, itsas gaien zinema proiektzioak, haurrentzako literatura lehiaketa "Mi visita al acuario" izenapean eta "El pez raro" arrantza lehiaketa antolatu ziren (Laburu, 1986).

Bisitariak/publikoa

Publikoa erakartzeko beharrak geroz eta paper garrantzitsuagoa jokatzen zuen museoen biziraupenean. Jarduera eskaintza dibertsifikatuz joan zen eta ordura arte museoak bisitatzen ez zituzten pertsonengana heltzeko bideak irekitzen joan ziren, horien artean propaganda izan zelarik tresna nagusia. San Telmo Museoko aktetan ageri denez, 40ko hamarkadan jada esaten da:

¹⁰² "Memoria 1937-1940". DUA. Sig: 3766/9.

¹⁰³ Ibid.

¹⁰⁴ 1941ko martxoaren 28ko saioa. STMAD. A.L. 6. 48v or.



“Siendo el fin del museo un fin cultural, todo cuanto se haga por atraer al público es poco y entra de lleno en nuestro cometido [...]. (la) manera de incrementar esta afluencia de público y de incrementar, por consiguiente, la partida de ingresos, es realizar una buena labor de propaganda, apenas realizada hasta ahora o realizada de una manera esporádica”¹⁰⁵

1. Intelektualak, adituak

XIX.mendeko museo elitistatik hamarkada batzuk igarota ere, oraindik instituzio hauen izaerari estuki loturik agertzen zen kontzepzioa zen. San Telmoren kasuan, adibidez, edertasunaren kontenplazio eta estetikaren gozamenarako espazio izaten jarraitzen zuen. Nahiz eta mota askotako publikoak bisitatu izan, diktadura garaian berriz goi klaseko taldeen bilgune bihurtu zen, aurreko hamarkadetakoa langile zein beste izaera bateko taldeen bisitak desagertuz joan zirelarik. Beraz, gerraosteko museoak eskaintzen zuen “toda esa variedad de actos de fina espiritualidad y belleza artística e intelectual que atrae a un público selecto y entendido [...] contribuye poderosamente a acrecentar el prestigio de estos centros culturales”¹⁰⁶. Adituak bisitari nagusiak zirelaren aipamenak etengabeak dira: adibidez, 1941eko erakusketa bati buruz esaten zen “(que) fue visitada por un público muy inteligente”¹⁰⁷. Alabaina, 60ko hamarkadatik aurrera aurkako jarrera bat agertzen joan zen Patronatuko kideen artean¹⁰⁸, aditu eta intelektualez gain herritarrei zabaltzeko ideia¹⁰⁹ nagusituz: “El Sr. Talavera, preocupándose por el nivel artístico de proyección en el porvenir, hizo presente su propensión porque el Museo tuviese orientación popular y no científica, propia únicamente para un determinado sector de personas”¹¹⁰.

2. Hezkuntza formaleko taldeak

Gipuzkoako lehen museoak ireki zirenetik eskolako bisiten kopurua igotzen joan zen pixkanaka. Gerra Zibilaren iristearekin batera aldi bateko etena eman bazen ere badirudi oraindik ikastetxe batzuk jarraitzen zutela San Telmo bisitatzen. Hala ere protokolo bat jarraitu eta Udaleko baimena lortu behar izaten zuten, honek oraindik ere bisita hauen sistematizazioaren falta adierazi dezakeelarik:

“Se autoriza [...] para que un grupo de niñas de la Escuela gratuita del Sagrado Corazón de Jesús (Miraconcha) puedan visitar el Museo, siempre que vengan acompañadas de una profesora en grupo de 10 alumnas, cuya edad mínima sea 14 años y exhiban la tarjeta de autorización del Sr. Alcalde”¹¹¹.

Hala ere 50ko hamarkadatik aurrera pairatuko zen eskola taldeen bisitaldi masiboa, ondorengo urteetan gertatuko zenaren adierazgarri. Donostiako Udaleko lehendakariak 1945.urtean sinatu zuen idatzi bat “(para) reanudar las excursiones que fueron suspendidas por la pasada guerra de Liberación [...] (que) al propio tiempo de servir de premio a la laboriosidad de los alumnos significarán una lección práctica, complementando de esta forma el ciclo de enseñanza”; eta are gehiago, bisita hauen erabilgarritasuna ere azpimarratzen zen: “se demostraron la alta

¹⁰⁵ 1944ko urriaren 14ko saioa. STMAD. A.L. 6. 83 or.

¹⁰⁶ “Memoria justificativa de su gestión durante el años 1941 San Telmo”. DUA. Sig: 3766/10. 7- 8 orr.

¹⁰⁷ Ibid.

¹⁰⁸ Gogoratu behar dugu garai honetan Aranzadi Z.E.ak “Museo del Hombre Vasco” proiektua aurkeztu zuela eta bertan oso era argian adierazten zela seguraski garaian oso hedatua zen iritzi bat: San Telmo Museoak herritarrek erakartzeko zuen gaitasun ezari loturikoa. Horrekin batera, II Mundu Gerra osteko museoaren krisiaren oihartzunak ere iritsi ziren hein batean Espainiara, bertako museoaren kontzepzio aldaketa bate ere eragingo zuelarik.

¹⁰⁹ Honek ere lotura estua du 60ko hamarkadako munduko museoaren krisialdiarekin, non museoak *musen tenplu* izatetik demokratizazio baterantzko bidea irekitzeko lan egiten hasiak ziren.

¹¹⁰ 1961ko martxoaren 11ko saioa. STMAD. A.L. 7. 156 or.

¹¹¹ 1937ko maiatzaren 5eko saioa. STMAD. A.L. 6. 13 or.



labor educativa con ellas conseguidas”¹¹². Honi jarraiki San Telmoko urteko memorieta talde hauen zerrenda luzeak gorde ziren, sistematizazio horrek ere adierazi zezakeelarik museoentzat publiko mota honen bisitak esanguratsuak zirela, eta ez soilik aldizkako gertaera bat¹¹³.

60ko hamarkadaren erdialdetik aurrera, Donostiako Udalak ikastetxeak museoak bisitatzeko plana martxan jarri zuen, aurreko hamarkadetako ohitura sustatu nahian ikasleen artean. Honela adierazten zen “que se notificase a los colegios de nuestra ciudad – que también podría ser ampliado a los de la provincia – el acuerdo de la Junta para que en compañía de sus profesores visitasen el Museo, poniéndoles la tarifa mínima de una peseta por individuo excluido el profesor”¹¹⁴, aldi berean Donostiako eskola guztiei museoa bisitatzeko gonbidapen postal bat bidali zelarik. Urte berean Eskola Nazionala eta ikasleentzako doako sarrera ezarri zen, Eskola pribatu eta beste instituzioei sarrera murriztua egin zitzaizalarik¹¹⁵: dudarik gabe jarrera berri baten froga.

3. Turistak

Gerra eta gerraosteko garaian turisten beherakada garrantzitsua eman zen eta hiriko museoetan nabarmenki eragin zuen honek. Turisten helduera Bigarren Mundu Gerrak ere bereziki geldiarazi zuen – erbesteratutako talde handiak heltzen ziren bitartean – eta garai honetan publiko mota honen gutxitzea eman zen Gipuzkoako museoetan. Gainera, diktadurako lehen urteetako egoera ezegonkorra ere ez zuen atzeritar publikoa erakartzeko erraztasunik eskaintzen.

Alabaina, 1950tik aurrera, Espainia isolamendutik ateratzeko ahaleginak egiten ari zelarik eta Bigarren Mundu Gerra amaituta – erdi klaseen sorrera eta ekonomiaren suspertzearekin batera – turisten etorrera masiboa jasan zuen estatu osoak. Gipuzkoaren kasuan, Europako mugan kokaturik, talde hauen hartzaile nagusienetakoa bihurtu zen, XX.mende hasieran izandako loraldiaren bueltatzea gertaturik.

Donostiatik at zeuden herriek ere pairatu zuten turisten etorrera masibo hori: Victor Hugo Etxearen kasuanadibidez, aipatzen denez, garaian frantziar turistak izaten ziren bisitari nagusiak etxea ikusteko¹¹⁶.

San Telmoren kasuan hiriko turismo motor bihurtzea oinarritzeko zela pentsatzen zuten batzuk, beharrezkoa zelarik “transformar e incluso ampliar el muerto Museo de San Telmo actual, en otro vivo y espectacular. [...] representará una atracción turística de importancia insospechada que redundaría en el beneficio general de la Ciudad, vacía de atracciones arquitectónicas e históricas; un museo palpitante, espectacular y didáctico”¹¹⁷.

Jardueretarako baliabideak

1. Giza baliabideak

II. Mundu Gerraren ondoren gertatutako iraultza pedagogikoak eta horrek museoetan izan zuen eraginaren oihartzunak oso berandu iritsi ziren Espainiara, diktadura zurrun batean murgilduta eta berrikuntza ororen aurkako jarreraz. Munduko museo nagusienetan hezkuntzaren garrantziaz jabeturik 60ko hamarkadatik aurrera hasi ziren

¹¹² “Descargo de excursiones escolares. 1945”. DUA. Sig: 3791/7.

¹¹³ “Memoria justificativa de su gestión durante el años 1941 San Telmo”. DUA. Sig: 3766/10. 13-14 orr.

¹¹⁴ 1965ko ekainaren 11ko saioa. STMAD. A.L. 9. 16 or.

¹¹⁵ 1965ko azaroaren 12ko saioa. STMAD. A.L. 9. 23v or.

¹¹⁶ El Diario Vasco albiste baten zatia, 1966ko irailaren 20koa. PAU. Sig: 622-22.

¹¹⁷ “Proyecto borrador para la instalación de un Museo del Hombre Vasco (Antropología, Prehistoria, Arqueología y Etnología) en el Museo Municipal de San Telmo”. 1960. STMA. Sig: 56/8. 2 or.



proposamen berriak sortzen, eta funtzio hau beteko zuten lantaldeak osatzen. Hemen ordea hezkuntza jarduerak aurrera eramateko pertsonal kualifikatuaren falta nabariko zen urte luzez, eta XX.mende hasieraren antzera jarraitu zuten funtzionatzen, beharren arabera lan ezberdinak burutzen zituen pertsonen egokitz hezkuntza jardueren lotutako guztia.

San Telmo museoan jardueren antolaketa Patronatuaren barneko arduradunei egokitzen zitzairen, bertan sortu ziren sailen espezializazioaren arabera, batez ere aldi bateko erakusketaren antolaketari dagokionez. Bisita gidatuak burutzeko langile zehatzik existitzen ez zenez, atezainak izaten ziren egunerokotasunean erakusketako piezei buruzko informazioa emateko arduradunak. 40ko hamarkadan aipatzen denez Ordenantza batek "exige cantidades de dinero abusivas (15 pesetas), segun parece, por explicar las pinturas del ilustre artista catalán"¹¹⁸; beraz, argi dago beraiek betetzen zuten funtzioa bikoitza zela, profesionaltasun eta egokitasun ezaren isla. Alabaina, taldeen eskaeren araberrako bisita gidatuak burutzeko arduraduna kontserbadorea izan ohi zen – baita jardueren lotutako beste lan guztiak egiteko ere –. Adierazgarria da pertsonal kualifikaturik eta funtzio finko bat betetzen zuenik ez izateak arazoak ekarri ohi zituela. 1966an adibidez, frantziar fragata bateko marinela museo bisitatuko zutela adierazten da aktetan, Patronatuak izan zuelarik orduan "la necesidad [...] de concretar la presencia en el momento de un guía que hablase francés"¹¹⁹.

2. Baliabide espazialak

1970 arte sortutako museo guztiak – Itsas Jauregia izan ezik – berrerrabiltako espazioetan kokatuta zeuden. Aurrez existitzen ziren eraikinen erabilera horrek hein batean mugatu zuen jardueren zehatz batzuei zuzendutako espazioak egokitu ahal izatea. Bestalde, museoetako funtzioen lehentasuna kontserbazioa, katalogazioa eta erakusketa izanik, horretara bideratu ziren espazio gehienak. Honek eragin zuen museoetako jarduerak burutzeko beste funtzio bat betetzen zuten aretoen erabilerak edota museotik kanpoko bestelako espazioen beharra izateak. Donostian ohikoa bihurtu zen Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxak zituen aretoetan jardunaldi eta hitzaldiak gauzatzea, edota CATren – Centro de Atracción y Turismo de San Sebastián – sorreratik bertako aretoen erabilera ere egitea.

San Telmo Museoaren kasuan eliza, Serten mihisez inguratutako gunean, bihurtu zen erakusketaz kanpo publikoarentzat sortutako aktibitate ororen egoitza. Espazioaren tamainak eta eserlekuen kopuru handiak, hala nola aldarearen eskenatoki inprobisatuaren erabilerak, eragin zuen hiriko ekitaldi ugari – eta ez soilik museoak – bertan gauzatzea. Donostiako alkateak 1936an zihoen moduan, "hay que dar impulso y vida al mismo y que ha de tenderse a utilizar el salón de actos de San Telmo para los usos para los que fue restaurado o sea para manifestaciones de arte y de cultura"¹²⁰.

Horrela, San Telmoren arazo nagusietako baten luzatzea eman zen, hiriko kulturgune izaten jarraitu zuelarik hamarkada hauetan ere. Bertan burutzen ziren entsegu, festa, kongresu, dantzaldi, afari edota gabonetan Errege Magoen opari banaketarako lekua¹²¹, askotan "kutsu kultural" zantzu bat bera ere ez zutenak. Museoaren parte ziren lokalen uzteak ere nahikoa arazo ekarri zizkion Museoko Patronatuari, geroz eta elkarte gehiagoren eskaerak egoera maneiatu ezina bihurtzera eramanez. Gainera, askotan Patronatuak berak museoan burutzen ziren jardueren berri ez zuen izaten, eta horrek egoera ezegonkorra sorrarazten zuen biltzarkideen artean. 1943ko ekitaldi baten berri egunkariari esker izan ondoren aipatzen zuten "lamenta que no se hayan guardado deferencias ni atenciones en el Patronato, toda vez, que se han anunciado sin previa autorización, viéndose sorprendidos los

¹¹⁸ 1966ko urriaren 9ko Saioa. STMAD. A.L. 6. 66 or.

¹¹⁹ 1966ko otsailaren 11ko saioa. STMAD. A.L. 9. 27v or.

¹²⁰ 1936ko azaroaren 10eko saioa. STMAD. A. L. 6. 5v or.

¹²¹ "Memoria 1951". DUA. Sig: 3766/15.



miembros del Patronato ante la publicidad de la prensa [...] diciendo que tampoco para este acto ha habido solicitud de autorización de ninguna clase por parte de la entidad organizadora que nos es hasta la fecha desconocida”¹²². 1945an jarduera hauekiko erabaki bat hartzea oinarritzkoa zen; horrela, Patronatuak etengabe aipatzen zuen moduan

“solo deberán celebrarse actos de cultura de gran relieve y cuidándola como preciada joya, sin dársele jamás otros usos que aquellos para los cuales fue precisamente restaurada. [...] (y evitar) esas intervenciones que tanto perturban al personal del Museo, obligado durante dos o tres días a los preparativos de la Sala que queda después de los conciertos y conferencias en lamentable estado de suciedad, en ocasiones con deterioros, sin contar los gastos que originan de material de limpieza e instalaciones, consumo de luz, etc. que sufraga este establecimiento”¹²³

Zenbaitetan San Telmon erakustaretoak ere erabiltzen dira jarduerak egiteko, horrela aldi baterako erakusketak eta bilduma iraunkorrak nahasten zirelarik. Hitzaldien izaera eta partehartzaile kopuruaren arabera ere erabili ohi ziren espazio hauek, aktetan aipatzen zen moduan: “que determinadas personalidades sean invitadas y asistan al mismo, con el fin de que ésta revista mayor solemnidad y brillantez, habilitándose una de las galerías del claustro bajo del Museo, donde tendrá lugar la Conferencia”¹²⁴.

Egoera honi ez zion batere laguntzen Donostiako Udalaren jarrerak, zeinak museoko espazio ezberdinak biltegi bezala erabiltzeari ekin zion, Patronatuaren ezezko jarrerak eraginik izan gabe. Adibidez, 1951an Udalak erositako telefono kantitate handi bat gordetzeko biltegi funtzioa betetzeko ideia izan zuten¹²⁵, San Telmo museo baino erabilera anitzeko areto bat bilakatzen hasia zelarik.

3. Baliabide materialak

Gerra Zibileko urteetan bezala, diktaturako lehen urteetan ez zen inolako baliabide materialik sortu museoetako jarduera ezberdinak burutzeko. Oraindik gida eta katalogoak ziren – San Telmo eta Itsas Jauregian – bisitariek erabili ahal zuten tresna bakarra, hala nola San Telmok argitaratu zituen artelan batzuen postalak. Salbuespen bakarra San Telmon aurkitzen da, non 60ko hamarkadan eta funtzio didaktikoa betetzeko ildo berrien baitan proposamen bat egin zen Patronatuan. Honen baitan hezkuntza funtzioa era zuzen batean beteko zuen lehen ekintzetakoaren froga garbia agertzen zaigu: Museoko bilduman gordetzen ziren hilarrien ezagupenerako estilo eta garai ezberdinak irudikatzen zituzten lau eredu elkartzea proposatzen zen, honekin batera euren jatorri zein esanahia azalduko zuten fitxak sortuko zituztelarik, marrazki eta argazkiez lagunduta¹²⁶.

¹²² 1943ko abuztuaren 31ko saioa. STMAD. A.L. 6. 63v or.

¹²³ 1945ko martxoaren 10ko saioa. STMAD. A.L. 6. 95v-96v orr.


¹²⁴ 1949ko irailaren 1eko saioa. STMAD. A.L. 7. 59v or.

¹²⁵ 1951ko urriaren 9ko saioa. STMAD. A.L. 7. 89 or.

¹²⁶ 1966ko azaroaren 11ko saioa. STMAD. A.L. 9. 41 or.



GIPUZKOAKO MUSEOAK. 1936-1970



Legenda:

-  1902-1936 bitartean irekitako museoak
-  1936-1970 bitartean irekitako museoak

Hirugarren atala: 1970-1990

I. HAIZE BERRIEN HELDUERA

Frankismoaren amaiera

1975.urterarte Francoren heriotza urtea izan ez bazen ere, 70ko hamarkadarako jada aldaketak nabarmentzen hasiak ziren Espainiar Estatuan; diktadorearen azken urteak zetoze aurreikusita etorkizunean erregimenaren baloreen alde egingo zutenen eskumenak antolatu eta *lotzeari* ekin zitzaion. Horrekin batera, gizarteak bizi zuen zailtasun garaia eman ziren, greba orokorrak eta industria sektorearen krisiak luzatzen zirelarik.

Ziurtasun eta egonkortasunik gabeko garai horretan ordea etorkizuneko gizartearentzako oinarritzakoak izango ziren aldaketak eman ziren zenbait arlotan. Horien artean mundu mailan ematen ari zen hezkuntzaren inguruko eztabaidaren oihartzunak heltzen hasiak ziren: Coombsek (1985) “munduko hezkuntzaren krisia” deiturikoaren inguruan sortu ziren lehen hausnarketa eta kritikak – 68ko maiatzaren erreibindikazioetatik abiatuz –, existitzen zen hezkuntza sistema gizartearen beharretara egokitzen ez zela defendatuz eta irtenbidea izan zitezkeen teoria berriak kaleratuz (Zabala eta Roura, 2006). Espainian, 1970ko Hezkuntza Lege Orokorrak aro berri baten abiapuntua adierazi zuen¹²⁷, ordura arteko modelo frankisten alternatibak izan ziren eskolei ere paper berri bat eskaintzen zitzaiolarik (Marqués, 2008) eta urteetan zehar zapal dutako ideia eta elementuen baimentzea emanik; horien artean espainolaz gain beste hizkuntzen ofizialtasuna onartuz

Hezkuntzarekin batera, kultur arloan ere mugimendu erreformista indartsuen ahotsak entzuten hasiak ziren pixkanaka, frankismoaren kontrol eta zapalkuntzetik atera nahi zuten sortzaileen indarrak batzeak eragin handia izan zuelarik batez ere euskal gizartearen, eta aldi berean “habrá una importante difusión de una serie de obras de naturaleza cultural, social y política de importancia fundamental, entre unos sectores mucho más amplios de la sociedad de los que el régimen tenía previsto, en una fase ascendente de reivindicaciones estudiantiles y obreras” (Rojas, 2006: 79). Klima kultural berriaren baitan oinarritzakoa izan zen kanpoko ideien sarrera klandestinitik askatasun gehiagoko mugimendu batetara igarotzen hastea. Izan ere, “desde los últimos años sesenta, época en la que ya se podía percibir entre intelectuales, escritores y artistas una creciente receptividad a las ideas y tendencias que llegaban del exterior, lo que supuso una mayor diversidad y un nuevo espíritu de libertad dentro de la cultura de la oposición” (Ait, 2007: 224).

Trantsizioa eta demokraziaren lehen urteak

Franco hil ondoren eta Estatuko gobernu buru Juan Carlos I Erregea izendatua izan ostean, oraindik ere egoera politikoa tentsio handi baten baitan mugitzen zen. Alderdi ezberdinetako terrorismo ekintzen hasierak eta poliziak buruturiko jazarpen indartsuarekin batera, gizarte berri bat eratze bidean oraindik oztopoak ugariak ziren (López Rodríguez, 2010). Trantsizioa deiturik garai honen baitan sistema demokratikoaren ezarzerako lanak nagusitu ziren; 1977an alderdi politikoak legeztatueta hauteskunde orokorrak deitu ziren¹²⁸, UCD alderdi politikoaren garaipenarekin demokraziaren aroari hasiera emanez eta askok deitutako “el despertar de una nueva época”ri (García García, 2013: 612) hasiera emanaz. Hala ere, diktaduraren erregimenetik paktu bidezko salto bat egin zen monarkia parlamentario batetara, frankismo garaiko egitura mantendu eta protagonista askok boterean jarraitzeko aukera izan zutelarik (Laburu, 1986).

¹²⁷ Nahiz eta egungo ikuspegitik hutsunez betetako legea izan, oinarritzko aldaketa batzuk planteatu ziren, etorkizuneko lege berrien eta sistema aurrerakoia goi aterak irekiz.

¹²⁸ *Erreforma Politikorako Legea*, 1/1977 urtarrilaren 4koa. BOE 4 zkia, 1977ko urtarrilaren 5koa.



1978ko Espainiar Konstituzio berriarekin batera, Estatua autonomi erkidego desberdinetan banatu zen. 1979an Euskal Autonomi Estatutua onartu eta EAE osatzen zuten hiru lurraldeen – Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa – gobernua eratu zen, Eusko Jaurlaritza. Egoera berri honetan, aurrez gobernu zentralaren esku zeuden eskumen asko erkidego bakoitzeko gobernu berrietara pasa ziren, euskal gizartearen arlo ezberdinen bultzada eta sustapenerako ezinbestekoak izan zirenak: Urte luzez galdutako nortasunaren aldarrikapenak arlo guztiak bete zituen eta lurraldetasunari lotutako izaera sustatzearen aldeko jarduerak infinituak izan ziren. Garai berdinea gainera *Lurralde Historikoen Legea, 1983ko abenduaren 25koa* onartu zen, zeinaren bitartez hiru lurraldeen baitan ere banatu ziren eskumen batzuk, horiek sortutako gobernu berrien esku geratuz, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Foru Aldundiak.

Kamaleoien garaia: Museoak azala aldatzen

II. Mundu Gerraren ostean nazioarte mailan museoek jasandako eraldaketa prozesuak etorkizuneko ildoak markatu zituen; eta 60ko hamarkadaren amaieratik sortutako eztabaida eta hausnarketa joera berriek 70ko hamarkadatik aurrera museoen birplanteaketa bat suposatu zuten. Alde batetik, Coombsek (1985) planteatutako munduko hezkuntzaren krisiari erantzuteko alternatiba ezberdinak proposatu ziren, honek hezkuntzaren baitan esparru ezberdinetara zabaltzen ziren motak definitu zituelarik¹²⁹. Bestalde, “los trabajadores de los museos y los asistentes a reuniones de asociaciones e instituciones encargadas del manejo de museos reabren la polémica y discute la manera de acercar la institución a la sociedad” (Castellanos, 2008: 106). Izan ere, museoak instituzio itxi eta elitista baten irudiaren baitan mugitzen zen oraindik ere, jada XX.mende hasieran egindako kritika ugariaren jarraipena bermatuz. Museoak gizartearen zerbitzura egon behar ziren instituzioak zirela defendatzen zuten aditu askok, demokratizazio prozesu erreala baten baitan objektuari begira zegoen museo batetik pertsonaiei zuzenduta eta hau ardatz harturik egotera pasatuz

Egoera honetan, “frente a la clásica concepción de museo como espacio de deleite y contemplación, aparece una visión más amplia de la institución que permite considerarla dentro de aprendizaje y educación del público” (Zabala eta Roura, 2006: 238), museoen funtzio didaktikoaren inguruko benetako sentsibilizazioa gauzatuz. ICOMek berak ere, museoaren definizio oinarritzkoaren bertsio berri bat egokitu zuen 1974an¹³⁰, funtzioen artean hezkuntza ere aipatuz, dudarik gabe garai berri baten aurrean aurkitzen zirelaren erakusle (Hernández Hernández, 1992).

DEAC

ICOMek, proposatutako definizio berriaren baitan eta hezkuntza funtzioa aurrera eramateko, museo guztietan DEACen – Departamento de Educación y Acción Cultural – eraketak gomendatu zituen. Espainiaren kasuan, 70ko hamarkadan sortu ziren lehen hezkuntza departamentuak Bartzelonan eta oso era esperimentalean. Izan ere, baina 80ko hamarkadaren hasieratik aurrera izandako eskolako taldeen etorrera masiboek eragin zuten museo zahar zein berri askok honelako neurriak hartu behar izateak (Sagüés, 1999). Oro har, lehen departamentu haien eta hezkuntzaren arteko lotura oso estua zen, lehen hezitzaileak irakasle liberatuak izan zirelarik askotan

Sail hauen hedakuntzan eragin zuzena izan zuten Espainian 1980tik ospatu ziren DEAC Jardunaldiak. Portugalen CECAk urtero antolatzen zuen kongresua ospatu eta espainiar museo batzuetako langileak bertan egon ziren; egoera hartan eta era boluntario batetik abiatz, Estatuan ere tankera honetako bilkurak antolatzea proposatu zuten, “(para) compartir sus problemáticas y plantear soluciones, aprender colectivamente, buscar referentes y construir la incipiente profesión de educador de museos” (Sanchez eta López, 2011: 211). 1980tik aurrera beraz, DEAC Jardunaldi ezberdinak burutu ziren Estatu osoko hiri ezberdinetan, geroz eta arrakasta eta interes handiagoa

¹²⁹ Hezkuntza formala, ez formala eta informalaren banaketa ezaguna oinarritzko abiapuntua izan zen museoaren inguruko teoria berriak gauzatzeko.

¹³⁰ ICOM. Museoaren definizioa (1974): Institución permanente, sin finalidad lucrativa, al servicio de la sociedad y su desarrollo, abierta al público, que adquiere, conserva, investiga, comunica y exhibe para fines de estudio, educación y deleite, testimonios materiales del hombre y su entorno”.



eragiten zutelarik. Hauen baitan, aipagarria da Gipuzkoako museoetako eta instituzioetako zenbait arduradun ere horietako batzuetan egon zirela¹³¹ eta horrek, dudarik gabe, lurraldeko museoetako hezkuntza sailetan eragingo zuen etorkizunean.

Museoak: ardura berria

Autonomia Erkidegoaren osaketaren ondorengo urteetan egoera berrira egokitzeko garaiak iritsi ziren, non agintari zein teknikarek diktadura luze baten ondoren geratutako euskal probintzien arrastoak jaso eta gizarte berri bateranzko lanean hasi behar izan zutelarik. Erkidegoko gai ezberdinen inguruko arloak antolatu eta egoeraren azterketa bat burutzea oinarritzkoa zen, hurrengo urteetan eman beharreko pausoak finkatu eta plangintza egoki bat eratzeke.

Museo, liburutegi eta artxiboen egoerak ere berebiziko garrantzia zuen sortutako instituzio berrientzat; baina ordura arteko egoeraren berri ematen zuen txosten eraginkorrik ez zen existitzen eta datu estatistikoak zein bildumari buruzko aipamenak tartekatzen ziren izaera akademizistako informe eta katalogoen baitan. Horren aurrean, 1983an, EJKo Kultura Saileko Ondare historiko-artistikoko zuzendaritzak¹³² Euskal Herriko Museoen egoeraren diagnostiko bat burutu zuen.

Horretaz gain, Gipuzkoan ere aurrerapauso nabariak eman ziren alor honetan. Lurralde Historikoarekin Legearekin "(se)otorga competencia exclusiva a los órganos forales para ejercitar en materia de Museos e Instituciones relacionadas con las Bellas Artes y Artesanía" (Izaguirre, 1988: 325). Beraz, 1985an eta eskumen berria jaso ondoren, GFAREN baitan eratutako Kultura departamentuaren barnean Museoen saila sortu zen, Ondare Historikoaren Zerbitzuaren menpe. Sail berriak ordura arteko egoeraren azterketa, ekipamenduen koordinazioa eta ekintzen sustapenari ekin behar izan zion, oraindik oso nahasia ez zen museoen mapa baten baitan¹³³.

Eusko Ikaskuntzaren X Kongresua (1987)

Euskal museoen historian inflexio puntu bat suposatu zuen beste gertakizun bat Eusko Ikaskuntzak 1987an antolatu zuen X. Kongresua izan zen, non artxiboak, liburutegiak eta museoak izan ziren hizpide. Lehen aldiz, EAEko zein lurralde historiko bakoitzeko panoramaren azterketa bat burutu zen, aldi berean teorien inguruko eztabaida eta hausnarketarako espazio berria bihurturik.

Gipuzkoar museoiei dagokionez, Manu Izaguirre izan zen egoeraren berri emateko arduraduna, garaian GFAko Ondare Historiko-Artistikoaren Zerbitzuko buru zena. Izan ere, GFAk etorkizunean museoen arloan egin beharreko lanen finkatzearen aurretik oso argi zuen lurraldeko ekipamendu hauen egoera ezagutzea oinarritzkoa zela. Lehen ikerketa honetatik ateratako ondorio nagusien artean, Izaguirrek (1988) aipatzen zuen finantzazio publiko eskasia zutela, museo estatistikoak zirela eta erakusketen kontzepzio didaktiko baten eza existitzen zela, alegia, ez zutela publikoari zuzendutako plangintza eta eskaintza programaturik eta gainera, pertsonal kualifikatu eta espezializatu baten gabezia nagusitzen zela. Egoera horren aurrean, GFAko Kultura sailak hainbat ekimen sustatzeko ildoak finkatu zituen:

- 1985tik aurrera museoiei zuzendutako dirulaguntzak definitzea
- Laguntza tekniko eskaintza muntaia, aurkezpen, zaharberritze eta beste gaien inguruko aholkularitza bitartez.

¹³¹ 1984ko DEAC Jardunaldietan GFAko bi teknikari teknikari eta San Telmo Museoko bi langile izan zirela jada; 1988koetan GFAko teknikari bat eta San Telmo Museoko bat eta 1989koetan GFAko Museoko saileko teknikaria, San Telmo Museoko arduradun bat eta Zumalakarregi Museoko bi.

¹³² *Museoen egoerari buruzko diagnosia, Eusko Jaurlaritza*. STMA. Sig: 329/10.

¹³³ Gainera, ordura arte existitzen ziren datu bakarrak txosten estatistikoak ziren, bildumei buruzkoak edota eraikinaren ingurukoak; baina Gipuzkoako museoek funtzionamendu eta jardueraz hitz egiten zuen dokumenturik ez zen existitzen.



- Formakuntza: beka eta diru-laguntzak sortzea teknikari espezializatuak izateko
- Difusioa: erakusketak, katalogo eta eskuorrien argitalpenak, eta abar.

Gipuzkoako musoeoetako diru-laguntzak.

Kongresu honen baitan proposatutako ildo berri horiei jarraiki, GFak museoek egoera hobetu eta jarduera ezberdinak sustatzeko diru-laguntza berezi batzuen sorrerari ekin zion. Lehenbizi, 1988.urtean, egoeraren azterketa bat burutu zen¹³⁴, ordura arte existitzen ziren ekipamenduen oinarritzko datuak jasoz zein eguneroko funtzionamenduaren inguruko informazioa bilduz: sarreraren prezioa, baliabide ekonomikoak, bilduma, langileak, eta abar.

Etorkizuneko ekimen askoren abiapuntua izan zen hau, hala nola aurrez existitzen zirenen indartzea. Eta ordutik aurrera, “se desató entre nosotros una especie de fiebre por los programas didácticos y de difusión. [...] se renovaron las técnicas y los recursos expositivos [...] Se crearon gabinetes didácticos [...] se comenzó a hacer hincapié en as labores de difusión” (Díaz Balerdi, 2010a: 112).

¹³⁴ “Estudio para evaluar y establecer las bases de subvenciones para los museos guipuzcoanos. 1988-4-19. Sección Museos. Departamento de Cultura. Diputación Foral de Gipuzkoa”. IRUA. Sig: 7/579.



II. GIPUZKOAKO MUSEOAK ESNATZEN HASIAK

Gipuzkoako museo zaharrek diktadurako urte luzeen ondorengo panorama bati egin behar izan zioten aurre: egunerokotasun estatiko batean murgildurik eta oraindik ere publiko orokorrarengan interes berezia sortzea eragiten ez zuten programazioen erritmoari jarraiki. Garai berriko egoera soziokulturalak ordea estrategia eta bide berriak aurrera eramateko aukera bat eskaini zien; zenbaitzuk garai berriari aurre egiteko indarra eta interesa izan zuten – San Telmo Museoak bezala – eta beste batzuk ordea heriotzera kondenatuak zeuden, adituen zerbitzura egon ohi ziren espazio petrifikatuetatik irten nahi ez zutelarik.

Horrekin batera, 80ko hamarkadaren erdialdetik aurrera indartu ziren proiektu berriak bestelako ideia batzuen baitan sortuak ziren, XIX.mendeko herentzia jaso zuten museoak izateko kargarik gabe aurrera egiteko aukera zutenak. Hauen baitan garaiko proposamen berrikoienak aurkeztu ziren gizartera, museo-hilerri definiziotik haratago zihoazen instituzioak zirela frogatuz.

Museo zaharrak

1. San Telmo Museoa

Diktadura garaia amaiarako urteekin bat eginik museoaren etorkizunaren hausnarketa berri bat eman zen (Arrieta, 2012b). Bildumaren kudeaketa, publikoaren interesa, museoaren antolamendua eta beste hainbat gai ziren oraindik konpondu beharrekoak, jada aurreko hamarkadetan eztabaida ugariaren ardatz izan zirenak. Egoera sozio-politikoaren egonkortzeko bidean hasia zenez, San Telmo museoan lanean jarraitu zuten, bereziki programazio kultural indartsu bat osatzeko asmoz eta publikoari berriak ziren proposamenak eskainiz. Badirudi museoak garai oparoa bizi zuela, eta horren adierazgarri ziren “las actividades desarrolladas, haciendo resaltar la variedad, el ambiente creado en torno a nuestra institución y reflejado en sus actividades culturales y en los donativos de que ha sido objeto”¹³⁵. Argi dago beraz museoak pixkanaka kontserbazio eta katalogazio lanetatik haratago ikusi eta bestelako funtzio batzuez arduratzen hasi zela. Honen baitan, Patronatuak berak erakusketak antolatu eta “actos públicos” deituko zituzten jardueretarako interesa agertu zuen.

Oparotasun honek ordea museoko instalakuntzen egoera kaskarrarekin eta instituzioaren irudi zaharkituarekin talka egiten zuten; eraikina berritzeko beharra etengabeko adierazpena bilakatu zen, batez ere 80ko hamarkadatik aurrera¹³⁶. Garaiko komunikabideek ere honen berri eman izan zuten, biztanleriaren kexa eta kritika etengabekoak ezagutzean Patronatuaren ezegonkortasuna areagotu egiten zelarik. Honela, 1980an ERE aldizkarian “San Telmo o el abandono hecho institución” (Taller Escuela de San Pedro de Andatza, 1980) izena zuen artikulua luze bat kaleratu zen, hau “«antimuseoaren» eredu bat” zela argudiatuz. Hemen aipatzen zenez donostiarrek “el muerto” eta “el depósito” ezizenaz ezagutzen zutela museoa: espazio arazoak, finantziario eza eta instalakuntzen egoera penagarriek Patronatuaren eta langilegoaren lana estaltzen zuten.

Museoaren jarrera ordea oso bestelakoa zen irudi bat transmititzean zetzan, egiten ari zen lan kultural gogorraren froga agertu nahirik: “ha obligado a una labor intensiva, ha sido pródigo en manifestaciones artísticas que han dado

¹³⁵ “Memoria del museo 1983-hasta noviembre”. DUA. Sig: 6329/15.

¹³⁶ “Memoria 1981”. STMA. Sig: 57/16.



realce y honor al palacio de San Telmo, por la difusión que ha tenido en el ambiente local con repercusiones afuera, las organizaciones llevadas a cabo en sus salas”¹³⁷.

Laurogeiko hamarkadaren erdialdetik aurrera pedagogiako ideia berriek indarra hartu zuten Gipuzkoako museoan panoraman ere: ez soilik sortutako programazioaren ezaugarrietan nabarmendua, baita bestelako ekintzetan ere. San Telmoren kasuan, aipagarria da atal artistikoen berrantolaketa bat burutu zela helburu zehatz eta berri batzuk lortzeko asmoz: “se ha distribuido de una forma pedagógica y científica toda la pintura del Museo”¹³⁸. Publikoa hezteko tresna izatearen adierazpenak pixkanaka txertatuko ziren Patronatuaren diskurtsoan, beti ere adituentzako gune bat zela jarraitzen zuelarik: “continuar cumpliendo los fines encomendados a este Museo, de elemento activo de instrucción popular y de la alta cultura”¹³⁹.

Baina museografian aldaketak eman baziren ere, oraindik ideia tradizionalen baitan ikusten zuen San Telmo museoak bere funtzioa: “tienen la misión de ofrecer a sus pueblos y a la curiosidad e inteligencia mundiales, la norma de todas las novedades intelectuales y artísticas que se producen, sin olvidar que son también los depositarios de la vida y el pensamiento y de todos los tesoros de inspiración y belleza que acumularon los siglos”¹⁴⁰. Garai berriei egokitu nahian eta etorkizunerako ildoan finkatze beharra ikusirik, 1987an San Telmo museotik deialdia egin zitzaizen euskal aditu ezberdinei, museoan burutu beharreko aldaketen inguruko aholkuak eskatuz. Izan ere, ordura arte “la dependencia del mismo rigurosamente a presupuestos municipales, siempre más escasos que los Forales, no han permitido afrontar de forma radical la renovación y adecuación profunda del museo a las exigencias contemporáneas” (Zabala, 1987: 185).

2. Victor Hugo Etxea

Antonio de Oruetak hasitako kudeaketetatik abiatuz – non eraikina saltzeko lanak hasi zituen espazio historiko hura museo egonkor bat bihurtu zedin – Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak eraikina erosi eta erreforma lanei ekin zien 1978.urtean¹⁴¹. Etxeko obrek zenbait urtetan iraun zuten, museoak beteko zuen funtzioa eta irekiera urtearen inguruko zalantzak agertu zituztelarik bertako arduradunek. 1983. Urtean, Miguel Angel Martin, Aurrezki Kutxako harreman publikoetako zuzendariak, El Diario Vascoi eskainitako elkarrizketa batean argi uzten zuen zein izango zen etxeari emango zitzaion erabilera etorkizuneari: “es nuestro deseo habilitar una serie de estancias que puedan servir para manifestaciones de tipo cultural [...] Nosotros mismos pensamos que habría que propiciar visitas, exposiciones, conferencias, etc.”¹⁴².

Beraz, Victor Hugo Etxea idazlearen figura ezagutzeko espazio bat izatetik haratago, kultur gune moduko bat izateko asmoa agertzen zuten eraikinaren jabe berriek. Badirudi hainbat hamarkadetan funtzio hori bete zuela, Pasaia Udalak eta Aurrezki Kutxa Probintzialak antolaturiko jarduera ezberdinetarako gune bilakatu zelarik.

3. Armagintza Museoa

Museoko egunerokotasunak ordura arteko erritmoa jarraitu zuen. 60ko hamarkadan egindako museografia aldaketen ondoren ezer gutxi aldatu zen, 1984.urtean kaleratu zen museoko hirugarren katalogoa salbu. Bertan, eta 1963koan aipatutako “museo bizia” izatearen beharrari erreferentzia eginez, zera esaten zen: “museo moderno batek helburu didaktiko bat betetzeko prestaturik egon behar duela, bisitariak ahalik eta gehien probetxa dezan [...]”

¹³⁷ “Memoria 1983”. STMA. 57/18. 5.

¹³⁸ “Memoria del museo 1983-hasta noviembre”. DUA. Sig: 6329/15.

¹³⁹ “Memoria 1984”. DUA. Sig: 6329/16.

¹⁴⁰ “Memoria 1983”. STMA. Sig: 57/18. 5.

¹⁴¹ “Reforma de la Casa Victor Hugo en la c/ San Juan, 51”. Caja de Ahorros Provincial de Gipuzkoa. PAU. Sig 622-22.

¹⁴² Miguel Angel Martin, Aurrezki Kutxako harreman publikoetako zuzendariak, El Diario Vascoi eskainitako elkarrizketa. 1985. PAU. Sig: 622-22.



eskolarientzat behar bezala pentsatu eta estudiaturiko programarekin, zeina aldi berean osagarri izango bait da” (Larrañaga, 1984). Honek adierazten digunez, oraindik ere museoak Armagintza Eskolako ikasleei zuzendutako espazio bat zen, eta publiko orokorrera bideratzen zen inongo jarduerarik egiten ez zela pentsa daiteke. Beraz, helburu nagusietako bat bete gabe zegoen oraindik ere: museoak era jarraitu batean irekitzea publiko guztiari.

4. Zuloaga tailer etxea


Ignacio Zuloagaren heriotzaren ondoren ere gauzek antzera jarraituko zutela pentsa daiteke. Familiaren eskuetan egon zen museoak urte luzez, inongo aldaketa esanguratsurik jasan gabe eta ordura arteko funtzionamenduan planteamendu berdinak oinarritzat izanik.

5. Itsas Jauregia- Aquariuma

Aquariumak frankismo garaian izandako bisitari kopuru handiak eta erakargarritasun nagusia galdu zuen 70eko hamarkadaren erdialdetik aurrera. Izan ere, egunerokotasunaren erritmoek eta jarduera eskaintza indartsu baten ezak eragiten zuen geroz eta bisitari gutxiago jasotzea (Laburu, 1986). Horrela, “El Palacio del Mar y su Acuario se iban quedando atrás respecto a otros museos, y quien los visitaba se quedaba sin ganas de volver otra vez, debido a la inmutabilidad y hasta la cochambre de sus instalaciones” (Laburu, 1986: 369).

Bultzada berria Autonomia Estatutuarekin batera etorri zen, GOEren birplanteaketa eta hausnarketa berri batetara eramane zituenak: instalakuntzen hobekuntza baten beharra eta museoaren antolakuntza eta katalogazio lanek lehentasuna izan zuten (Laburu, 1986). Antolaketa dagokionez, GOE-a sail ezberdinetan banatu zen, jarduerak, instalakuntzak, instituzioekin harremanak eta beste hainbat funtzio betetzeko. Museografiaren kasuan deigarria da garai honetako ideia berrien iristeak ere eragin zuela pentsakera aldaketa bat Elkartearen barnean, beste neurri batzuen artean proposatu zelarik panel didaktikoak moldatzea eta erakusketan bertan bideoak proiektatzea.

Eusko Jaurlaritzako lehen gobernu osoa, Ondarearen zuzendari zen Aingeru Zabalaekin hitz egiteko aukera aprobetxatu zuen, hala nola GFAko Diputatu Nagusia zen Xabier Aizarnarekin. Hauei aurkeztu zitzaizen “(el) Anteproyecto ideal para la creación de un conjunto turístico-cultural en el puerto de San Sebastián” (Laburu, 1986: 401), instalakuntzen berrikuntza proiektu berriaren ardatz nagusi izanik. Bi instituzioen babesa izanda, lehen erreforma lanak burutu ziren 1981. urtean, Akuarioko instalakuntzetan aldaketak burutuz; bigarren fase batean Itsas Jauregiak bestelako obrak burutu ziren, 1984 eta 1985 bitartean (Sada, 2008).



4 irud: Itsas-Jauregiako Natur-
Zientzien atala 80ko hamarkadan
(G.O.E. Gipuzkoako Ozeanografia
Elkartea)

6. Oquendo Etxea

Oquendo Etxearen inaugurazioaren ondoren, museoak uzte jarraitu bat pairatu zuen, irekiera eta kudeaketa egonkor bat izan ez zuelarik. Badirudi 70ko hamarkadan oraindik museoaren ildoak zein izango zen erabaki gabe zegoela, eta espazioaren erabilerarako proposamenak egiten jarraitzen zirela Patronatuko bileretan. Horien artean Donostiako Hiriko Museo Zibila bihurtzeko proiektuaren berri ematen zaigu 1974. Urtean: “que se estudie el modo de decidir la creación de un pequeño Museo civil de la Ciudad en la Casa de Oquendo, con los grabados y litografías más características conservados en este Centro, [...] , y proyectada con maquetas y cuanto de interés útil lo pueda complementar, científica y culturalmente”¹⁴³.

Museorako aurrekontuen atalean ere obra eta instalakuntzetara bideratutako diru kopuruak besterik ez dira agertzen, propaganda eta jarduera ezberdinetarako inongo aipamenik gabe¹⁴⁴. Honela museoak fase ezberdinak bizi izan zituen bere inauguraziotik: Hasieran Oquendo almirantearen ondasun materialen erakusketa izango zena XVI.mendeko jauregi baten eszenifikaziora izatera pasa zen gero, amaieran Donostiako Historia Zibilaren Museorako proposamena nagusitu zelarik. Gauzak honela, 80ko hamarkadan Donostiako Udalak Oquendo etxeari bestelako erabilera bat eman nahian eraberritze obrak hasi eta Oquendo Kultur Etxe bilakatu zuen.

7. Urgull. Historia Militarren Museoa/ Urgull Historiaren Etxea

Motako gaztelua museoa bihurtu zenetik aurrera, badirudi hau ere nahiko utzita egon zela hiriko beste hainbat azpiegitura bezala, eta hura berreskuratu zein publikoaren artean ezaguna bihurtzeko lanak egiten hastea erabaki zen 70ko hamarkadaren hasieran. Horretarako, Udaleko aholkulari militarrek egindako txosten batean¹⁴⁵ agertzen denez, turistei Urgull eta Uli mendien inguruko ezjakintasuna nagusiari aurre egiteko propaganda lan indartsu bat aurrera eramatea oinarritzkoa zen.

Dirudienez, museoa berrindartzeko proposamenaren gauzatzea ez zen aurrera eraman eta 80ko hamarkadaren hasieran “El Museo Histórico Militar del Castillo de la Mota se encuentra cerrado dado su mal estado de conservación”¹⁴⁶. Museoaren egoerak eragin zuen 1982an erakusketan gordetzen ziren bildumak San Telmora bueltatzea (Fornells, 2003). Urgull mendia bera ere egoera txarrean eta utzita aurkitzen zen, eta honi aurre egiteko hiriko elkarte batek hura garbitu eta bideak atontzeko lanak hasi zituen¹⁴⁷. Honekin batera museoa berriz irekitzeko argiztapen sistemaren berritzea, zaharberritze lanak eta obren inguruko aurrekontua ere prestatu zen¹⁴⁸, eta aldi berean San Telmo Museoa, Motako gaztelua eta Urgull mendiaren Patronatua eratu zen 1986an¹⁴⁹. Azkenik, 1989.urtean Urgulleko museoak berriz ireki zituen bere ateak¹⁵⁰, ordutik aurrera San Telmoko kudeaketaren baitan geratuz.

8. Miniatura militarren museoa

¹⁴³ 1974ko abuztuaren 9ko saioa. STMAD. A.L. 9. 161 or.

¹⁴⁴ “Anteproyecto de ingresos y gastos del Museo Municipal de STM para 1978”. DUA. Sig: 6329/14.

¹⁴⁵ “Informe del estado del Castillo y mejoras hechas por el asesor militar del Ayuntamiento, Fernando Mexía. 1973”. DUA. Sig: 6338/12.

¹⁴⁶ “Patronato del Castillo de Santa Cruz de la Mota y del Monte Urgull. Septiembre de 1983”. Informe. STMA. Sig: 227/8.

¹⁴⁷ “Memoria de los trabajos realizados en el Monte Urgull por Kattagorri Taldea. Abril 1980- septiembre 1981”. STMA. Sig: 227/8.

¹⁴⁸ Motako Gazteluko aurrekontuak. STMA. Sig: 227/8.

¹⁴⁹ Patronatu berriaren sorrera. STMA. Sig: 57/24.

¹⁵⁰ “Urgull, Hiriko Historiaren Museoa”. STMA. Sig: 57/24.



Udal Aurrezki Kutxaren jabetza zen espazio honetan irekita egon zen Miniaturen Museoa, 1973 urte inguruan itxi zen arte. Ezin daiteke jakin ziur zein izan zen itxieraren arrazoia, baina badirudi erakusketarekin zenbait arazo egon zirela, Urgulleko Museoko aktetan agertzen den bezala: “(son) actos de tan alto gamberrismo y a veces vandálicos, como lo fue la completa destrucción del maravilloso y artístico Museo de las Miniaturas Militares”¹⁵¹.

9. Julio Beobide Museoa

Irekiera urtetik informaziorik jaso ez den arren, badirudi funtzionamendu berdinarekin jarraitu zuela museoak, aldizkako irekieren baitan eta familiaren kudeaketaren esku.

Museo berriak

10. Mirandaola

Legazpin burdinaren inguruko industriak oparotasun garaiak bizi izan zituen XIV eta XV.mendeetan, baina XIX.mendetik aurrera eman ziren aurrerakuntza teknikoek eragin zuten horri lotutako azpiegitura eta jarduera guztien pixkanakako desagerpena. XX.mendearen erdialdean ordea Legazpiko ekonomiaren suspertzea eman zen Patricio Echeverriari esker, zeinak altzairua eta burdin tresnak sortzeko enpresa ireki zuen – PESA, Patricio Echeverría S.A. – (Arrieta, 2010). Langileriaren etorrerak eragin zuen herriko biztanleriaren hazkunde nabaria ez ezik, sozialki ere bultzada esanguratsua suposatu zuen eta familien beharrei erantzuteko azpiegitura desberdinak sortzen joan ziren lantegiaren inguruan.

Aldaketa ekonomiko eta sozialez gain, ondarearen inguruan ikuspegi berritzailea agertu zuen enpresariak. Legazpin bazen urtero maiatzaren 3an ospatzen zen egun bat: Mirandaolako gurutzearen miraria¹⁵². Hau, noski, bertako burdinolari lotutako ospakizuna zen eta eraikinaren egoera txarrari aurre egiteko Patricio Echeverriak hura zaharberritzea eta makinaria guztia funtzionamenduan ipintzeko lanak sustatu zituen 1952an. Orduetik aurrera urtero Mirandaolako burdinola martxan ikusi zezaketen herritarrek, mirariaren eguna ospatzen zutelarik¹⁵³.

1980.urtean ordea aldaketa esanguratsu bat eman zen, mirariaren 400.urteurrenaren ospakizun jendetsuarekin batera, herriko historiazale talde batek egindako ikerketaren ondoriozko liburu bat ere kaleratu zelako, *Ferrerías en Legazpi*. Mirariaren eguneko herritarren parte-hartzeak eta ikerketaren aurrean azaldu zuten interesa ikusirik, ondarearen berreskurapena eta horren inguruko lanak Legazpiko etorkizuneko bide berri bat suposatu zezakeela konturatu ziren¹⁵⁴: “Más allá de la relevancia científica que tuvo la obra [...] lo reseñable [...] fue que esos seis vecinos establecieron y legitimaron una vinculación estrecha entre la identidad cultural local y la producción del hierro” (Arrieta, 2010: 310).

Beraz, proiektu indartsu bat izango zenaren oinarriak finkatzen hasiak ziren. Aipagarria da gainera irakasleen inplikazioak ere eragin zuela burdina eta herriaren arteko lotura eta identitate baten indartzea: Garaiko artikulua batek adierazten duen moduan, “El año pasado una insólita experiencia pedagógica realizada en Legazpia causó

¹⁵¹ “Informe del estado del castillo y mejoras adscrito por el Asesor militar del ayuntamiento”, Fernando Mexía, 1973. DUA. Sig: 6338/12.

¹⁵² Kondairak dioenez, 1580an Mirandaolako burdinolan lanean aritu ziren olagizonak igande batean, baina egoera ezohikoa bizi zuten, pieza onik atera ezinik eta prozesuan zehar egokiak ez ziren baldintzak bizi zituztelarik. Gauzak honela olagizonak etxera Joan eta hurrengo egunean burdinolara bueltatzean pieza txiki bat aurkitu zuten bertan, gurutze forma zuena. Mirari horren eguna ospatzen hasi ziren urtero, maiatzaren 3an. Añamendi Eusko Entziklopedia. In <http://www.euskomedia.org/aunamendi/96224> (2015ko apirilaren 24an ikusia).

¹⁵³ Baina badirudi oraindik ere herritar talde txiki batek soilik hartzen zuela parte ospakizun horretan.

¹⁵⁴ Izan ere Legazpiko egoera nahiko okerra zen, langabezia tasa altuarekin eta herriaren baliabide ekonomikoak geroz eta murriztuagoak zirelarik.



sensación en medios docentes del Estado español. Las Ciencias Sociales adquirieron una nueva perspectiva desde que un equipo de profesores de Legazpia acometieron la labor de acercar al alumno a su entorno más cercano" ("La fiesta es también cultura": 1980: 54). Badirudi burdinaren eta Mirandaolaren inguruko material didaktiko egokituak sortu zituztela, Urola Garaiko ingirua eta historia eskolan lantzeko modu berriak proposatuz. Horrekin batera eta ondarearen sustapenak izan zezakeen balioa antzemada, Legazpiko Udalak Bikuña Jauregian burdinaren museo bat egiteko proposamena aurkeztu zuen (Izaguirre, 1988), zenbait urtetan luzatuko ziren tira-bira garai bati hasiera emanez. Bitartean, historiazale tade legazpiarrak burdinolaren ikerketa ezberdinen inguruan lan egiten jarraitu zuten eta eskoletan, pixkanaka, herriko historia lantzeko jarduerak txertatzen hasiak ziren.

11. Ama Xantalen Museoa

Irungo Ama Xantaleko ermitan, 1971an burututako prospekzio arkeologiko batzuen bidez, Jaime Rodríguez Salís eta M^a Teresa Christiansenek burututa¹⁵⁵, Ignacio Barandiaran Maesturen zuzendaritzapean jarraitu ziren bertako indusketak ondorego urteetan (Urteaga, 1998). Ondare guñearen eta aurkitutako piezen garrantzia ikusirik, Irungo Udalak, arkeologo taldearekin batera, museo baten irekieraren beharra azpimarratu zuten, Barandiaran Maestuk (1973) adierazten zuen moduan "¿Por qué no pensar en un Museo monográfico del Irún romano, ahí, en Santa Elena? Ojalá que la Ciudad pueda contar con él dentro de pocos años" (28).

Horren aurrean, Irungo Udala ermitaren zaharberitze lanak sustatu zituen, eta 70eko hamarkada ia osoan zehar iraun zuten obren ondoren museoaren irekiera eta martxan jartzea besterik ez zen falta. Hori dela eta 1979.urtean Irungo Udalak ermitan bertan erromatar museo bat egokitzeko zenbait diru-laguntza eskatu zituen¹⁵⁶. Helburua, beti ere izanik "conseguir que Santa Elena sea algo vivo, con un sentido cultural y turístico"¹⁵⁷.

80ko hamarkadaren hasieran jada Ama Xantaleko ermitan piezak erakusteko bitrina ezberdinak ipini ziren, eta espazioa egokitu zen bisitariak hartzeko; lehen bisiten aipamenak 1983 inguruan aurki daitezke¹⁵⁸. 1988.urtean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntza bati esker, museografia berri eta talde gehiago hartzeko aukera izan zen¹⁵⁹, eta hortaz 1989an museoaren modernizazio eta erreformarako obrak hasi ziren (Urteaga, 1998).

12. Gorrotxategi Konfiteri Museoa

Bilduma pribatu batetik sortutako zentroa dugu Gorrotxategi Konfiteri Museoa, lanbide bati loturik abiatutako proiektua. Tolosako Jose Maria Gorrotxategi Pikasarrik bildutako material eta dokumentazio ugari gordetzen dira bertan eta publikoari irekita dago 1982.urtean inauguratu zenetik. Gorrotxategi familiak konfitero gisa ziharduen lanean 1925. urtetik, gaur egungo jabeen aitonak, Jose Maria Gorrotxategi Otaeguik, aurrez existitzen zen konfiteri negozioa hartu zuenetik. Oro har, gozogintza tradizioa aspaldikoa zen herrian, eta Gorrotxategiren lehen negozioa kokatu zen eraikinean bertan aurrez existitzen zen konfiteria negozioa XVII.mendetik. Jose Maria Gorrotxategi Otaeguiaren seme bakarrak, Jose Mari Gorrotxategi Pikasarrik, gaztetan lanbidea ikasi jarraian hasi zen familiaren negozioan lanean¹⁶⁰.

¹⁵⁵ Aurrez, 1969.urtean, Irungo Juncal plazan beste indusketa batzuk gidatu zituen Jaime Rodríguez Salisek. Urteaga, M. (2012). El Museo Romano Ojasso de Irún. *Her&Mus*, 10, 15-23.

¹⁵⁶ "Motivo de la petición por parte del ayuntamiento de Irún al ministerio de Cultura para la obtención de ayuda con el fin de montar un museo arqueológico de la época romana y de la romanización". IRUA. Sig: 6227/15.

¹⁵⁷ Ibid.

¹⁵⁸ Txingudi Ikastolak 1982ko marxoaren 18an ikasleekin ermitara bisita egiteko eskaera egiten du. "Visitas a la ermita de Xantaleko Ama. 1983". IRUA. Sig: 5971/6.

¹⁵⁹ "Dirulaguntza 1989-12-11". IRUA. Sig: 6/759 (1988).

¹⁶⁰ *Konfiteri museoko informazio orokorra*. TGA.



1950.urtean, antzinako eraikinetik pareko etxera lekualdatu zen lantokia eta denda, hau da, Kale Nagusiko 2. zenbakitik Letxuga kaleko 3.era. Eraikin zaharrean mendeetan gordetako laneko tresna ugari existitzen zenez, aita-semeek hauek gordetzea erabaki zuten, historiaren zati bat kontserbatzen ari zirela jabeturik. Bilduma horren berri izan zuen Jose Migel Barandiaranek, Jose Mari Gorrotxategi Otaegui aitaren laguna izan zena, eta gordetzen zituzten material etnografikoaren balioaz informaturik museo bat sortzeko gomendioa egin zion Jose Mari Gorrotxategi Pikasarriri. Honela, 1981.urtean kale nagusiko eraikin zaharrean zenbait obra egin eta museora dedikatuko zen espazioa inauguratu zen urtebete beranduago. Momentu hartatik aurrera Gorrotxategi bera bisitariak atenditzen hasi zen, eta jende ugari gerturatu zen museoa ikustera. 1986.urtean bildumaren jabeak eraikin berrira eraman nahi izan zuen museoa ere, eta horretarako “el Departamento de Cultura está colaborando a que dicha colección se exhiba de forma digna en un local anexo al obrador de su establecimiento” (Izaguirre, 1988: 327). Bertako proiektu museografikoa enkargatu eta obrei ekin zioten; Bitartean, eraikin zaharrean jendeak museoa bisitatu ahal zuen eta Jose Mari Gorrotxategi Pikasarririk bere bildumaren eta gozogintzaren inguruko ikerketetan murgilduta jarraitzen zuen.



5 irud: Gorrotxategi Konfiteri
Museoa (Tolosaldea Tour)

13. Eskoriatzako Museo-Eskola / Eskoriatzako Etnografia Museoa

1982.urtean, Aitzorrotz Etnologi Taldeak eta Eskoriatzako Udalak historia eta etnografia era berritzaile batean haur eta gazteei erakusteko proiektu bat jarri zuten martxan. Hamarkadaren hasieran jada argia zen horretara bideratutako espazio baten beharra, eta hala ezarrita geratu zen alkatearen esanetan: “la Corporación de Eskoriatza en su afán de elevar el nivel cultural de nuestro municipio, y viendo la necesidad de que nuestros jóvenes y las generaciones posteriores puedan conocer mejor nuestra historia y nuestra cultura, ha decidido la creación de un museo local”¹⁶¹.

Urte hartan hasi ziren espazio egoki bat bilatu eta erabilgarriak izan zitezkeen piezen bilketan. Laurogeiko hamarkadaren hasieran udaletxearen beheko solairuko lokaletan hainbat obra burutzen hastekoak zirenez, bertan museoa ipintzeko gunea egokitzea erabaki zuten. Horrela, 1983.urtean, “pudo inaugurarse dicho Museo en las Fiestas Patronales que se celebran con motivo de la festividad de San Pedro Apóstol, el 29 de junio, tras la realización de la habilitación del local en los bajos del Ayuntamiento y recopilación del material adquirido por el Ayuntamiento para su exposición”¹⁶².

Espazioak lehen urtetan *Museo Local* edota *Museo Etnográfico* izena hartu bazuen ere, laster hasi zen erabiltzen *Museo Eskola- Escuela Museo* izendapena. Izan ere, honek bazuen hezkuntza formalera gerturatzeko edota osatzeko intentzio argi bat, eta aldi berean museoaren publiko nagusia haurrak zirela ikusi zen. Aitzorrotz

¹⁶¹ “Instancia del alcalde Felix Barandiaran Zaldibar, el 21 de octubre de 1982”. EUA. Sig. 84/1. 1 or.

¹⁶² “Petición de subvencion que no ha sido aprobada. Firmado el 8 de noviembre de 1983. EUA. Sig. 84/1.

Taldeko kide batzuk irakasleak ziren, eta hezkuntzaren berrikuntza baterako tresnen gaineko interesa agertzen zuten. Izan ere, euren ustez museoak ziren “lugares, con frecuencia no “pensados” para los niños y que, lógicamente, no resultan atractivos para ellos”¹⁶³. Honi herrian bertan erantzun bat emateko asmotan museoaren sorrera proposatu zen, zeinak hasieratik helburu pedagogikoa izan zuen, didaktikako teknika berritzaileetan oinarrituz: “Museo klasikoaren kontzeptua aldatu genuen, «Ez ukitu» edota «isilik mesedez» bezalakoen orde, guk zentzumen guztiak erabiltzea proposatzen genuen, ez bakarrik ikusmena, baizik eta ukimena, usaimena... baita dastamena ere, tailer eta ikus entzunezkoen bitartez, gure jatorri eta historia hobeto ulertzeko”¹⁶⁴. Honek ordu-arteko museoaren kontzepzioetik at, eta museoak hilerri batean bihurtzeko arriskutik aldenduz, bestelako planteamendu bat aurkeztu zuen: haur eta gazteentzako erakargarria zen museoak, dibertigarria baina aldi berean hezitzailea izan zitekeena eratuz.

Aitzorrotz Etnologi taldeak lehen urteetako eskarmentuaz osatu zuen 1985.urtean proposamen pedagogiko berri bat. Euren ideia museoaren kontzeptu berri bat eratzea izan zen: “albergar exposiciones cíclicas semipermanentes en torno a la humanización del territorio comenzando por la prehistoria” (Izaguirre, 1988: 236). Helburua museoan erakusten ziren objektuak era argiago batean uler zezaten zen, “darle a nuestra exposición (Museo Local) una función más pedagógica”¹⁶⁵ eta “unir estas exposiciones monográficas con el trabajo que se desarrolla en las aulas”¹⁶⁶. Aldatzen joan ziren erakusketa horien proiektuaren baitan 1988. urtean inauguratu zen “Gure historiaurrea- Nuestra prehistoria” erakusketa, Aitzorrotz Taldea, Eskoriatzako Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren lankidetzarekin. Erakusketa honek berebiziko aldaketa ekarri zuen garaiko gipuzkoar museoetan, eta pedagogia berritzaileekin bat egiten zuten ideiak abian jartzeko aukera aproposa suposatu zuen.

Lehenbiziko urte haietan udaletxeko beheko solairuan kokatu zen museoak, baina laster etorri ziren espazio faltaren arazoak eta pieza gehiago ezin erakustearen oztopoa. Laurogeiko hamarkadaren amaieran udaletxearen aldamenean kokatzen eraikin baten zaharberritzean hastekoak ziren, Hidalga kalean, bertan Kultur Etxea kokatzeko asmoz. Museoarentzako leku egokiago baten beharra ikusita, eraikin berri haren erdi-sotoan espazio bat egokitzea erabaki zen, proiektu honetan jada kontutan hartu zirelarik jada publikoaren beharrak, izandako esperientziaren arabera, eta erdi iraunkorrak izango ziren erakusketa ziklikoen ideia alderatu zen. Museoaren bigarren egoitza eraikin honetan egokitu zen, zenbait urtetan bertan iraun zuelarik.

14. Pagoetako Parkea

1956.urtean GFAk Aian kokatzen zen Laurgain lursaila erosi zion Lardizabalgo Markesari¹⁶⁷ “con el fin de realizar unas experiencias que permitieran el logro de una mejora general en el ámbito rural de la Provincia”¹⁶⁸. Esperimentazioko gune honetan lanean hasi ziren ondorengo urtetan, espezie berriak landatuz eta basoberritze metodologia ezberdinak praktikan jarritz, 1968.urterarte lan egin zutelarik bertan.

Laurogeiko hamarkadaren hasieran ez zen Natur Parkerik existitzen Euskal Autonomi Erkidego guztian, baina babestutako eremuen inguruko hainbat txosten sortzen hasiak ziren ordurako, ingurumenaren interes eta sustapen jarduera berriak garatzen ari zirelarik ere. Besteen artean, ICONAk (Instituto para la Conservación de la Naturaleza) 1978-1980 bitartean Euskal Autonomi Erkidegoan babestuak izan behar ziren lursailen zerrenda bat aurkeztu zuen, bere balore naturalagatik garrantzitsuak zirenak. Gipuzkoa mailan 11 espazio katalogatu ziren, eta horietako

¹⁶³ “Udaleko dirulaguntza eskaera. Aitzorrotz Etnologi taldearen proiektu pedagogikoa, 1985”. EUA. Sig. 83/7.4 or.

¹⁶⁴ Ibarraundi Museoa. Debagoiena Turismoa. In www.turismodebagoiena.com/es/museoak/ibarraundi-museoa (2015ko maiatzaren 1an ikusia).

¹⁶⁵ “Udaleko dirulaguntza eskaera. Aitzorrotz Etnologi taldearen proiektu pedagogikoa, 1985”. EUA. Sig. 83/7. 1 or.

¹⁶⁶ Ibid. 2 or.

¹⁶⁷ *Laurgaingo lursailaren erosketari buruzko testu soltea, non lursailari buruzko historia laburra agertzen den*. IPA.

¹⁶⁸ “Estudio previo para la realización de un Parque Natural en Laurgain. Tomo I. MEMORIA”. Mario Michel. Diputación Foral de Guipúzcoa. Servicio Forestal, 1981. IPA. 1-2 or.



hirugarrena Pagoeta- Hernioko mendigunea izan zen¹⁶⁹. 1981.urtean, CEOTMAk (Centro de Estudios de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente) Eskualdeko Parke izendatuak izan zitezkeen zonaldeei buruzko ikerketa bat eskatu zion Aranzadi Zientzia Elkarteari, Eusko Jaurlaritzaren bitartez. Azken honek zioenaren arabera “En ellos podrían desarrollarse actividades culturales de diverso tipo por interpretación de la granja y reconocimiento de árboles, etc”¹⁷⁰, beraz, espazio horietan garatu ahal ziren jarduera programek berebiziko garrantzia hartzen zuten prozesu horretan.

Pagoetak eskaintzen zituen baliabideez jabeturik, GFAk hainbat txosten egin zituen laurogeiko hamarkadaren hasieran, ingurumenarenarekin erlazioa zuen espazio berezi bat eratu nahian. Lehena 1981.urtean aurkeztu zen, Laurgainen Parke Naturalaren inguruko Aurre Ikerketarekin¹⁷¹ eta hurrengoa urtebete beranduago, Laurgainen Baso Parke bat eratzeke proiektuarekin. Gauzak honela, urte horretan bertan Foru Aldundiak Pagoetan lursail berriak erosi eta Laurgainera gehitu zituen, 1982.urtean ehiza gune eta baso parkea eratu eta Laurgain Parkea bezala izendatu zelarik¹⁷².

Urte batzuk beranduago “El Parque experimentó en 1.984 (sic) una notable mejora, la compra de su más importante enclave, el caserío Iturrarán, la de la ferrería Agorregi¹⁷³ [...], y la de la finca de Altzola de Aia”¹⁷⁴. Honela, Pagoetan bertan erabilgarriak izango ziren azpiegitura anitzak aurkitzen ziren jarduera ezberdinak aurrera eramanez ahal izateko, aurrez erabilgarriak ziren Sagastizabal eta Amezketa-Lardi baserriak gehituz. Agorregiko burdinerrata multzoaren birgaitzea Gipuzkoan egon zen ondarearen berreskurapenaren eredu nagusienetako bat bilakatu zen, Mirandaolarekin batera funtzionamenduan ikusteko aukera ematen zuen multzo hidrauliko gutxietako bat (Zabala, 2007).

GFAk 1985an bigarren proiektu bat osatu zuen, “Pagoetako Parkearen Proiektua”¹⁷⁵. Azken txosten honetan Pagoeta ingurumen hezkuntzara bideratzeko eman beharreko pausoen inguruko azterketa sakonagoa agertzen zen. Aurreko urteetako Natur Zientzia Museoa, Museo etnografikoa edo zooa¹⁷⁶ bezalako proposamenak alderatu eta ideia berriak garatu ziren existitzen ziren espazioen erabilerarako. Alde batetik, Sagastizabal baserrian Ingurumen hezkuntzako eskola bat sortuko zen – gerora Natur Eskola deitua – 1986tik aurrera funtzionamenduan egon zena, eta bertara joandako ikasle taldeek Amezketa Lardi baserrian egonaldia egin ahalko zuten, hau aterpetxe bihurtu ondoren. Iturraran baserriaren kasuan, bisitarientzako harrera gunea bihurtuko zen ondorengo urteetako erreformaren ondoren, non maketa, panel eta beste hainbat elementu didaktikoekin Parkeko ezagupena jaso ahalko zen. Azken finean Pagoetako Parkean honelako proiektu baten funtzionamendua egokia zen “porque posee abundantes recursos pedagógicos y didácticos [...] que dan al conjunto amplias posibilidades de aprovechamiento para la Educación Ambiental, así como para el paseo y entretenimiento”¹⁷⁷.

Honekin batera, 1985.urtean bertan, Xabier Zabala Ibarbia, Natur Zientzien Didaktika eta Biologiako irakasle zena Donostiako Elizbarrutiko OHO'ko Irakasleen Unibertsitate Eskolan, Pagoetako Parkearen Natur Eskolako zuzendari izendatua izan zen¹⁷⁸, honek berebiziko garrantzia izan zuelarik Parkeari emandako hezkuntza funtzioaren garapenerako. Izan ere, 1986.urtean GFAk proposamen bat jaso zuen Donostiako Elizbarrutiko

¹⁶⁹ “Proyecto de Parque Forestal en Laurgain (Aya)”, marzo 1982. IPA. 9 or.

¹⁷⁰ Ibid. 10 or.

¹⁷¹ *Dokumentu soltea*. 1981. IPA.

¹⁷² “Proyecto de Parque Forestal en Laurgain”, 1982. IPA.

¹⁷³ Agorregiko berreskurapenerako indusketa arkeologikoak burutu ziren 1986. urtean. Urteaga, M. (1990). Arqueología medieval en Gipuzkoa: estado actual y perspectivas de futuro. *Munibe*, 42, 389-398.

¹⁷⁴ “Proyecto Parque de Pagoeta”. Mario Michel, 1985. Diputación Foral de Gipuzkoa. IPA.

¹⁷⁵ Ibid.

¹⁷⁶ “Proyecto de Parque Forestal en Laurgain (Aya)”. Marzo 1982. IPA. 29 or.

¹⁷⁷ “Proyecto de creación de un centro de Educación ambiental en el Parque de Pagoeta a la Diputación Foral de Guipuzcoa”. 1986. IPA.

¹⁷⁸ Xabier Zabala Ibarbia. In <http://www.euskomedia.org/aunamendi/144647/137993> (2015ko maiatzaren 14an ikusia).



OHO'ko Irakasleen Unibertsitate Eskolatik, "Proyecto de creación de un Centro de Educación Ambiental en el Parque de Pagoeta a la Diputación Foral de Guipuzcoa"¹⁷⁹ izenekoa. Bertan funtzio bikoitza beteko zuen planteamendu bat aurkezten zuten: Alde batetik, OHOk ikasleentzako klase praktikoak eskaintza natura ingurune batean; Bestetik, irakasleentzako zein hezitzaileentzako formakuntza eta birziklaketa gune bat izatea¹⁸⁰. Proposamen honi baiezkota eman eta bien arteko lankidetzak hitzarmena sinatu zen 1986. urteko ekainean bertan¹⁸¹, eta ondorengo urteetan euren esku geratu zen Pagoetako Parkeko jardueren kudeaketa.

Gipuzkoako Foru Aldundiko sail ezberdinek zentroen koordinaketa ere banatu zuen ordutik aurrera: Parkearen mantenua eta konponketa Nekazaritza sailaren menpe geratuko zen, Amezketak-Lardi aterpetxea Kultura Sailaren menpe eta Natura Eskola Hirigintza, Arkitektura eta Ingurumen sailaren menpe¹⁸².

15. Umeen Museoa

Laurogeiko hamarkadaren hasieran, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Politika, Garraio eta Turismo sailak, Ingurumen Sailburuordetzaren bitartez, Azpeitiko Egibar baserriaren berreraikuntza obrei ekin zion, bertan hezkuntzara bideratutako espazio bat eratzeko asmoz. 1986ko abenduaren 14an Eusko Jaurlaritzak eta Azpeitiko Udalak lankidetzak hitzarmena sinatu zuten "Umeentzako Museoa" zeritzon esperientzia Egibar baserrian bertan aurrera eramateko¹⁸³, zeinaren bidez lortu nahi ziren helburuak oso argiak ziren hasieratik: "encauzar y fomentar un conocimiento básico sobre el medio que vivimos, con el fin de realizar una labor fructífera en materia de educación y concienciación ambiental"¹⁸⁴. Baserria ikasgela ireki bat izateko helburuak planteatu zen "que aunque no pueda sustituir a la escuela, propicie un aprendizaje más abierto y más dispuesto a decir que el niño aprenda en libertad"¹⁸⁵.

Eskola eremura bideratutako proiektu honek ia urte erdi beranduago bere bidea hasi zuen, 1987ko ekainaren 5an inauguratu zelarik "Umeen Museoa - Museo de los Niños" izenaz, uztailaren 1ean publikora irekita geraturik ofizialki. Museo honen forma eta izaeraren aldetik oso argiak ziren oinarritzat hartutako ereduak: "El Museo de los Niños no es un invento de las Administraciones Vascas. Creado a imagen y semejanza de «The Boston Children's Museum», «The Children's Museum of Chicago»" o del «Museo de los Niños de Caracas», ha sabido captar la atención de la población escolar y educativa de la Comunidad Autónoma Vasca"¹⁸⁶.

Espazio honetan oso argi finkatu eta landuko zen hasieratik ezarritako helburu nagusia: Ingurumena eta haren irakaskuntzaren bitartezko etorkizuneko pertsonak hezteak. Honen bidez jarraituko ziren ildoak honakoak izan ziren: Ingurumenaren zainketa eta babesa bultzatzea, honetan existitzen ziren arazoak aurreko sentsibilizazioa eta interesa sustatzea, Euskadin ingurumen arloan egiten ari zenaren inguruko informazioa ematea, etab. Oro har, Umeen Museoak eskaintzen zuena "obtener conocimiento a través de la diversión"¹⁸⁷ zen; ikasleak hezteko espazio bat baina garaian existitzen zen irakaskuntza metodologiatik aldenduz alegia. Hasieratik publikoaren

¹⁷⁹ *Dokumentu soltea*, 1986. IPA.

¹⁸⁰ "Informe acerca de la Escuela de la Naturaleza de Pagoeta de Aia y petición de propuesta presupuestaria de la Escuela Universitaria Diocesana de San Sebastián para la prórroga de contrato de la Escuela de la Naturaleza de Pagoeta. 23 de mayo de 1988". Hirigintza, arkitektura eta ingurumen zuzendaritza nagusia. Ingurumen Zerbitzua. GFA. IPA. 1 or.

¹⁸¹ "Informe de las actividades de la Escuela de Educación Ambiental en el Parque de Pagoeta", 1984. GFAAA. Sig: REKALDE 2176/13.

¹⁸² "Informe acerca de la Escuela de la Naturaleza de Pagoeta de Aia y petición de propuesta presupuestaria a la escuela Universitaria Diocesana de San Sebastián para la prórroga de contrato de la Escuela de la Naturaleza de Pagoeta", 1988. Hirigintza, arkitektura eta ingurumen sailko Zuzendaritza Nagusia. Ingurumen Zerbitzua. GFA. IPA. 2 or.

¹⁸³ Bi urte beranduago, 1989ko abenduaren 22an, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak eta Azpeitiako Udalak hitzarmen berria sinatu zuten.

¹⁸⁴ "Convenio de colaboración firmado entre el Departamento de Política Territorial y Transportes del gobierno Vasco y el Ayuntamiento de Azpeitia, para desarrollar la experiencia denominada «umeentzako museo-museo de los niños»", 14 de noviembre de 1.986. AZUA. Sig: 4257/02. 1 or.

¹⁸⁵ "Carta de autorización de gasto. Gobierno Vasco. Viceconsejería de Medio Ambiente". EAEHAAN. Sig: 26/ E-329-2.

¹⁸⁶ "Umeentzako museoaren txostena 1987-1991". EAEHAAN. Sig: E-329-2. 1 or.

¹⁸⁷ "Informe Museo de los Niños". EAEHAAN. Sig: E-329-2.



aldetik jasotako erantzuna oso positiboa izan zen, eta denbora gutxian eskaera eskaintza baino askoz ere handiagoa bihurtu zen.

16. Urretxuko Mineral eta Fosilen Museoa

Urretxun, Nicasio Aguado Ayerdik mineral eta fosilen bilduma pribatu garrantzitsu bat zuen, hainbat urteetan zehar jasotako pieza ezberdinez osatua. Aguado, bildumaren baloreaz eta izan zezakeen funtzioaz jabeturik, Urretxuko Udalarekin harremanetan jarri zen hura erakusteko aukeraz hitz egiteko, hau Museoaren sorrerarako abiapuntua izan zelarik. Urretxuko Udalak orduantxe berritua zuen Aizpurua Eneako eraikina, Kultur Etxea izango zena. Bertako beheko solairuan museoak ipintzeko leku egokiena zela erabakiaz, 1987.urtean inauguratu zen espazioa Mineral eta Fosilen Museo bezala. Hortik bi urtetara, 1989.urtean, Nicasio Aguadok bildumaren aldi baterako zesioa egin zion Udalari¹⁸⁸, eta zenbait urte beranduago bilduma guztiz erosi zuen Urretxuko Udalak¹⁸⁹.

Mineral eta fosilen museoaren izaera eta funtzioa oso argia izan zen hasieratik, eta lehen urteetatik erakusketa eta honen inguruko jardueren oinarria finkatuta geratu zen, helburua izanik:

“El Museo también pretende ser dinámico. [...] con actividades que, a lo largo del año, complementarán la visita a las vitrinas. Así pues, para nosotros, la presentación física del museo no es más que la pieza base sobre la que giraran otras tales como exposiciones monográficas [...] exposiciones de «encuentros», [...] conferencias, proyecciones, excursiones en autobús a visitar yacimientos y puntos de interés geológico, certámenes escolares”¹⁹⁰.

Honekin batera museoan bertan liburu eta aldizkari bilduma interesgarri bat osatzen joan ziren lehenbiziko urteetatik, gaiarekin loturiko bibliografia eskainiz eta ikerketarako gune bat eratu nahian.

17. Zumalakarregi Museoa

Ormaiztegin aurkitzen den Iriarte-Erdikoa baserria 1938.urtean erosi zuen Gipuzkoako Aldundiak, geroago Monumentu historiko-artistiko Nazional izendatua izan zena (“Museo Zumalakarregi de Ormaiztegi”, 2002: 76). XVIII.mendeko baserri honetan bizi izan zen bere haurtzaroan Tomas Zumalakarregi jeneral karlista – nahiz eta erosketaren urtean bere jaiotetxea izan zela pentsatzen zen –, eta jada 1940tik Iriarte-Erdikoa Museo-Etxe bezala aurkezten zela jakin dezakegu, Zumalakarregi familia bizi izan zen garaiko bizimodua agertzen zuten espazioak¹⁹¹ erakutsiz (Alberdi, 2008).

GFAk 1988.urtean Iriarte-Erdikoa baserria Zumalakarregi Museo bezala egokitzeko erreforma lanei ekin zion¹⁹² eta museoak izango zenaren aurkezpen bat ere egin zen Ormaiztegin bertan, non zentro berriaren inguruko oinarritzko informazioa eskaini zen erakusketa baten bitartez¹⁹³. Ordurako jada museoko lantaldea osatuko zuen K6 Kultur Zerbitzuak enpresa lanean hasia zen – gaur egun arte horren kudeaketa lanetan jarraitzen dute –. 1989ko maiatzean inauguratu zen museoak, baina garai bateko giroaren berregitetik aldendu eta espazioak bestelako izaera

¹⁸⁸ “Cesión temporal de la colección. 1989”. UUA. Sig: 2.8. 1. Kutxa.

¹⁸⁹ 2006. urtean Urretxuko Udalak bilduma erosi zuen. “Informe de adquisición de los fondos del Museo de Minerales y Fósiles”, 2006. Urretxuko Udala K.S.

¹⁹⁰ “Museoko katalogoa. 1988”. UUA. Sig: 2.8. 1. Kutxa.

¹⁹¹ Zaharberritzearen aurreko museoaren egoeraren irudiak. “Iriarte Erdikoa (museo Zumalakarregi)”. KOZNAB. Sig: KO:62002:20x. In <http://www.guregipuzkoa.net/photo/1062548> (2015ko maiatzaren 4an ikusia).

¹⁹² Eraikinaren egoera 1987.urtean eta erreforma lanak 1988.urtean agertzen dituzten argazkiak. KOZNAB. Sig: KO:62002:20x. In <http://www.guregipuzkoa.net/photo/1062548> (2015ko martxoaren 2an ikusia).

¹⁹³ “Exposición informativa sobre el Museo Zumalacarregui celebrada en Ormaiztegi entre los días 14 y 24 de noviembre de 1988”. GFAAA. Sig. Rekalde 2221/2.



bat aurkeztu zuen: museo berriak garai historiko konkretu baten irakurketa zientifikoa egin nahi zuen, aldi berean Euskal Herriko XIX.mendearen erreferentziazko ikerketa eta hedakuntza bilakatuz. Honela, “La andadura del museo se inició con una exposición permanente de diversos objetos del general carlista de Ormaiztegui y de un fondo documental, ambos del Marqués de las Hormazas, que fueron adquiridos por el ente foral, además de numerosas reproducciones gráficas”¹⁹⁴. Lehen urtean beraz instituzio ezberdinekin harremanetan jarri, dokumentazioa bilatu, ikertu, etorkizuneko argitalpenak prestatu, aldi baterako lehen erakusketa antolatu eta beste hainbat ekintzetan murgildu zen lantaldea.

¹⁹⁴ Gipuzkoako Foru Aldundia (2014). *El Museo Zumalakarregi de Ormaiztegui celebra su 25 aniversario* [online]. In <http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DPDOficinaPrensaDigitalWEB/nota/es/1610/museo-zumalakarregi-ormaitz-tegui-celebra-su-25-aniversario> (2015ko martxoaren 10an ikusia).



III. GIPUZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA

Jarduera motak

1. Bisita gidatuak

Aurreko garaietan era inprobisatua eta eskaeraren arabera egindako bisitetatik haratago, 80ko hamarkadan sortutako museoek modu egonkor batean eskaini zituzten bisita gidatuak, laster bilakatu zirelarik museoetako jardueren oinarritzko ekintza. Lehen aipamen esplizituak Urretxun aurkitzen ditugu, non programazioaren baitan museoa bisitatu nahi zuen orok langileak gidaturiko bisita baten bidez egin zezakeela esaten zelarik¹⁹⁵. Honekin batera, taldeei zuzendutako jarduera programetan ere bisita gidatuak ardatz bihurtu ziren, edozein eskola eta elkarteak museoa bisitatzen zuenean erakustaretoetan zehar gidatzen zitzaizalarik; pentsa daiteke garai honetan ia museo guztien eskaintzaren baitan aurkituko zela jarduera mota hau, eta are gehiago, talde mota bakoitzari egokitutako bisitak ere prestatzen hasiko zirela.

2. Ibilaldi gidatuak/ Irteerak

XX.mende hasieran, pedagogia ideia berrien helduerarekin batera, eskolako ikasleak gelatik atera eta naturarekin harremana izan zezaten irteerak antolatzeari ekin zitzaion Espainiako zenbait gunetan. Ingurunearekin erlazionatzeak onurak ekartzen zituela baieztatzen zuten, ez soilik ikaskuntzaren hobekuntzan baizik ikasle horien esperientzia pertsonal baterako ere. 60ko hamarkadatik aurrera berreskuratu ziren ideia hauek, eta pixkanaka Estatuko zonalde ezberdinetara iritsi zen ohitura zabalduz. Ez zen ikasle taldera mugatu jarduera hau: bestelako biztanleriaren aisialdirako garaian ere agertu ziren irteerak ohiko ekintza bezala.

Honen aurrean, eta instituzio hauen demokratizazio bateranzko bidean egonik, museoak erakustaretoetatik at jarduera ezberdinak burutzeko esfortzu berezia egin zuten, eskaini eta erakutsi ahal zuen guztia espazio itxi batean soilik aurkitzen ez zela sinetsita. Alabaina, honek ekarri zuen laster datorren hamarkadetan museoak betetzen zuen funtzioa eta turismo bulegoen eginbeharrak nahastea, askotan museo beraren izaera alde batera utzi eta jorratzen zituen gaiekin inongo erlaziorik ez zuten ibilaldi eta irteera gidatuak burutuz.

Lehenen aipamenetako bat Urretxun aurkitzen da, non irekiera urtetik jada, eta bildumaren izaerari estuki lotuta zegoelako, mineral eta fosilak jaso eta aztertzeako irteerak antolatzen hasi ziren. Lehenbiziko irteetan hilero irteera bat egin zen, arrakasta handia lortuz: "Estas excursiones se realizan los sábados y están asesoradas por un paleontólogo y un veterano coleccionista [...] Las excursiones hasta el día han tenido gran aceptación a nivel de toda la Comunidad autónoma Vasca"¹⁹⁶.

Mendi ibilaldiak ere beste hainbat museoetako osagarri izan ziren. Eskoriatzan erakusketa bisitatzear gain mendi ibilaldi gidatuak ere antolatu ziren Axtrokira "con la ayuda de varios jubilados que se han prestado amablemente como guías"¹⁹⁷. Azpeitiko Umeen museoan ere topatu daitezke ekintza hauekiko erreferentziak, kasu honetan Izarraitz mendira ibilaldia egiteaz gain herriko alde zaharraren bisita gidatua ere eskaintzen zutelarik¹⁹⁸.

¹⁹⁵ Hamarkada honetan ere agertu zen tresna berri bat museoetan: bisita autogidatua egiteko aparatuak. Urretxun zinta magnetofonikoen bidez bisitatu al zuen publikoak erakusketa; baita Eskoriatzan eta Azpeitiko museoetan ere.

¹⁹⁶ "Memoria proyectos 1989". UUA. Sig: 2.8. 1. Kutxa.

¹⁹⁷ "Museo escuela de Eskoriatza. Memoria 1.989". Aitzorrotz etnologi taldea. EUA. Sig. 129/90. 3 or.

¹⁹⁸ *Urteko memoriak*. EAEHAAN. Sig: E-329-2.



Pagoetaren kasuan oinarritzko hezkuntza jarduera bilakatu ziren mendi ibilaldiak, izan ere Parkearen paisaia guztiak eta bertako bideek aukera ezin hobea eskaintzen zuten gai ezberdinak jorratzeko, ingurumenari loturik batez ere.

3. Hitzaldiak eta jardunaldiak

Museoek, garai honetan, apenas eskaini zituzten hitzaldiak euren programazioaren baitan. Betiko lez, San Telmo eta Aquariuma izan ziren salbuespen bakarrak, historia, artea eta natur zientzien inguruko zabalpenerako eta publiko adituari erantzun egokia emateko egitasmo finkoa izan zelarik. San Telmoren kasuan 40ko hamarkadako eskaintza zabalaren ondoren, 80koan berriz ere berreskuratu eta urtean 4-5 hitzaldi antolatzen hasi ziren, etnografia, pintura, musika eta beste hainbat gaien inguruan. Aquariumen kasuan ere dinamika antzekoa jarraitu zuten eta aldizkako hitzaldiak antolatu zituzten ozeanografiaren gaia jorratuz. Zuloaga Museoak garai hau arte antolatutako jardueren berri ez dugun arren, 1989an hitzaldi ezberdinak eskaini zirenaren aipamena dugu, non Ignacio Tellechea Idigoras, Julio Caro Baroja, Ramiro Larrañaga eta Juan San Martín elkartu ziren¹⁹⁹. Museo berriei dagokionez, Eskoriatzako Museo Eskolak gauzatu zituen zenbait hitzaldi sortu berria zen Historiaurrearen erakusketa berriari loturik²⁰⁰.

4. Ikastaroak

Ohikoa izan ez bazen ere, publikoaren trebakuntzan interes berezia jarri zuten museo batzuk, honen bilduma edo erlazionatutako gairen bati lotutako ikastaroak eskainiz. Honetan nagusia dugu Itsas Jauregia-Aquariumek 70ko hamarkadatik aurrera antolatutako kurtsoak. Alde batetik, "Curso de iniciación a la biología marina" antolatu zen 1972-1979 bitartean; horrekin batera urte horietan zehar Juan José Iraolaren esku ere zenbait ikastaro burutu ziren, non hitzaldiak, laborategiko praktikak eta bideo zein diapositiben proiektzioak nahasten ziren (Laburu, 1986). Bestalde, museoak eta irakasleak elkar-eragiteko planak ere 80ko hamarkadan agertu ziren lehen aldiz: irakasleen trebakuntzan hezkuntza ez formalak eskaintzen zituen metodologia eta tresnak ezagutzea ezinbestekoa bihurtu zen, eta honela programa ezberdinak martxan jarri ziren, irakasleak ere museoko jardueren hartzaile izanik.

Lehen aipamenak Itsas Jauregia – Aquariumen aurkitzen ditugu, non 70ko hamarkadaren hasieran "La delegación de Educación y Ciencia de la provincia realizó en las dependencias de la Sociedad varias clases de perfeccionamiento para maestros. Y varias escuelas y colegios privados realizaron visitas al Palacio del Mar, como prácticas de sus clases de Historia Natural. Lo mismo hizo la facultad de Ciencias Biológicas de la Universidad de Navarra" (Laburu, 1986: 361).

Pagoetan, aurrez aipatu bezala, berezia izan zen proposamen bat eraman zen aurrera, non ikasleen hezkuntzaz gain etorkizuneko irakasleen formakuntzari ere ematen zitzaion garrantzia. Honela, Pagoeta ireki zenetik "viene programando una serie de cursos a postgraduados que se celebran en julio en Pagoeta. Para completar su formación y familiarizarles con la utilización de la naturaleza como recurso didáctico y con el diseño de actividades fuera del aula"²⁰¹.

5. Tailerrak

¹⁹⁹ Diru-laguntza eskaera. GFAAA. Sig: Rekalde 7506/31.

²⁰⁰ "Museo escuela de Eskoriatza. Memoria 1.989". Aitzorrotz etnologi taldea. EUA. Sig. 129/90. 3 or.

²⁰¹ "Cursillos Pagoeta 1990". GFAAA. Sig. REKALDE. 10741/4.



Tailerren eskaintza nahikoa berantiarra izan zen gipuzkoar museoetan. Hala ere 70ko hamarkadako ideia pedagogiko berrien baitan, non *egiten ikastearen* oinarria zabalduz joan zen, museoetara ere forma berrietan lan egiteko proiektuak sortzen joan ziren. Modu honetan publikoa ez da soilik bisitaria izango, baita parte-hartzaile zuzena ere.

Lehenbiziko aipamenetan tailer edo esperimendu txikiak eskaintzen ziren, bisitaren osagarri bezala. Jada 1972an Aquariumen aipatzen zen “bajo la dirección de nuestro colaborador Don Miguel Ibañez, que a la vez es profesor de Instituto de 2ª enseñanza de San Sebastian, se realizó en nuestros laboratorios, con un grupo de alumnos, un pequeño pero muy interesante trabajo” (Laburu, 1986: 364-365).

San Telmo Museoan 1987an aurkitzen ziren lehen tailerren eskaintzak, buztingintza tailerra eta txotxongiloena. Azpeitiko Umeen Museoan soinu-kutsadura neurtzeko esperimenduak egin ziren 1989aren amaieran²⁰² eta Urretxuko mineral eta fosilen museoan, erakusketaz gain bi tailer mota eskaini ziren. Batean fosilak modelatzen ikasteko aukera eskaintzen zen eta bestean aurrehistoriako pintura tailerra; azken honetan oihal ezberdinak margotu ahal zen koloratzaile naturalak erabiliz, hala nola kobazuloetako pinturretan oinarritutako irudiak egin²⁰³.

Eskoriatzan ere, historiaurrea gai nagusitzat hartzen zuten jarduera mota hauek egin ziren: “talleres, que han quedado consolidados y ampliados con nuevos materiales tanto expositivos como pedagógicos”²⁰⁴, aurrehistoriako teknika ezberdinei buruzko praktikak burutuz, besteak beste sua egitekoak.

6. Ikuskizunak

San Telmo Museoan koru eta dantza emanaldiak antolatzen jarraitu ziren, batik bat instituziotik at beste elkarte batzuen eskutik egin zirelarik. Hala ere, hirian ospatzen zen Musika Hamabostaldiarekin eta Zinemaldiarekin erlazioz atutako jarduerak ere antolatzen hasi ziren, musika zein proiektzio emanaldiek hiriko giroarekin bat egin eta Donostiko eskaintza kulturalaren multzoan sartuta. Musika emanaldiak oso ohikoak bihurtu ziren: “Se celebraban frecuentemente conciertos de orquestas y masas corales, a los que se unían sesiones del Festival de Jazz” (Fornells, 2003: 60-61). Zuloaga Museoan ere emanaldi esanguratsu bat antolatu zen, Juan Antonio Urbeltz dantza taldearen ballet berriaren aurkezpena egin zelarik 1989an²⁰⁵.

7. Ekitaldiak / ospakizunak

Aurreko hamarkadetan bezala, ekitaldi bereziek eta ospakizunak museoetako programazioaren barnean jarraitzen zuten. Urteurren edota bestelako gertaera garrantzitsuen baitan antolatzen ziren programazio interesgarriak, publikoa erakartzeko ere baliagarriak zirenak, eta aldi berean jarduera mota ezberdinak aglutinatzen zituztenak. Hots, geroz eta ugariagoak ziren nazioarteko egunen ospaketak edota egun berezien antolaketa museoen partetik.

7.1. Urteurrenak

1978an G.O.E.k Itsas Jauregiaren irekieraren 50. Urteurrena ospatu zuen hitzaldi ziklo bat, erakusketa bat eta ikastaro batez osatutako programazio zabala eskainiz (Laburu, 1986) 1982an San Telmo komentuko eraikinaren 500. Urteurrena ospatu zuen museoak. Honi lotuta etnografiako gaiak, musika eta dantza, eta museoari berari buruzko hitzaldiak eskaini ziren, hala nola dantza eta musika emanaldiak²⁰⁶. Hurrengo urtean, GOEk 75 urte betetzen zituela aprobetxaturik, Itsas Jauregia- Aquariumak urteurrena ospatu zuen, erakusketa eta hitzaldiak

²⁰² “Jarduera eskaintza umeentzako, 1989-1990”. EAEHAAN. Sig: E-329-2.

²⁰³ “Museo 1989”. UUA. Sig: 2.8. 1. Kutxa.

²⁰⁴ “Museo escuela de Eskoriatza. Memoria 1.989 Aitzorrotz etnologi taldea”. EUA. Sig: 280_129/90.

²⁰⁵ “Diru-laguntza eskaera”. GFAAA. Sig: Rekalde 7506/31.

²⁰⁶ “Memoria 1982”. STMA. Sig: 57/17.



eskainiz. Victori Hugoren jaiotzaren urteurrena Museo-Etxearen berpizte kultural baterako aitzakia bihurtu zen, urte luzez programazio eta funtzionamendu egonkor bat izan gabe igaro ondoren, 1985 urtean ekitaldi ezberdinak antolatu zirelarik. Dantza eta txistularien emanaldi eta mezarekin batera, "Victor Hugo, grandes œuvres, grandes causes" erakusketa ere izan zen, Eusko Jaurilaritza eta Gipuzkoako Aurrezki Kutxaren eskutik²⁰⁷.

7.2. Nazioarteko Egunak

Nazioarteko ospakizunak gai ezberdinak ardatz hartzen duten egun, aste, urte edota hamarkadak dira, Nazio Batuen Erakundeak²⁰⁸ deklaraturakoak, gai zehatz batzuen inguruko kontzientziazioa sustatzeko asmoz. 70eko hamarkadatik aurrera sortzen joan zen zerrenda luze bat, eta hau ere zenbait museoko programazioan barneratu zen, ekintza ezberdinak antolatzeko aprobetxatu zelarik.

Horien artean lehenengoa dugu Azpeitiako Umeen Museoa ospatzen hasi zirenak. Zuhaitzaren Eguna eta Ingurugiroaren Eguna²⁰⁹ bezalakoak ospatzeko hainbat jarduera burutzen ziren: zuhaitzen landaketa, ikastetxeentzako Kartel Lehiaketa eta abar. Jarduera horien artean aipagarria da 1989.urtean ospatu zen Ingurumen Eguneako *Dinozirkuitoa* izeneko ibilaldia, Azpeitian zehar egindako bide honetan 1.500 ikaslek parte hartu zutelarik bertan.

Pagoetan zehar ibilaldi gidatuak egiteko aukera eskaini zen 1988.urtean publiko orokorarentzat, Ingurumen Egunaren barnean²¹⁰ eta urte berean, Zuhaitz Eguna ospatzeko, ikastetxeei zuzendutako kartel lehiaketa bat antolatu eta zuhaitzak landatu ziren Sagastizabal Natura Eskolaren kanpoaldean²¹¹.

7.3. Beste ekitaldi batzuk

Nazioarteko Egunez gain, museo bakoitzaren programazio propioaren barnean egun eta aste berezien ospaketak sortu ziren. Batzuk zenbait urtetan soilik gauzatu baziren ere, beste asko museoaren "marka" bilakatu ziren, eta lehen urtetik aurrera errepikatuz joan ziren museoaren programazioetan.

Urretxun, 1988tik aurrera²¹², dudarik gabe museoaren erakusleiho eta festa garrantzitsuen bilakatuko zen Mineralogia eta Paleontologia Astea ospatu zen lehen aldiz. Aste honek publiko zabalago batera heltzeko helburua zuen, museotik irteten eta jendeari mineralogia eta paleontologiara gerturatzeko. Lehenbiziko urtetik oso programazio aberats bat eratu zen eta jarduera ezberdin asko eraman ziren aurrera; urtero berrikuntzak eta aldaketak eman baziren ere, lehen urteetan finkatuta geratu ziren aste berezi honen ardatzak izango zirenak. Lehen bi urteetan herriko pilotalekuan *Salvia* deituriko erakusketa ipini zen, non leku ezberdinetatik etorritako bildumagile eta saltzaile ezberdinak euren stand-ak ipintzeko aukera zuten. Bestalde, gaiari lotutako hitzaldiak, bideo eta diapositiben emanaldiak eta irteera bereziak antolatu ziren. Eta azkenik, ezin ahaztu dezakegu haur eta gazteei zuzendutako eskaintzak ere berebiziko garrantzia izan zuela hasieratik Urretxuko museoan, beraz hauei eskaintako lehiaketa bat ere egin zen²¹³.

²⁰⁷ "Centenario de la muerte de Victor Hugo organizado por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, Diputación y Caja de Ahorros Provincial", 1985. PAU. Sig: 9-9.

²⁰⁸ *Días Internacionales. Naciones Unidas*. In <http://www.un.org/es/sections/observances/international-days/index.html> (2015ko maiatzaren 28an ikusia)

²⁰⁹ 1972an, ekainaren 5a Ingurugiroaren Eguna izendatu zuten Nazio Batuen Erakundeak. Nazio Batuen Batzordeko erabakien erresoluzioa. 1972ko abenduak 15. In [http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=A/RES/2994%20\(XXVII\)](http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=A/RES/2994%20(XXVII)) (2015ko maiatzaren 28an ikusia).

²¹⁰ "DFG. Día del medio ambiente 1988. Departamento de cultura". IPA.

²¹¹ "Resumen de la Escuela de la Naturaleza de Pagoeta, 1988". IPA.

²¹² "Museoa. Primera feria. 1988". UUA. Sig: 2.8. 1. Kutxa.

²¹³ Minearologia eta paleontologia astearen eskuorriak (1988-1989). Urretxuko Udala. K.S.



Bisitariak/ publikoa/ erabiltzaileak

Gipuzkoar museoetan²¹⁴, 80 hamarkadatik aurrera ikasleak – eta haurrak, orokorrean – museoetako bisitari nagusiak bilakatu ziren. Programazio eta jarduera didaktiko berriak planteatu ziren, hezitzaile eta irakasleen trebakuntza sustatu zen museoeko probetxamendu egokiago batetara bideratuta eta material zein tresna berri eta egokituak sortuz joan ziren. Honela, pixkanaka, “el museo deja de ser un ámbito de propiedad de uso restringido a un selecto grupo de personas para abrirse al público en general” (Díaz Balerdi, 1994: 139). Laster museoek mugimendu handiena ikastorduetan nabaritu zen, eta asteburuetako turistek helduera gutxitzen joango zen. Euskal Herritik zein lurralde bertatik zetozen bisitarien nagusitasuna emango zen museoetan, bertako ondarea ezagutzeko aukera eskaintzen zuten espazioen jaiotze fenomenoarekin batera.

1. Hezkuntza formaleko taldeak

XX.mendearen lehen erdian eskolako talde ezberdinek hiriburuko museoak bisitatu bazituzten, oraingoan barnealdeko eskolei ere aukera berriak eskaini zitzaizkien eta ikastaldee zuzendutako programa garrantzitsuak osatzen hasi ziren. Sortu ziren museo berrietako askok, gainera, hasieratik izan zuten hartzaile nagusi bezala ikastaldeak. Aurretik existitzen zirenetan, aldiz, behar berriei erantzuteko sail eta programak martxan jarri zituzten. Horietako batzuk garaian berrikuntza adierazgarri bat suposatu zuten, atzerriko metodologiak erabiliz eta pixkanaka nazioarte mailan burutzen ari ziren aurrerakuntzen zirkuitoan sartuz. Beste batzuk hezkuntza formalan oinarria zuten ideia pedagogikoen baitan sortu zuten eskaintza, eta beste askok egunerokotasunean bizitakoaren bidez joan ziren proposamen ezberdinak eratzen.

1.1. San Telmo Museoa eta Bruno Munari metodoa

80ko hamarkadan eskolako taldeei zuzendutako eskaintza zehatz baten beharraren lehen adierazpenak agertu ziren San Telmo museoeko Aktetan, hala nola bisitari talde hori erakartzeko ahaleginak egitea:

“la intención era la de traer al Museo los centros escolares, [...] destinado a los niños con un plan para enviarlo también a todos los colegios con el propósito de conseguir llamar la atención hacia el Museo. [...] anticipó igualmente que [...] se podría hacer algo positivo en San Sebastián, invitando incluso a la provincia, por medio de la Diputación, para que vengan con clases particulares y enseñen el Museo”²¹⁵.

1984. urtean oraindik ere ikasleak erakartzeko planteamenduaren inguruko eztabaida nagusitzen zen, izan ere museoak aldaketa bat behar zuen “superando la ancestral postura pasiva de sólo mostrar sus fondos artísticos al paciente visitante y pasando a otra progresista de interesar a escolares de su entorno o de promocionar el Arte”²¹⁶. Hau aurrera eramateko proiektu pedagogiko bat abian jartzea zen helburua, “sistematizando las visitas de alumnos y profesores quienes realizarán en el Museo actividades idóneas, etc.”²¹⁷

Egoera honetan ikerlari talde batek proposamen berri bat aurkeztu zuen, haurrentzako hezkuntza eskaintza egoki bat osatzeko asmotan. Proiektu hau Italiako metodo batetan oinarritzen zen: 70 eta 80ko hamarkada bitartean, Bruno Munari artista italiarrak, bere lankideen laguntzaz, haurrentzako arte laborategi ezberdinak sortu zituen, non

²¹⁴ Espainiar estatu osoan eman zen aldaketa.

²¹⁵ 1980ko irailaren 5eko saioa. STMAD. A.L. 7. 180 or.

²¹⁶ “Museo de San Telmo. Actividad pedagógica del Museo durante el año escolar 1984-85” Carlos Lorenzo. San Sebastián, julio 1984. STMA. Sig: 227/6.

²¹⁷ Ibid.



ezagutza jokoan oinarritzen zen. Lehen proiektua 1977an eraman zen aurrera Milanen, Brerako Pinakotekan, artistak museo barnean haurrei dedikatutako espazio bat sortzeko enkargua jaso zuenean²¹⁸. Honen aurrean, Bruno Munarik hiru hilabeteko iraupena izan zuen programa bat proposatu zuen, espazio horretan aurrera eramango zena eta “Giocare con l’arte” (artearekin jolastuz) izenapean. Ideia honen oinarrian zegoen “un approccio bassato sul «fare per capire», sul «fare per conoscere», attraverso la sperimentazione diretta”²¹⁹. Proposamenak 70eko hamarkadako berpiztu zen ikaskuntza aktiboaren ideiekin bat egin eta museora hedatzen zuen eskola eremuetan lantzen hasiak ziren pedagogia berritzaileak. 70 eta 90ko hamarkaden bitartean Laborategi ezberdinak ireki ziren munduko herrialde ezberdinetan: Venezuelan, Jerusalemen, Frantzia, Japonen. Proiektu hau Euskal Herrira ere iritsi zen, San Telmo Museoan ezarri zelarik lehen laborategi pedagogikoa. Donostin, *Arteniño* proiektuaren barnean “Laboratorio infantil de arte” sortu zuten gaiarekin erlazionatutako lau adituk²²⁰, Donostiako Udalaren laguntzarekin. Hauek Italiako proiektu berria ezagutu eta San Telmo Museora eraman zuten. Aurkeztutako proiektuan aipatzen zenez, euren helburuak ziren “enseñar jugando, según las nuevas metodologías de la comunicación y experimentación visual”, laborategian bertan egongo zirelarik “unos asistentes especializados en estimular la creatividad, quienes les enseñarán a jugar con los colores, con módulos”²²¹. Programa hau, 6 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzenduta zegoen, eta 80 hamarkadaren lehen erditik 1992 arte funtzionamenduan egon zen, arrakasta handia lortuz: “han permitido [...] que lo hayan visitado muchísimas personas y numerosos colegios de la provincia con elevada aceptación”²²². Bertatik Donostiko udal ikastetxe guztiak pasa eta parte hartuko zuten proposatutako jaruderetan, urtereoko lanekin erakusketa bat ere antolatzen zelarik²²³.

1.2. Beste programa batzuk

San Telmo ez ezik, Gipuzkoako beste museo gehienetan ere ikasleei zuzendutako programak osatu zituzten. Honela, ikasleen adinari moldatutako edukiak antolatu, hezitzaileak prestatu eta materialak sortuz joan ziren pixkanaka, beti ere hasierako urteen zailtasunak oztopo izanik. Zenbait museo ordea hasieratik planteatu ziren eskolako publiko batera bideratuta – nahiz eta bestelako bisitariei ere irekitzen ziren -: Azpeitiko Umeen museoa, Eskoriatzakoa eta Urretxuko mineral eta fosilen museoa kasu.

Urretxun lehen unetik hartzaile nagusiak eskola taldeak izango zirela argia zen, ikasteko eta praktikak burutzeko leku ezin hobe suposatzen zuelako:

“Estamos convencidos de que este proyecto se convertirá en un motivo más de Cultura [...]. Nuestra intención es la de intentar que el Museo sea un lugar de estudio y consulta, dirigido a la gente en general haciendo hincapié en los Centros escolares que sin duda podrían ser los mayores beneficiarios de su instalación.”²²⁴

Inaugurazio urtetik aurrera asko izan ziren Zumarraga, Urretxu eta inguruko beste hainbat herrietatik gerturatu ziren ikastetxe taldeak; bereziki lehen bi herrietako eskoletako taldeak izanik publiko esanguratsuenak.

Eskoriatzan, aurrez aipatu bezala, ikasleei zuzendutako erakusketa eta ekintzak eskaintzea zen helburu nagusietako bat: “darle a nuestra exposición (Museo Local) una función más pedagógica [...] de forma que éste

²¹⁸ *Breve storia dei laboratori. Metodo Munari*. In <http://brunomunari.it/index2.htm> (2015ko maiatzaren 19an ikusia).

²¹⁹ “«egiten ulertu» eta «egiten ezagutu» ideietan oinarritutako ikuspuntua, esperimendazio zuzenaren bitartez”. *Breve storia dei laboratori. Metodo Munari*. In <http://brunomunari.it/index2.htm> (2015ko maiatzaren 19an ikusia).

²²⁰ Proiektu pedagogikoaren txostena. STMA. Sig: 57/19.

²²¹ Arte laborategi proiektua. STMA. Sig: 56/19. 2 or.

²²² “Memoria 1985”. DUA. Sig: 6329/18.

²²³ Ikertze curriculum 1983-1989 bitartean. In <http://www.ikertze.org/antcatologo.asp?cod=2855&nombre=2855&prt=1&sesion=1> (2015ko maiatzaren 21an ikusia),

²²⁴ “Museo de mineralogía y paleontología. Centro Cultural Aizpuru Enea”, 1987. UUA. Sig: 2.8. 1. Kutxa.



sea perfectamente comprensible por los niños, principales destinatarios de nuestro Museo”²²⁵. Hori dela eta, historiaurreari buruz lehen erakusketa antolatu zenean, aipatu zen “Jende guztiarentzat zabalduz egon arren, [...] Deba Garaiko eskualdeko eskoletan dabiltzanei zuzentzen zaie bereziki”²²⁶. Urretxun gertatzen zen bezala, herriko edo zonaldeko eskolei bideraturiko programa sortu zuten beraz. Honela, ikasleei egokitutako jarduerak antolatu zituzten museoko bisitan bertan, historiaurrea ezagutzeko bestelako modu batzuk posible zirela erakutsiz. Hasieratik argia izan zen erakusketak ikastaldeengan izandako arrakasta, eta 1989 osoan zehar 44 ikastetxeetako taldeekin etorritako 2.455 ikasle gerturatuz museora²²⁷.

Azpeitiko museoak, izenak berak zioen moduan, umeentzako espazio bat izatea zuen helburu. Hasiera batean ikasle gazteenei zuzendutako museo bat sortzea zen ideia, 7 eta 16 urte bitartekoentzat programazioa eratu eta gerora beste adin tarteetara zabalduz. Irekiera urtetik eskola taldeen eskaria eskaintza baino askoz ere altuagoa izan zen, eta ikasleen etorrera masiboa bizi izan zuten museoan, Euskal Autonomi Erkidego osotik helduak, itxaron zerrendak osatu behar izatera eraman zelarik²²⁸.

Pagoetako Parkean ere jardueren erabiltzaile nagusiak eta horiei eskainiko zitzaizkien ekintza motak oso argiak izan ziren hasierako urteetan: “se crea [...] con el objetivo de acercar a los escolares guipuzcoanos al conocimiento del medio que nos rodea y desarrollar en ellos actitudes de respeto y conservación hacia este medio”²²⁹ Hezkuntza programa OHOk 5 eta 6.mailako ikasleei zuzentzen zen, natura eta ingurumen jarduerak burutuz, non ibilbide gidatu eta lan fitxen betetzea egingo zituzten. 1986-1987 ikasturtean, lehen aldiz Pagoetako Parkearen eskaintza buruturik, arrakasta handia izaten du eta 86 zentro ezberdin gerturatu ziren, 4106 ikasle eta 200 irakasle inguru jasoaz²³⁰. Eskaera guzti hauei erantzun nahian bisiten planteamendua aldatu zen. Lehen bi urtetan bi eguneko egonaldietako eskaintza soilik egin bazen, 1988tik aurrera egun bakarrekoak ere eskaintzen hasi ziren, talde gehiagorengana heltzeko asmoz. Honekin batera, hezkuntza formaleko beste talde batzuegan arreta jarri zuten Pagoetan, hezkuntza bereziko taldeei edota EPA zentroentzako programazioak ere osatuz²³¹.

Zumalakarregi museoak “desde la apertura [...] estuvo clara su vocación divulgativa. Uno de nuestros principales objetivos fue atraer a los alumnos de distintas edades ofreciéndoles itinerarios didácticos adaptados a sus programas de estudios” (Alberdi, 2008: 237). Egokitutako eskaintza honetarako pausoak ematen hasi ziren beraz lehen unetik. Eskaintza pedagogikoaren sorrera prozesuan hainbat froga burutu ziren 1989ko maiatzetik ekainera bitartean, ondorengo ikasturteko eskaintzaren egokitasuna aztertzeko helburuaz. Horrela, 340 ikaslerekin lan egiteko aukera izan zuten taldeko bisita gidatu ezberdinetan²³², honek balio izan zelarik “para comprobar la necesidad de diversificar la oferta pedagógica del museo”²³³.

Hala ere, oraindik museo batzuetan ikasleei zuzendutako programazio zehatz bat eratu zutenaren frogatik ez da ageri. Badirudi Itsas Jauregian, 80ko hamarkada inguruan oraindik ere, eskola taldeek bisitatzen bazuten ere ez zegoela hauei zuzendutako programa berezirik martxan, eta irakasleak izaten zirela ikasleak gidatzeko arduradunak: “catedráticos de Historia Natural del Instituto de Peñaflores y de algunos colegios particulares, que se servían del Museo Oceanográfico y del Acuario para ampliar sus clases” (Laburu, 1986: 349). Hala ere, talde hauen gorakada eta bisitari orokorren beherakada eman zela ere adierazten zen, “la baja de visitantes que durante

²²⁵ Aitzorrotz *Etnologi taldearen txostena*, 1985. EUA. Sig: 83/7.

²²⁶ “Gure historiaurrea” erakusketa foiletoa. EUA. Sig: 83/7.

²²⁷ “Museo escuela de Eskoriatza. Memoria 1.989”. Aitzorrotz etnologi taldea. EUA. Sig: 129/90. 3 or.

²²⁸ Eskola taldeen zerrendak museoaren urteko memorietan gordeta daude. IEA.

²²⁹ “Pliego de prescripciones técnicas particulares del concurso público para la contratación de monitores-educadores en el Parque de Pagoeta: Plan de Actividades didáctico-educativas. GFA”. GFAAAA. Sig: AKOBE 5918/1. 1 or.

²³⁰ “Informe acerca de la Escuela de la Naturaleza de Pagoeta de Aia y petición de propuesta presupuestaria a la escuela Universitaria Diocesana de San Sebastián para la prórroga de contrato de la Escuela de la Naturaleza de Pagoeta”, 1988. Hirigintza, arkitektura eta ingurumen sailko Zuzendaritza Nagusia. Ingurumen Zerbitzua. IPA. 4 or.

²³¹ “Resumen de la Escuela de la Naturaleza de Pagoeta”, 1988. IPA.

²³² “Informe sobre las actividades del museo T. Zumalacarregui durante el año 1989”. ZMA. 1989ko kutxa. 4 or.

²³³ Ibid. 5 or.



todo el año [...] cuando, en cambio, se estaba dando un mayor interés en visitar el Palacio del Mar por parte de los centros docentes de la provincia" (Laburu, 1986: 431).

2. Publiko orokorra

60 eta 70ko hamarkadan Espainiar estatuan turismoaren berreskurapen bat eman bazen ere, museoetako publikoaren dibertsifikazio bat nabarmendu zen museoetan, bisitariak gizarteko beste talde batzuetatik etortzen hasi zirelarik. Aurreko hamarkadetako turisten nagusitasunaren berri ematen digute Donostiako museoetako aktak, adibidez, Aquariumen amaitzen zenez "Se notó mucho la disminución de turistas y visitantes al Palacio del Mar, ya que fueron en 25.472 inferiores al año anterior. Las perturbaciones político-sociales que fueron aumentando en la ciudad influyeron de una manera notable en la carencia de visitantes" (Laburu, 1986: 379). Jada atzerriko pertsonak entretenitzeko jarduerak ez ziren hiriko aisialdi programen protagonista izango; 70eko hamarkadatik aurrera urte osoan zehar erakargarriak izan zitezkeen jarduerak antolatzen hasi ziren museo ezberdinak, bai hiriburuan zein lurraldeko beste udalerrri batzuetan. Izan ere, "los museos se convierten en espacios de ocio cultural y consumo de la sociedad de masas" (Anguiano, Horrela, astean zehar ikastaldeen museoak betetzen bazituzten, asteburuetan "publiko orokorra" deituko zen bisitari mota nagusituko zen. Talde heterogeneo honen barruan txertatu ziren helduak, jubilatutakoak, familiak, adituak eta abar luze bat.

Garai honetan existitzen ziren museo gehienetan egiten da publiko orokorraren aipamena bat. Azpeitiko Umeen museoan aipatzen denez, astean zehar ikasleak hartzen bazituzten ere asteburuetan bestelako publikoak bisitatu izan zuen zentroa, hauengan ere arrakasta handia lortuz²³⁴. Pagoetan bisitari orokor eta txangozaleak bezala definitu zen talde hau eta Parkea bisitatu ahal izateko panelak eta informazio fitxak sortu zituzten, ibilaldiak era autonomoan egin zituzten. Eskoriatzako museoak ere, eskola taldeez gain publiko helduak erakusketa bisitatu zuela jakin dezakegu²³⁵, hala nola Gorrotxategi Konfiteri Museoan, non argi adierazten den mota askotako publikoak bisitatzen zuela museoa, eskola taldeez gain euskaltegiak eta bestelako bisitariak jasoz²³⁶. Zumalakarregin eskolako taldeen arreta nagusia jaso bazuten ere, beste taldeekiko eskaintza bat osatzea ere helburu zen, eta museoak hasieratik "trata de adecuar nuestra oferta a cada uno de los diferentes grupos potencialmente visitantes del museo"²³⁷.

Hala ere, aipatu beharrekoa da oraindik Gipuzkoako zenbait museotan oraindik publikoaren bisitak ez zirela oso ohikoak, eta bildumaren kontserbazio eta inbentariatzeak zuela oraindik ere garrantzi nagusia. Armagintza Museoan Iñaki Alberdi Armagintza Eskolako zuzendariordeak zioenez, "Bisitak egoten ziren, baina [...] beti izaten ziren lehendik jendeak deitu edo eskola bisitatzerara etortzen ziren pertsonak bide batez erakusten zitzairen museoa ere bai [...] baina museoa bakarrik ikustera [...] adituen bat [...] bestela ez, jende asko ez zen etortzen"²³⁸.

Jardueretarako baliabideak

²³⁴ "Visitas al museo de los niños. Estadísticas, informes y programas 1993-1995". AZUA. Sig: 4771/01 eta "Visitantes 1987". AZUA. Sig: 4257/02.

²³⁵ "Museo escuela de Eskoriatza. Memoria 1.989". Aitzorrotz etnologi taldea. EUA. Sig: 129/90. 3 or.

²³⁶ "Gozoginza museoa 1986". GFAAA. Sig: Rekalde 2220/1.

²³⁷ "Informe sobre las actividades del museo T. Zumalacarregui durante el año 1989". ZMA. 5 or.

²³⁸ Eibarko Udala. "Armeria Museoa. Historia" [bideoa]. In <http://www.armia-eibar.eus/museoa/museo> (2015ko ekainaren 1an ikusia).



1. Giza baliabideak

1970tik aurrera, museoak egoera berri batetara moldatu behar izan ziren, ez soilik lurraldearen aldaketa sozio-politikoaren baitan, baizik gizarteak berak museoekiko zuen jarrera eta itxaropenengana oinarritutakoa. Aipatutako eskolatze masiboak ekarritako ikasle talde ugari zein biztanleriaren aisialdirako eta kulturarekiko ikuspegi berriak museoaren aldaketa bat eragin zuen. Egoera horri aurre egiteko existitzen ziren museo gehienak erantzun bat emateko gai zen lantalde egoki baten faltan aurkitu ziren, perfil profesional zehaztugabeak izanik eta hezkuntza sailen existentziarik gabe. Alabaina, 80ko hamarkadaren amaieratik sortutako museoekin bat eginik zein museo zaharren birplanteaketarekin egoera berri bat bizi izan zen, giza baliabideen baitan jarduera didaktikoak antolatu eta gauzatuko zituen profesional talde eraginkorrak osatuz. 1987an Eusko Ikaskuntzak antolatutako X. Kongresuan Aguinalek (1988) zioen moduan:

“Se comienza a percibir una demanda social de estos profesionales, pero marcada por una casuística sin normalizar, sin control ni canales que la puedan encauzar. Nace un mercado de trabajo en el que la relación oferta-demanda no está regulada en términos científicos y en el que se producen todo género de abusos. Los perfiles profesionales son difusos, y quedan a merced de todo género de vaivenes en un «cualquiera sirve para cualquier cosa»” (253)

Hala ere, argi dago museoko hezitzaileek protagonismo nabaria zutela, museo eta publikoaren arteko bitartekari lanak burutzearen beharrari guztiz loturik garatu zutelako euren lana, eurak baitziren “quienes pueden transmitir a los visitantes de la forma más cálida posible un patrimonio que por sí sólo tal vez no sería comprensible para todos” (Zabala eta Roura, 2006: 255).

1.1. Museoko lantaldeak

Egoera honetan sortu ziren lehen hezkuntza departamentuak²³⁹ Gipuzkoako museoetan. San Telmon 80ko hamarkadaren hasieratik jada nabaritzen hasia zen arlo honi dedikatutako profesionalen beharra, ordura arte kontserbazio, bilduma eta administrazio sailerako langileak nagusitu zirelarik. Lehen pausoak 1983tik aurrera eman ziren: aldi baterako erakusketetarako arduradun bat kontratatu zen 1983 eta 1988 bitartean; 1987an “durante agosto y septiembre, en colaboración con la Escuela de Turismo, el Museo contó con un servicio de guía, cuya utilización no fue del todo satisfactoria”²⁴⁰ eta 1988. urtean “animatzaile pedagogiko” lanpostua sortu zen (Fornells, 2003), gaur egungo hezitzaile lanen antzekotasun gehiena agertzen zuen lana eginez²⁴¹. Garai honetako dokumentazioan adierazten denez, jarduera didaktikoen kudeaketaz arduratzen zen lantaldeak “Sección didáctica” izena hartu zuen²⁴².

Tartean San Telmoko hezkuntza jardueretarako oinarritzkoa bilakatu zen proiektua abian jarria zen, aurrez ikusi dugun haurrentzako Arte Laborategia, non adierazten haurrei dedikatutako espazioan monitore espezialistak arituko ziren jarduerak aurrera eramaten. Baina 80ko hamarkadaren amaieran museoan bertan, eta publiko zabalago bati zuzenduta, Pedagogia Kabinetea²⁴³ sortzeko pausuak eman ziren, zeinak hasieratik behar izan zituen “nuevos recursos materiales y humanos, cuyo eficaz funcionamiento requerirá meticulosa organización”²⁴⁴. Sail

²³⁹ Sail hauek izen ezberdinak hartu zituzten museoaren eta garaiaren arabera; hezkuntza, didaktika, difusio, pedagogia edota jarduera sailak deitu izan ziren.

²⁴⁰ “Memoria 1987”. STMA. Sig: 57/24.

²⁴¹ Fornellsek adierazten duen bezala (2003) hauetaz gain beste arlo batzuetara dedikatutako langile berriak ere kontratatu ziren, besteak beste inbentarioa osatzeko edota zaharberritze lanetarako persona bat.

²⁴² Didaktika sailak sortutako lan-fitxak. STMA. Sig: 298-08.

²⁴³ “Memoria 1987”. STMA. Sig: 57/24.

²⁴⁴ “Museo de San Telmo. Actividad pedagógica del Museo durante el año escolar 1984-85” Carlos Lorenzo. San Sebastián, julio 1984. STMA. Sig: 227/6.



berriaren barnean langilen espezializazioa zein izan behar zen argi bazuten ere, oraindik atezainen figura mantentzen zen bisitariei azalpenak emateko, 1986-1987ko txostenean agertzen den moduan:

“la formación de esa plantilla ideal, debe de contar con la incorporación en este equipo de un pedagogo al menos, que ponga en marcha un nuevo servicio de atención a centros escolares, el cual podría verse apoyado, en la organización de visitas,[...] por los nuevos conserjes, cuyos conocimientos de euskera, idiomas y estudios pueden ser contrapunto del encargo de la creación de ese gabinete pedagógico [...] a pesar de que el periodo de visitas escolares comienza en Noviembre y termina en Julio, el resto del tiempo, la organización de actividades culturales, justifica la contratación con carácter fijo de este nuevo puesto de trabajo”²⁴⁵

Azkenik 1989an Pedagogi Kabinetearen funtzionamenduari ekingo zitzaion²⁴⁶. Museo berriei dagokienez, Urretxuko Mineral eta Fosilen museoa Udaleko Kultura Sailak kudeatu zuen lehen unetik, publikoaren arreta eta taldeen jarduerak burutzeko pertsona bat kontratatu zelarik²⁴⁷. Bilduma pribatuak gordetzen zituzten museoek kasuan, hau da, Gorrotxategi konfiteri museoan eta MUFOMIn, pentsa daiteke jabeak izango zirela jarduera didaktikoak – egiten baziren – aurrera eramateko arduradunak.

1.2. Irakasleak

Museoetan aldaketa nabarienetakoa jarduerak aurrera eramateko pertsonen baitan etorri ziren: irakasleen agerpena eman zen, lehen aldiz hezkuntza formaleko mundua museoetara gerturatuz. Eskoriatzaren kasuan, Unibertsitateko Irakasle Eskolarekin lankidetzat bat proposatu zen, 1985-1986 ikasturtean abian jartzekoa. Proposamen honen bidez museoetako hezitzaileak irakasle Eskolako Gizarte Zientzietako ikasleak izango lirateke, hauek aldi berean erakusketarako material osagarriak – fitxa didaktikoak, diapositibak – prestatuko lituzketelarik. Honekin batera, ikasleen ikaskuntza maila neurtzeko nahia ere agertu zuten proiektuaren baitan: “evaluar el aprendizaje de los niños y la eficacia de esta nueva propuesta metodológica”²⁴⁸, lehen aldiz museoetara eta unibertsitatearen arteko elkarlana proposamena agertzen delarik Gipuzkoan. Aitzorrotz Elkartearen kideek kudeatu zuten lehen urteetan museoetara²⁴⁹, baina badirudi 80ko hamarkadaren amaieran jada pertsona bat bideratu zela lan hori burutzen laguntzeko, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza liberatu zuen elkarlanean irakasle bat funtzio hori bete zezan”²⁵⁰. Pagoetako Parkean, 1986ko maiatzean, GFAk eta Donostiako Elizbarrutiko OHO'ko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren arteko hitzarmena sinatu ostean, irakasle osaturiko lantalde baten esku geratuz Pagoetako kudeaketa. Azpiegitura guztiak zein natur inguruak eskaintzen zituen baliabideak antzemanda, GFAk hezkuntzara bideratutako jarduerak konkretu batzuen beharra ere zehaztu zuen hasieratik. Oro har, argi agertzen zuen hezkuntza programaren baitan oinarritzakoa izango zela

“tener capacidad para ejercer una actividad educativa que cree un interés hacia la Naturaleza, haga reconocer sus valores y muestre la relación entre el Medio Ambiente, el hombre y su cultura, intentando conculcar un código de comportamiento en relación con la naturaleza y su conservación. Para ello debe contar con personal especializado en este tipo de enseñanza que tenga capacidad de comunicación y participación en este tipo de actividades”²⁵¹

²⁴⁵ “Memoria 1987”. STMA. Sig: 57/24.

²⁴⁶ *Patronatu berriaren beharrei buruzko dokumentazioa*. STMA. Sig: 57/24.

²⁴⁷ “Urrelur”. 1989. GFAAA. Sig: Rekalde 7834/3.

²⁴⁸ “Udaleko dirulaguntza eskaera. Aitzorrotz Etnologi taldearen proiektu pedagogikoa, 1985”. EUA. Sig: 83/7. 2 or.

²⁴⁹ “Carta de la secretaría del Ayto. a Eusebio V.A., encargado del Museo Local, el 18 de abril de 1985”. EUA. Sig: 84/1.

²⁵⁰ “Solicitud de subvención a la Excm. Diputación Foral de Gipuzkoa del Aitzorrotz etnologi taldea para el Museo Local de Eskoriatza. Enero 1990”. EUA. Sig: 280_129/90.

²⁵¹ “Proyecto Parque de Pagoeta. Mario Michel”, 1985. GFA. IPA. 30 or.



Azpeitiko Umeen museoan ere irakasleak izan ziren lehen lantaldea osatu zutenak, eta ordutik horretan diraite. Bertako hezitzaileek berebiziko lana egin zuten hasieratik, etengabeko birplanteaketa prozesu batean murgildurik eta trebakuntza jarraitu bat jasoz, bai ingurumen esparruan zein beste zentroen bisitaldien bidez²⁵².

1.3. Enpresa kudeatzaileak

Irakasleez gain, museoetako hezkuntza jarduerak aurrera eramateko – eta kasu gehienetan, museoaren kudeaketa eta dinamizazio osoaz arduratzeko – enpresa ezberdinak sortu ziren 80ko hamarkadan. Honela, museoetako kultura zein ingurumen zerbitzuan espezializatu ziren lantaldeak osatuz joan ziren, garaiko eskaera bati erantzuteko asmoz. Kasu askotan 80ko hamarkadan museoetan eman ziren jardueren berrikuntza euren esku geratu zen, garaiko aurrerakuntza museologiko eta museografikoetan adituak eta nazioarte mailan gertatzen ari zenaren berri izaten zutelako.

Gipuzkoan 1990 arte museoaren kudeaketaz arduratu zen enpresa bakarra K6 Kultur Zerbitzuak: proiektu museografiakoak gauzatzeaz gain, espazio hauen kudeaketa lanari ere ekin zion. Zumalakarregi Museoko kudeaketa arduradun izan ziren inauguraziotik – baita aurre-proiektuaren fasean egin zen aurkezpen erakusketan ere – eta honen baitan sortu ziren museoeko ardatz izango zirenak: Dokumentazio Saila eta Difusio Zerbitzua. Azken honien sorrera eta funtzionamenduaren funtzioa zen “actuar como «puente cultural» entre el propio museo y las personas o entidades externas a él”²⁵³. Honek bere gain hartzen zituen beraz museotik at existitu ahal zen publikorekiko jarduera oro, beti ere zentroaren izaera eta bilduma oinarritzat harturik. Difusio Zerbitzuaren hasierako ekintza nagusienetako bat Estatuko pedagogi kabineteekin elkar truke bat hasia izan zen²⁵⁴, hala nola Euskal museo ezberdinetara bisitak burutuz, lantaldearen trebakuntzarako eta proiektu berrien sorkuntzarako oinarritzko jarrera bat erakusten zuelarik.

2. Baliabide espazialak

1970 eta 1990 bitartean sortutako museo berriek, garaiko beharrei erantzuteko aukera gehiago izanik, jarduera didaktikoak aurrera eramateko espazioak egokitu zituzten, “en busca de mejorar su relación con la comunidad y hacerla miembro activo” (Zabala eta Roura 2006: 242). Aurrez existitzen ziren museoaren kasuan eraikinera moldatu behar izan zuten, aldaketa minimoak soilik eginez. San Telmon adibidez, Arte Laborategia egokitu zen 80eko hamarkadaren hasieran, Arteniño programa aurrera eramateko. Proiektuan aipatzen zen bezala, hau 30 ikasle inguruntzat egokitutako espazio bat izan zen, museo barruan ipini zena²⁵⁵. Honetaz gain, elizak jarraitzen zuen ekitaldi eta jarduera guztien kokagune izaten: “En la iglesia se sucedían las actividades: conciertos, conferencias, representaciones teatrales, y hasta desfiles de moda, banquetes y otros actos mundanos que despertaban críticas” (Fornells, 2003: 65), eta aldi baterako erakusketak elizaren ondoko areto batean egiten ziren. 1987an museoan egoitza zuten elkarteek lokakak abandonatzeko eskaera egin zitzairen, museoaren bilduma berrantolatu eta espazioak antolatzeko asmoaz, etorkizunean museoaren funtzio eta beharretara moldatzeko bidean hasi zirelarik honela

Pagoetan, hasierako urtean, Sagastizabal Baserriaren espazioa soilik erabiltzen zen, parkean zehar egiten ziren ibilaldi gidatuez gain: “Se contará con el Caserío Sagastizabal (como) lugar de actividades a cubierto”²⁵⁶. 1987tik aurrera egonaldiak eskaintzen ere hasi ziren, Amezketa-Lardi aterpetxe bezala egokitu eta gero.

²⁵² Ingurugiro Etxeko memoria txostenetan urtero lantaldeak buruturiko trebakuntza ikastaroen berri agertzen da, hauek 80ko hamarkadaren amaieratik jada gauzatu zirelarik. IEA.

²⁵³ Museoari buruzko prentsaurrekoa 1990ko urriaren 9an, Gipuzkoako Foru Aldundian. ZMA. 1990ko kutxa.

²⁵⁴ “Informe sobre las actividades del museo T. Zumalacarregui durante el año 1989”. ZMA. 1989ko kutxa. 5 or.

²⁵⁵ *Arte laborategi proiektua*. STMA. Sig: 56/19. 11 or.

²⁵⁶ “Proyecto de creación de un centro de Educación ambiental en el Parque de Pagoeta a la Diputación Foral de Guipuzcoa”. 1986. IPA.



Eskoriatzako museoaren lehen egoitzan erakusketarako espazioa soilik aurkitzen zen; baina Hidalgo kaleko eraikin berrira museoa lekualdatu zenerako aurreikusi ziren egoera berriaren beharrak zeintzuk ziren, hala nola jarduera didaktiko ezberdinak burutzeko espazioak beharrezkoak zirela. Hori dela eta, museo berrian erakusketa iraunkorrerako espazio bat, aldi baterako erakusketetarako aretoa, bideo gela bat, tailer gela, biltegia eta beste zerbitzu batzuetarako guneak banatu ziren²⁵⁷. Beraz, ikasleak hartzeaz gain bestelako jarduera batzuetarako nahia ere aurreikusten zen espazio berrian. Besteak beste, aipatzen da erakusketa guneak “atraer la atención del público”²⁵⁸ helburu izango lukeela eta bideo gelak “utilizarse para otros usos como charlas y clases”²⁵⁹.

Zumalakarregi Museoan oso interesgarria den espazio bat egokitu zen baserriko zaharberritze lanak eta museografiaren ondoren: tailer txokoa. Bertan, erabilera anitza izango zuen gune bat utzi zen, egunerokotasunean elkar-eragilea izango zena eta haur zein gazteei zuzendutako materiala izango zuena, eta aldi berean jarduera bereziak antolatzerakoan erabili ahalko zutena.

3. Baliabide materialak

3.1. Informatiboak

XX.mende hasieratik, museoek euren bildumen katalogoak eta museoari buruzko oinarritzko informazioa eskaintzen zuten liburuxkak argitaratu zituzten. 80ko hamarkadaren erdialdetik aurrera, eta museoetan burutzen ari ziren aldaketan baitan, publiko ezberdinetara egokitutako gida pedagogikoak sortu ziren – beti ere eskolako taldeentzat baliagarriak izan zitezkeenak protagonismo handiagoa hartuz – .

San Telmon 1980an jada esaten denez, ari dira “preparando un folleto explicativo que podría publicarse para los niños, con las líneas básicas de lo esencial exhibido, lo cuál podría servir de introducción a la visita”²⁶⁰. Urtebete beranduago, eta bide honi jarraiki, esaten da “(que) “Como método de enseñanza y material de estudio, se ha preparado también un importante trabajo, de carácter divulgativo, orientado especialmente a la información de los colegios, realizado a base de fichas ilustrativas por el profesor Félix Elejalde”²⁶¹, urte horretan kaleratu zelarik “Museo San Telmo. Guía Pedagógica y cultural”, gazteleraz eta funtzio didaktiko bat betetzeko helburuaz.²⁶² Gida honen gazterazko alea “se envió, gratuitamente, a las Ikastolas y Colegios Públicos y Privados de Donosti-aldea”²⁶³ eta 1987an, gainera, “(fue) traducida al euskera por el Servicio de Traductores del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastian”. Honekin batera 1983an aipatzen zenez “deben publicarse una buena guía, hojas explicativas del contenido de las diferentes secciones y algunos trabajos monográficos de los temas más notables del Museo”²⁶⁴. 80ko hamarkadan ohikoa bihurtu zen gainera aldi baterako erakusketek loturik ekuorriak, triptikoak, katalogoak eta beste hainbat material sortzea, ordura arte oso kasu zehatzetan egiten zena – batez ere 70ko hamarkadan – .

Ama Xantaleko ermitan aurkitutako materialen katalogoa argitaratu zuen Aranzadi Zientzia Elkartek 1986.urtean²⁶⁵ eta GFAk “Yacimiento-ermita de Santa Elena” liburuxka kaleratu zuen, indusketa eta museoeko historia bilduz²⁶⁶. Azpitiko Umeen Museoan fitxa ezberdinak sortu ziren, haurrei zuzenduta, mendi zein herriko

²⁵⁷ “Proyecto de Museo etnográfico. Noviembre 1989. Alberto Odriozola Saizar, arquitecto técnico.” EUA. Sig: 129/90. 2 or.

²⁵⁸ Ibid. 7 or.

²⁵⁹ Ibid.

²⁶⁰ 1980ko irailaren 5eko saioa. STMA.D. A.L. 7. 180 or

²⁶¹ “Divulgación cultural”, 1981. STMA.. Sig: 57/16. 4 or.

²⁶² “Memoria 1983”. STMA.. Sig: 57/18.

²⁶³ “Memoria 1987”. STMA. Sig: 57/24.


²⁶⁴ “Memoria 1983”. STMA. Sig: 57/18.

²⁶⁵ “Catálogos ermita de Santa Elena”. IRUA- Sig: 2/578.

²⁶⁶ Ibid



ibilaldiak egitean erabilgarri izango zitzaizkienak. Horrekin batera, gai zehatzei lotutako liburuxkak osatzen joan ziren hasieratik, ikasleek ikasgelan erabili ahal zituztenak ingurugiroko gaiak lantzeko orduan²⁶⁷.



6 irud: Umeen Museoko informazio fitxak (EHNAN)

Urretxun, ikastaldearen esperientzia museoko bisita hutsean geratu ez zedin, proiektuan jada aurreikusten zen gaiaren lanketan oinarritzkoa izango zela, aurrez eskolan, bisitan zehar eta baita gerora ere bestelako baliabide batzuk eskaintzea taldeei gaiari loturiko informazioa eta jarduerak izan zitzaizkien. Irakasleen lana erraztu eta orientatzeko helburuaz sortu ziren koaderno didaktiko eta gida liburuxkak: “La disertación de un trabajo por parte del profesor que los acompañe en la visita al museo será importante para que los alumnos capten el contenido de la sala. Para ello les adjuntamos información que les oriente en la preparación de su visita”²⁶⁸. Zumalakarregi Museoa lehen urtean jada lehen bilduma jasotzen zuen katalogoa argitaratu zen.

3.2. Lan fitxak eta koadernoak


Eskoriatzako Museo Eskolan hasieratik eskolako ikasleek erabili ahal zuten materiala sortzeko helburua izan zuten “creación de material, tanto fotográfico como escrito, que permita un mayor conocimiento de los materiales de que disponemos, así como su posible utilización por los Centros Escolares”²⁶⁹. “Gure historiaurrea” erakusketarako material didaktiko idatzia eta ikus-entzunezkoa prestatu ziren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzari esker²⁷⁰.

²⁶⁷ “Umeen museoa 1”. EAEHAAN. Sig: E-329-2.

²⁶⁸ “En su primera visita al museo de Urretxu Mineralogia paleontología”. U.U.A. Sig: 2.8. 1. kutxa

²⁶⁹ “Propuesta de la comisión de Cultura en relación al museo local”. EUA. Sig: 84/1. 1 or.

²⁷⁰ “Gure historiaurrea” erakusketa eskuorria. EUA. Sig: 83/7.



7. irud: Gure historiaurrea erakusketako lan koadernoa (Ibarraundi Museoa)

Pagoetako Parkean jakin dezakegu inaugurazio urtetik jada fitxa didaktikoak sortu zirela ikasleei zuzenduta: “durante los recorridos, monitores especializados van dando explicaciones a los alumnos que siguen los trabajos mediante fichas que van rellenando”²⁷¹. Zumalakarregi Museoa, lehen urtean eskaintza didaktiko baterako lehen pausoak ematen hasi ziren, material didaktikoen sorrerarako eta plan didaktiko egoki baten eraketarako pedagogiako adituen laguntza izan zutelarik: “hemos iniciado contactos con grupos pedagógicos, de cara a la elaboración del diseño de un material pedagógico que complete y amplíe los resultados de las visitas escolares al museo”²⁷².

3.3. Material grafikoa eta ikus-entzunezkoak

San Telmo museoak 1983an museoak ere sortu zuen “una serie de diapositivas sobre lo más fundamental que se exhibe en sus salas a fin de su disposición en los centros de enseñanza y entre las entidades culturales, y constituyendo de este modo otra actividad especial de enorme extensión”²⁷³. Aquariumek ere postal eta diapositibak sortu zituen, “en la línea de divulgación cultural” (Laburu, 1986: 401).

Hala ere, aipatu beharra dago 80ko hamarkadan ireki ziren museo batzuk jada berriak ziren museografia teknika eta tresnak erabili zituztela. Horien artean, adibidez, museoetan bisita autogidatua egitea errazten zuten zinta magnetofonikoak eskaintzen zituzten Azpeitiako Umeen Museoa, Urretxuko Mineral eta Fosilen Museoa eta Eskoriatzako Museo-Eskolan: grabazioen bitartez azalpenak entzuteko aukera eman eta era autonomoan erakusketa ikusteko aukera ematen zutenak.

3.4. Esperimentalak

²⁷¹ “Informe acerca de la Escuela de la Naturaleza de Pagoeta de Aia y petición de propuesta presupuestaria a la Escuela Universitaria Diocesana de San Sebastián para la prórroga de contrato de la Escuela de la Naturaleza de Pagoeta. 23 de mayo de 1988”. IPA. 4 or.

²⁷² “Proyecto de actividades del museo T Zumalacarregui en el último cuatrimestre de 1989”. ZMA. 1989ko kutxa. 2 or.


²⁷³ “Memoria 1987”. STMA. Sig: 57/18. 37 or.

Hamarkada hauetan oraindik esperimentazioa eskatzen zuten materialen sorrera oso eskasa izan zen. Fitxa didaktikoez gain Eskoriatzan aurrehistoriari lotutako domino joko bat sortu zela aipatzen da, beti ere museoak bilatzen zuen haurrarenakako gerturaketa eta ekintzen izaera ludikoa azpimarratuz²⁷⁴. Era independente batean egin ez baziren ere, Urretxuko museoan adibidez museografiaren txertaketara jo zuten tresna esperimentalei dagokioenez; honela, fluoreszentzia frogatzeko espazio txiki bat egokitu zela erakusketa aretoan.

²⁷⁴ "Solicitud de subvención a la Excm. Diputación Foral de Gipuzkoa del Aitzorrotz etnologi taldea para el Museo Local de Eskoriatza. Enero 1990". EUA. Sig: 280_129/90.



GIPUZKOAKO MUSEOAK. 1970-1990



Laugarren atala: 1990-2000

I. FORMULA BERRIEN BILAKETA

Hamarkada zaratatsua

Trantsizioa eta demokraziaren lehen urteetan ilunpean bizi izan zen gizarte baten berreraikitze prozesua eman zen, non bizitzaren arlo guztietan eztanda nabarmena gauzatu zen: isilpeko ideiak, adierazteko beharrak eta modu berri eta askean bizitzeko eskubideak edozein esparru zipriztindu zuen. 90ko hamarkada, mendearen amaierako garai zaratatsua izan zen: ezker alderdien agintaldi luze baten osteko eskuinaren gailentzea, politika ekonomiko berrien aurre egitea eta terrorismoa protagonista zen etengabeko liskarretako arazoa. Horren aurrean,

Hezkuntzaren begirada berria

1970ko Hezkuntza Legearen ondoren, Espainiako Konstituzioari lotuta agertzen zen erreforma berri bat agertzea beharrezkoa suertatu zen, era berean hezkuntzaren eskubidea eta unibertsitateen inguruko antolamendu berri baterako pausoak ere emanaz. 1990an erreforma berria burutu zen, LOGSE izena hartuko zuena, zeinak derrigorrezko hezkuntzaren mailaketa, doakotasuna, unibertsitatearen autonomia eta ikastetxeen hezkuntza askatasuna bermatzen zuten, besteak beste. Hala ere, aditu askok legearen aurkako kritika sakonak jaurti zituzten, berrikuntza pedagogikoak eta teknogikoak barneratu behar zituenak garaiko egoeraren adierazgarri ez zirelako eta gainera berandu iritsi zelako (Escolano, 2002).

Baina hezkuntza legeztatzen zuten neurri berriez gain, 80ko hamarkadatik jasotako herentzia baten egonkortzea eman zen hamarkada berriarekin batera: hezkuntza behar berriak zituen gizarte bati emandako erantzunak geroz eta egokiagoak ziren, planteatutako irtenbide eta programek biztanleria guztiaren heziketa nahiak asetuz. Honela geroz eta hedatuagoa zegoen *life long learning* edo hezkuntza iraunkorraren ideia nagusitu zen – nahiz eta termino berria ez izan – eta hau, “lejos de limitarse al período de escolaridad debe abarcar todas las dimensiones de la vida, todas las ramas de saber y todos los conocimientos prácticos que puedan adquirirse por todos los medios y contribuir a todas las formas de desarrollo de la personalidad” (Requejo, 1998: 53). Honi lotuta, hezkuntza ez formal eta informaleko espazio berriak sortu edota indartu ziren, museoak hauetan oinarritzko protagonista izanik.

Turismo berriztatua

Demoraziaren egonkortze garaiarekin batera, Espainiako “sol y playa” modeloaren beherakada nabaria eman zen: 60 eta 70ko hamarkadetako indarraren ondoren funtzionatzen ez zuten formula batzuk mantendu ezinak bihurtu ziren eta horrela, “en los años 80 y principios de los 90, el sector atravesó una difícil coyuntura dentro de la cual se produjo una desarticulación entre la oferta y la demanda. En términos generales, la estructura y la falta de competitividad del sector acusaron una pérdida de rentabilidad” (Almeida, Coll, Brunet eta Monteserín, 2005: 205). Egoera horren aurrean, turismoa eta garapenerako formula berriak bilatu ziren, gobernu zentraletik sustatutako programa ezberdinen bitartez zein autonomi erkidego bakoitzeko plangintzetan oinarrituz. Honekin batera, garaiko hezkuntza behar berriei erantzuteko espazioak, eskolatik kanpo zeudenak, gizartearen parte handiago batetara heltzen hasiak ziren; kulturako espazio ezberdinak hauei erantzuna emateko prestakuntza prozesu batean murgildu ziren, zenbait urte lehenago jada sortua zen *turismo kulturalaren* gailentzearekin.

EAEri dagokionez, 1995eko martxoaren 28koa, Merkataritza, Kontsumo eta Turismo sailburuarena, Euskal Autonomi Elkarteke turismo-azpiegitura sortu eta hobetzeko laguntzak emateko eta turismo-produktu berriak aztertu, diseinatu, abian jarri eta merkaturatzeko²⁷⁵. Honek bultzatuko zituen: turismo produktu berrien sorrera, nekazaritza-turismoaren garapena, instalazioak berritu eta produktuak merkaturatzeko egitasmoak. Turismoa ez

²⁷⁵ EHAako aginduak. In http://www.irekia.euskadi.eus/eu/orders/199501730?criterio_id=822837&track=1 (2015ko ekainaren 5an ikusia).



ezik eskualde desberdinetako garapen planak aurrera eramateko sortu ziren Garapen Agentziak, zonalde askotan turismoaz gain kultura ekimen ezberdinak aurrera eramateko oinarrizkoak izan zirenak.

Museoak bidea egiten

XX.mendeko azken hamarkadan museoak publikoaren eskaera berriari erantzuteko beharra izan zuten: aurreko urteetako instituzioaren demokratizazioaren baitan emandako eskolako taldeen agerpen masiboarekin batera, bestelako publiko mota batzuk agertu ziren, aisialdian kultura eta ondarearen ezagupenerako egarria sentitzen zutenak eta hauek ulertzeko modu berrien beharrak zituztenak. Egoera honetan, “El modelo antiguo del museo expositor de objetos se añadieron nuevos planteamientos, en la forma de museos participativos, en los que no sólo se muestra sino que también se informa, se experimenta y demuestra” (Alderoqui, 1996: 19). Gizartea eta museoaren arteko lotura geroz eta estuagoa izan behar zutela aldarrikatzen zuten adituek – aurreko hamarkadako tendentzia berrien indartzearekin batera –; honen aplikazioa eta errealitatea, noski, os desberdina izan zelarik lurralde eta museo moten arabera, nahiz eta teoriarik barneratuta zegoen kontzeptuen baitan mugitzen ziren guztiak.

Ondarea berreskuratzea

Garau honetan lurralde guztietan orokortu zen “(una) necesidad de olvidar [...] rancias moralinas, censuras omnipresentes y represión de los alientos creativos y de abrirse a la modernidad, al progreso, a la libertad [...]”. Las comunidades autónomas encuentran en los museos, en su apertura, una magnífica caja de resonancia para rubrica [...] el proceso de modernización que se ha emprendido” (Díaz Balerdi, 2010a: 42)

Honetan eragin zuzena izan zuen *Euskal Ondare Kulturalaren Legea*²⁷⁶, zeinak 90. Artikuluan zioen:

“Kondaira herritarrari honen hurbileneko inguruaren bidez hurbiltzeko xedez, Eusko Jaurlaritzak, 10.000 biztanletik gorako udalerri eta eskualdeetan hiriari buruzko erakustetxea²⁷⁷ sor dadineko ardura izango du. Erakustetxe hauen berarizko egitekoa hiri bakoitzeko historiaren argipidetarako izanezko osagai edo alderdia eskuratzea, zaintzea, erakustea eta horien zabalkunde egitea izango da”

Euskal identitatearen agerikotasuna nagusi bilakatu zen eskualde guztietan eta horren indartzearen baitan ondarea eta honen erakusketa museo formatu bidez burutu zutenak izan ziren zabalduenak. Alde batetik, azaleratu gabe existitzen zen ondare ugariaren inguruko lanak biderkatu ziren hamarkada honetan (Sarasola, 2010); arkeologoek eskutik burututako indusketan jasotako froga materialak historiaren agergarri eta aldi berean identitate baten sorrerarako oinarri bihurtu zirelarik. Bestalde, ondare industrialak geroz eta garrantzi gehiago hartu zuen, eta galtzeaz zeuden objektu askoren berreskuratze garai bati eman zitzaion hasiera.

Hamarkada honetan, kostaldeak zein hiriburuak zuen ondare historikoarekiko interesaz gain, barnealdean ere horren agergarri izango ziren espazio zein proiektuak sortzeari ekin zitzaion. Landa eremuen uztea eta industrializazio prozesuak eragindako aldaketen aurrean “grupos sociales de zonas rurales impulsan nuevas estrategias para cambiar esa tendencia” (Arrieta, 2003: 121).

Oro har, museoen fenomenoak garrantzi berezia izan zuen zonalde hauetan hauetan,

“donde el museo es entendido como un elemento valorizador de la identidad y el patrimonio local, al tiempo que un aliciente para el turismo y, considerado como tal, un elemento potencial de desarrollo. Esta fiebre museística, que aspira a que cada comarca, e incluso cada municipio, se dote de una estructura museal, plantea un serio reto a las instituciones que más allá del poder municipal se hacen cargo de estas cuestiones como son las diputaciones y el Gobierno Vasco” (Leizaola et.al., 2008: 201)

²⁷⁶ 7/1990 Legea, uztailaren 3koa, Euskal Ondareari Buruzkoa. Euskal Herriko A.A. 1990ko abuztuak 6. 157 zkia.

²⁷⁷ Gaztelerazko bertsioan erakustetxeei “museo” hitza egokitzen zaio.



Guggenheima iritsi da!

Museoa gizartera gerturatzea, demokratikoagoa bihurtzea, behar zehatzetara egokitzea eta kalitatezko hezkuntza zerbitzu bat eskaintzetik at, museoak garapen sozio-ekonomikorako tresna bat kontsideratu zuten zenbait aditu eta mandatarik. Euskal Herrian – zein mundu osoan – ezaguna bilakatu zen Guggenheim Museoa inauguratu zen Bilbon 1997an, museo kontzeptu guztiekin hautsi eta instituzioa begiratzeko – eta erabiltzeko – modu berria planteatu zuenak. Ez zen irekiera hutsa izan, ezta derrigorrezko ponpaz inguraturiko nazioarteko museo berri baten harrera. Guggenheimak kultura ulertzeko modu berri bat agertu zuen, ordura arte hemen ezagutu ez zena: “El Guggenheim no se implantó en Bilbao para facilitar el acceso de los ciudadanos al arte [...] Su papel no estriba en proponer o suscitar debate, sino en comunicar el nuevo estatus de la ciudad y su atractivo como destino para la clientela foránea” (Esteban, 2007: 17).

Guggenheimak sortutako efektuak panorama kultural guztia zipriztindu zuen, eta ondorengo urteetan gauzatu ziren plan, programa, estrategia eta ideia magiko askoren ardatz nagusia bilakatu zen, askotan fenomenoaren izaeraren ezaugarriak espazio tenporal eta fisiko batean zein gizarte ezaugarri zehatz batzuetan txertatu zelaren inguruko hausnarketa burutu gabe. Horrek ondorio latzak ekarri zituen Estatu osoko panorama museistiko eta kulturalera, finantzazio arazo larrietan murgildutako ekimenekin borrokatu behar izan zelarik urte luzez.

Zifren garrantziaz kutsatuta

Guggenheimak zein turismo beraren protagonismo berriek museoaren eta beste kultur espazioengan benetako presio bat ezartzea eragin zuen. Funtzio publikoa zuten instituzio hauen egitekoak elementu berri batek baldintzatu zituen: bisitarien zifrak. Egoera horretan “(la) auténtica importancia radica en ser un número que, añadido a otros números, constituye el elemento diagnóstico del éxito o del fracaso de la institución y de sus prácticas ceremoniales: un guarismo en la estadística de asistencia” (Díaz Balerdi, 1994: 141).

Museoak aisialdiko beste espazio batzuen konparaketak ez ziren praktika exogenoa izan; bisitariak “lortzeko” interes nagusia eta estatistiken inguruan mugitu ziren kudeatzaile asko²⁷⁸. Hala ere, kanpoko eragileek ere egoera hau puztu zuten, komunikabideak bisitarien errekorrak edota museoetako bisitari hazkunde/beherakada mugimenduei buruzko artikulak argitaratzen zituztelarik etengabe, batez ere erakusketa berri baten irekierarekin batera, museoaren erreforma lanen eta inaugurazioen ondoren edota udaldietako garaiak amaitzean.

Egoera honetan museoaren oinarritzko funtzioetatik haratago zihoazen proiektu berriei ekin zitzaizkien askotan, atrakzio parke baten ikuskizun eskaintzara geroz eta gehiago gerturatuz. Honetatik eratorritako produktua “es efímero, vinculado a la moda del momento y sucedido de inmediato por otro para satisfacer a un público de consumidores voraces, ansiosos de sensaciones fuertes y dispuestos a emprender una carrera desenfadada hasta el escaparate del bien de consumo rápido en que se han transformado algunas exposiciones” (Mayrand, 2012: 11).

²⁷⁸ Egoera hau era nabarmen batean agerikoa da museoetako txosten guztietan errepikatzen diren bisitarien azterketa datuetan: kopuruak, jatorria, adina,... Bisitari tipoen perfilak eta afluentziak izan ziren, kasu askotan, urteetako ekimen eta jardueren froga bakarra.



II. GIPUZKOAKO MUSEOAK ABIADURA HARTZEN

Hamarkada honetako aldaketa azkar eta jarraituen aldean, Gipuzkoak Museoen esnatze bat eman zela esan daiteke, Díaz Balerdiren (2010b) hitzetan “alcánza una velocidad de crucero nada despreciable” (60). Aurreko urteetako proposamen berriei jarraiki helburu eta funtzio ezberdinen baitan sortu ziren museo tipologia ezberdinak. Bitartean, aurretik existitzen ziren ekipamenduen biziraupenaren kontrako bi aldeak agerian geratu ziren berriz ere: etengabeko aldaketa eta moldaketa prozesuen baitan mugitu zirenak, eta mugiezina zen betikotasunaren baitan mantendu nahi izan zutenak.

Irekitako museo berrien artean, bilduma ezberdinen azaleratzearekin batera jaiotakoak izan ziren; batzuk pribatuak eta besteak publikoak. Horrekin batera, ingurumen hezkuntzaren indarra geroz eta handiagoa izanik, natur baliabideen inguruan sortutako museoak izan ziren. Multzo historikoen berreskurapenak ere ekipamendu berrien sortzeari ateak ireki zizkien eta landa eremuen garapena sustatuko zuten planen garapena ere izan zen, ondarea eta museoak ardatz hartuta.

Museo zaharrak

1. San Telmo Museoa

1990tik aurrera museoan eman ziren aldaketa guztiak izanda ere, instalakuntzen zaharberritzea eta bildumaren berrantolaketa oinarritzkoa suertatzen zen oraindik. Lehenik eta behin, 1990an Donostiako Udalak Kultura Patronatua sortu zuen, arlo honi lotutako hiriko zerbitzu guztiak kudeatzeko helburua zuena (Fornells, 2003). Ondoren, hainbatetan aipatua izan zen museo berri baten beharra geroz eta indar handiagoa zenez, arazoari aurre egiteko lehen bilerak gauzatzen hasi ziren, Donostiako Udala, GFAk eta EJRen artean (Arrieta, 2012b). Museoaren berritzea edo museo berri baten inguruko eztabaida ez zen berria; 60ko hamarkadako Aranzadiren txostenetik hasita 80ko hamarkadaren amaierako aholku eta gomendio eskaerara egindako bidea luzea izan zen. Guzti hau oinarri izanik gauzatu ziren lehen akordioak Euskal Kulturaren museoa bihurtzeko eta 1992an Donostiako Udalak, GFAk eta EJR museoaren plan berriari ekiteko hitzarmena sinatu zuten. 1993an proiektu museografikoa lehiaketa publikora atera zen²⁷⁹, eta 1994an K6 K.Z.ren proposamena onartu zen (Aguirre, 1995).

Baina instituzioen arteko ezadostasun jarraituak, beste mota bateko arazoei lotuta, proiektua urte askotan luzatzea ekarri zuen. Gainera, Euskal Herri mailan, proiektu kultural berrien agerpenak instituzio batzuk San Telmoren berrikuntza plana alderatu eta beste espazio batzuenak lehenestea eragin zuen - Bilboko Guggenheim Museoa, Donostiko Kursala eta Tabakalerako proiektua, besteak beste – (Arrieta, 2012b). Hala eta guztiz ere, Donostiako Udalak proiektuarekin aurrera jarraitu zuen.

Bitartean, museoan egunerokotasunean lanean jarraitzen zen, instalakuntzen egoera larria zela eta obra batzuk²⁸⁰ egitera behartuak ikusi zirelarik, “(ya que) hay una preocupación común por el mal estado del edificio y por su necesidad inmediata de restauración”²⁸¹ eta Serten mihiseen zaharberritze laneak ere larrialdiko esku-hartze bat eskatzen zutelarik (Fornell, 2003). Etorkizuneko proiektuak museora haize berriak ekarriko zituela argi bazegoen ere, 1997an oraindik ere San Telmo eta herritarren arteko harreman eza nabarmentzen zuen Rafael Zulaikak,

²⁷⁹ “1ª reunión de la Comisión Preparatoria del Concurso de San Telmo”. STMA. Sig: 329/1.

²⁸⁰ “Año 1998”. STMA. Sig: 289/14.

²⁸¹ “Concurso para la reestructuración de Museo de San Telmo. Documentación 20 de julio 1992- 11 mayo 1995”. STMA. Sig: 329/1. 1 or.



garaian museoaren zuzendaria zenak: "Badirudi tenpluak garela. Tenpluak baino askotan hilerriak gisa ikusten gaituzte, eta agian arrazoiarekin. Geuk hilerria baino agian herriko plaza bihurtu beharko genuke. Jendeari ere bere partaidetzarako toki gehiago eta ate zabalagoa eman eta irekita utzi"²⁸²; eta asmo horiek proiektu berriaren baitan gauzatzeko lanetan jarraitu zuten hamarkada osoan zehar.

2. Victor Hugo Etxea

Behin Aurrezki Kutxak eraikina erosita, Victor Hugo Etxean erakusketa iraunkor bat ipintzeaz gain, erabilera anitzeko espazio kulturala zein turismo informazio gunea bihurtzeko lehen pausoak eman ziren. Gauzak gutxi aldatu ziren 90eko hamarkadan: Victor Hugo Etxea, museo izateaz gain, herriko kultur areto bat gehiago izango balitz moduan funtzionatzen aritu zen, aldizkako jarduera bereziak antolatuz eta eskaeraren arabera taldeentzako ekintzak eskainiz. Aldaketa nagusia 1999an eman zen, izan ere aurretik sortua zen Oarsoaldea Garapen Agentziak eta Kutxak akordio bat sinatu zuten Victor Hugo Etxean Pasaiko turismo bulegoa ezartzeko. Ordutik aurrera erakusketa iraunkorra ez ezik, turismo informazioa zabaltzeko gunea bat ere izango zen.

3. Armagintza Museoa

Museoan aldaketa gutxi eman ziren hamarkada honetan ere: Ikasleentzako gunea izateaz gain aldizkako bisitak izaten zituen, eta Armagintza Eskolak aditu edo interesaturen bati erakutsi ohi zion bilduma. Publikora era egonkor batean irekitzeko zenbait urte itxaron beharko zen.

4. Zuloaga tailer etxea

Zuloaga tailer etxean ere funtzionamendu aldetik bide bera jarraitu zen. Dinamizazio eskasa egon zen; baina pentsa dezakegu bisitariei zein eskaerapeko edozein talderi ateak irekitzen zitzaizkiola, arduradunek bisita gidatua egingo zutelarik.

5. Itsas Jauregia – Aquariuma

Itsas Jauregiaren biziraupen hamarkada izan bazen ere, benetan adierazgarria den aldaketa bat eman zen: 1998an museoa eraberritu eta "Aquarium Berria" bezala ireki zen. Dударik gabe aldaketa honek inflexio puntu bat suposatu zuen museoaren historian, "ubicando al Aquarium en uno de los lugares de mayor reclamo dentro del abanico de ofertas que la ciudad presentaba tanto a nativos como a forasteros" (Sada, 2008: 637). Instituzioen laguntza ezinbestekoa izan zen aldaketa hau aurrera eramateko – GFA, E.J, Donostiako Udala eta Kutxa – (Sada, 2008) eta laster bilakatuko zen Donostiako zein Euskal Herriko museo arrakastatsuenetakoa bat: "Más de medio millón de personas pasaron aquel año por nuestras instalaciones. Esto desbordó todas las expectativas y dio una nueva imagen de nuestra institución y de la ciudad de San Sebastián en general"²⁸³. Aquariumak urtean jasotzen zituen 75.000 bisitaritik 650.000 izatera pasa zen irekiera berriaren ondoren (Sada, 2008).

²⁸² EITB. (1997) "Cro-magnonen ondoren". Euskal Herriatik [bideoa]. In <http://www.eitb.tv/eu/bideoa/euskal-herriatik-101-ataletik-200era/782584653001/788061773001/cro-magnonen-ondoren/> (2015ko apirilaren 25an ikusia).

²⁸³ "Aquarium". *Auñamendi Eusko Entziklopedia*. In <http://www.euskomedia.org/aunamendi/101178/136871?&idi=eu> (2015ko ekainaren 3an ikusia).



8 irud: Aquarium berriko tunela (GOE. Gipuzkoako
Ozeanografia Elkartea)



6. Urgull Historiaren Etxea

San Telmo Museoa eta Urgull Etxea aldi berean eta lantalde berdinarean pean kudeatzen ziren. Urte hauetan publikora irekita egon zen, eta baliteke San Telmo berak antolatzen zituen zenbait jardueren espazio osagarri bezala zein aldizkako ekintzetarako erabiltzea.

7. Julio Beobide tailer-etxea

Irekiera urtetik bezala, tailer-etxearen irekiera familiaren ardura zen eta bertan burutuko ziren jarduerak ere kudeaketa pribatuaren baitan eraman ziren aurrera. Suposa daiteke hamarkada honetan ere obraren kontserbazioaz gain taldeen eskaeraren arabera irekierak burutuko zituztela.

8. Mirandaolako Parkea: Lenbur Lurralde Museoa²⁸⁴

80ko hamarkadaren amaieratik talde politiko ezberdinen, udal teknikarien eta elkartearen desadostasun jarraituek oztopo eta trabak izan ziren burdinaren inguruko proiektua aurrera eramateko Legazpin. Mirandaolarekin hasitako prozesuari jarraitzeko planaren aurrean iritzi ezberdinek talka egiten zuten. Alde batetik, historiazaleek Bikuña Jauregian burdinaren museoa ezartzeko proposamena babesten zuten; bestalde, udal teknikari batek museo bakarra baino lurralde osoa bere baitan hartzen zuen proiektu bat proposatzen zuen, burdina eta herriaren arteko lotura hori espazio bakar batetara ez mugatzearen. Zenbait urtetan luzatu ziren eztabaiden ondoren azken aukera hau jorratzeko erabakia hartu zuen Udalak. Honela, eta instituzio zein partikular ezberdinen laguntzari esker aurrera egitea lortu zuten, hala nola, Europar Batasuneko zenbait proiekturen parte bilakatzea eta diru-laguntzak lortzearekin batera (González, 2012).

Aldi berean 1993an Burdinaren Museoko Lagunen Elkartea sortu zen, *Burdiñola* – Legazpiko ikerketa historikoa burutu zuten sei pertsona berdinez osatuta –. Honen helburuak ziren “la localización, recuperación, potenciación o divulgación de cualquier elemento [...] que estuviera relacionado con Legazpi, en particular, y con Gipuzkoa, en general” (Arrieta, 2012b: 318), aldi berean lehen irteera gidatuak eta burdinarekin erlazionatutako koaderno didaktikoak ere sortu zituztelarik.

²⁸⁴ Ondorengo atalean “Sareak eta elkarlanak” atala sortu da. Honetan, eta museo sare bat baino gehiago dela kontsideratuz (lurralde-museo kontzeptuaren baitan) ekipamendu batzuei lotutako egitasmoa bezala txertatu da, nahiz eta ondorengo hamarkadan sortutako sareen aurrekari kontsideratu daitekeen.

1995an Legazpiko Udalak Komisio bat eratu zuen, "Legazpi, burdinaren natura eta artisautza"²⁸⁵ plana aurrera eramateko eta urtebete beranduago inauguratu zen Mirandaolako Parkea, burdinolaren inguruan sortutako espazio bat, burdinolaz gain bestelako gune eta ekipamendu batzuk bere gain hartzen zituenak (Zabala, 2007). 1997an azkenik Lenbur Fundazioa sortu zen²⁸⁶ - Legazpi, Natura eta Burdina - Urola Garaiko eskualdean sortutako lurralde-museoaren proiektua garatu eta kudeatzeko eta aldi berean Gipuzkoan zein Estatu mailan erreferentia bilakatuko zen ekimen bati aurre egiteko. Fundazioak Legazpiko Bikuña Jauregian ezarri zuen bere egoitza zein Dokumentazio Zentro espezializatua, eta bertatik kudeatu ziren ez soilik Mirandaola Parkeko jarduerak baizik ingurunean ere garatu ziren bestelako proiektu kulturalak - zein aurrerantzean irekiko ziren ekipamendu berriak -.

9. Ama Xantalen Museoa

Aurreko urteetan izandako aldizkako irekieren ondoren eta musealizazioaren bigarren faseko obrak eta gero, badirudi Ama Xantaleko ermitako museoaren funtzionamendua egonkortuz joan zela eta 1990tik aurrera lehen bisitarien datuak eta taldeen aipamenak jaso ziren²⁸⁷ eta harrerarako langileria kontratatu zen. Honekin batera, 1996an indusketa arkeologiko berriak burutu ziren Irunen, Eskolako eraikinaren atzealdean. Bertan erromatar garaiko aurriak aurkitu ziren, honi lotuta Irungo Udala proiektu handiago baten ideiarekin inguruan lanean hasi zelarik (Barandiaran eta Urteaga, 2007), etorkizunean Oiasso Museoan islatuko zena alegia .

10. Gorrotxategi Konfiteri Museoa

Konfiteri lantegiaren ondoko lokalaren obrak 1991an amaitu ziren, eta museo berria inauguratu zen espazio berri hartan. Aurreko urteetan hasitako dinamika bera jarraitu zuten hamarkada honetan ere: museoan bisitariak jaso eta horrekin batera bilduma handitu eta konfiteriaren inguruko hedakuntza lanak burutuz. Garai honetan gainera euskal gastronomiak berebiziko bultzada jasan zuen eta bertan konfiteriak ere bere lekua izan zuen; Gorrotxategi familiaren lanarekin batera museoak ere geroz eta ospe gehiago irabaziz. Enpresa zein museoaren kudeaketa Jose Mari Gorrotxategi Pikasarriren bi semeen esku geratu zen urte hauetan, lan bolumena bi arloetan geroz eta handiagoa zelarik.

1995. urtean beste aldaketa bat eman zen Konfiteri museoan: Ikastetxeetako taldeen bisitak Tolosako Zuloaga Txiki ingurumen eskolaren esku geratu ziren, hauekin elkarlan hitzarmena sinatu ondoren²⁸⁸. Beste talde eta bisitari guztien ardurara aldiz museoak berak eramaten jarraituko zuen zenbait urtetan. Bitartean Konfiteri Museoaren eta lanbide beraren difusio lan izugarria egin zen: Gorrotxategi familiako kideak kongresuetan egon, ikerketak burutu eta informazioa biltzen jarraitu zuten.

11. Eskoriatzako Museo-Eskola / Eskoriatzako Etnografia Museoa

Eskoriatzako museoa Hidalgo kaleko kultur etxe berrian kokatu zen, erdi soto batean. Aitzorrotz Etnologi taldeak sortutako proiektuarekin aurrera jarraitu zuen, bilduma handituz eta material pedagogiko berria sortuz. Baina

²⁸⁵ Urteetan zehar proiektuak izen ezberdinak jaso zituen, bai Udalak berak sortutakoak zein kanpo aholkularitza enpresa batek aurkeztutako planetan proposatutakoak.

²⁸⁶ "de la mano del Ayuntamiento de Legazpi y de empresas como Corporación Patricio Echeverría, S.A., Cie Automotive, GKN Driveline Legazpi, Urola Sociedad Coop., Zorrotz Comercial, Goiber, Construcciones Metálicas Urretxu, U.Z., fundaciones como la Fundación Inasmet o personalidades como Eduardo Chillida e instituciones como el Ayuntamiento de Ezkio-Itsaso y la Mancomunidad Urola Garaia". González, A. (2007, azaroak 7). 10 años de LENBUR Fundazioa: del escepticismo a la realidad. *El Diario Vasco*. In <http://www.diariovasco.com/20071107/opinion/anos-lenbur-fundazioa-escepticismo-20071107.html> (2015ko maiatzaren 29an ikusia)

²⁸⁷ "Horario al público del museo". IRUA. Sig: 9/579.

²⁸⁸ "Gorrotxategi museoa 1995". GFAAA. Sig: Akobe 8536/4.



museoak berak zituen beharrei erantzuteko lantalde finko bat osatzea ezinbestekoa zen, eta horretarako EJK hezkuntza sailetik liberatu zituen bi irakasle. Honela, eta Eskoriatzako Udalak utzitako lokal berrian, Eskoriatzako Museoak aurrera egin zuen, geroz eta bisitari gehiago hartuz eta programa berriak eratuz.

Aipamen berezia behar du 1994. urtean Aitzorrotz taldeak proposaturiko elkarlana, non jasotako pieza etnografiko bolumena handitzen ari zela ikusirik, Arrasateko Lanbide Eskolako ikasleekin batera pieza hauen garbiketa eta ikerketa burutzea planteatzen zen²⁸⁹.

12. Pagoetako Parkea / Pagoetako Parke Naturala

Hamarkada honetan Pagoetako Parkearen baitan existitzen ziren espazio berrien irekiera eman zen. Sagastizabal baserrian kokatzen zen Natura Eskolaren osagarri bezala, Iturraran baserria ireki zen harrera gune eta museo funtzioa betetzeko²⁹⁰, erakusketa iraunkor batekin eta Parkearen inguruko informazio gehigarria eskaintzeko espazioaz²⁹¹. Aldi berean gune berrien koordinaziorako ardatz bilakatu zen: Agorregi burdinola, 80ko hamarkadan berritu ondoren 1992an ireki zena publikora, Lorategi Botanikoa eta erlategi didaktikoa. Honela Pagoetako Parkeak eskaintzen zituen aukerak zabaldu ziren, banakako bisitari zein taldeen beharrei erantzuteko ezinbestekoak.

Espazio berrien irekieraz gain kudeaketan ere aldaketa ugari eman ziren hamarkada honetan: "El 15 de junio de 1990 la Escuela Diocesana indica que no se puede seguir encargándose de ello"²⁹². Egoera horren aurrean, Natura Eskolako irakasle berdinek lantaldea osatu zuten, adieraziz "(que) hemos constituido una «comunidad de bienes», y estamos dispuestos a continuar estas actividades"²⁹³. Honela, antzinako ikasle horiek sortutako taldeak ekin zion Pagoetako kudeaketari, hamarkada berean beste bi enpresen agerpena ere eman eta Parke barruko azpiegitura ezberdinen banaketa hauen artean burutu zelarik.

13. Umeen Museoak / Ingurugiro Etxea

Umeen Museoak pixkanaka ezaugarri propio batzuk bereganatu eta jarduera berrien proposamenei ekin zien. 1989ko ikasturtean hasitako hileroko gaiekin jarraitu zen hasierako urteetan, ingurumenari loturiko aktibitateak egiten zirelarik hautatutako arloari lotuta. Oro har milaka bisitari hartzen jarraitu zuten Umeen Museoak, 1994. urtearako ia 160.000 bisitari egon zirelarik museoan, taldeka zein banaka²⁹⁴ eta hauei zuzentzen ziren etengabeko eskaintza berriak diseinatzea oinarritzkoa zen. Bisitarien arretaz gain, museoko bestelako funtzioekin ere aurrera jarraitu zen: komunikabideetan difusio lanak, informazio bidalketa ikastetxe eta talde ezberdinei, material didaktikoaren prestaketa eta abar. Berrikuntzetako bat museotik at bestelako gune batzuetara bisitak antolatzea izan zen, ingurugiroaren ikaskuntzan erabilgarriak izan zitezkeelakoan. Honela, 90ko hamarkadatik aurrera "la oferta se completa con la posibilidad de visitar el Vertedero Controlado de Lapatz, La Central Potabilizadora de Oñatz y la estación depuradora de Aguas Residuales de Lasao"²⁹⁵.

1998an ordea Umeen Museoak erabateko aldaketa jasan zuen: Alde batetik, aurreko izena alde batera utzi eta "Ingurugiro Etxea" izatera pasa zen espazio hau. Bestalde erakusketa iraunkorreko museografian ere berrikuntzak

²⁸⁹ "Solicitud de ayuda económica para el ejercicio 1995". EUA. Sig: 321/7.

²⁹⁰ Iturrarango lehen irudiak ikusgai EITB (1996). "Pagoeta" [dokumentala]. *Euskal Herriatik*. EITB. In <http://www.eitb.tv/eu/bideoa/euskal-herriatik-1-ataletik-100era/4106892296001/4104617960001/pagoeta/> (2015ko maiatzaren 22an ikusia).

²⁹¹ "Pagoetako Parkea". In <http://www.aiapagoeta.com> (2015ko maiatzaren 15an ikusia).

²⁹² "Memoria de las actividades realizadas por el grupo Enara durante el segundo semestre de 1990 en el parque Pagoeta". IPA. 1 or.

²⁹³ Ibid.

²⁹⁴ "Visitas al museo de los niños. Estadísticas, informes, programas, 1993-1995". AZUA. Sig: 4221/01.

²⁹⁵ "Memoria final curso 96-97". IEA



eman ziren, lau erakusketa gela sortuz gai ezberdinen inguruan: lurra, bioaniztasuna, demografia eta energia²⁹⁶. Guzti honek, noski, museoaren jarduera didaktiko eta baliabideetan ere aldaketak suposatu zituen.

14. Urretxuko Mineral eta Fosilen Museoa

Lehen hiru urteren ondoren, Urretxuko Mineral eta Fosilen Museoak dinamika antzekoa jarraituz egin zuen aurrera: bildumak osatuz joan ziren eta aldi berean alor didaktikoak geroz eta garrantzi handiagoa hartu zuen. Badirudi lehen urte horien ondoren ere ez zitziola behar bezalako etekina ateratzen museoari, eta horren baitan 1996tik aurrera zenbati aldaketa eman ziren. Lehenengo aldaketa museografiaren aldaketa eta berritzearekin eman zen, behar berrietara egokituz eta bildumaren antolaketa egokiago bat eginaz. Museoak zuen izaera didaktikoaren garrantzia azpimarratzen zen garaian: "Euskal Herrian funtzio didaktikoa duten museoak gutxi direla esan izan dugu behin baino gehiagotan. Salbuespenen artean, ordea, Urretxuko mineral eta fosilen museo txikia" (Urkizu, 1997). Bigarren aldaketa jarduera didaktikoen baitan eman zen: enpresa espezializatu baten esku utzi ziren taldeen bisitak, hala nola hauei zuzendutako material didaktiko berriaren sorrera; museoaren kudeaketaren arduraduna Urretxuko Udaleko Kultura saila izaten jarraitu zuen. Honekin batera, museoaren difusio irudi eta marka bihurtu zen Mineral eta Paleontologi Astearen egonkortze bat eman zen, geroz eta parte-hartzaile gehiago izanik eta programazio aberasgarria eskainiz.

15. Zumalakarregi Museoa

90eko hamarkada abiadura handiz hasi zuen Zumalakarregi Museoak, eta ordura arte Gipuzkoako museoetan ezezagunak ziren proposamenak garatu zituen, museo batek eskaini ahal zuenaren ideia zabalduz. Oro har, Zumalakarregi Museoa gun e aktibo eta ireki bat izateko helburuaz jaio zen, eta bisitariei museoan bertan eskaintako zerbitzuetatik haratago biztanleriara heltzen saiatu ziren ekintza ezberdinak beste hainbat espaziotan burutuz.

Aldi berean, museoko aretoek ere zenbait aldaketa jasan zituzten. Erakusketa iraunkorreko erakustaretoen berritzea eman zen zenbait urteetan, hala nola tailer edo lantegiko guneak jasandako eraldaketak. Ikerketaren arloan ere bide berriak ireki zitzaizkien ikerlari gazteei, izan ere 1991tik aurrera urteroko beka bat eskaini zen Euskal Herria eta XIX.mendearen inguruko lanak burutzeko (Alberdi, 2008). Bitartean lantaldeak taldeak hartu, bilduma handitu eta baliabide didaktikoen inguruan lan egiten jarraitu zuen, horien artean aldi baterako erakusketa garrantzitsuak gauzatuz eta aldi berean hauek Euskal Herriko udalerrri ezberdinetara mugitzeko aukera emanaz. Urte gutxiren buruan museoak eskaintzen zituen zerbitzu eta baliabideak era nabarmenean garatu eta egonkortuz joan ziren, Euskal Herriko XIX.mendeko historia ezagutzeko ardatz bilakatuz.

Museo berriak

16. Untzi Museoa

Donostian Itsas Jauregitik oso gertu kokatzen zen XVIII.mendeko Kontsulatu Etxea, 1813ko gertaeretatik hirian zutik geratzen zen eraikin gutxietako bat (Unsain, 2009). Espazio historiko hartan untzigintzari lotutako museo bat

²⁹⁶ "Memoria 98-99". IEA.



sortzeko ideia planteatu zuen GOEk jada 80ko hamarkadan²⁹⁷, Itsas Jauregian kokatzen ziren pieza batzuk lekualdatu eta ontzi modelismoari dedikatutako espazio bat eratzeko. Modu honetan Itsas Jauregia Aquariumera eta ozeanografiara bideratu eta museo berria untzigintzaren historiara dedikatu ahal zen. Ideia honen egokitasuna kontuan izanik GFak Untzi Museoa izango zenaren proiektuari ekin zion.

Zenbait urteko obra eta plangintza garatu ondoren, 1991ko maiatzaren 23an inauguratu zen Untzi Museoa-Museo Naval, Donostiako kaian eta Aquariumetik oso gertu. Eraikinaren espazio eskasa eta bildumaren izaerak berezitasunak²⁹⁸ zailtasun eta traba ugari eskaini zituen hasieratik, baina museoaren helburuak betetzeko lana etengabekoa izan zen lehen unetik, hauek “salvaguada, investigación y difusión del patrimonio marítimo del País” izanik (Unsain, 2009: 570). Gainera, Unsainek adierazten zuen moduan, “La creación de un museo [...] respondía a una clara necesidad. Siendo el mar uno de los factores preponderantes en la configuración de la sociedad vasca [...] resultaba patente la insuficiencia de equipamientos museísticos relacionados con el tema” (2002a:70).



9 irud: Untzi Museoa Donostiako kaian (Untzi Museoa)

17. Donostiako Elizbarrutiko Museoa

Espainian Elizbarruti ezberdinen bildumak publikora zabaltzeko praktika hainbat hamarkada lehenago hedatu bazen ere, Donostiako Elizbarrutiko museoa ez zen 1991 arte zabaldu (Gómez eta Sáez, 2013). Amarako Familia Santuaren elizaren eranskin batean²⁹⁹ 1962.urtean Antonio Camuñas arkitektoak egindako espazio bat aurkitzen zen, ospakizun aretoa izateko diseinatua izan zena. 80ko hamarkadaren amaieran espazio hau erabat abandonaturik aurkitzen zenez “el Obispado de San Sebastián decide la conversión de este edificio en Museo de Arte Sacro dadas su positivas cualidades” (Arruti eta Kortadi, 1988: 386). Honen ondoren Donostiako Gotzaindegia eta GFaren hitzarmenari esker obrak burutu eta 1991an inauguratu zen Elizbarrutiko Museoa.

Irekieratik bost urte pasa ondoren instalakuntza eta museografiaren hobekuntza bat beharrezkotzat jo zen, eta hala “Proyecto Museográfico DEM-96” izenekoari ekin zitzaion, bi fasetako plana zena (Tenorio, 1997). Lehen fasean bildumaren antolaketa berria egin eta museografia egokia diseinatu zen. Bigarren faseari dagokionez, dinamizazio kulturalari lotuta zegoen, beste museoek bezala publikoarentzat jarduera ezberdinen programa bat osatu nahian. Hala ere, laster nabaritu zen erakusketa iraunkorraz gain ekintza berriak burutzeko baliabide faltak oztopo handia

²⁹⁷ “Propuesta de la SOG para el museo”. 1986. GFAAA. Sig: Rekalde 7864/18.

²⁹⁸ Pieza kopurua geroz eta handiagoa, tamaina handiko objektuak (ontziak, eta abar).

²⁹⁹ Donostiako Elizbarrutiko Museoa. Donostiako Udala. In <http://www.donostia.org/info/ciudadano/NotesKweb.nsf/contenido?ReadForm&kwid=402&kwca=Eventos%20/%20Museos%20y%20Centros%20Interpretaci%F3n&idioma=eus> (2015-05-07 ikusia).

suposatzen zutela, eta hala espazioaren irekierara mugatu ziren batik bat, bisitarientzako eskaintza didaktiko indartsu baten gabeziak.

18. MUFOMI. Mineral eta Fosilen Museoa

Urretxun eta Tolosan gertatu zen bezala, Elgoibarren ere bilduma esanguratsua gordetzen zuen pertsona batetatik abiatutako museoa dugu MUFOMI. Javier Vargas Brunok³⁰⁰ mineral eta fosil pieza ugari eta garrantzitsu bilduak zituen urteetan zehar, eta hauek publikoarentzako erabilgarri izan zitezkeelakoan zein kontserbazio eta ikerketarako egokia zen espazio baten beharra dela eta lokal baten bilaketari ekin zion. Elgoibarko Udalak museo funtzioa betetzeko helburua izango zuen espazio baten zesioa egin zion Vargasi, Artetxeko antzinako eskoletan existitzen zen 200m²koa. Bi gunetan banatutako espazio batean ordenatu ziren euskal mineral eta fosilen bildumak, hala nola museoaren erakargarri nagusia bilakatuko zen hartz baten eskeletoa³⁰¹. 1992an inauguratu zen, eta irekiera urtetik kudeaketa eta jarduerak jabearen esku geratu ziren, beti ere egindako lana bisita gidatuetara mugatzen zelarik.

19. Trenaren Euskal Museoa

80ko hamarkadan EJ Euskal Autonomi Erkidegoan existitzen zen tren-ondarearen berreskuratzeari ekin zion, horretarako lehen pausoa inbentario baten eraketa izanik eta 1989an sortu zena. Behin egoera ezagututa babes neurriak hartzea beharrezkoa zela konturatu eta Garraio eta Herri Lan sailak sustatutako Tren Museorako lehen pausoak eman ziren (Olaizola, 2004). Gipuzkoan existitzen ziren espazioen artean Azpeitiko tren geltoki zaharra aukeratu zen, Urolako trenaren bideko kokagune nagusienetako bat. Eraikinak zein inguruko tren azpiegituren aztarnak aukera asko eskaintzen zituen bertan gaiari lotutako museo bat sortzeko. Honela, 1992ko urtarrilaren 20an zabaldu zen Trenaren Euskal Museoa izenaz (Iraeta, 2000).

Eraikinaren barneko erakusketaz gain, inguruan existitzen ziren gune eta piezen berritzea ere egiten hasi ziren pixkanaka: Azpeititik Loiolara zihoan trenbide zaharraren zati bat, geltokiaren ondoko kotxetegia, eta abar. Gainera, galtzeaz zeuden trenak eta piezak berreskuratzen joan ziren, bilduma handituz joan zelarik.

1994ko urrian erakusketa iraunkorraren bigarren fasearen irekiera eman zen, hala nola tailerrera bideratutako espazio bat. Urte horretan museoko kudeaketa Eusko Trenbideak (Euskotren) konpainiaren esku geratu zen – EJren menpekoea –. Fase honi jarraiki berreskuratutako trenbideetan ere aldaketak eman ziren: 1995.urtean Azpeitia-Loyola bidea kendu zen eta horren ordean 1998an bide berria ireki zen, Lasaora heltzen zena. Urte horretatik aurrera ibilbide hori lurren-trenez egiteko aukera eskaini zitzaion bisitariei (Olaizola, 2004).

20. PHOTOMUSEUM. Argazki Euskal Museoa

Photomuseum Argazki Euskal Museoa, Ramón Serras eta Leopoldo Zugazaren bilduma pribatuen elkartzetik jaio zen, hauek argazkigintzari lotutako pieza eta dokumentazio ugari gordetzen baitzuten (Olivie, 1998; Zugaza, 1999; Ziarrusta, 2001). Pieza guzti hauen kontserbazio zein erakusketarako espazio baten bilaketan hainbat saiakera egin ondoren, azkenik Zarauzko Villa Manuelako espazio baten uztea lortu zuten, Udalarekin egindako akordioari esker. Museoaren irekiera aurretik proiektua herritarrei aurkeztea beharrezkoa zela ikusirik 1992an Zarauzko Sanz

³⁰⁰ GFA (2009). *Gipuzkoako lurralde historikoko museoak antolatzeke plana*. Donostia: GFAko argitalpen zerbitzua.

³⁰¹ Zabala, A. (2008, abuztuak 9). "La última morada del gran oso". El Diario Vasco. In <http://www.diariovasco.com/20080809/bajo-deba/ultima-morada-gran-20080809.html> (2015ko ekainaren 10an ikusia).



Enea Kultur Etxean “Photomuseum. Esbozo de un museo” erakusketa inauguratu zen, Kutxa Gipuzkoako Aurrezki Kutxaren eta Zarauzko Udalaren laguntzaz (Olivíe, 1998; Vigil, 2012).



10. irudia: Photomuseumeko erakustaretoak (Photomuseum Argazki & Zinema Museoa)

Aldi baterako erakusketa horren ondoren eta behin proiektua definituta museoa ireki zen 1993ko udan, Villa Manuela eraikineko bi solairu hartuz eta Zarauzko Udala, Kutxa, GFA zein EJren laguntzaz (Olivíe, 1998). Horrela jaio zen museoa, “(con) vocación de permanencia y propósito no lucrativo [...] (constituyendo) una fundación privada de carácter cultural” (Zugaza, 1999: 54). Garaiko beste hainbat museok bezala, erakusketaz gain bestelako baliabideak eskaintzen zituen publikoari zuzenduak. Kasu honetan hemeroteka espezializatua sortu zuten, artxiboa eta liburutegia³⁰².

21. Zeraingo Herri Museoa/ Zerain Paisaia Kulturala

Zeraingo Herri Museoa 1994.urtean inauguratu bazen ere, ezin daiteke era isolatu eta independente batean aztertu. Izan ere, Zeraingo herri proiektuak era holistiko batean bereganatzen zituen ez soilik bertako ondarea berreskuratu eta hedatzeko ideia, baizik herria beraren izate eta nortasuna indartzerako egindako ekintza guztiak; ekonomikoak, turistikoak eta kulturalak bereizi gabe.

Museoaren irekieraren jatorria aurreko urteetan izandako gertaera ezberdinei loturik agertzen zaigu. Alde batetik, herriak berak biztanleriaren beherakada nabari bat jasan zuen XX.mendeko 70eko hamarkadan: meatzaritza guneen uztea eta bailarako herri handiagoetara emigrazioak nabarmenki eraldatu zuen herriko egoera (Errekondo, 2011). Horren aurrean Zeraingo gazteak elkartu eta aldaketa bat bultzatzeko ekintza ezberdinak martxan jarri zituzten, estrategia ezberdinak erabiliz: auzolanean oinarritutako jarduerak, itxitako zerbitzuak zabaltzea, azpiegituren hobetzea eta abar. Ondoren, Zeraingo Udalak “Zerain Proiektua” deituriko komisio bat osatu zuen, herriaren etorkizuna garapen ekonomikoaren baitan izango zelakoan. Bertan bildu ziren komunitateko agente sozioekonomiko guztiak, ondorio nagusitzat lehen sektore eta zerbitzuen arteko loturaren inguruan indarra egin behar zela adostuz. Honetatik abiatuz, 1996an “Zerain Dezagun Fundazioa” sortu zen, Udala, Oa Kultur Elkartea eta herriko beste eragile batzuekin batera (Errekondo, 2011), “herrian garatu daitezkeen ekimen ekonomikoak

³⁰² Museoaren historia eta zerbitzuei buruzko dokumentazioa. PA.

sortu, sustatu eta garatzea³⁰³ helburu izanik. Lehen sektoreko produktuak merkaturatu eta herrian bertan saltzearen ideiarekin ireki zen Zeraingo turismo bulegoa, proiektuaren ardatz nagusia izango zena.

Bestalde, Fermin Leizaolaren zuzendaritzapean (Aranzadi Z.E.), GFaren *Zaharkia* proiektua aipatu behar da: ondare etnografikoren kontserbazio eta ikerketarako proiektu berri bat³⁰⁴. Zerainen 1990.urtean antolatu zen mota honetako erakusketa: Oa Kultur Elkarteko gazteen lanaren bidez herriko ondare etnografikoaren inbentarioa egin eta herritarrek utzitako piezekin erakusketa zabaldu zen, benetako arrakasta lortuz³⁰⁵. Proiektu honen ondoren “crece la conciencia idiosincrática de la comunidad y se plantea la importancia de la recuperación del patrimonio, tanto material como inmaterial” (Errekondo, 2011: 107). Udalaren erantzuna ondaregune ezberdinen berreskurapenari ekitean gauzatu zen³⁰⁶: Larraondoko zerrategia³⁰⁷ eta 1711ko kartzela zaharberritu ziren ondorengo urteetan (Errekondo, 2013) hala nola turismora bideratutako azpiegitura berrien sortzean: Apaiz etxearen eraikinaren ganbaran Zeraingo Herri Museoa inauguratu zen 1993an eta urtebete beranduago turismo bulegoa kokatu zen ondoko eraikinean – turismo informazioa eskaintzeaz gain herriko produktuak saltzeko denda izango zena –. Honela ondare historikoaren inguruko jarduerak eskaintzeaz gain, garaian berriak izan ziren planteamenduak ere gauzatu ziren Zerainen: lehen sektorea eta hirugarrena lotzeko helburuaz baserrietara bisita gidatuak egin edota antzinako lanbideen erakustaldiak antolatu ziren.

Proiektua ordea ez zen eten, ondaregune ezberdinen berreskurapena eta herriaren garapenerako ekintzekin aurrera jarraitu zen: 1996an diaporama bat sortu zen Herri Museorako³⁰⁸, 1997an Aizpeako meategien berreskurapenerako lehen pausoak eman ziren segurtasun neurriak ipintzeko europar proiektu bateko diru-laguntzak lortuta³⁰⁹ eta herriko aterpetxea ireki zen³¹⁰, Zerainek eskaini ahal zuena egun bat baino gehiagoko zerbait zela argi utziz (Errekondo, 2013). Proiektua osatzeko, herriko jardueretan parte hartu zein bertakoak ziren lantaldea osatu zen enpresa baten baitan espazio guztiak kudeatzeko³¹¹.

22. Lizarrusti. Aralar Natura Parkeko Interpretazio Zentroa

Pagoetako Parkeko esperientzia eta gero Gipuzkoan babes eremuen inguruan lan ugari burutu ziren. Hauen baitan Natura Parke izendapena lortu zuen lehenengoa izan zen Aralarkoa, 1994.urtean³¹². Parkeko informazioa eskaini eta bisitarien harrera gune izateko espazio baten beharra ikusirik, GFAk Ataungo Lizarrusti auzoan kokatzen zen Arbitrio edo Mikelete Etxea erosi zuen, Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko mugan kokatzen zena. Eraikina eraberritu eta bertan egokitu zen Lizarrusti Interpretazio Zentroa 1996an, jatetxea eta aterpetxe zerbitzua ere eskaintzen zuen

³⁰³ “Zerain dezagun Fundazioa XXI. Mendeko auzolana”. *Zerain urtekaria* 1997. ZUA. 22 or.

³⁰⁴ Kultura materialaren musealizazioa herrian bertan gauzatzen ziren erakusketen bidez egiten zen. 1989. urtetik Gipuzkoako herri ezberdinetan ondare etnografikoaren inbentario bat osatu eta bildutako pieza esanguratsuenekin erakusketa bat antolatu zen, ez-museo ideiarekin bat eginik eta espazio haiek izaera efimeroa zutelarik. Ekintza honek benetako arrakasta izan zuen, Leizaolak gidatutako proiektu honi esker beste hainbat ekimen aurrera eramateko aukera eskaini zuelarik udalerriri askori.

³⁰⁵ Garain 225 biztanle zituen herriak, eta erakusketak iraun zuen egunetan 11.924 bisitari ziren, publikoa Goierriko herri txiki hartara erakartzeko indarra zerbaterainokoa zen nabarmenduz. Leizaola Egaña, A., Leizaola Calvo, F. (2008). Un ejemplo de no-museo: El proyecto zaharkia. Roigé I Ventura, X., Arrieta Urtizborea, I. *El futuro de los museos etnológicos: Consideraciones introductorias para un debate* (195-214) Ankulegi Antropologia Elkartea.

³⁰⁶ 1988an jada San Blas ermitaren zaharberritzea gauzatu zen. *Zerain urtekaria* 1988. ZUA. 38 or.

³⁰⁷ Zerbait urteko zaharberritze lanaren ondoren 1994ko martxoaren 5an inauguratu zen. *Zerain urtekaria* 1993. ZUA. 14 or.

³⁰⁸ *Zerain urtekaria* 1996. ZUA. 14 or.

³⁰⁹ *Zerain urtekaria* 1998. ZUA. 33 or.

³¹⁰ *Ibid.* 22 or.

³¹¹ *Zerain urtekaria* 1999. ZUA. 6 or.

³¹² “168/1994 DEKRETUA, apirilaren 26koa, Aralar aldea parke naturalizat jotzen duena”. EHAA - 1994ko uztailak 4, astelehena. 126. Zkia.



espazio bat³¹³. Interpretazio Zentroaren kudeaketa lehiaketara atera zen eta ingurumen zerbitzuak eskaintzen zituen enpresa baten esku geratu zen.

23. Munduko tximeleten erakusketa iraunkorra

Gipuzkoan, bilduma pribatu bat museo bilakatu zen hurrengo urtean izan zen: Manuel Aguirresarobek munduko tximeleten eredu ugari bildu izan zituen urteetan zehar, eta hauek erakusteko Irungo Udalarekin harremanetan jarri zen. Bien arteko hitzarmena sinatuta, udaleko lokal batean egokitu zen bilduma guztia eta 1997an inauguratu zen. Kasu honetan ere museoaren jabetza eta kudeaketa Aguirresaroberen esku geratu zen, Udalak instalakuntzaren bitartezko laguntza eskaintzen ziolarik.

24. Larraulgo Museo Etnografikoa / Larraulgo Ekomuseoa

Zeraingo proiektuaren arrakasta ikusirik, beste zenbait herritan ere arlo ezberdinak elkartzen zituen plan bat martxan jartzeko proposamenak egin ziren. Larraulen, egun 250 biztanle³¹⁴ inguru dituen herri txikian, industria eta merkataritza jardura apenas existitzen ziren (Arrieta, 2003). Herriaren garapena sustatzeko nahian "Turismo Cultural en Larraul" proiektua aurkeztu zuen Udalak 1996.urtean, "(para) dinamizar la oferta turística del pueblo, analizando las posibilidades de apertura de nuevas explotaciones que sirvan para generar el empleo y la riqueza revierta directamente en los habitantes del mismo"³¹⁵. EJ 1995tik ematen ari zen turismo sustapenerako diru-laguntza eskuratu zuen eta proiektuari ekin zitzaion. Ekintza ezberdinak aurrera eramanez nahi ziren: herri museo bat sortu, mendi bideen errehabilitazioa, artisau produktuen denda eta ondare guztiaren zaharberritzea³¹⁶. Museoaren kasuan, udaletxeko azken solairuan espazio bat existitzen zenez, bertan ipintzea erabaki zen hasieran "(para) ofrecer al público [...] un reencuentro con nuestra historia, explicar cuál ha sido nuestra evolución histórica"³¹⁷. Museoan erakutsiko zen bilduma, Zerainen bezala, herriko biztanleek utzi edo dohaintzan emandako piezen bidez osatuko zen.

1997.urtean, GFaren diru-laguntza baten bidez, tresneriaren bilketari ekin zitzaion. Horretarako bi teknikari kontratatu ziren eta objektuen konponketa eta zaharberritzean lan egiten aritu ziren. Hurrengo urtean³¹⁸ museografia proiektuaren enkargua egin eta aldaketa berri bat eman zen: museoa udaletxeko azken solairuan ipintzetik beheko batean egokitzea egokiagoa izango zela erabaki zen. Honela, 1998ko azaroaren 18an inauguratu zen Larraulgo Museo Etnografikoa, erakusketa iraunkorrean euskal landa munduari loturiko tresna eta objektuak erakusgai ipiniz (Arrieta, 2003).

25. Makina-erremintaren Museoa

Industria ondarearen galerak pauso azkarrean ziharduen 80ko hamarkadan eta materialen zein espazioen kontserbazio eta berreskurapenaren beharra geroz eta nabariagoa zen. Elektronika eta informatikak makinaria zaharkitua geratzeko eragiten zuten etengabe. Ideia hori oinarri hartutik 1991tik aurrera Elgoibarko MH Institutuak

³¹³ Lizarrustiko Parketxea. In <http://parketxesarea.org/lizarrusti/> (2015-05-04an ikusia).

³¹⁴ EUSTAT-eko 2011ko datuen arabera. In <http://www.eustat.eus/municipi.P.AI/Dialog/Saveshow.asp#axzz3asllpZHD> (2015ko martxoaren 12an ikusia).

³¹⁵ "Plan para el desarrollo del Municipio de Larraul. Mayo de 1996". LUA. Sig: 220-03. 10 or.

³¹⁶ "Turismo cultural en Larraul". LUA. Sig: 220-03.

³¹⁷ "Plan para el desarrollo del Municipio de Larraul (mayo de 1996)". LUA. Sig: 220-03.

³¹⁸ EJK eskaintako diru-laguntza bati esker eskatu ahal izan zen proiektua. "Museo etnografikoa. 1996-2000 bitartean eskatutako diru-laguntzak". LUA. Sig: 220-03.



XX.mende hasierako makina ezberdinak gordetzeari ekin zion, eta urte batzuk beranduago haiek espazio museografiko batean erakusteko proiektuaren inguruan lanean hasi ziren³¹⁹. Horretarako MH Fundazioaren baitan – MH Institutuarekin partekatzen zuena – sortu zen Makina-erremintaren Museoa, 1998ko abenduaren 18an inauguratuz³²⁰. Honela, industria ondarearen inguruko jarduera didaktikoak eta difusiozkoak martxan ipintzeaz gain, pieza eta makina ezberdinen kontserbazio eta zaharberritze lanak burutzen ziren espazio bat eratu zen, makinak funtzionamenduan ikusteko aukera eskaintzen zuen erakusketa bat ardatz harturik.



11 irud: Bisitariak Makina-
erremintaren Museoa (Makina-
Erremintaren Museoa)

26. Igartza Jauregia

Igartzako multzo arkitektonikoaren garrantzia zela eta, Beasaingo Udala hasia zen 80ko hamarkadan hura berreskuratzeko proiektu ezberdinen inguruan lan egiten. 1986an egin zen txosten batean jada eraikin horretan museo etnografiko bat egokitzeko aukeraz hitz egiten zen³²¹. Honen ondoren, Arkeolanek egindako txosten batean³²² ondaregunearen interes arkeologikoa azpimarratzen zenez, lehen indusketetarako bidea ireki zen. 1994.urtean Aranzadi Z.E.ko talde bat Igartza Jauregian lan arkeologikoak burutzen hasi zen, Beasaingo Udalaren laguntzari esker³²³ eta gerora, errota berreskuratzeko asmotan – zeina 1982tik abandonaturik zegoen –, EJK antolatutako lehen gazte auzolandegiak gauzatu ziren herrian³²⁴, hurrengo urteetan errepikatu zirenak³²⁵. Ondareguneak eskainitako material eta informazioaren garrantziaz jabeturik arkeologia lanen jarraipena eman zen, multzoaren espazio ezberdinak induskatu eta zaharberritzeko.

³¹⁹ Museoaren historia. In <http://www.museo-maquina-herramienta.com/eu/museoa/nortzuk-gara/museoaren-historia/> (2015ko ekainaren 27an ikusia).

³²⁰ Makina Erremintaren Museoko Eskuorria. MMA.

³²¹ Jauregiaren erabilera berriaren inguruko proposamenak oso ezberdinak izan ziren: Beasaingo industrializazioaren museo bat, miniaturazko trenen museoa edota Beasaingo Udal Artxibo Historikoaren egoitza. "Beasaingo kultura batzarreko Akta, 1991ko irailaren 30ekoa". BUA. Sig: 1937-03.

³²² "Informe sobre la zona de presunción arqueológica de la ferrería de Yarza. Arkeolan". BUA. Sig: 1967-03.

³²³ (2002). Igartza. El descubrimiento de la ferrería. *Aranzadiana*, 123, 82-88.

³²⁴ "Auzolandegiak Igartza, 1994". BUA. Sig: 277-01.

³²⁵ 1996an eta 1998an Kutxak eta Aranzadi Z.E.ak auzolandegi berriak antolatu zituzten, Beasaingo Udalaren laguntzarekin. "Gaztekutxa auzolandegiak 95". BUA. Sig. 0347-07.

1998an Beasaingo Udalak antolatutako lehiaketa baten baitan "Igartza. Patrimonio cultural y juventud" lanak irabazi zuen³²⁶. Honela, museoari azken bultzada eman eta instalakuntza proiektua zein diaporama sortzeko lanei ekin zitzaion³²⁷. 1999an Igartza Jauregia publikora ireki zen, museo zein turismo bulego funtzio bikoitza betetzeko³²⁸.

27. San Martin ondaregunea

Azkoitian, Iraurgiko San Martin elizan 1993 eta 1995 bitartean zenbait indusketa arkeologiko burutu ziren³²⁹ GFAk eta Azkoitiko Udalak sustatuta, Mertxe Urteagaren zuzendaritzapean (Urteaga, 1993). Aztarnategian hainbat errauts kutxa, Erdi Aroko nekropoli bat, kanpaien fundiziorako labe bat eta beste hainbat arrasto aurkitu ziren (Amondarain, Urteaga eta Seva, 2010). Ondaregunearen garrantzia eta piezen esanguratsutasuna antzemanda, jasotakoaren musealizazioaren ideia azaleratu zen, Azkoitiko Udalak sustatu eta Arkeolan zein Munibe Kultur Taldeak museografia lanak bere gain hartu zituztelarik (Urteaga, 1999). Honela eratu ziren gai unitateak eta erakusketa iraunkorra, 1999ko maiatzaren 28an inauguratuz museoa³³⁰.

³²⁶ "Igartza. Patrimonio cultural y juventud. Beasain, 1998". Juntxo Aguirre Mauleón. "Candidatura joven y brillante" Beasaingo Udaleko programaren barnean aurkeztua. BUA. Sig: 0615-03.

³²⁷ "GFAk emandako diru-laguntzak, ezohiko kultura iharduerak antolatzeko. 1998". BUA Sig: 621-01.

³²⁸ "Igartza. Oficina de Información turística" BUA.

³²⁹ "Iraurgiko San Martin" koaderno didaktikoa. AKUA. Sig: 3851/02.

³³⁰ "San Martin Ondaregunea". GFAAA. Sig: 16950/4.



III. GIPUZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA

Gipuzkoako museoetan hezkuntzarekiko bestelako ikuspuntu bat barneratzen hasia zela nabaria zen. Gizarte berri baten erritmoari jarraituz, museoek aurreko urteetatik desberdintzen zen erantzun bat eman beharra zuten, horrek jarduera didaktiko eta difusiozkoen birplanteaketa bat eskatzen zuelarik eta honekiko ardura jarraitua agertu zutelarik jada hamarkadaren hasieratik.

1991an Pedagogi Kabineteko arduradunak adierazten zuen moduan,

“Parece a todas luces evidente que la sociedad en general y, en particular, el mundo de la enseñanza va reconociendo y apreciando progresivamente el valor intrínseco del Museo como fuente de recursos didáctico-pedagógicos. De hecho, la progresiva extensión cultural que se es (sic) está dando en nuestra cultura occidental hace que el propio Museo vaya transformándose y así pasamos paulatinamente de los Museos Contemplativos a los Museos Informativos para en una fase ulterior surgir los Museos Didácticos. [...] Lógicamente el futuro Museo de San Telmo tendrá que contar con una amplia programación didáctica-pedagógica para lo cuál estamos planteando las bases de lo que será la política a seguir en este tema”³³¹.

Eta Untzi Museoko lantaldeak ere aipatzen zutenez,

“La importancia creciente que ha ido adquiriendo la labor de educación y difusión de los museos en todo el mundo, llevan a considerar estas actividades como componente esencial del concepto moderno de institución museística. Potenciar la acción educativa y recreativa [...] es parte de la importante tarea que ha de llevar a cabo el Servicio de Educación y Difusión del Museo”³³².

80ko hamarkadatik irekita zeuden museo askok hezkuntza funtzioa betetzeko sailak sortu edota indartu zituzten, eta 90ko hamarkadan ireki zirenetako batzuk ere lantalde zehatzak eratu zituzten arlo honetan. Gogoratu behar dugu, DEAC Jardunaldiak geroz eta indar handiagoa hartu zutela Estatuko museo arduradunen bilkura nagusi bezala. Honen baitan, Euskal Herrian lehen aldiz DEAC Jardunaldiak ospatu ziren 1996an, garaiko euskal museoetan – eta noski, Gipuzkoakoetan – aldaketa eta hausnarketarako bide berriak irekiz. Jarduera didaktiko mota ezberdinak eskaini ziren, baliabide material geroz eta aberasgarriagoak sortu zituzten eta giza baliabideen antolakuntza, trebakuntza eta lana ere zehazten joan zen. Hala ere, oraindik zenbait museo erakusketen irekierara mugatuko zuten euren jarduera, bisita gidatuak ia eskaintza didaktiko bakarra izanik, instituzio ezberdinen arteko desberdintasunak ere handitzen joan zirelarik.



12 irud: XI DEAC Jardunaldiak. Bilbo
(Zumalakarregi Museoa – K6 K.K.)

³³¹ Urteko memoriak. STMA. Sig: 57/27.

³³² “Proyecto abril 1996- diciembre 1999. Airu servicios culturales- zerbitzu kulturalak”. GFAAA. Sig: Akobe 1899/1. 29 or.

Jarduera motak

1. Bisita gidatuak

Bisita gidatuak museo ororen oinarritzko eskaintza didaktikoa bilakatu ziren pixkanaka, ia erakusketen irekierarekin batera inertziaz egiten zen zerbaite izanik. Ordura arteko bisita gehienak eskaeraren arabera erantzun bat emateko aurrera eramane ziren, taldea mota eta baliabideen baitan garatu zirenak; 90ko hamarkadatik aurrera ordea ibilbide zehatz zein gidoi egonkor batzuk jarraituko zituzten bisita gidatuak sortzen joan ziren, era inprobisatuan egindako ekintza bat baino helburu zehatzak bilatzen zituen jarduera didaktiko bat bihurtuz kasu gehienetan. Bisita hauetan, normalean, museo bako belduma, aldizkako erakusketa edota ondaregune konkretu bati buruzko informazioaren transmisio hutsa egiten zen eta edukien moldaketa burutzen zen bisitarien izaerari egokitzuz, bai adina zein publiko motaren aldetik.

Zenbait museotan bisita hauen deskribapen zehatzagoak edota eskaintako bisita moten inguruko informazio zabalagoa jaso zen. San Telmo museoan adibidez “programas y servicios estables” atalaren barnean aipatzen ziren bisita gidatuak³³³, hauen iraupena eta ibilbidearen inguruko datuak jasoz³³⁴. Pagoetan, bi azpiegitura berrietan – Agorregin eta Iturraren baserrian – bisita gidatuak eskaintzen hasi ziren astebururo³³⁵. Urretxuko Mineral eta Fosilen Museoan ere, 90ko hamarkadaren hasieran aipatzen zen “(que) acoge todo tipo de visitas, tanto a nivel individual como colectivo, contando en ambas ocasiones con la posibilidad de realizar una visita dirigida y con explicación”³³⁶ eta Zumalakarregi Museoak ere eskaintza egonkor bat eratu zuen gaia eta talde motaren arabera egokiena zen bisita gidatu bat eskaintzeko. Zerainen, museoaren irekieraren aurretik jada herriko ondareguneetara bisita gidatuak eskaini ziren – ermitara, kartzelara eta zerrategira –. Museoaren irekierarekin zein Aizpeako labeen eta beste gune batzuen zaharberritzearekin, leku ezberdinak konbinatzen zituen bisita gidatuekin aurrera jarraitu zuten; Larraulen ere berdina gertatzen zen, ondaregune ezberdinen erakusketarako ibilbideak egiten zirelarik herrian. Eta Elgoibarko Makina-erremintaren Museoan gainera, bisita gidatuak burutzean erakusketa aretoan zeuden makinak funtzionamenduan ipintzen ziren. Honela Gipuzkoako beste museoetan jarraitu zen dinamika antzekoa, aurreko hamarkadetatik aurrerapauso garrantzitsu bat suposatuz. Beste zenbaitetan jarduera honi buruzko informaziorik jaso ez den arren, suposa daiteke oinarritzko eskaintzaren baitan bisitarien museoaren erakusteko ekintza nagusia izango zela.

1.1. Erakustaldiak

Museoetara egiten ziren bisita gidatu hutsez gain, non edukiak transmititzen zitzaizkien bisitarien, zenbait museotan elementu gehigarriaz osatu zituzten jarduera hauek: Batzuk, azpiegituren eskaintzen zituzten aukeraz baliatuta, eta beste batzuk kanpoko adituen laguntzari esker ekintza bereziak gauzatuz.

Pagoetako Parkeak zituen baliabideak eta azpiegiturak programazio ezberdin eta erakargarriak sortzeko aukera eskaintzen zuten. Agorregin burdinola eta errotak martxan jartzen ziren bisitarien funtzionamendua ezagutu eta ikusi zezaten, eta erlategi didaktikoan ere erakustaldiak burutzen ziren erlezain baten lana nolakoa zen azalduz³³⁷. Mirandaolan ere, aurreko urteetan hasitako burdinolaren erakustaldiekin jarraitu zen eta Zerainen lehenengo aldiz proposatu ziren baserrietara bisitak egitea, behiak hazteko moduen berri eman, gazta egiteko prozesua erakutsi

³³³ “1997ko memoria”. STMA. Sig: 329/11.

³³⁴ *Urteko memoriak*. STMA. Sig: 57/27.

³³⁵ “Visitas ferrería de Agorregui. Enara. 1991”. GFAAA. Sig: Akobe 9445/1.

³³⁶ “Memoria actividades museo 1993”. UUA. Sig: 2.8. 1. Kutxa.

³³⁷ “Parques, Pagoeta y varios. 1993”. GFAAAA. Sig: Akobe 5918/1.



gaztagileen eskutik eta baita erlategien lana ikusteko aukera emanaz, garaian guztiz berritzailea izan zena gure lurraldean³³⁸.



13 irud: Mirandaolako erakustaldiak
(Lenbur Fundazioa)

San Telmo Museoan 1998. urtean antolatu zen artisautzari buruzko erakusketa baten baitan, artisauen erakustaldiak antolatu ziren museoko aretoetan, "para vincular el patrimonio existente en las colecciones del Museo San Telmo a la actividad que los artesanos realizan en la actualidad"³³⁹. Bisitariek upelgintza eta egur, larru eta harriaren lanketa ikusteko aukera izan zuten zuzenean³⁴⁰.

1.2. Bisita antzeztuak

Bisita antzeztuak pertsonaia ezberdinek gidatutako jarduerak dira, non bisitariei erakutsitako ondarearen oinarritzko baloreak eta ezaugarriak deskubritu eta interpretatzen laguntze zaien animazioen bitartez (Goenechea eta Benítez, 2007). Alor honetan Gipuzkoan aurkitutako lehen esperientzia Azkoitian aurkitzen dugu: Iraurgiko San Martin ondaregunean bisita antzeztuak egiten hasi ziren 1999tik aurrera. Hauetan, programa eta taldearen arabera, antzezle ezberdinek gaiari lotutako lan txikiak aurkezten zituzten: aurrehistoriari lotuta edota ermitaren sorrerari buruzko antzerki txikiak burutuz. Honek, dudarik gabe, bisita gidatuak ulertzeko bestelako modu bat erakusten zuen.

14 irud: Bisita antzeztuak Iraurgiko ermitan (Azkoitiko Udala K.S)



³³⁸ Jarduera ezberdinei buruzko dokumentazioa Zeraingo urtekarietan bildu zen. ZUA.

³³⁹ "Un pasado con futuro: Artesanía en el museo". STMA. Sig: 289/17.

³⁴⁰ "Un pasado con futuro: Artesanía en el museo". STMA. Sig: 329/07.

2. Ibilaldi gidatuak eta irteerak

Ibilaldi gidatuak historikoki natura inguruetara mugatu baziren ere, 90ko hamarkadatik aurrera museo askok eraikinetik atera eta beste espazio batzuetan ere honelako jarduerari ekin zieten: beste ondaregune batzuetan edota herriko kokagune esanguratsuetara. Zenbait kasutan eskaintza zabaltze honek eragin zuen museoak herriko jarduera turistikoak bere gain hartzea, eta bere funtzioetatik haratago zihoazen programak burutu behar izatea, *museoa - kulturgune – turismo bulego* bilakatuz askotan.

Aurreko hamarkadan bezala, Urretxuko Museotik urtero mineral eta fosilen bilaketara bideratutako irteerak egiten jarraitu zuten, publiko guztiari zuzenduta; berrikuntza bezala taldeentzako txango geologikoa egiteko programa aipatu behar da (Urkizu, 1987), museoa ikusi eta tailerra burutzeaz gain ingurunearen ezaugarriak *in situ* ikusteko aukera eskainiz. Irungo Tximeleten erakusketa iraunkorretik ere eskaini ziren honelakoak, bilduman ikusitakoa naturan bertan aztertu ahal izateko³⁴¹. Mendi ibilaldi gidatuak ere egiten jarraitu ziren Azpeitian³⁴², Zerainen³⁴³ edota Eskoriatzako³⁴⁴ museoaren eskaintzaren barnean. Baina dudarik gabe ibilaldi gidatuak oinarritzko eskaintza bilakatu ziren Natura Parke eta babes eremuetan, hauen bitartez harrera gune, museo edota interpretazio zentroan aurkitzen zen erakusketako informazioa osatzeko aukera paregabea eskaintzen zelako. Pagoetan 90ko hamarkadatik urtaro bakoitzean ibilaldi gidatu ezberdinak eskaini ziren. Publiko orokorarentzat prestatutako jarduera hauek ere beste edozein taldeei zuzentzen ziren, ekintza gehiagoren osagarri zirelarik³⁴⁵. Untzi Museoari dagokionez hasieratik aipatzen zen "(que) no limita sus actividades al recinto en que se ubica. En su oferta de programas educativos destacan tres itinerarios culturales que convierten al Museo en el centro de interpretación del patrimonio local" (Unsain, 2009: 576).

2.1. Beste ibilbide batzuk

Bide batean zehar eta geldidune ezberdinetan emandako azalpenen bitartez osatu ohi dira ibilbide gidatuak; baina hauekin batera museo batzuk bisitarientzako esperientzia berriak eskaintzen hasi ziren. Gipuzkoako lehen ereduak Azpeitiko Euskal Trenaren Museoan gauzatu zen, non 1998tik aurrera eta Azpeiti eta Lasaoko tartea lotzen zuen burdinbidearen zaharberritzeren ondoren, lurrin trenaz bidea egin eta garai bateko bidaiatzeko modua ulertzeko jarduera berria garatu zuen³⁴⁶. Honek, hasieratik, arrakasta handia izan zuen eta dudarik gabe musean egindako bisitaren osagarri erakargarria bilakatu zen.

3. Tailerrak eta jolasak

Pedagogiako ideia berriak museoetan geroz eta indar handiagoz sartzen hasiak ziren 80ko hamarkadaren amaieratik; San Telmo Museoan gauzatutako Arte Laborategi proiektuak inflexio puntu bat suposatu zuen eskaintza didaktikoaren arloan eta dudarik gabe etorkizuneko bide berriak irekitzeko oinarrietako bat izan zen. Bisitarien parte-hartzea eta inplikazioak geroz eta garrantzi handiagoa hartu zuen, eta esperimentaziorako aproposak ziren jarduera didaktikoak sortzeko beharra zabaldu zen instituzio askotan. Tailer eta jolas eskaintza gehienak eskola taldeetara bideratu baziren ere, pixkanaka bestelako bisitariei eta eskolaz kanpoko ordutegietan ere eskaintzen hasi ziren.

³⁴¹ "Dirulaguntzen eskaera. Exposición mariposas". GFAAA. Sig: 14563/5.

³⁴² "Umeen museoa 1". EAEHAAN. Sig: E-329-2.

³⁴³ Zeraingo urtekaria 1993; Zeraingo urtekaria 1999. ZUA.

³⁴⁴ "Solicitud de subvención a la Excm. Diputación foral de Gipuzkoa del «Aitzorrotz etnologi taldea» parra el Museo Local de Eskoriatza. Enero 1990". EUA. Sig: 280_129/90.


³⁴⁵ "Pliego de prescripciones técnicas particulares del concurso público para la contratación de monitores-educadores en el Parque de Pagoeta: Plan de Actividades didáctico-educativas. GFA". GFAAA. Sig: ABOBE 5918/1. 1 or.

³⁴⁶ "1998ko memoria". BEMA.



Azpeitiako Umeen Museoan paper birziklatua egiteko tailerrak, airearen kutsadura neurtzekoak eta uraren erabilerari buruzko esperimenduak antolatzen ziren hamarkadaren hasieran³⁴⁷ eta Zerainen erlategiaren bisitaren ondoren kandela bat egiteko aukera eskaintzen zitzaaien taldeei. Untzi Museoan ere, inaugurazio egunetik jada programa erakargarriak osatu ziren, eta hauen baitan adin tarte desberdinei zuzentzen ziren tailerrak eskaini ziren: kartografiari buruz, untzi eraikuntzari eta abar (Unsain, 2009).

Aurrehistoriako tailerrek protagonismo berezia izan zuten garai honetan: Urretxun³⁴⁸ pintura lantegia eskaini zen zenbait urtetan, non lehen gizonezkoen pintura teknikak ikasten zituzten bisitariak³⁴⁹; eta Eskoriatzan sua egiteko teknikak ikasteko material guztia erabiltzen zen museoan, bisiten ostean edozein pertsonak erabili zezan eta taldeekin bereziki arrakasta handia lortuz.



15 irud: Eskoriatzako Museoa. Arkeologi tailer gunea
(Ibarraundi Museoa)

Tailerrez gain, haurrei zuzendutako jolasak ere prestatu zituzten zenbait museoek, hauen parte-hartzearen garrantziaz jabeturik. Beasaingo Igartza Jauregiaren inguruan Udalak sortu zuen eskoletako programaren baitan antzara jolas bat diseinatu zen – tamaina handian museoan bertan jolasteko eta mahai joko formatuan eskoletarako –, “horrela oso modu didaktiko eta atseginez Igartzari buruz informazioa jaso eta barneratzen dute ia konturatu gabe”³⁵⁰.

4. Hitzaldiak eta jardunaldiak

Ordura arte museoek eskaintako hitzaldi ziklo eta jardunaldiak oso eskasak izan ziren. Alde batetik, pentsa daiteke gaiarekin lotura zuen aditu bat edo batzuen kontratazioa eskatzen zuelako – eta horrek, noski, kostu ekonomikoagatik oztopoak suposatzen zituelako – eta bestalde jendea erakartzeko zailtasun gehiago zituen jarduera bat zelako. Hala ere, 1990tik aurrera museo batzuk zenbait hitzaldi ziklo eta gai zehatzen inguruko jardunaldiak antolatu zituzten. Berrikuntza bat gehitu zuten ordea: museotik irtetea³⁵¹: honek, difusioan laguntzeaz gain, jende gehiagorengana heltzeko eta museora joateko oztopoak zituztenei ere bildumaren parte bat ezagutzeko aukera eskaintzen zien.

³⁴⁷ “Umeentzako jarduerak 1989-1990”. EAEHAAN. Sig: E-329-2.

³⁴⁸ Hauetaz gain, Mineralogi eta Paleontologi Astean ere tailer ezberdinak antolatzen ziren. Ikus “Ekitaldiak/ospakizunak” atala.

³⁴⁹ “Museoa 1995”. UUA. Sig: 2.8. 2. Kutxa.

³⁵⁰ Igartzako museoeko jarduera proposamenak 1998an. BUA. Sig: 621-01.

³⁵¹ Aurreko hamarkadetan GOEk tsas Jauregia-Aquariumetik at antolatu izan zituen zenbait hitzaldi, baina pentsa daiteke publikoarengana heltzeko nahiak baino funtzio horretara bideratutako espazio faltagatik izan zela. Hala ere, adierazgarria da hiriko areto ezberdinetan burututako hitzaldi eta jardunaldiek jendea erakartzen zutela eta ezinbestean eragin zutela Itsas Jauregiaren irudia ere eraikinetik kanpora proiektatzeko.

Eredu hau abian jarri zuen lehen museoetakoa Zumalakarregi Museoa izan zen, zeinak inauguraziotik urtebetera jada Deustuko Unibertsitatean mahai inguru bat antolatu zuen³⁵², ondoren Araba eta Nafarroan beste hainbat hitzaldi ere eskainiz³⁵³. Untzi Museoari dagokionez, 1994tik aldi baterako erakusketei zein bildumari lotutako hitzaldiak egin ziren, bai museoan bertan zein kanpoan³⁵⁴. Trenaren Euskal Museoak ere ikerketari berebiziko garrantzia eman zion, eta horien zabalpena hitzaldi eta jardunaldi ezberdinen parte-hartzearen bitartez burutu zen, besteak beste³⁵⁵, nazioarte mailan ere bere lekua egin zuelarik museoak.

Hala ere, oraindik horrelako kasuak gutxi izan ziren eta museo gehienek aldizkako hitzaldiak antolatu zituzten euren espazioetan eta oso egun zehatzetan. Mikologiari buruzko zenbait hitzaldi izan ziren Pagoetan³⁵⁶ eta Urretxuko Mineral eta Fosilen Museoan³⁵⁷, geologiari buruzkoak ere azken honetan³⁵⁸, entomologiari buruzko bat Irungo Tximeleten erakusketa iraunkorrean³⁵⁹ eta Zerainen³⁶⁰ zein Larraulen, kultur asteekin bat eginik, herriko ondareari lotutako beste batzuk ere gauzatu ziren³⁶¹.

Zarauzko Photomuseumen hasieratik argi zegoen “(que) los objetivos generales del centro son fomentar la investigación y divulgar sus fondos a través de exposiciones y eventos culturales (conferencias, debates, coloquios, etc.)” (Vigil, 2012: 203). Honen baitan urtero zenbait hitzaldi antolatu zituzten argazkigintza eta zinemari lotuta. San Telmo Museoan 1992tik aurrera egin ziren hitzaldi gehienek sustatzailea San Telmo Museoko Lagunen Elkartea izan zen³⁶² eta Aquariumen 1998ko berrikuntzaren ondoren izan ziren “(varios) congresos organizados por sociedades como Aranzadi, Azti, UPV”³⁶³.

Aipatu beharrekoa da ere Zerainen 1999an ospatu zela “Ondarea eta Turismoaren garrantzia landa-garapenean” deituriko nazioarteko jardunaldiak, Zeraingo Udala, GFA, Frantziako “Conseil General de la Dordogne” eta Grexiako Xanthiko hiriarekin batera³⁶⁴. Hauetan Zeraingo landa garapen proiektua eta ondarearen inguruko planak ezagutzera emateko aukera izan zen, hala nola nazioarte mailako hainbat aditurekin harremanatzeko.

5. Ikastaroak eta lantegiak

Museoetara hurbiltzeko eta aldi berean ondarean trebakuntza berri bat sustatzeko asmoz, zenbait museok ikastaro ezberdinak eskaini zituzten. Horietako gehienak irakasleei zuzentzen ziren – aurreko hamarkadaren amaieran egin zen bezala – eta hau, dudarik gabe, ondare hezkuntza alor formalean hartzen ari zen garrantziaren froga zen. Aurreko urteetan egindako irakasleentzako ikastaroa errepikatu zen 1990an Pagoetan; eta honekin batera Urretxun Mineral eta Fosilei buruzko bat ere antolatu zen, irakasleek izan zituzten “pautas pedagógicas para abordar estas

³⁵² “Zumalakarregi Museoaren inguruko prentsaurrekoa, Gipuzkoako Foru Aldundian 1990ko urriaren 9an”. ZMA. 1990ko kutxa.

³⁵³ “Investigación y documentación”. Zumalakarregi Museoa. In <http://zm.gipuzkoakultura.net/conferencias.php?op=2&act=8> (2015ko ekainaren 10an ikusia).

³⁵⁴ Besteak beste, 1997an Eusko Ikaskuntzak Bilbon ondarearen inguruan antolatutakoan edota Deustuko Unibertsitateak buruturiko jardunaldietan. GFAAA. Sig: 14300/12; Sig: 14562/1.

³⁵⁵ 1998ko memoria. BEMA

³⁵⁶ “Memoria 1992. Parque de Pagoeta”. IPA.

³⁵⁷ Memoria 1996. UUA. Sig: 2.8. 2. Kutxa.

³⁵⁸ Memoria 1999. UUA. Sig: 2.8. 2. Kutxa.

³⁵⁹ “Memoria 1998”. GFAAA. Sig: 16951/5.

³⁶⁰ Zeraingo urtekariak. ZUA.

³⁶¹ Zerainen kasuan, Zerain Dezagun Fundazioko kideek hitzaldi ugari eman eta hainbat jardunalditan parte hartu zuten, herriko proiektuaren berri emanaz lurralde ezberdinetan.

³⁶² “1999. Urteko Larraulgo Udal Museo Etnografikoaren memoria”. LUA. Sig: 221-03.

³⁶³ Aquarium. *Aunamendi Eusko Entziklopedia*. In <http://www.euskomedia.org/aunamendi/101178> (2015ko ekainaren 3an ikusia).

³⁶⁴ *Zerain urtekaria 1991*. ZUA. 33 or.



materias de manera clara y atractiva para el alumno”³⁶⁵. Untzi Museoan ere 1994an irakasleentzako prestakuntza ikastaro bat egin zen³⁶⁶.

Irakasleez gain beste publiko mota batetara bideratutako lantegiak ere beren lekua izan zuten museoetako eskaintza didaktikoan. Pagoetan “Naturari hurbiltzen” auzolandegiak 17 eta 21 urte bitarteko gazteei zuzendu ziren, eurentzat ondarearen kontserbazio eta zaharberritzerako lehen hurbilketa bat suposatuz. Honekin batera publiko orokorrarentzat bestelako ikastaro laburragoak ere gauzatu ziren Pagoetako Parkean, Aranzadi Z.E. eta Eusko Ikaskuntzaren eskutik mikologia eta etnografiaren inguruko ezagutza zabaltzeko aukeraz. Izaera teknikoagoa edo espezialistei bideratutakoetan Euskal Trenaren Museoa izan zen nagusi, zeinak hamarkada osoan zehar “Iniciación a la tracción vapor”³⁶⁷ deituriko ikastaro eskaini zituen, hala nola “Curso de maquinistas y fogoneros” izenekoa zenbait urtetan³⁶⁸.

Azkenik, proposamen berri bat ere egin zuen Zumalakarregi Museoak urte hauetan, *Zumagazte Lantegiak* deiturikoak aurrera eramanez 1994tik aurrera³⁶⁹: “Una tarde a la semana se prepara desde el Museo una actividad especial, pensada para el público infantil del Ormaiztegui, de 6 a 12 años”³⁷⁰. Ekintza ezberdinak planteatzen ziren astero: jostea, jolasak, tailerrak, filma proiektzioa eta beste hamaika jarduera XIX.mendera gerturatzeko. Hauetan jarduera didaktiko ezberdinak nahasten baziren ere, helburua gaiaren inguruko ikaskuntza jarraitu bat eskaintzea zen, hala nola herriko haur eta gazteak elkartzeko espazio bat eskaintzea.

6. Irratsaioak

90ko hamarkadan egin zen jarduera didaktiko berezietakoak izan ziren irrati saioak: museoaren propagandarako soilik erabiltzen ziren iragarkiez gain, zenbait museo hitzaldi zein jardunaldien bidez egiten zen bezala bildumarekin lotura zuten informazioa eskaintzen zuten oso era berezian. Irrati saio batekin lehen lankidetzat Zumalakarregi Museoan egin zen: 1995an Euskadi Irratian astean behin 20 minutu irauten zuen tarte bat eskaini zitzaion³⁷¹ “Pareak bai!” saioaren barnean. Honetan Zumalakarregiren garaikide izan ziren pertsonaia euskaldunen bizitzak ezagutzeko aukera zegoen. 1996an saio hau mantendu eta beste bat gehitu zen Segura Irratian, formatu antzekoa erabiliz. 1998an Euskadi Irratian ere, “Salako Leihoa” saioan parte hartzen hasi ziren beti ere XIX.mendeko historia ezagutzera emateko helburuaz. Ingurugiro Etxeak formatu bera erabili zuen 1999an, Herri Irratiarekin hitzarmena sinatu ondoren asteartero inguruarekin lotuta zegoen informazioa eta aholkuak eskaintzen zituztelarik³⁷².

7. Ikuskizunak

Zenbait museotan, espazioagatik, bildumarekin erlazioa izateagatik edota instituzioa bera herriko kultur programazioari oso lotuta agertzen zelako, ikuskizun ezberdinak burutu ziren. Hauetako batzuk museoarekin lotura gehiegirik gabeko ekintzak izan ziren; beste batzuk ordea diskurtsoarekin bat egiten zuten proposamenak ziren.

³⁶⁵ “Memoria 1999”. UUA. Sig: 2.8. 2. Kutxa.

³⁶⁶ “Airu 1994”. GFAAA. Sig: Akobe 12809/6.

³⁶⁷ “Museo vasco del ferrocarril. Diez años de preservación del Patrimonio Ferroviario”. Juanjo Olaizola. 2004ko urriaren 6a. BEMA.

³⁶⁸ “Balance del año 1996”. BEMA.

³⁶⁹ “Memoria 1994”. ZMA. 1994ko kutxa.

³⁷⁰ “Plan de Gestión Zumalakarregi Museoa 1996-1997”. GFAAA. Sig: 1776/4. 18 or.

³⁷¹ “Memoria 1995”. ZMA. 1995ko kutxa. 14 or.

³⁷² “Museo de los Niños. Memoria de actividades (trimestrales) 1999”. IEM.



7. 1. Musika

Musika eta dantza ikuskizunak 90eko hamarkadaren amaiera aldera gauzatu ziren Gipuzkoako museoetan³⁷³, baina ez ziren oso ugariak izan. Lehen aipamenetako bat San Telmo Museoan dugu 1998an musika barroko emanaldi batekin, San Telmo Museoko Lagunek antolatuta. Urte berean Zumalakarregi Museoak, Erreterriako Eresbilgo Artxibo Musikalarekin elkarlanean, XVIII eta XIX.mendeko musika kontzertua antolatu zuen Ormaiztegiako elizan eta Beasainen Igartzako I Musika barroko jardunaldiak antolatu ziren 1999an³⁷⁴.

7. 2. Antzerkiak eta ipuin kontaketak

Honelako jarduerak antolatu zituen museo bakarra Untzi Museoa izan zen. Zenbait urtetan istorio ezberdinen antzezpenak burutu ziren museoan (Unsain 2009); honekin batera “Kontu-kontari itsasoan zehar” izeneko ipuin kontaketak errepikatu ziren urtero, 7-12 urteko haurrei zuzenduta, non itsasoarekin erlazionatutako ipuinak entzuteko aukera eskaintzen zitzairen, zeinak gainera “Supondría recuperar la tradición oral en este campo”³⁷⁵.

8. Ekitaldiak/ Ospakizunak

80ko hamarkadetan gertatu zen moduan, oraingoan ere Nazioarteko Egunak arrazoi paregabea bihurtu ziren Gipuzkoako Museoetan jarduera bereziak antolatu eta bide batez, publikoarentzat erakargarriak ziren programazioak osatzeko. Aurrez natura eta ingurugiroari lotutako egunak nagusitu baziren ere, 90ko hamarkadatik aurrera indar berezia hartu zuen Museoen Nazioarteko Egunaren ospatzea. Horrekin batera museo bakoitzak, bildumari lotutako edota eraikinaren historiarekin erlazionatutako data berezietan ekintza bereziak antolatzeari ekin zioten, geroz eta dibertsifikatuago zen eskaintza bat egin eta programazio indartsuak osatuz.

8. 1. MNE (Museoen Nazioarteko Eguna)

Euskal Herrian MNEren ospakizuna berandu iritsi baziren ere³⁷⁶ bazen ere, hamarkada honetan geroz eta museo gehiagok antolatu zituzten programa ezberdinak egun honen inguruan, nahiz eta oraindik oso zabaldua ez egon. Lehenengoetarikoa Zumalakarregi Museoa izan zen, 1992tik aurrera maiatzaren 18an eskaintza berezi bat prestatu zuena. Urtetik urtera ekintzak aldatuz joan ziren – lehen urtetan musika kontzertua, jolasak, lehiaketak, etab. egin ziren – baina 1994tik aurrera egonkortuz joan ziren bi ekintza garatu ziren, haur eta gazteei lotuta zeudenak. Alde batetik, Zumagazte Lantegiko kideetako batzuk museora bisita gidatu bat prestatu eta MNEan publikoari eskaini zieten³⁷⁷. Bestalde – eta hau izan zelarik gerora mantenduko zena – “Tirabira Ormaiztegin” izeneko egiten hasi ziren, 6-12 bitarteko haurrentzako jolasa “(que) consiste en una serie de ejercicios lúdicos en los cuales los participantes aprenden a leer mapas, a orientarse en el espacio y a localizar diferentes elementos”³⁷⁸.

³⁷³ Aurrez aipatu izan dugun bezala, San Telmo museoko aretoetan antolatu izan zituzten kanpoko elkarte ezberdinek ikus-entzunezko emanaldi ezberdinak.

³⁷⁴ “Igartzako Erdi Aroko musika ihardunaldia”. B.U.A. Sig: 621-03.

³⁷⁵ “Propuesta 1995”. Airu. G.F.A.A.A. Sig: 8534/5.

³⁷⁶ 1977an ICOMek proposatu zuen MNE maiatzaren 18an ezartzea eta ordutik museo ezberdinek egun berezi horren ospakizuna burutu zuten programa ezberdinak gauzatu. Informazio gehiago <http://network.icom.museum/international-museum-day/L/1/> (2015ko ekainaren 12an ikusia).

³⁷⁷ 1997ko Memoria. Z.M.A. 1997ko kutxa.

³⁷⁸ “Contratación K6 1996.1997”. G.F.A.A.A. Sig: 1776/4. 18 or.



16. irud: Tirabira Ormaiztegin (1999)
(Zumalakarregi Museoa – K6 K.K.)



San Telmo Museoa MNE ospatzearen lehen aipamena 1994n aurkitzen dugu, non “Kutxa baten atzean” ekintza proposatzen zitzaizen bisitariei. Honen bidez, museoan ibilbide bat egin behar zuten eta kutxa batek ezkutatzen zuen gune bat aurkitu³⁷⁹. Ondorengo urteetako egun honen ospakizuneko antolakuntzaz San Telmo Museoaren Lagunak Elkartea arduratu zen³⁸⁰. Untzi Museoan ere hamarkadaren erdialdetik aurrera ekintza ezberdinak burutu ziren, urtero aldatuz joan zirelarik: erakusketa bereziak, bisita gidatuak, graffitiz zein ikasleek egindako pankartez museoaren kanpoaldea dekoratzea eta abar³⁸¹. Hauetaz gain beste museo batzuk ate irekien egunak egin zituzten egun hau ospatzeko.

8. 2. Beste Nazioarteko Egunak

Aurreko urteetan bezala ingurumenari lotutako egunak ospatu zituzten Umeen Museoan³⁸² eta Pagoetako Parkean: Ingurugiro Eguna eta Zuhaitz Eguna. Gorrotxategi Museoan, lehen aldiz egun berezi baten ospatzea 1996an egin zen, non “Semana europea del gusto” ren baitan Gorrotxategik ikastaro batzuk eskaini zituen Sara eta Tolosako ikastoletan³⁸³.

8.3. Urteurrenak

Trenaren Euskal Museoaren urteurrena ospatzeko programa ezberdinak gauzatu ziren urtero: ate irekiak edota makinaren piztea egiten zen publikoak urtean zehar disfrutatu ezin zuen esperientzia batez disfrutatzeko³⁸⁴. Azpeitian ere, 1999tik aurrera, Ingurugiro Etxearen astea antolatzen hasi ziren: Lapatzeko zabortegira bisita gidatua publiko orokorrarentzat, Azpeitiako eskolentzako bisita bereziak eskainiz eta ate irekien egunak eginez³⁸⁵.

8. 4. Beste ekitaldi batzuk

Aurrez aipatu bezala, 1990tik aurrera museoek irekiera esanguratsuago bat eman zen – fisikoki zein kontzeptualki – eta horrek eragin zuen Gipuzkoako museo ezberdinek egunerokotasunetik at bilduma edota instituzio berari loturik egun eta aste bereziak antolatzeari ekitea. Hauetako askok behin behineko ospakizun bat suposatu bazuten ere, beste batzuk urteetan zehar egonkortzen eta indartzen joan ziren, askotan museo beraren “marka” edo irudi bilakatuz.

³⁷⁹ Fitxa didaktikoak. STMA. Sig: 298/3.

³⁸⁰ 1999ko dokumentazioa. STMA. Sig: 289/15.

³⁸¹ Airu 1997ko jarduerak. GFAAA. Sig: 14300/12.

³⁸² Umeen museoa 1. EAEHAAN. Sig: E-329-2.

³⁸³ “Gorrotxategi 1996”. GFAAA. Sig: Akobe 1776/3.

³⁸⁴ 1998 eta 1999ko memoriak. BEMA.

³⁸⁵ “Memoria 1999”. IEA.

Lehenengo kasua Urretxun aurkitzen dugu, non Mineralogi eta Paleontologi Astea museoaren urteroko ekintza nagusia bilakatu zen: "Se trata de una especie de semana cultural, festiva y comercial" (Delgado, 2006: 123) non herritar guztiak museoaren bildumara gerturatzeko aukera izaten zuten, hala nola Estatuko aditu ezberdinek. Astearen ardatza bildumagile ezberdinei zuzendutako saloia bilakatu zen, non stand edo postu ezberdinetan mineralak erakusgai ipintzen ziren. Saloiaren ekitaldia osatzeko beste hainbat jarduera burutu ziren, urtero aldatuz edota berrituz joan zirenak: hitzaldiak, irteerak, aldi baterako erakusketak eta lehiaketak. Haur eta gazteei zuzendutako tailerrak³⁸⁶ ere burutu ziren, non meatze edota urrearen bilaketa simulazioa egiten zuten, edota aurrehistoriako gizonen pintatzeko modua ikas, hau kontsideratuz "una actividad plenamente didáctica en la que los participantes se involucran totalmente"³⁸⁷. Honekin batera Mikologia Astea ere bihurtu ziren urtero ospatzen zen ekintza nagusienetako bat, hitzaldi, irteera eta erakusketak bezalako jardueraz osatzen zirelarik³⁸⁸.



17. irud: Urre bilaketa tailerra
(Urrelur / Urretxuko Udala. K. S.)

Zarautzen Phtomuseumek urtero "Argazki bilera" izenekoa antolatu zuen 1992tik³⁸⁹. Ekitaldi honen bitartez argazkigintza herriko txoko guztietara zabaltzen zen, argazkigintza erakusketak herriko espazio ezberdinetan gauzatuz (Zugaza, 1999). Hauen osagarri bezala, hitzaldi edota ikastaroak burutu ziren zenbait urtetan, eta Urretxun gertatu zen bezala, Zarautzen ere arrakasta handia izan zuen jarduera honek: ekintza museoaz gain bestelako guneetan ere gauzatzen zelako eta aldi berean argazkigintzari lotutako jarduera ezberdinak antolatzeko aukera paregabea zelako, horrek ere bisitariak erakartzen zituelarik.

Zerainen, landa eremuetan galtzen ari ziren ohitura batzuen berreskurapenaren baitan, antzinako lanbideen erakustaldiak protagonista zituzten egun bereziak antolatu ziren. 1995an txondorraren prozesu osoa ikusteko aukera izan zuten bisitatiek eta hurrengo urtean karobi batean karea ere egin zen antzinako eran³⁹⁰. Hauei lotuta erakusketak eta bestelako jarduerak ere egin ziren programa osatu bat eratuz. Bi ekintza hauek aukera paregabea eskaintzen zuten ez soilik ekitaldi hauetako ekintzetan parte hartzeko baizik herrira jende gehiago erakartzeko ere³⁹¹. Gainera, ondorengo hamarkadetan egingo ziren erakustaldien oinarri izan ziren, antzinako praktikak berreskuratu eta zabaltzeko lehen pausoak eman baitzituzten.

³⁸⁶ 1997ko museko eskuorria. GFAAA. Sig: 14302/5.

³⁸⁷ "Memoria 1994". UUA. Sig: 2.8. 1. Kutxa.

³⁸⁸ "Museo 1994". Urretxuko Mineral eta Fosilen Museoa. GFAAA. Sig: Akobe 12923/3.

³⁸⁹ "Photomuseum Zarautz. Historia". PA.

³⁹⁰ Txondorraren erakustaldia hurrengo urte batzuetan ere errepikatu zen, periodikotasun zehatzik gabe.

³⁹¹ Urteko memoriak. ZUA.

9. Elkarlan proiektuak

Geroz eta museo gehiago izateak, jarduera didaktikoen programazio zabalagoak sortzea eta aldi berean panorama kulturalen bestelako instituzio eta ekipamenduek antolatzen zituzten ekintzen ugaritzeak, estrategia berrietara bideratu zituen Gipuzkoako Museoak. Oraindik sare egonkorrik sortu ez bazen ere, eskualdearen arabera edota museoaren bilduma eta gaiagatik lotura zuten museoek elkarlanak sortzen hasiko ziren. Aurreko hamarkadetan nolabaiteko aldaketarako intentzioak eman baziren ere – sarrera bateratuak eskainiz adibidez – benetako elkarlan proiektu eraginkorrak 90ko hamarkadatik aurrera garatu ziren.

1996an lehen ekintzetako bat garatu zen, non “Kultura eta gastronomia” izena zuen eskaintza bateratu bat osatu zuten Zeraingo Herri Museoak eta Zumalakarregi Museoak³⁹². Urte batzuk beranduago bi museoek batu zitzaizkien Lenbur Fundazioa, oraingo honetan “Burdinaren Bideak” izeneko ibilbidea osatzeko: egun osoko bisita baten baitan Goierri eta Urolako eskualdeetan burdinak izandako garrantzia azpimarratzea zen helburu, hala nola ondare industrialaren ezaguera sustatzea³⁹³.

1999an San Telmo Museoak Gipuzkoaz kanpoko instituzioekin programa ezberdinetan parte hartu zuen. *Rafael Programaren* barruan “Hilarrien Ibilbidea” gauzatu zen, GFA eta Bayonako Euskal Museoaren arteko elkarlanean³⁹⁴. Honetaz gain “Vivir en ciudades históricas”-en barruan erakusketa bat antolatu zen eta maleta didaktiko bat ere sortu zuten; proiektu honetan Donostiako eskola ezberdinek hartu zuten parte³⁹⁵. Azpeitian, Ingurugiro Etxea eta Trenaren Euskal Museoak indarrak batu zituzten eta azken honetan espazio bat egokitu zen bi museoek gaiak lotzeko asmoz “Garraiobidearen ingurugiro gela” izenekoa³⁹⁶.

Aipatu beharrekoa da, museoek arteko elkarlanean gain bestelako instituzioekin batera proiektu ezberdinak garatzen hasi zirela, aldizkako ekintzetarako edota programa finkoen eraketarako. Horien artean Untzi Museoak urtero antolatzen zuen zentzumenetan oinarritutako tailerrerako ONCE, Atzegi eta bestelako elkarteekin egindako hitzarmenak aipatu beharrekoak dira; hala nola *Gesto por la Paz de Euskal Herriarekin* “Marina Auxiliar de Euzkadi”ko proiektua, bakearen hezkuntza programaren baitan (Unsain, 2009). 1999an Pagoetako Parkeak eta AGIPANek³⁹⁷ ere elkarlan proiektu bat martxan jarri zuten, zeinaren bidez Gipuzkoako eskola ezberdinetako ikasleek “Ogiaren ikasgela” programaren baitan Agorregiko errotetan irina egin eta ogia egiten ikasten zuten³⁹⁸.

Bisitariak/ publikoa/ erabiltzeak

Museoetako bisitariak edo publikoa geroz eta protagonismo gehiago hartzen hasia zen museoek egunerokotasunean. Ordura arte bildumaren kontserbazio eta katalogazio lanetara indar gehienak bideratu baziren ere, 80ko hamarkadaren amaieratik Gipuzkoako Museoak bisitarien garrantziaz jabetu ziren³⁹⁹. San Telmoko zuzendaria zenak garaian agertu zituen kezkek egoeraren adibidea ematen digute:

³⁹² “Memoria 1996”. ZMA. 1996ko kutxa.

³⁹³ “Zerain urtekaria 1999”. ZUA.

³⁹⁴ “Programa Rafael”. STMA. Sig: 277/5.

³⁹⁵ “Vivir en ciudades históricas” proiektua. STMA. Sig: 289/1.

³⁹⁶ 1999ko memoria. Trenaren Euskal Museoa. BEMA.

³⁹⁷ Gipuzkoako Oinaren Elkartea.

³⁹⁸ “Agorregi 1999-2000”. IPA.

³⁹⁹ Euskal Herrian eta Espainian, kasu zehatz batzuk salbuespen izanda, museo gehienetan prozesu berdina jarraitu zen eta orokorrean atzerrian eman ziren aldaketen aplikazio berantiarra nagusitu zen.



“Jendearen gogoetak, beharrak, kezak, zeintzuk diren jakin beharko genuke. Gaurkotasun puntu hori behar dugu izan lehen mailan gure lanean. [...] teknika museografiko batzuk badira, objektuak eta nola argiaren bitartez eta aurkeztu, zein mobiliario edo moduan aurkeztu, eta zein informazio motarekin osatu. Ez da lan erraza. Eta agian gizartearen laguntza beharko genuke horretarako”⁴⁰⁰.

Honek agerian uzten zuen museoak bisitatzen zituzten – eta bisitatzen ez zituztenen – iritziak eta beharrak ezagutzea ezinbestekoa zela, hauei modu egokian erantzuteko. Honekin batera, talde mota ezberdinei zuzendutako ekintzak eta materialak ere sortzen hasi ziren, bisitari orok behar berdinak ez zituela konturatutik.

Gainera, bisitaria eta publikoaz gain, “erabiltzaileak” kontzeptuaren erabilpena ere gehitu zen: instituzio hauen lana eta eskaintza jada ez zen museoaren espaziora mugatzen: beste gunek batzuetan zein sarean⁴⁰¹ – Internet baliabideen erabilpenaren hedakuntzaz – garatu ziren programa ezberdinek eragin zuten museoak bisitatzen ez zuen publiko bat ere kontuan izatea; bestelako zerbitzu edota ekintzen erabilera egiten zutenei “erabiltzaile” izena emanaz alegia.

1. Hezkuntza formaleko taldeak

Eskola taldeei zuzendutako museoak eta programak nagusitu ziren hamarkada honetan. Ikasleentzako jarduera erakargarri eta erabilgarriak sortzeko beharrak bat-batean harrapatu zituen museo asko, eta egunerokotasuneko erritmoari jarraitu behar izan zioten eskaera geroz eta handiagoa zen egoera batean. Horrek ekarri zuen hezkuntza formaleko talde ezberdinei erantzuteko plangintza egoki bat eratu behar izateaz gain baliabide espazial eta materialak egokitu edo sortzea, hala nola honetan aditua zen lantalde bat osatzea⁴⁰². Pixkanaka museoak ikastetxeetatik at jarduera didaktiko ezberdinak egin eta pedagogiako ideia berriak abian jartzeko espazio nagusienak bilakatu ziren, geroz eta espezializatuagoa zeuden lantaldeekin eta baliabide egokiagoekin. Pentsa daiteke garai honetako museo guztiek eskaintzen zutela eskola taldea hartzeko aukera – eskaeraren arabera edo sistematikoki museoak bisita gidatuak eskainiz – baina horietako batzuk soilik sortu zituzten hezkuntza programa egonkorak adin tarte zehatzei egokituta.

1.1. Hezkuntza programak

San Telmo Museoa Arte Laborategiaren proiektuak urte batzuk iraun ondoren, adin tarte ezberdinei zuzentzen zen eskaintza zabalago bat sortuz joan zen, tailer manulez gain beste mota bateko ekintzetan oinarritutakoak. Bilduma iraunkorrera zein aldi bateko erakusketetara loturik zeuden bisita gidatuak izan ziren oinarria urte hauetan ikasleentzat, zenbaitetan tailer edota praktikaren bati lotutako ekintzak burutuz. Bildumaren sailak oinarri harturik eraikina, pintura eta etnografia gaiak jorratu ziren programa hauetan, bakoitzari egokitutako materiala ere sortuz⁴⁰³. Aquariumen 90ko hamarkadan aipatzen zenez: “A lo largo de este tiempo han pasado miles de niños y jóvenes a nuestras instalaciones, desde los más pequeños hasta jóvenes estudiantes de la Facultad de Biología”⁴⁰⁴; beraz, eskola taldeen bisitak mende osoan zehar eman zirela argia da. Hala ere 1998tik aurrera, eraikin berriarekin batera, eman ziren aldaketa nagusiak hezkuntza eskaintzari dagokionez. Garaiko albiste batetan aipatzen zenez:

⁴⁰⁰ EITB. (1997) “Cro-magnonen ondoren”. Euskal Herritik [bideoa]. In <http://www.eitb.tv/eu/bideoa/euskal-herritik-101-ataletik-200era/782584653001/788061773001/cro-magnonen-ondoren/> (2015ko apirilaren 25an ikusia).

⁴⁰¹ Museo batzuk erabiltzaile ezberdinei zuzendutako eskaintza zabalagoa garatzen hasi ziren, eta kultur eremuak gaindituz bestelako espazio batzuetan ere museoetako bilduma ezagutzeko aukerak eskaini zituzten, hala nola sarean ipinitako material erakargarrien bitartez. Ikus. “Jardueretarako baliabideak” atala.

⁴⁰² Ordura arte eskola taldeak jaso zituzten museoak existitu baziren ere, hauentzat espezifiko diseinatutako jarduera eta materialak oso eskasak edota hutsalak ziren.

⁴⁰³ *Urteko memoriak*. STMA. Sig: 57/27.

⁴⁰⁴ Aquarium. Añamendi Eusko Entziklopedia. In <http://www.euskomedia.org/aunamendi/101178> (2015ko ekainaren 3an ikusia).



“Los estudiantes de enseñanza Primaria y Secundaria de San Sebastián sabrán cada vez más sobre la fauna marina. La comisión de gobierno del Ayuntamiento donostiarra aprobó ayer suscribir un convenio de dos millones de pesetas con el nuevo Aquarium de la ciudad, que servirán para subvencionar no sólo las visitas guiadas a este museo del mar, sino también para organizar talleres que propicien un aprendizaje más profundo de los alumnos”⁴⁰⁵



18 irud: 1998ko berrikuntzaren ondorengo lehen eskola
taldeak Aquariumen
(GOE. Gipuzkoako Ozeanografia Elkarte)

Ama Xantalen ermita, non 1990tik aurrera jada mota honetako taldeen berri ematen zen: “hay que decir que el Museo ha tenido una gran aceptación entre los centros escolares como recurso pedagógico nuevo y diferente. La posibilidad que se da de aprender de una manera activa y participativa, con explicaciones y variados recursos didácticos, ha sido a nuestro entender uno de los mayores logros del Museo”⁴⁰⁶. Irungo eta inguruko herrietako taldeak hartzaile nagusienak baziren ere, esaten zenez “También han mostrado un gran interés los visitantes de otras localidades de la provincia, por lo que veríamos conveniente que se llevase a cabo una campaña informativa en centros escolares tanto de la provincia como fuera de ella”⁴⁰⁷. Tolosako Gorrotxategi Konfiteri Museoak ere geroz eta ikasle gehiago jasotzen zituen. Hauei erantzun egoki bat emateko asmoz hitzarmen bat sinatu zuen Zuloaga Txiki ingurumen zentroarekin 1995an; eskola taldeen programazioa osatu eta gauzatuko zuten ordutik aurrera “Tolosa Goxoa” izeneko programa baten baitan, non ikasleek elikadura eta gastronomiaren lanketa burutzen zuten, bisita gidatuaz gain material didaktikoa ere landuz⁴⁰⁸.

Pagoetan emandako berrikuntza guztiek ere eskoletara zuzentzen ziren hezkuntza programetan aldaketa etengabeak ekarri zituen. Lehen urteetan Natura Eskolako jarduerak eta mendi ibilbideak egiten baziren, Iturrran, Lorategi Botanikoa, erlategi didaktikoa eta Agorregiko burdinolaren irekierak ekintza didaktiko guztien berrantolaketa bat eragin zuen⁴⁰⁹. Programa hauen bitartez ikasleek “modu aktibo, sortzaile, eraikitzaile eta parte-hartzailean lan egiteko aukera”⁴¹⁰ zutela aipatzen da. Arreta Kultur Taldearen kudeaketa lanekin batera eskoletara bideratutako hezkuntza programen zabalpen bat eman zen eta eskola taldeen adin tartea ere handitu zen, Haur Hezkuntza eta Lanbide Heziketako maila ere zuzenduz – orokorrean alde batera geratutako hezkuntza taldeak – .

⁴⁰⁵ Marin, M. (1998, abenduak 31). “El Aquarium de San Sebastián ofrecerá talleres para 8.000 escolares”. *El País*. In http://elpais.com/diario/1998/12/31/paisvasco/915136807_850215.html (2015ko maiatzaren 22an ikusia).

⁴⁰⁶ “Memoria Museo de Santa Elena. Septiembre 1990- febrero 1991”. IRUA. Sig: 10/578.

⁴⁰⁷ Ibid.

⁴⁰⁸ “Xaxu 1990”. GFAAA. Sig: 16951/6.

⁴⁰⁹ “Memoria de actividades realizadas por el grupo Enara durante el segundo semestre de 1990 en el parque de Pagoeta”. IP.

⁴¹⁰ Hileko memoriak. Enara C.B. GFAAA. Sig: Akobe 12806/4.

Azpeitiko Umeen Museotik eskola taldeei eskainitako programak geroz eta zabalagoak ziren: 1998an 92 eskaintzera iritsi ziren, Haur Hezkuntzatik DBHko azken mailaraino bideratuta⁴¹¹.

Urretxuko Mineral eta Fosilen museoan hiru aukera eskaini zitzaizkien ikastaldee: bisita gidatu bat burutzea begirale batekin; bisita gidatuaz gain material didaktikoa erabiltzea “(para) “que el alumno pueda aprender por sí solo a través de la experimentación”⁴¹² eta guztia irteera geologiko batekin osatzeko aukera eskaintzen zuena.

Zumalakarregi Museoak lehen urtetik sortu zuen hezkuntza formalera bideratutako eskaintza egonkor bat, izan ere “Uno de nuestros principales objetivos fue atraer a los alumnos de distintas edades ofreciéndoles itinerarios didácticos adaptados a sus programas de estudio” (Alberdi, 2008: 237). 1991tik osatuz joan ziren hezkuntza programak, horietako batzuk elkarlan proiektuen baitan. Untzi Museoan ere hezkuntza formalera bideratutako programak osatu ziren hasieratik, eta aldi baterako erakusketa bakoitzari lotutako eskaintza bereziak ere osatu ziren. Zerainen talde mota eta adinaren arabera programa zabal eta malgu bat sortu zen, konbinaketa ezberdinak eskaintzen zituen aukerak izanik: museoa, ibilaldiak, baserrietara bisitak, tailerrak eta jolasak.

Zarautzen, Photomuseumek kabinete pedagogikoa sortu zuen irekiera urtetik, “elkarte, ikastetxe eta bestelako taldeei zerbitzua eskaintzeko” (Ziarrusta, 2001). Horien artean esaten zen “(que) dedicará especial atención a las relacionadas con la población escolar organizando visitas guiadas y otras actividades”⁴¹³.



19 irud: ikasle taldea Photomuseumen
(Photomuseum Argazki & Zinema Museoa)

Zenbait museoek kasuan eskola taldeak hartu baziren ere, herrira edo eskualdera solik mugatuta egon ziren programa batzuk. Kasu horiek aurkitzen ditugu San Martin ondaregunean, Azkotin, edota Beasainen, Igartzako Jauregian. Lehenengoaren kasuan, Azkoitiko ikastetxeak bakarrik hartu zituzten lehen urteetan, nahiz eta programazioa beste edozein ikastetxeri irekita egon. Igartzari dagokionez antzeko egoera bat eman zen. Kasu honetan, Beasaingo Udaleko kultura sailak herriko ikastetxeei zuzendutako programa berezi bat osatu zuen, LH eta DBHko mailako ikasleentzat hain zuzen ere. Honen bitartez hiru egunetako iraupeneko ekintza ezberdinek herriko ondarea zein Igartzara bera ezagutzeko aukera eskaintzen zuten: Lehen bi egunetan ikasgelan beratan burutzen ziren ekintzak, bideoak ikusiz, azalpenak entzunaz eta fitxa didaktikoak betez. Hirugarren egunean Igartzara bisita burutzen zen⁴¹⁴.

1.2. Irakasleekin aurre bilerak

Ikasleak museora joateak ere bere baitan zeraman beste eragile bat: irakaslea. Hauek kasu askotan museorako “eramale” hutsak kontsideratu ziren, eskola eta museoaren arteko bitartekari lanak egiten zituen figura. Honen

⁴¹¹ “Memoria 1999”. IEA

⁴¹² “Memoria actividades museo 1993”. UUA. Sig:2.8. 1. Kutxa.

⁴¹³ Photomuseum. Propuesta 1994. GFAAA. Sig: Rekalde 12804/4.

⁴¹⁴ “Programa didaktikoa Igartzara (ikastetxeentzako materiala) 1999”. BUA. Sig: 777-01.

aurrean, eta eskolan materialen lanketak zein irakaslegoaren inplikazioak bisitan zekartzan onurak antzemandak, zenbait museo irakasleei zuzendutako baliabideak sortu zituzten. Material zehatza eskaintzeaz gain irakasleekin aurre bilerak antolatu zituzten hain zuzen ere.

Pagoetan, hamarkadaren hasieran, irakasleekin bilera bat antolatzen zen bisitaren nondik norakoak azaldu, bibliografia eskaini eta materialak emateko⁴¹⁵. Azpeitiko Ingurugiro Etxean 90ko hamarkadatik irakasleak bisita egin aurreko prestakuntza bat jasotzen zuten eta materiala bidaltzen zitzairen aurrez klasean landu zezaten⁴¹⁶. Untzi Museoan ere hasieratik ezarri zen irakasleekin aurrez bisita prestatzeko beharra, museoa ikusi, jarduera motak azaldu eta materiala ezagutu zezaten.

2. Beste talde batzuk

Ikastetxeak museoetako bisitari nagusiak bilakatzen hasi baziren ere, zentro gehienetan beste mota batzuetako taldeak ere kontuan izan zituzten. Aurreko urteetan publiko orokorra eta turistak bakarrik desberdintzen baziren ere, oraingoan talde mota bakoitzaren behar zehatzak aztertu eta hauei zuzendutako programak ere eratzen hasi ziren. Bestelako taldeen baitan hezkuntza formalek at zeudenak taldekatzen ziren, baina aldi berean bisitari orokor edo banakako bezala joaten ez zirenak museora: euskaltegiak, aisialdi taldeak, elkarteak, jubilatuek eta abar luze bat.



20. irud: Arrantzarako ohiko aparailua prestatzeko lanak, 1997 (Untzi Museoa)

Guzti hauentzat prestatzen zen eskaintza, askotan, hezkuntza formalaren eta bisitari orokorren arteko nahasketa edo moldaketa bat izaten zen; baina argi zegoen hauekiko interesa eta eskaintza egoki bat egiteko asmoa museo askok agertu zutela.

Ama Xantaleko ermitako lantaldeak hamarkadaren hasieran jada aipatzen zenez “de cara al futuro haría falta una campaña de difusión más amplia, sobre todo respecto a centros culturales (Casas de Cultura, etc.), asociaciones”⁴¹⁷. Untzi Museoan bisitari mota hauen jarrerari buruzko aipamenak egiten zituzten: “Los colectivos de formación permanente de adultos y de euskaldunización se muestran normalmente más activos y autónomos en sus visitas a los museos”⁴¹⁸. Untzi Museoak gainera gizarte ekintzarekin lotura estua eratu zuen eta besteak beste *Gizona Helburu- Proyecto Hombre* bezalako fundazioekin elkarlanak burutu zituen.

⁴¹⁵ “Visitas ferrería de Agorregui. Enara. 1991”. GFAAA. Sig: Akobe 9445/1.

⁴¹⁶ “Memoria 1992-1993”. EAEHAAN. Sig: 26/ E-329-2.

⁴¹⁷ “Memoria Museo de Santa Elena. Septiembre 1990- febrero 1991”. IRUA. Sig: 10/578.

⁴¹⁸ “Proyecto Airu 1991”. GFAAA. Sig: Akobe 10734/10. 57 or.

Pagoetan⁴¹⁹, Larraulen⁴²⁰, Azpeitiko Umeen Museoan⁴²¹, Zumalakarregi Museoan⁴²², Zerainen⁴²³ eta San Telmo Museoan⁴²⁴ ere mota ezberdinetako taldeak hartzen zirenaren aipamenak aurkitu izan dira. Beste museoetan, berriz ere, pentsa daiteke eskaeraren araberrako eskaintza bat egingo zitzaiela.

3. Dibertsitate funtzionaleko taldeak

. Museoen irekierarekin batera eta gizartearekiko gertutasun baten behar berriarekin, instituzioek errealitate zabal eta heterogeneo batetara moldatu behar izan zuten laster. Ordura arteko "bisitari tipoa" alderatu eta adin, jatorri edota izaera ezberdinei zuzendutako eskaintza didaktiko bat osatu behar izan zuten – museografiaren, difusio tresnen eta beste hainbat elementuekin batera –. Honen baitan, irisgarritasuna ere protagonismoa hartuz joan zen, eta zenbait museoek eredu garriak izan ziren planteamenduak plazaratu zituzten, dibertsitate funtzionaleko taldeei zuzendutako programak osatuz.

Donostiako Untzi Museoan, irekiera urtetik planteatu zuten behar hau: "El museo presta atención al público con discapacidades físicas y psíquicas" (Unsain, 2009: 575), eta hori dela eta ATZEGI, ONCE eta beste hainbat talderekin elkarlanean aritu zen. 1994tik aurrera zentzumenen erabileran oinarritutako ekintza ezberdinak burutu zituzten urtero, gai eta material ezberdinen inguruan lan eginez eta honetarako elkarlanean arituz elkarre ezberdinekin⁴²⁵. Honetaz gain talde hauen aipamenak ere egin zituzten zenbait museoek euren plangintza eta memorietan. Pagoetan hezkuntza bereziko hiru talde izan zituztela agertu zuten urteko memorian⁴²⁶ eta Zumalakarregi Museoan esaten zenez "Se ampliarán las ofertas de visita guiada sin itinerario específico hacia colectivos que no acostumbran acudir al museo (hogares de jubilados, ONCE, asociaciones, etc.)"⁴²⁷.

4. Publiko orokorra

Publiko edo bisitari orokorraren barnean aurreko taldeen parte kontsideratzen ez ziren bestelako guztiak sartzen ziren. Normalean publiko orokorra asteburu eta jaiegunetan museoetara gerturatzen zen pertsona oro izaten zen, zeinak erakusketak ikusi eta zenbaitetan jardueraren batean parte hartzen zuen. Talde heterogeneo honen ezaugarri anitzak eta sailkapenerako oztopoak eragin zuten, besteak beste, hezkuntza sailek hauekiko arreta txikia izatea. Oro har, departamentu hauen lana eskola talde zein beste elkarre batzuetara mugatzen zela pentsatu ohi zen askotan. Alabaina bisitari orokorren iritsiera masibo bat ere eman zen 90ko hamarkadan: Asteburu eta jai egunetako aisialdi astiak betetzeko ekintzak antolatzea oinarritzkoa bilakatu zen museoentzat, geroz eta eskaera handiagoa izanik.

Pagoetan oso goiztiarrak izan ziren asteburuetak bisitari hauentzako eskaintzak; Agorregi inauguratu zenetik ordutegi finko bat ezarri zen publiko orokorarentzat asteburuetak bisita gidatuak egiteko, hasieratik izugarritzko arrakasta izanik⁴²⁸. Honen harira aipatzen zuten: "garrantzitsua iruditzen zaigu, jendeari orokorrean bere inguruneari gerturatzeo aukera amatea (sic), honela ezagutu eta errespetatzen ikas dezaten. Helduaren

⁴¹⁹ Hileko memoriak. Enara C.B. GFAAA. Sig: Akobe 12806/4.

⁴²⁰ "1999. Urteko Larraulgo Udal Museo Etnografikoaren memoria". LUA. Sig: 221-03.

⁴²¹ "Memoria final curso 96-97". IEA.

⁴²² "Memoria 1991". ZMA. 1991ko kutxa.

⁴²³ *Zerain urtekaria 1999*. ZUA. 6-7 orr.

⁴²⁴ "Memoria 1991 ekaina arte". STMA. Sig: 57/27.

⁴²⁵ "Airu 1994". GFAAA. Sig: Akobe 12809/6.

⁴²⁶ "Memoria de actividades realizadas por el grupo Enara durante el segundo semestre de 1990 en el parque de Pagoeta". IPA..

⁴²⁷ "Zumalakarregi Museoa. Proyecto de gestión. Abril-diciembre 1993". ZMA. 1993ko kutxa. 7 or.

⁴²⁸ "Visitas ferrería de Agorregui. Enara. 1991". GFAA. Sig: Akobe 9445/1.



etengabeko prestakuntzaren beharra ere ikusten dugulako”⁴²⁹. Ideia berdina agertu zuten Untzi Museoko proiektuan, non eskola taldeez gain bestelako publikoaren garrantzia ere azpimarratu “el Servicio de Difusión [...] debe trascender el aspecto de su utilización como recurso del sistema educativo, para ofrecer y convertir el espacio-museo en lugar de encuentro de todos aquellos interesados, ya sean personas especializadas o público en general”⁴³⁰. Azpeitiko Ingurugiro Etxeak⁴³¹ eta Zumalakarregi Museoak⁴³², ideia honi jarraiki, hezkuntza programetako bat eskaini zioten publiko orokorrari. Badirudi Irungo Ama Xantaleko ermitan ere, taldeak baino bisitari mota hauek nagusitzen zirela museoan: “En cuanto al carácter de las visitas, diremos que las provenientes los fines de semana han sido las que más interés han mostrado y más han aprovechado los recursos didácticos del Museo”⁴³³.

Jardueretarako baliabideak

1. Giza baliabideak

Gipuzkoako museoetan geroz eta espezializatuagoak zeuden lantaldeak eratzen joan ziren, garaiko beharretara egokitzuz zein museoeko hezitzaile profila betetzen zuten pertsonen bidez. Zenbaitek hezkuntzara bideratutako sailak sortu zituzten – edo aurreko urteetakoak moldatu – ; beste museo batzuk – orokorrean txikiagoak edo izaera lokalekoak zirenak – hezkuntza funtzioa beste betebeharrak guztien baitan bereganatu zuten, lantalde txikiak izanik pertsona berdinek alor guztiak jorratzen zituztelarik⁴³⁴. Honekin batera, aurreko hamarkadan sortutako modalitate berri bat hedatu zen: museoek kudeaketa osoaz edota soilik hezkuntza alorraz arduratuko ziren enpresen kontratazioa.

1.1. Museoeko lantaldeak

Hezkuntza departamentu batzuk jada 80ko hamarkadatik existitzen baziren ere, museo berrien baitan jarduera didaktikoez arduratuko ziren sailak osatu zituzten, Pedagogi kabineteak eta Difusio Zerbitzuak bezalako izenak hartuz⁴³⁵. San Telmo Museoan aurreko hamarkadan sortua zen Pedagogi Kabineteak lanean jarraitu zuen⁴³⁶ 1995an izena aldatu eta “Zabalkunde Zerbitzua” bihurtu zen arte. Badirudi oraindik pertsona batek zuzentzen zuela departamentu hau eta pentsa daiteke hezitzaile taldea oraindik oso murrizta izango zela. Aquariumen eraikin berriarekin batera sortu zen hezkuntza saila; irekiera berriak sekulako arrakasta suposatu zuen alor guztietan, eta jardueren eskaera jarraitua egiten zuten taldeen etorrera masibo bat bizi izan zuten. Horri erantzuteko beharrezkoa

⁴²⁹ “visitas ferrería de Agorregui. Enara. 1991”. GFAAA. Sig: Akobe 9445/1. 6 or.

⁴³⁰ “Proyecto Airu 1991”. GFAAA. Sig: Akobe 10734/10. 50 or.

⁴³¹ “Memoria 1998-1999”. IEA.

⁴³² “Contratación K6 1991”. GFAAA. Sig: 64/1. 25 or.

⁴³³ “Memoria Museo de Santa Elena. Septiembre 1990- febrero 1991”. IRUA. Sig: 10/578.

⁴³⁴ Museo batzuk organigrama oso definitua izan zuten, eta lantalde txikiak izanik ere funtzioen banaketa argia zen. Baina gehienetan museo berdinaren baitan hezkuntza zerbitzuaz arduratzeaz gain administrazio, kudeaketa, difusio, promozio eta beste lan guztiaz arduratzen ziren langileak.

⁴³⁵ Hala ere, museoetan ez zen izen bat orokortu – beste lurralde batzuetan gertatu ohi den bezala – eta garai bakoitzaren arabera sailen izenak aldatuz eta berrituz Joan ziren, askotan kanpoko beste museoekin harremana izanagatik edota jardunaldi zein ikastaroetan jasotako ideia berrien bitartez. Gogoratu behar dugu 80ko hamarkadaren amaieratik hasita Gipuzkoako zenbait museoetako ordezkariak hasi zirela DEAC jardunaldietan parte hartzen, hala nola bestelako hitzaldi eta mahai inguruetan. Horrek, dudarik gabe, kontzeptu eta ideien berritze bat eragingo zuen.

⁴³⁶ Orrialde didaktikoak. STMA. Sig: AC_045.



izan zen lantalde espezializatu bat osatu eta urtetik urtera handitzea, materiala prestatu eta programa didaktikoak aurrera eramateko gai izango zena.

Museoaren lantalde propioa izan zuen beste museoetako bat Photomuseum izan zen, irekiera urtetik Kabinete Pedagogikoa izan zuena. Honekin batera Trenaren Euskal Museoak ere eratu zuen lantalde propio bat hezkuntza arloan, publikoa hartzeko aldi baterako enpresa baten kontratazioaren ondoren 1998an Euskotrenek bere gain hartu zuenean langileen kontratazioa⁴³⁷.

Larraulgo Museoan ordea, lantaldearen osaketan aldaketa asko eman ziren hasieratik: Lehenbizi udalak turismo teknikari bat kontratatu zuen, piezen inbentarioa egin eta museoaren inauguratu aurreko lanak burutzeko. Hurrengo urtean beste bi herritar gehitu zitzaizkion objektuen garbiketa eta zaharberritze lanetarako (Arrieta, 2003). 1998an inauguratu ondoren beste arazo bat sortu zen, izan ere “(la) contratación de una persona responsable del museo o subcontratación imposible de asumir por parte del ayuntamiento” (Arrieta, 2003: 117); hori dela eta Herriko Ostatuaren kudeaketarako lehiaketaren baitan museoaren eliza irekitzeko betebeharra gehitu ziren⁴³⁸. Azkenik, 1999an eta Tolosaldea Garatzenen bitartez, diru-laguntza bat jaso eta pertsona bat kontratatu zen museoan gida lanak egiteko, hala nola haurrentzako jolas ezberdinak diseinatze⁴³⁹.

Beasainen Igartzako Jauregiaren kudeaketa lanetarako koordinatzaile bat kontratatu zen, aldi berean bertako multzo historikoaren indusketa arkeologikoan aritua zena. Eskolei zuzendutako jarduerak didaktikoen programaz ordea Udaleko Kultura Saileko bi teknikari arduratu ziren 1999tik aurrera, eta museoaren arreta zerbitzurako pertsona bat kontratatu zen, honek asteburuetako irekiera eta bisitak burutzen zituelarik. Antzeko sistema jarraitu zen Azkoitiako San Martin ondaregunean: bisita gidatuak egiteko pertsonak kontratatzen ziren eskaeraren arabera eta honetaz gain asteburuetako irekietarako pertsonala ere Udalak kontratatzen zuen. Makina-erremintaren Museoan hasieratik zuzendariak bete izan zituen funtzio guztiak – hezkuntza programak, bisitarien arreta, edukien prestaketa eta abar luze bat – eta makinariaren kontserbazioa eta zaharberritzeaz arduratzen zen teknikari bat aritzen zen⁴⁴⁰.

1.2. Enpresa kudeatzaileak

Zenbait urte lehenago kultura eta ingurumen hezkuntza zerbitzuak eskaintzen zituzten enpresa batzuk jaio baziren ere, 90ko hamarkadan indar bereziarekin hedatu ziren. Pagoetan Enara taldea, Arazi S.L. eta Arreta K.T – gerora Arreta S.L. – enpresen esku geratu zen Parkeko dinamizazioa. Gorrotxategi Museoan, Zuloaga Txiki ingurumen eskolako lantaldeak burutu zituen eskola programak, hauek aldi berean Artelatz ingurumen zerbitzuak S.L.ren esku zeudelarik.

Urretxuko mineral eta fosilen museoan hasieratik kudeaketa Urretxuko Udaleko Kultura sailaren esku geratu zen. Bildumako piezen mantenua eta taldeen bisita gidatuak, hasiera batean, Nicasio Aguadok burutzen zituen. Horrekin batera, hamarkadaren hasieran esaten zenez “urtebeteko kontratu laboralez, uztailen Udalak erakusketa zaintzeaz arduratuko den pertsona bat kontratatuko du”⁴⁴¹. Urte batzuk beranduago museoak eraberritze garai bati ekin zion, baliabideen erabilera hobeto eta museoari bultzada bat emateko nahian jarduerak didaktiko eta materialaz arduratuko zen enpresan bat kontratatu zen: Artelatz ingurumen zerbitzuak S.L.

Zumalakarregi Museoan lehen urteetan Difusio Zerbitzua hiru pertsonen osatu zuten⁴⁴², ekintza programazio esanguratsu bat eratuz eta material arloan lan garrantzitsua garatuz. 1995tik aurrera Difusio zerbitzuak “Animazio

⁴³⁷ “Resumen de actividades del Photomuseum Argazki Euskal Museoaren durante el año 1998”. GFAAA. Sig: 14564/7.

⁴³⁸ Herriko taberna kudeatuko zuten pertsonen ardura zen bisitariak etortzean museoaren irekitzea edota eliza bera ere. Beraz, pentsa daiteke urte hauetan zehar ez zela inolako jarduerak bereziki antolatatu museoetik, eta talderen bat izanez gero Larraulgo boluntarioren batek gidatuko zituela. LUA. Sig: 229-06.

⁴³⁹ “1999. Urteko Larraulgo Udal Museo etnografikoko memoria”. LUA. Sig: 221-03.

⁴⁴⁰ “MH 1999”. GFAAA. Sig: 16952/2.

⁴⁴¹ Diru-laguntza eskera, 1990an. UUA. Sig: 2.8. 2. kutxa.

⁴⁴² “Memoria 1991”. ZMA. 1991ko kutxa.



Zerbitzua” izena hartu zuen⁴⁴³ eta urtebete geroago “Animazioa eta didaktika”⁴⁴⁴, garai eta ideia berrien eragina agerian geratzen zelarik. Irekiera urtetik bezala, museoak kudeaketa K6 K.Z.ren esku zegoen.

Untzi Museoak lehen unetik ere Difusio Zerbitzua deituriko saila osatu zuen, gerora Hezkuntza Zerbitzura pasaz (Unsain, 2009). Hasieratik argi zituzten garaiko ideiak: “El valor del entorno como recurso del sistema educativo ha sido puesto en relieve por la pedagogía actual”⁴⁴⁵, eta honi erantzuteko garatu zuten programa pedagogiko zabal bat, hala nola edukien lanketarako ikerketa sakona⁴⁴⁶. Untzi Museoaren kasuan ere Airu Z.K.ak jarraitu zuen lantaldea osatzen. Lizarrusti ireki zenean Arazí S.L. enpresak eskuratu zuen kudeaketa zerbitzuaren lehiaketa; eta Zerainen 1999an bi herritarrek osatutako Aldabe zerbitzu turistikoak enpresa sortu eta ordutik Herri Museoa eta turismo bulegoaren kudeaketaz arduratu ziren.

1.3. Beste giza baliabideak: boluntarioak, ikasleak eta Museoen Lagunak

Museoetako lantalde finkoez gain, Gipuzkoako museoetako jarduera didaktikoak aurrera eramateko bestelako pertsona batzuen lankidetzak oinarritzat bilakatu zen. Aldizkako lan batzuk aurrera eramateko kolaboratu izan zuten museoarekin – material zehatz bat diseinatu, gai bati buruzko jardueran parte hartu – eta beste kasu batzuetan era egonkor batean bilakatu ziren museoak kolaboratzaile, hauetara bideratuz jarduera edota ekitaldi zehatzak.

Azken honi lotuta agertzen zaizkigu Museoen Lagunen Elkartek, museoak eta gizartearen arteko lotura errazteko jaio zirenak: “refuerza la gestión de los museos y puede facilitar la ejecución de sus objetivos a corto y largo plazo para cada una de sus funciones”⁴⁴⁷. Gipuzkoan sortu zen lehena San Telmo Museokoa izan zen. 1992an sortu zen “con el objetivo de hacer de puente entre la sociedad y el Museo y divulgar e incrementar sus fondos mediante actividades y donaciones” (Fornell, 2003: 68). Hauek bisita gidatu bereziak, hileko obra, kontzertu eta hitzaldiak antolatu eta erakusketetan elkarlanean aritzen ziren. Euskal Trenaren Museoan ere Museoak Lagunen Elkartea sortu zen. Hauen lanak ere garrantzi handia izan zuten, izan ere tren ibilbidea ireki zenetik bisitarien bidaiak kudeatzeaz arduratu ziren⁴⁴⁸ eta 1999an, Makina-erremintaren Museoaren irekierarekin batera sortu zen Lagunen Elkartea⁴⁴⁹.

Boluntarioen lanak ere garrantzia izan zuten museo batzuen proiektu errealtate bihurtu eta programa eraginkor bat garatu ahal izateko. Baliabide ekonomikoak ez izateak edota proiektu egonkor batez babestu gabe aurrera egiteak eragin zuen zenbait museotan herriko kideak edota gaiarekin lotura zutenen laguntza behar izatea. Kasu nabarmenena dugu Zeraingoa: museoaren irekieraren aurretik auzolanean aritutako herritar taldeen lana izugarria izan zen, eta hauek gainera herriko ondareguneen zaharberritze eta mantentze lanez arduratzeaz gain bisitariei ere erakusten zizkieten.

Azkenik, aipagarria da giza baliabideen baitan uneren batean lantaldeen parte izan zirenak: praktikak burutu zituzten ikasleak, normalean unibertsitateko etorritakoak. Untzi Museoan 1998an Euskal Herriko Unibertsitateko Pedagogiako ikasleak aritu ziren ebaluazio lanak burutzen eta Gizarte Hekuntzakoak material didaktikoak prestatu zituzten programa zehatz baterako⁴⁵⁰. Hauekin batera, Deustuko Unibertsitateko Kultur Kudeaketa ikasketak burutzen ari zirenekin eta Donostiko Magisteritza eskolakoekin tailer batzuk garatu ziren⁴⁵¹; dudarik gabe Untzi

⁴⁴³ “Memoria 1995”. ZMA. 1995ko kutxa.

⁴⁴⁴ “Memoria 1996”. ZMA. 1996ko kutxa.

⁴⁴⁵ “Proyecto Airu 1991”. GFAAA. Sig: Akobe 10734/10. 49 or.

⁴⁴⁶ Informazio gehiagorako ikus Unsain, J.M. (2009). La Casa-Torre del Consulado, edificio e servicios portuarios transformado en museo marítimo Untzi Museoa- Museo Naval. *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 6, 565-580.

⁴⁴⁷ “Las Asociaciones de Amigos”. AM. Federación Española de Amigos de los Museos. In <http://www.feam.es/index.php/es/para-asociaciones-de-amigos/que-es-un-amigo-de-museo> (2015ko ekainaren 2an ikusia).

⁴⁴⁸ Euskal Burdinbidearen Museoak Lagunak, BML. In <http://www.euskalbml.com/quienessomos.htm> (2015ko maiatzaren 25an ikusia)

⁴⁴⁹ “MH 2005”. GFAAA. Sig: 28788/4.

⁴⁵⁰ “Airu contratación 1998”. GFAAA. Sig.

⁴⁵¹ “Proyecto de gestión del Untzi Museoa. 24 enero 1997- 23 enero 1998”. GFAAA. Sig: 14300/12. 13. or.



Museoarentzako erabilgarriak ziren jarduera eta baliabide materialak sortzeaz gain ikasleei euren trebakuntzarako aberasgarria izan zitekeen aukera bat eskaintzen zitzairen. San Telmon ere badirudi 90eko hamarkadaren amaieran Deustuko ikasleak egon zirela praktikak burutzen⁴⁵² eta Eskoriatzan Arrasateko Lanbide Eskolako ikasleekin elkarlan proiektu bat sinatu zen, hauek material etnografikoaren inguruko ikerketa burutu eta piezak garbitzeko⁴⁵³. Zarautzen, 1839 eta 1995 bitartean Estatu mailan argazkigintzari argitaratutakoaren katalogazio lanak burutzeko elkarlana sinatu zuen Photomuseumek Deustuko Filosofia eta Letren fakultatearekin (Zugaza, 1999).

1.4. Langileen trebakuntza

Lantaldeen espezializazioaren baitan geroz eta nabariagoa zen trebakuntza osagarri baten beharra. Akademikoki hutsune hori beteko zuen eskaintza egonkor eta ofizial baten faltan instituzio ezberdinek aurrera eramandako ikastaro eta jardunaldien bitartez eman zen garaiko hezitzaile zirenen ikasketen osaketa.

Hasieran aipatu bezala, DEAC jardunaldiak geroz eta indar gehiago hartzen hasiak ziren Espainiar Estatuan, eta euskal museoetako ordezkariak ere parte hartu izan zuten 80ko hamarkadaren amaieratik aurrera. Horren ondoren antolatu zirenekoetan geroz eta gipuzkoar museoetako ordezkari gehiagoren presentzia izan zen: San Telmo Museoa, Untzi Museoa, Zumalakarregi Museoa, Eskoriatzako Museo-Eskola eta Photomuseum izan ziren, besteak beste, jardunaldietako batzuetan egondakoak⁴⁵⁴; gainera, horietako batzuk euren komunikazioak ere aurkeztu zituzten⁴⁵⁵. Adierazgarria da ere 1996ko DEAC-ak Bilbon ospatu zirela⁴⁵⁶, eta horrek ere eragin handia izan zuela gipuzkoar museoetan: beste lurralde batzuetako ideiak, proposamenak eta proiektuak ezagutzeak bide berriak ireki zituen museo askorentzat eta ordurarte planteatu gabeko lan berriei ekin zieten.

Museoen izaera eta gaiari zehatzago lotuta zeuden beste prestakuntza motak ere nagusitu ziren garaian. Umeen Museoa/ Ingurugiro Etxearen kasuan adibidez irekiera urtetik etengabeko aipamenak egiten ziren hezitzaileen trebakuntza saioen inguruan: CEIDA, Garapen Guneak eta ingurugiro hezkuntzari lotutako hamaika ikastaro eta jardunaldietan parte hartu zuten⁴⁵⁷. Untzi Museoak ere ondareari buruzko jardunaldi batzuetan parte hartu zuen⁴⁵⁸ eta Zerainen bertan antolatutako turismo eta garapenaren inguruko jardunaldietan parte hartzeak ere eragina izango zuela pentsa daiteke bertako zein eskualdeko lantaldeentzat.

2. Baliabide espazialak

Aldi baterako erakusketa eta aldizkako ekitaldiez gain bestelako ekintzak antolatzeak behar berriak eragin zituen espazialki ere museoentzat. Jarduera didaktiko batzuk museoak zituen guneak aprobetxatuz aurrera eramaten baziren ere, beste askok egokitutako espazio baten beharra zuten. Aurrez existitzen ziren museoek obra txikiak burutuz edota eraikinaren berritze proiektuen plangintza aprobetxatuz sortu zituzten, eta museo berrietako gehienak jada burutuko ziren jarduerak kontutan hartu zituzten. Honelako aukerarik izan ez zutenek herriko edo hiriko beste gune batzuetan burutu zituzten ekintza asko edota museoaren inguruko kanpoaldeko espazioak erabiliz.

San Telmoko berrikuntza proiektuaren baitan jada aurreikusten ziren espazio gehiago eta funtzio ezberdinak beteko zituztenen beharrak (Aguirre, 1995), eta hortaz, denda, berritze tailerra, liburutegia, bulegoak, hitzaldi eta proiektzio

⁴⁵² "Actas de reuniones enero-marzo 1999". STMA. Sig: 289/2.

⁴⁵³ "Solicitud de ayuda económica para el ejercicio 1995". EUA. Sig: 321/7.

⁴⁵⁴ Aipatu beharrekoa da GFAko ordezkariak ere bertan egon zirela, instituzioek duten papera ere garrantzizkoa zela agerian utziz.

⁴⁵⁵ Besteak beste, Zumalakarregi Museoak Bilboko DEAC jardunaldietan komunikazio bat aurkeztu zuen. "Contratación K6 1992". GFAAA. Sig: 9443/18.

⁴⁵⁶ (1996). Memoria, realidad, expectativas. ACTAS XI Jornadas estatales DEAC - MUSEOS Bilbao, 30I09I96 03I10I96. Bilboko Arte Eder Museoa- Museo de Bellas Artes. 195-196 orr.

⁴⁵⁷ Umeen museoa II. EAEHAAN. Sig: E-329-2.

⁴⁵⁸ "Memoria 90-91 y propuesta 1992. Airu". GFAAA. Sig: Akobe 9445/4.



aretoak txertatu ziren proiektu berriaren baitan. Hau gauzatu bitartean, pentsa daiteke aurreko hamarkadetan bezala funtzionatu zutela, erakustaretoetan eta elizan eginez. Aquariumen egoera ere oso antzekoa zen; hori dela eta eraikin berrian jada “aulas destinadas para talleres y dinámicas educativas, así como un espectacular auditorium destinado a conferencias, congresos, etc” sortu ziren⁴⁵⁹, eta baita baterako erakusketak burutzeko areto bat. Umeen Museoa Ingurugiro Etxean bihurtzearekin batera erabilera anitzeko gela bat gehitu zitzaion, bideoak eta diaporamak proiektatu edota hitzaldiak antolatzeke baliagarria zena⁴⁶⁰ eta berdina gertatu zen Eskoriatzan, non Hidalgako lokalean ere jardueretara dedikatutako espazioak egokitu ziren. Pagoetan, Iturrranen irekierak ere gune berriak eskaini zituen ekintzak aurrera eramateko, eta erakusketa aretoez gain erabilera anitzerako espazioak ere oinarritzkoak izan ziren.

Zumalakarregi Museoan jada 1992an aipatzen zen erabilera anitzeko gela bat zegoela⁴⁶¹, gerora lantegi edo tailer gunea deiturikoa. Espazio horretan aldaketa etengabeak eman ziren, baserri eta burgesiaren etxeen barrualdeak irudikatetik puzzle erraldoi eta XIX.mendeko arropaz beteriko mozturiko armairu bat izateraino (Alberdi, 2008). Gune honek aukera ugari eskaintzen zizkion museoari, lantegiko elementu finkoez gain antolatzen ziren erakusketa edota jardura didaktikoak burutzeko oso egokia zelarik.



21. irud: Tailer gunea Zumalakarregi Museoan, 1996
(Zumalakarregi Museoa – K6 K.K.)

Museo berrien sorreran kontuan izan zuten, kasu gehienetan, behar berriei erantzuteko espazioak antolatzea oinarritzkoa zela. Untzi museoan, adibidez, banaketa honela eman zen – beti ere kontuan izanik eraikin historikoak berak zituen mugak -: “en la planta alta se situaron los servicios de administración, biblioteca, videoteca y archivo documental, además de una sala polivalente utilizada preferentemente para exposiciones temporales o talleres pedagógicos” (Unsain. 2009: 571). Honekin batera espazio berezi baten erabilera egin zen hamarkadaren hasieran, *Lagun Artean* ontzia ur gaineko ikasgela bezala erabili zuenean museoak. Larraulen ere museoaren ondoko areto bat erreserbatu zen jardura ezberdinak egiteko, eta badirudi bertan burutu izan zirela aldi baterako erakusketa zein bestelako ekintza batzuk. Beste museo guztietan suposa daiteke erakustaretoak, liburutegiak edota diaporamaren proiektio gelak erabiltzen zirela jardura didaktikoak burutzeko, hala nola museoak kokatzen ziren eraikineko beste espazio batzuk: Udaleko beste lokalak, kultur etxeko aretoak eta abar.

3. Baliabide materialak⁴⁶²

⁴⁵⁹ Aquarium. Auñamendi Eusko Entziklopedia. In <http://www.euskomedia.org/aunamendi/101178/136871?&idi=eu> (2015ko ekainaren 3an ikusia).

⁴⁶⁰ Ingurugiro Etxearen historia laburra. Ilea

⁴⁶¹ “Zumalakarregi Museoa. Proyecto de gestión. Abril-diciembre 1993”. ZMA. 1993ko kutxa. 8 or.

⁴⁶² Baliabide material informatiboen baitan ez dira kontutan hartzen museografiaren parte diren elementuak (kartelak, diaporamak, eta abar), baizik jarudera didaktikoak burutzeko erabilgarriak izan zitezkeenak eta erakusketatik at sortutakoak, museoan zein kanpoan erabiltzekoak.

3.1. Informatiboak

Museoek sortutako material informatiboak oinarritzkoak izan ziren museo gehienetan. Formatu ezberdineko eskuorri, koaderno, triptiko eta beste hainbat motako paperezko euskarriak erabili ziren 90ko hamarkadan. Hauetako gehienetan oinarritzko informazioa eskaintzen zen – ordutegia, kokapena, prezioa – baina beste zenbait museoek ere programa ezberdinen berri ematen zuten. Museoko gidak argitaratzea aurreko hamarkadetan zenbaitekin egin bazuten ere, geroz eta ohikoagoa bihurtuko zen museoko planoak eta oinarritzko eduki batzuk agertzeko honelakoak argitaratzea. Aldi bateko erakusketei lotutako eskuorriak ere sortu izan zituzten museo batzuk – San Telmo, Photomuseum, Zumalakarregi edota Untzi Museoak adibidez – non edukien transmisio idatziak ere bisita burutzeko elementu erabilgarria suposatu zuen.

Museoko jardueren berri ematen zuten buletinak ere argitaratu zituen Zumalakarregi Museoak⁴⁶³, eta katalogo zein bestelako ikerketa argitalpenak ere egin zituzten. Aipagarriak dira horien artean Zumalakarregi Museoaren “Azterketa historikoak”⁴⁶⁴ eta Untzi Museoaren “Itsas Memoria”; baita Photomuseumek sortutako argitalpen propioak ere: *Archivos de Fotografía*, *Photo-Album*, *Photocarnet*, *Photo-pocket* eta *Postales Bilduma*, besteak beste⁴⁶⁵.

3.2. Lan fitxak eta koadernoak

Lanerako sortutako material gehiena ikasleei zuzendutakoa izan zen: Fitxa eta koadernoak museoak bisitan zehar erabiltzekoak zein eskolan bertan lantzeko sortu ziren, askotan irakaslearen informazio txosten batez laguntzen zirenak. Honek aldaketa nabaria suposatu zuen: museoak esperientzia ez zen bisita hutsean geratzen; eduki eta gaiaren inguruko lanketa beste eremu batzuetara luzatzen zen, eta aurre prestakuntza zein ondorengo hausnarketa fasea ezinbestekoa bilakatu zen. Hala ere koadernoak eta fitxak gehienek *galdera-erantzuna* formatua jarraitzen zuten eta eskolako metodologia tradizionalaren antza handia zuten.

San Telmo museoan erakusketa iraunkorrari lotutako zenbait koaderno argitaratu ziren hamarkadaren hasieran, lau bloke ezberdinetan banaturik: Etnografia, pintura, eraikina eta Serten mihiseak⁴⁶⁶. Honetaz gain aldi baterako erakusketei zein beste gai zehatzagoi lotutako fitxak ere sortzen joan ziren urteetan zehar, beharren arabera eta jarraipen finkorik izan gabe⁴⁶⁷. Gorrotxategi Museoan “Tolosa Goxoa” programari lotutako lehen lan koadernoak garatu ziren eta hauek ere ikasleentzat prestatuak ziren⁴⁶⁸. Pagoetan 1991 Agorregi eta erroterei buruzko liburuxka bat osatu zuten OHO eta BBB mailako ikasleentzat⁴⁶⁹ eta urte batzuk beranduago ikasleentzako gidaliburu hori maila gehiagotara zabaltzen joan zen⁴⁷⁰, pixkanaka programa mota bakoitzari egokitzen zitzaien material didaktikoa osatuz. Azpeitiako Umeen Museoan/ Ingurugiro Etxean ere koadernoak osaketarako lan ugaria egin zen lehen urteetan. Horrela, 90ko hamarkadaren hasieran jada OHOk ziklo guztiei zuzendutako koadernoak kaleratu zituzten, museoak zituen zientzia arlo ezberdinekin erlazionatuta⁴⁷¹. Urretxun ere aipatzen zenez “la visita resulta mucho más provechosa si previamente se trabaja el tema dentro del aula. Para ello se remite a los centros información detallada de los contenidos del museo y de las actividades que se pueden realizar en él [...] y una

⁴⁶³ “Puesta en marcha del museo 1990”. GFAAA. Sig: Rekalde 7581/7.

⁴⁶⁴ “Rueda de prensa. Diputación 9 de octubre de 1990”. ZMA. 1990ko kutxa.

⁴⁶⁵ Photomuseumeko argitalpenak. PA.

⁴⁶⁶ *Urteko memoriak*. STMA. Sig: 57/27

⁴⁶⁷ Museoko pinturaren inguruan sortu zuten “Cómo me ves?- Zer moduko itxura dut”; baita “Komikiak 100” erakusketari lotutako koaderno pedagogiko berezi bat; eta haurrentzat prestatutako ariketa bat museoak bildumako animaliei loturik, “Museoa zoologiko ez izan arren...animaliez beteta dago/ El museo no es un zoológico...pero está lleno de animales” non mapa baten bidez animalia ezberdinak deskubritu ahal zituzten umeei. STMA. Sig: 298/3.

⁴⁶⁸ “Gorrotxategi 1996”. GFAAA. Sig: Akobe 1776/3.

⁴⁶⁹ “Visitas ferrería de Agorregui. Enara. 1991”. GFAAA. Sig: Akobe 9445/1.

⁴⁷⁰ Hileko memoriak. Enara C.B. GFAAA. Sig: Akobe 12806/4.

⁴⁷¹ Umeen museoak koaderno didaktikoak. E.A.E.H.A.A.N. Sig: E-329-2.



copia de la ficha que los alumnos debrán rellenar al final de cada visita⁴⁷². Eta Beasainen eskolei zuzendutako Igartzako programaren baliabide guztien artean *galdera-erantzunak* oinarri zituzten fitxa didaktiko batzuk egin ziren⁴⁷³.

22. irud: Urretxuko mineral eta fosilen museoko gidak (Urrelur/ Urretxuko Udala. K.S.)



Taldeentzako sortutako material hauek eguneratzearen beharraz hitz egiten zuten Eskoriatzako Museo-Eskolan: “Como resultado de varios años de trabajo el Museo ha generado diversos materiales pedagógicos que ofrecemos a los grupos que nos visitan fotocopiándolos pero pensamos que debido al tiempo transcurrido todos ellos han de ser revisados y adecuados a las nuevas directrices con las que trabaja la escuela”⁴⁷⁴.

Zumalakarregi⁴⁷⁵ eta Untzi Museoa⁴⁷⁶ ere hasieratik irakasleentzako dossierrak prestatu ziren, hala nola ikasleentzako lan koadernoak, bisitaren aurretik eta ondoren lantzekoak. Hauek ibilbide edo programa bat gehitu heinean sortzen joan ziren, taldeak egindako bisita motaren arabera eskaintzen zitzaizkielarik hauetako bakoitza. Aldi berean, beste museoetan gertatzen zen bezala, eguneratuz joan ziren hezkuntza sistemako aldaketei zein garai berriko beharrei era egokian erantzuteko.

3.3. Grafikoa eta ikus-entzunezkoak

Fitxa eta lan koadernoetan ohikoak izan ziren dokumentu iturri originalen kopiak txertatzea edota irudiak. Baina ikus-entzunezko material gehigarria oso eskasa izan zen oraindik ere. Urretxun taldeentzako baliagarriak izan zitezkeen koaderno didaktikoez gain “También se les adjunta un vídeo explicativo de lo que es el museo”⁴⁷⁷; Azpeitiko Umeen Museoa ere esperimenduak agertzen zituen bideo bat eskaintzen zen 1996-1997 ikasturtean⁴⁷⁸ eta Igartzan Beasaingo eskoletara bideratu zen proiektuaren baitan bideo batzuk egin ziren 1999an⁴⁷⁹.

3.4. Esperimentala

Ordura arte existitzen ziren material didaktiko gehienetan dokumentu idatziak eta paperezko formatuak nagusitu ziren. Pixkanaka, eta hezkuntza formalak eskaintzen zituen metodo eta tresnetatik aldendu nahian zein metodologia aktiboarekin bat eginez, beste era bateko materialak sortzen joan ziren. Horietan protagonismo

⁴⁷² “Memoria actividades museo 1993”. U.U.A. Sig:2.8. 1. Kutxa.

⁴⁷³ “Programa didaktikoa Igartzako (ikasleentzako materiala) 1999”. B.U.A. Sig: 777-01.

⁴⁷⁴ “Solicitud de ayuda económica para el ejercicio 1995. Eskoriatzako Museo Eskola”. E.U.A. Sig: 321/7. 1 or.

⁴⁷⁵ “Rueda de prensa. Diputación 9 de octubre de 1990”. Z.M.A. 1990ko kutxa.

⁴⁷⁶ “Memoria e la gestión del Untzi Museoa-Museo Naval de Donostia (29 de julio 1990- 29 de julio 1991)”. G.F.A.A.A. Sig: Akobe 9445/4.

⁴⁷⁷ “Memoria actividades museo 1993”. U.U.A. Sig:2.8. 1. Kutxa.

⁴⁷⁸ “Memoria final curso 96-97”. I.E.A.

⁴⁷⁹ *Ibai errotak, Burdinola, Erdi Aroa, San Martin eta Igartzako gaiein ingurugoko VHS bideoak*. B.U.A. Sig: 777.

berezia izan zuten maleta didaktikoak: “La principal ventaja del formato de maleta es que puede y debe poner en manos de los alumnos las herramientas para que ellos mismos planteen problemas, formulen hipótesis, se documenten y utilicen las fuentes, emitan juicios y los comprueben” (Armengol, 2000: 106).

Gipuzkoan Zumalakarregi Museoa izan zen material hauek sortu zituen lehen museoa. 1990tik hasita handitzen joan ziren maleta edo Kit-ak, *Zumakit* deituak museoan. Hauek ez ziren soilik ikastetxeei zuzendutako materialak, baita kulturune edota beste edozein elkarterentzat eskuragarri zeuden. Izan ere “es un soporte de difusión que facilita la captación de un público potencial y a su vez da a conocer la existencia del propio museo”⁴⁸⁰. Hamarkadaren lehen erdian hiru *Zumakit* sortu zituzten: XIX.mendeko janzkerari buruz, garraiobide eta komunikazioena eta Euskal Herria XIX.mendean gaitzat hartzen zuena. Maleta horietan tresna ezberdinak erabilgarri zeuden: jantziak, testuak, mapak, irudiak, eta abar (Alberdi, 2008). Dirudenez Untzi Museoak ere hasieratik sortu zuen honelako tresna bat: “un Servicio de Educación que atiende a la amplia diversidad de públicos [...] mediante la preparación previa de las visitas, contando con cuadernos y maletas pedagógicas” (Unsain, 2008: 575). Hirugarren museo batek ere sortu zituen maleta didaktikoak: Urretxuko Mineral eta Fosilenak. 1996an aurkeztu ziren maleta hauetan koaderno didaktikoak, azalpen orriak eta mineral eta fosilak gordetzen ziren, ikasleei hauek erabiltzeko aukera emanaz bai museoan bertan zein kanpoan⁴⁸¹.



23 irud: Urretxuko mineral eta fosilen museoko maleta didaktikoa (Urretxuko Museoa / Urretxuko Udala K.S.)




⁴⁸⁰ “Zumalakarregi Museoa 1993”. Z.M.A. 1993ko kutxa. 7 or.

⁴⁸¹ Maleta didaktikoak. Urretxuko Udala K.S.

Maleta didaktikoez gain, bisitarien esperimentazioan eta parte-hartzean oinarritutako materialak ere sortu zituzten museo batzuk. Zumalakarregi Museoan sortu zen Lantegi edo tailer gelan etengabe berritzen eta gehitzen zihoazen puzzleak, maketak, jolasak eta beste hainbat tresna sortu zituzten⁴⁸².

Mahai jolasak museoaren edukiak lantzeko baliabide egokia izan zitekeela pentsatuz ere zenbait museoak honelakoak sortu zituzten: Untzi Museoan Elcanoren erakusketari loturiko mahai joko bat sortu zen; Beasainen Antzar jolaserako bi formatu sortu ziren, bata handia museoan erabiltzeko eta bestea formatu txikian, eskola eta kultu-guneetan erabiltzekoa; eta Azpeitiko Umeen Museoan ere ingurugiro gaia lantzeko modu berriak planteatu zituzten, hizki zopa eta bestelako denbora-pasa zein Oka jolaserako tablero baten bidez⁴⁸³.


24. irud: "Loi" pertsonaiaren errekortable koadernoak (Beasaingo Udala)



⁴⁸² 1993ko dokumentazioa. Z.M.A. 1993ko kutxa.

⁴⁸³ "Memoria curso 1993-1994". EAEHAAN. Sig: 26/E-329-2.

GIPUZKOAKO MUSEOAK. 1990- 2000



Bosgarren atala: 2000-2014

I. XXI. MENDEKO MUSEOAK

Guggenheim efektuaren distirak itsututa

1997an inauguratutako museoaren eragina urte gutxiren buruan nabarmendu bazen ere, esan daiteke bere efektuak 2000. urtetik aurrera mailarik gorena lortu zuela eta egitasmo kultural orok hartu zuen ereduak izan zela. Alde batetik, museoaren irekierak eskualdeko garapen ekonomikoa sustatzeko tresna izango zela pentsatzen zelako – Bilbon gertatu zen moduan – eta beste alde batetik, turismo kulturala deiturikoaren indarra antzemanda, horrek ere herri edo hiriaren izenari bestelako kutsu bat eman eta aisialdi garaiak espazio hauetan igaro nahi zituztenen etorrera masiboak sustatuko zituelako.

Izan ere, XXI. mendeko museoak kontzeptu berrien baitan mugitzen ziren: XIX. mendeko instituzio tradizional eta elitistatik 70 eta 80ko hamarkadak museo demokratikora pasa bazen, oraingoan museoa aisialdiko ikuskizun deigarrietara gehiago hurbilduz joan zen. Estebanek (2007) aipatzen zuenez, Guggenheim Fundazioaren zuzendaria zen Thomas Krensek “definía el museo del siglo XXI como una especie de parque temático capaz de ofrecer un “divertimiento sofisticado” para turistas y ociosos de fin de semana” (9). Garai honetan aditu gehienek defendatu zuten, “(que) “el museo se encuentra cada vez más próximo a la conversión en un gran supermercado de la cultura, un templo de ocio moderno al que [...] (se) acude en peregrinación masiva a la caza de experiencias culturales” (Álvarez eta Benjumea, 2011: 32). Oro har, masa horren interes berriei erantzuteko ondarea ulargarria eta eskuragarria bihurtu zen, askotan museo beraren funtzio nagusiak difuminatuta geratzen zirelarik (Antonella, Asensio, Pol, Real, Gomis, Llera, Fernández, González, Oliveira, Simón, Polo eta de los Ángeles, 1998).

Ez dadila inor geratu museorik gabe

Museoek ekarri ahal zituzten onura guzti horiek itsututa, 2000. urtetik aurrera museo, interpretazio zentro, erakusketa iraunkor, ondaregune eta parke kultural infinituen irekiera eman zen. Itsuen moduan aritu ziren garai honetako udal eta gobernuetako ordezkari asko, herri bakoitzean museo bat ez irekitzeak dekadentzia etorkizun baten betierekotasunera bultzatuko zituela pentsatuta: museoak arazo guztien irtenbide bilakatu ziren – edo hala uste izan zen –. Horrela, Arrietak (2003) aipatzen zuen moduan,

“todo municipio, sea éste grande, mediano o pequeño, se quiere disponer de un museo o alguna infraestructura patrimonial, como mínimo. Una de las lógicas, sino la única, que está dirigiendo en muchos casos estas infraestructuras es la siguiente: crear, activar o poner en valor esas infraestructuras patrimoniales para atraer el turismo y por consiguiente impulsar o favorecer el desarrollo social y económico local” (111)

Non galdu da hezkuntza?

Museoen irekiera masiboarekin, kasu askotan, instituzioaren inguruko banalizazio bat eman zen eta aisialdirako ekipamenduen sorreren baitan kutsu eta ospe goi mailakoa eskaintzen aha zuelako soilik jasotzen zuela museo izena; horrek ekarri zuen “(que) incluso en los museos periféricos alejados de las grandes ciudades o circuitos de oportunidad, se atiende a implantar la *disneyficación* para un turismo cultural de calidad.” (Aramburu: 2012).

Ondarearen inguruko neurri berriei batera, zein garapen ekonomikoaren protagonista bihurtzearekin, turismoak ere paper garrantzitsua jokatu zuen urte hauetan. Aurreko hamarkadatik aurrera gauzatzen hasiak ziren planetatik abiatuz garapen agentzi eta turismo bulegoen biderkatzea eman zen, hauen ekimen berrien baitan, noski, museoak ere parte zirelarik. Horrek eragin zuen zenbait museoren kasutan zirkuitu turistiko baten barruan murgildu eta museoaren jatorrizko funtzioak alderatuta geratzea: bildumarekin edo erakusketarekin erlazioz gertatutako ekintza oro produktu turistiko bihurtu zen, ondarearen kontserbazioa, ikerketa, hezkuntza eta difusioa alderatuta geraturik..



Izan ere, “el afán por obtener rendimientos en ocasiones choca con la misión educativa del museo. Este es precisamente el aspecto que los teóricos de la museología crítica saca a relucir cuando ataca la relación del consumo con los museos sin detrimento de la función educativa” (Castellanos, 2008: 83).

Garaiko komunikabideei begiratu gero, etengabeko erreferentziak agertzen hasi ziren museoetako bisitari zifren eta hauen arrakastaren inguruan: 2008an KutxaEspaziok – egun Eureka Zientzia Museoak – milioigarren bisitaria jaso zuenean esan zen horrek museoaren edukien berrikuntzaren arrakasta adierazten zuela⁴⁸⁴; Aquariumaren obra fase bati ekin aurretik, aldizkari batek bi orri oso dedikatu zizkion jasotzen zituen bisitari datuen azterketa eta hauen dinamikaren arrazoiak azalpenari; hezkuntza arloko aipamenak honetara mugatu ziren: “Otras actividades. La oferta incluye dormir con peces (para niños) o talleres. También suele haber exposiciones temporales”⁴⁸⁵.

Eta azkenik, zenbait aldizkarik jarduera didaktikoen programa osatu baten aurrean jasotako bisitari kopuru baxuak museoaren porrota adierazten zuela zabaldu zuten, gizartearen parte handi batengan iritzi berdina zabalduz:

“ Los principales museos de Guipúzcoa abren el nuevo curso con la intención de superarse. El 2005 ha sido un año intenso en actividades: exposiciones, conferencias, mesas redondas, conciertos, visitas guiadas, pero sin embargo, la afluencia de público ha descendido. En algunos casos, las visitas han caído considerablemente, dejando patente un menor grado de interés del público. Sin embargo, tienen ante sí un nuevo reto, recuperar el espacio perdido”⁴⁸⁶

Horrela, komunikabideek elikatutako iritzi orokor baten baitan, eta finantzazioa euren esku zuten eragileen bitartez, instituzio askok presio handiak jasan zituzten programa didaktiko egonkor eta egoki baten aurrean bisitarien erakartze masiboa eragingo zuten jarduerak; ezin dugu ezeztatu “(que) la mayoría de nuestros museos muestran un creciente interés por los visitantes, por los programas educativos, pero a menudo, siguen situándose en una vertiente cuantitativa y de consumo, más que en una vertiente cualitativa, problematizador, crítico y dialógico” (Padró, 2006:70).

Arnasa hartzeko geldialdia

Megamuseoen itzalpean jaio edo biziraun zuten museo askok ordea instituzioaren funtzio nagusiari eta ideiei jarraiki lan egin zuten, ildo merkantilista horretatik aldentzen ziren proposamenak eginaz eta benetan interesgarriak izan ziren proiektu askoren egonkortze garai bati hasiera emanaz. Esan daiteke, museoek oreka bat bilatzea lortu zutela: publikoari ireki eta bisitariak erakartzeko jarduerak planteatzeaz gain, fundamentatutako teoria eta ikerketen baitan gauzatu zituztelako hauek, profesional lantalde bati esker zein baliabide material eta espazial egoki batzuetan oinarrituz ildo finko bat jarraitu zutenak.

Hausnarketa garaia

2000-2014 urteetan sortutako egitasmo guzti hauen harira, eta oraindik ere guztiz eten ez den zurrumbilo batean murgildurik, museoetako profesionalak – ez soilik museoak – hauen inguruan hausnartzeko tarteak hartu zituzten. Alde batetik, lantalde geroz eta profesionalizatuagoak eratu ziren, horretarako trebakuntza egoki batek berebiziko indarra izan zuelarik. Bestalde, elkartu eta eztabaidatzeko espazioak sortu ziren, ikastaro, jardunaldi eta topaketen bitartez kezka agertzeko aukera ezin hobea zirela sinisturik, eta bide batez etorkizuneko elkarlan eta proiektu berrien haziak bertan ereingo zirela kontuan izanik.

⁴⁸⁴ Ares, F.; Martínez, A. (2010). “Historia de Zientziaren Kutxagunea”. Añamendi Eusko Entziklopedia. In <http://www.euskomedia.org/aunamendi/152190> (2015ko martxoaren 14an ikusia)

⁴⁸⁵ Reizabal, M. (2014. Abuztuak 10). Este tiburón se podría zampar hasta a mi aita”. *El Diario Vasco*. 14-15.

⁴⁸⁶ Larrumbide, G. (2006, urtarrilak 16). “Los museos pierden visitas”. *El Diario Vasco*. In <http://www.diariovasco.com/pg060116/prensa/noticias/Cultura/200601/16/DVA-CUL-046.html> (2015 otsailaren 4an ikusia).



Horrekin batera, existitzen ziren espazio askoren inguruko eztabaida berriak ere piztu dira: “tras el efecto Guggenheim, los políticos, con pocos conocimientos sobre museología, han tirado de ellos sin tener un plan predefinido. Ahora, en tiempos de crisis y después de darles bombo, se preguntan si son o no necesarios (Arrieta, 2012: 53). Ondorioz, museo askok etorkizun desegonkor bati aurre egin behar izan diote, ikusiko dugun bezala, ekipamenduen itxiera beste irtenbiderik aurkitu delarik.

Kaosaren ordena

Espainiar Estatuan museoak antolatzeke edota sailkatzeke ahaleginak ugariak izan ez diren arren, zenbait katalogo eta txosten burutu ziren 50 eta 70ko hamarkaden bitartean. Demokraziaren iristearekin batera sortutako sail berriak zein autonomi erkidegoek jaso zituzten eskumen berrien baitan, lurraldean existitzen zenaren azterketa bat beharrezkotzat jo zen; ez soilik museoen arloan baizik beste esparru guztietan ere. Egoeraren analisi hau ikuspuntu oso desberdinetatik egin zen, orokorrean museoen bilduma motaren araberrako sailkapenak edota lurraldearen araberrako taldekatzeak egin zirelarik. Gainera, oso irizpide ezberdinak jarraitu ziren instituzio eta gobernu bakoitzaren aldetik, horrek egoeraren ikuspegi bateratua eta finkoa egotea oztopatzen zuelarik. Datuen bilketan eta estatistiken osaketan Espainiako Gobernuaren datuak, EJKoak eta GFekoak oso desberdinak izatea suposatzen du⁴⁸⁷.

Espainiako Gobernu eta estatistikak

Espainiako Gobernuaren Kultura Ministerioaren barruan Museoen sekzioa aurkitzen dugu. Bertan, Estatuko Museoak kudeatu eta koordinatzeaz gain, beste museoen inguruko oinarritzko informazioa ere eskaintzen da. Sail honen baitan, gainera, Espainiako Museoen zerrenda bat ere eskaintzen da, “(que) recoge los museos y colecciones museográficas que están oficialmente reconocidos por las Comunidades Autónomas en las que se encuentran, según su legislación vigente, su definición de museo o colección museográfica y los requisitos que cada institución debe cumplir para ello”⁴⁸⁸. 2000tik aurrera Espainiako Museo eta Bildumen Estatistika txostenak argitaratu ziren⁴⁸⁹, bi urtean behin, autonomi erkidegoen datuak eskainiz⁴⁹⁰, egun Gipuzkoako Lurralde Historikoaren dagokionez 32 museo soilik agertzen direlarik. Hauetan, ordea, museo hauen ekintzei buruzko aipamenik ez da eskaintzen eta publiko datuetan oinarritzen ditu bertatik burutzen diren ekimen guztiak.

Eusko Jaurlaritza. Euskadiko Museo eta Bildumak

Eusko Jaurlaritzak, Museoen Zentroa deituriko atala du Kultura Ondarearen Sailaren barnean. Bertatik ere EAEko museoak ordenatu eta koordinatzeko zenbait ekintza burutu ziren 2000tik aurrera⁴⁹¹, horien artean nagusia Museoen Legea⁴⁹² izanik. 2011an, Euskadiko Museo edo Bildumen Erregistroaren antolamenduari buruzko dekretua kaleratu zen, zeinaren bidez Euskadiko Bilduma edo Euskadiko Museo izateko aitortpena arautzen zen⁴⁹³. Horrekin batera, 2004 urtetik aurrera, Euskadiko Museo eta bildumen estatistika txostenak argitaratu ziren, non museoen tipologia, azpiegitura motak, irisgarritasuna, bisitariak eta jarduera zein argitalpenen inguruko azterketa laburrak egiten ziren.

⁴⁸⁷ Ikerteta honek ordea, hasieran aipatu dugun bezala, GFaren sailkapen eta irizpideak jarraitu ditu.

⁴⁸⁸ Ministerio de Cultura. <http://directoriomuseos.mcu.es/dirmuseos/eldirectorio.jsp> (2015ko ekainaren 25an ikusia)

⁴⁸⁹ In <http://www.mecd.gob.es/servicios-al-ciudadano-mecd/estadisticas/cultura/mc/em/portada.html> (2015ko ekainaren 25an ikusia)

⁴⁹⁰ Lurralde Historikoen datuak banatuta agertzen ez direnez, ezinezkoa zaigu konparaketa bat ezartzea eta datuen analisisa burutzea beste gobernu eta instituzioek kaleratutakoekin alderatuz.

⁴⁹¹ Aurretik egoeraren azterketarako zenbait galdeketa eta txosten ere kaleratu ziren.

⁴⁹² 7/2006 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskadiko Museoei buruzkoa.

⁴⁹³ Kasu honetan museoen esku geratzen zen bertako zerrendan inskribatzeko tramite guztiak burutzea; horrek eragin zuen – eta oraindik ere hala izaten jarraitzen du – aitortpena lortzeko prozesua jarraitu ez duten museoek desagerpena EJK burututako ikerteta eta zerrenden baitan.



Gipuzkoako Foru Aldundia: Gipuzkoako Museoak

80 eta 90ko hamarkadetan zehar GFAko Museoen sailean egindako azterketak ugariak izan ziren, lurralde historikoko museoen mapa ordenatu eta koordinatzeko esfortzuak etengabekoak izanik. Baina azken urteotako ekimen eraginkorrenetakoa *Gipuzkoako Lurralde Historikoko Museoak Antolatzeke Plana* izan da, 2009ko abenduan GFAk kaleratu zuena. Horren baitan egin ziren ekipamendu guztien azterketak eta Gipuzkoako Museoen sarea sortu zen. Lehen pausoa guztiak biltzen zituen espazio bat sortzearena izan zen, *Gipuzkoako Museoak* web orriaren bitartez; gerora San Telmo Museoa ere “museoen museo” izendatua, lurralde osoko beste museo guztien ardatz bezala funtzionatu zuen zenbait hilabetez, informazio zerbitzua eskainiz eta difusio lanei ekinez. Gaur egun, plan honen baitan ekimen eta proposamen ezberdinei jarraipena ematen ari zaio, markatutako ildoak eta helburuak lortzeko asmoz.



24. irud: Gipuzkoako Museoak web ataria; Gipuzkoako Lurralde Historikoko Museoen Antolaketa Plana (2009); Gipuzkoako Museoen difusio koadernoak



II. GIPUZKOAKO MUSEOEN BOOM-A

Gipuzkoako lurralde historikoak 2000. urtetik aurrera bizi izan zuen museoaren irekieraren eztanda agerikoa da: 1902tik 1999ra bitartean existitzen ziren 27 museoaren aurrean 2000-2014an inauguratutako 40 museoekin aldea agertzen zuten, ia mende oso batean garatutako proiektuak hamarkada eta erdi batean bikoiztu zirelarik. Egoera hau, dudarik gabe, politika kultural berri baten eta museoaren instituzioaren kontzepzioaren aldaketan adierazle zen – aurreko atalean ikusi dugun arrazoen baitan – eta honek ezinbestean eragin zuen museoetatik proposatu ziren jardueretan, lantaldeetan eta sortutako tresna eta baliabideetan. Garai oparoak ekarritako *boom*-ak ondorengo urteetan garatu ziren proiektu interesgarri askoren jaiotza ekarri zuen, era eraginkorrean gauzatutako programa interesgarri eta erakargarrietan oinarrituta eta askotan Euskal Herri zen Estatu mailan erreferente bilakatuz. Baina mende berriko museo batzuen egoerak ordea iniziatiba hauen *B aldea erakutsi zuten; zurrumbilo* kultural, turistiko eta ekonomikoaren baitan murgildu eta erritmoa jarraitu ezin zuten museo askok bi bide jarraitu zuten: mugimendurik gabeko instituzio egonkor eta estankoa bilakatu zirenak, aldizkako irekierak eta inongo dinamizak agertu gabe; edo museoa ixtea beste irtenbiderik aurkitu ez zutenak.

Museo zaharrak

1. San Telmo Museoa

San Telmoko proiektu berria aurrera eramateko aldaketak jarraituak izan ziren hamarkada berrian ere; instituzio ezberdinen diru-laguntza eta inbertsioen norabideak mugituz joan ziren eta honek “supuso que el proyecto del Museo para la Cultura Vasca desapareciera del mapa cultural donostiarra y vasco” (Arrieta, 2012b: 44). Plangintzaren baitan ere zenbait aldaketa eman ziren, proiektuaren arduradunek txosten ezberdinak idatzi eta aurkeztu behar izan zituztelarik, 2002an Udaleko alderdi guztiek onarpena eman zuten arte. Instituzioen arteko desadostasunek zenbait urte iraun bazuten ere, azkenean 2006an proiektu museografikoa eta arkitekturakoa lehiaketara atera ondoren San Telmo berria martxan jartzeko prest ziren. 2007an itxi zen guztiz eta obrek lau urte iraun zuten.

Bitarte horretan museoko lantaldeek funtzionamenduan jarraitu zuen, eta jardura didaktikoen inguruko programazioa ez zen eten. Are gehiago, 2005tik aurrera⁴⁹⁴ hezkuntza arloak bultzada indartsua jasan zuen eta proiektu berriek bestelako bide bat ireki zuten San Telmo Museoarentzat. Urte horietako esfortzuek jarraipena izan zuen 2007az geroztik ere: jardura didaktikoak antolatzen jarraitu ziren hiriko beste espazioak erabiliz⁴⁹⁵, hala nola, museotik at zeuden beste eragile eta egitasmo batzuen parte bilakatuz – *Hiri Hezitzailea*, giza eskubideei lotutako programak eta beste hainbat –. Tarte horrek ere arnasaldi garai bat ekarri zuen, eta etorkizuneko museo berriaren ildoak, eskaintza eta lanen inguruko hausnarketa garai bat eskaini zion San Telmo Museoko lantaldeari, urte gutxiren buruan irekiko zen museoaren aurre lan guztiak burutuz.

Honela, 2011ko martxoaren 28an inauguratu zen museo berria, Euskal Gizartearen museo bezala ongietorria egin zitzaizlarik. Arkitekturaren baitan emandako aldaketek – eraikinaren birgaitzea eta atxikitako fatxada berria,

⁴⁹⁴ Nahiz eta 2002tik “Plan de reactivación del Museo” martxan jarria zen, benetako bultzada 2005tik aurrerako programazio eta eskaintzan nabarmendu zen jardura didaktikoei dagokienez eta hau indartsu egin zen museo berriaren irekierarekin, urteko memoriek agertzen diguten moduan. STMA.

⁴⁹⁵ “Actividades pedagógicas 2007-2008”. STMA. Sig: AC_51.



zerbitzuetarako espazioak, bulegoak eta abar – museoarentzat garai berri bat suposatu bazuten, hezkuntza arloan ere berdina gertatu zela esan daiteke. Garai bateko aldi baterako erakusketa ugari eta monografikoetatik haratago San Telmo Museoak berriak ziren proposamenak eskaini zizkion publikoari, arte eta historiari lotutako jarduera tradizionalagoetatik gizarte baten erakusleho izan nahirik, “como lugar de inspiración y reflexión, abierto a la fantasía y al desarrollo personal, un museo inacabado en permanente evolución” (Aguirre, 2012: 39). Aldi baterako erakusketa interesgarriak antolatzeari ekin zitzaion 2011tik, horri lotutako jarduera didaktikoak ugariak eta erakargarriak izan zirelarik eta batez ere, bestelako museo eta eragileekin elkarlan ekimenak sustaturik. Bertako bildumaren erakusle ez ezik nazioarte mailako ekitaldi ezberdinen egoitza bihurtu zen, hiriko proiektu kultural ezberdinen partehartzaile eta kolaboratzaile nagusi bezala⁴⁹⁶.

2. Victor Hugo Etxea

Victor Hugo Etxeak aurreko urteetan ezarritako turismo bulego bezala irekita jarraitu zuen. 2001an ordean Kutxa eta Oarsoaldea Garapen Agentziak hitzarmena sinatu zuten eta honela Kutxak espazioaren zesia egiten zion funtzio turistiko eta kulturalak betetzeko⁴⁹⁷. Museoaz gain beraz, turismo bulegoa eta aldi baterako erakusketa aretoetan herriko zein zonaldeko ekintza ezberdinak gauzatu eta promozionatzeko ekimena bilakatu zen Victor Hugo Etxea. Urte hauetan gainera museografian aldaketak eman ziren: pieza berriak gehitu eta elementu didaktikoak sortuz joan ziren publiko ezberdinen beharrei erantzuteko.

3. Armagintzaren Museoa

Armagintza Eskolaren bilduma erakusteko espazio eta dinamizazio egokiago bat beharrezkoa zen, ordura arte existitzen zen Armagintza Museoa publiko talde murriztu batentzat soilik irekita egon zelako eta batez ere Eskolako ikasleen trebakuntzara bideratuta. 2000. urtean Eibarko Udalak dohaintzan jaso zuen arma bilduma, Kultura Sailaren ardurapean geratuz. Bilduma jaso ondoen Udalak erakusketa bat antolatu zen, “Armian Animia” izenekoa⁴⁹⁸, eta honek etorkizuneko museo berriari bideak ireki zizkion. 2005an Eibarko Udalak proiektu museografikoa eratu zuen, hala nola dinamizazio planaren txostena⁴⁹⁹.

Eibarren existitzen zen antzinako AYA arma fabrika zaharberrituan – non Udaleko beste zerbitzu batzuk kokatu ziren – Armagintza Museo berria egokitu zen, bosgarren solairuko 1200m² hartuz. Armagintza Eskolako armak, dohaintzak zein pieza gehiagoren eskuratzearekin eratu zen bilduma berria, eta honekin inauguratu zen Armagintza Museoa 2007ko urtarrilaren 18an⁵⁰⁰. Bi fasetan banatu zen espazioren irekiera: lehenengoa, armak gordetzen zituen aretoena eta bigarrena – 2009ko maiatzean ireki zena – industrializazio prozesuari buruzkoa. Museoaren funtzioen artean dokumentazio, kontserbazio eta zaharberritzea eta ikerketaz gain, difusioa ere aipatzen zen ardatzetako bat bezala hasieratik⁵⁰¹.

4. Zuloaga tailer etxea / Z Ignacio Zuloaga Kultur Gunea

⁴⁹⁶ Donostia Kultur Hiriburua 2016, besteak beste.

⁴⁹⁷ “Memoria de actividades del año 2009”. GFAAA. Sig: 5055/2.

⁴⁹⁸ *Armagintza Museoaren historia* [bideoa]. In <http://www.armia-eibar.eus/museoa/museo> (2015ko ekainaren 1an ikusia).

⁴⁹⁹ “Eibar 2005”. GFAAA. Sig: 20731/1.

⁵⁰⁰ “Memoria 2007”. Armagintza Museoa. AMA.

⁵⁰¹ “Eibar 2009”. Museoko memoria. GFAAA. Sig: 5052/6.



Lehen urteetan dinamika bera jarraitu zuen Zuloaga tailer etxeak: aldizkako ekintza solteak eta publikoari zuzentzen zen programazio egonkor baten gabezia. Pentsa daiteke obraren kontserbaziora eta eskaeraren arabera bisitetara mugatuko zela museoaren eskaintza. Baina aldaketa handietan museoaren historian 2012an eman zen: artistaren herederoen artean banatu ziren ondasunen artean museo bera ere aurkitzen zen. Hau jaso zuen familiako kideak izen eta izaera berria eman zion, Zuloaga tailer-etxea izatetik Z Ignacio Zuloaga Kultur Gunea izatera pasaz. Espazio honek “mantiene la esencia del viejo centro expositivo pero enriquecida con una nueva mirada al arte contemporáneo”⁵⁰², artistentzako elkargune eta sormen prozesuen sustatzaile izateko asmoaz jaioa.

5. Aquariuma

Aquarium berriaren irekierak erabateko aldaketa ekarri zuen museo guztira, baina oraindik ere zenbait areto zaharrenen moldaketa eta obrak beharrezkotzat jotzen ziren. Aldi berean, eta eraikineko lehen faseak ekarri zuen bisitarien etorrera masiboak, GOEk zerbitzu berrien eskaintza eta aisialdi kulturalaren panoraman jotzen zuen paperaren inguruan hausnartzea eraman zuen; hori dela eta Fundazio⁵⁰³ bezala eratzea erabaki zuen Elkartek (Sada, 2008), Aquariumaren kudeaketa lanei era eraginkorrarekin ekiteko.

Zenbait urte aurrera eginaz, Aquariumak bigarren pauso garrantzitsu bat eman zuen eta eraikinaren berritze erabatekoari ekin zion. 2005an obren fasearekin hasi eta zenbait urtetan lanean aritu ondoren 2008an inauguratu zen berriz ere, erakusketa areto berrieekin, aurrez eskaintzen ziren zerbitzu batzuen hobekuntzarekin eta lehen museoaren sarrera berri batekin.

6. Urgull Historiaren Etxea

San Telmo Museoaren lantaldeak kudeatzen zuen espazioa izanik, Urgull Historiaren Etxeak taldeentzako eskaintza baten pean funtzionatzen jarraitu zuen, ia San Telmoren espazio osagarri bezala. Hala ere hamarkada berriarekin batera zenbait aldaketa burutu ziren espazioan bertan, erakusketa iraunkor berria ipini zen, “Donostiari begira” eta museografiako elementuen berritzea ere gauzatuz.

Urtean zehar museoak bizitzen zuen dinamika lasaiak guztiz talka egiten zuen udaldietako egoerarekin. Izan ere Urgull mendian existitzen ziren beste udal ekipamendu batzuk uda garaian irekitzen ziren, eta haur zein gazteentzako plan erakargarriak eskaintzen zituzten – Natur Txokoa eta liburutegia – horrek ere Historiaren Etxeko egunerokotasunean eragiten zuen. San Telmo Museoko lantaldeak uda garaietako programazioa osatu eta aurrera eramaten zuen beraz, Donostiako historiari lotutako aktibitate ludikoetan oinarrituz.

7. Julio Beobide tailer-etxea

Tailer-etxearen kudeaketa familiaren esku egonik ere, funtzionamendu berdinarekin mantendu zen. Zumaia Udalarekin zenbait jarduera puntual egin baziren ere ez zuen egonkortasunik lortu ez irekieran ezta eskaintzaren baitan.

⁵⁰² Ezquiaga, M. (2014, maiatzak 7). El Espacio Z de Zumaia hace viable el premio más importante a la creación. *El Diario Vasco*, 46 or.

⁵⁰³ Aurrerantzean GOF (Gipuzkoako Ozeanografia Fundazioa) izenaz aipatuko da Aquariumeko kudeaketaren arduraduna.



8. Mirandaolako Parkea / Lenbur Lurralde Museoa⁵⁰⁴

Mirandaolako Parkearen irekierak eta Lenbur Fundazioaren sorrerak eragin zuen lurralde-museoaren ekimenak geroz eta indar gehiago hartzea eta benetako erreferente bat bihurtzea, ez soilik proiektu kultural arrakastatsu bezala, baita zonalde bateko garapen sostengagarria eta identitate baten eratzerako ardatz bezala. Lenbur Fundazioak, Bikuña Jauregiko egoitzartik koordinatu eta garatzen zituen lurraldeko proiektu ezberdinak: ibilbide gidatuak, museoetako programak eta ikerketa lanak. XXI. mendean zehar Legazpi eta Urretxun sortu ziren espazio berrien bereganatzeak eragin zuen lurralde-museoaren eskumena geroz eta zabalagoa izatea eta horrek, bide batez, burdinaren eta iragan industrialaren lanketa osatu baterako aukerak eskaintzea. Honela lortu zen “un producto turístico auténtico, evitando la «Disneyficación» y utilizando espacios reales, basándose en una rigurosa investigación que favorece la comprensión de ese pasado” (Conde, 2012: 107).

Museoak eta ondareguneak ez ezik, Lenbur Fundazioak Dokumentazio Zentro bat ere sortu zuen, eta industriaren memoria berreskuratzeko ikerketa lan indartsuak burutu zituen: elkarriketak egin, grabatu, liburu eta ikus-entzunezkoak argitaratu eta horiekin lan egiteko materialk egokitua sortuz; eta baita ondare materiala berreskuratuz: makinak, jantziak, eguneroko bizitzako objektu arruntak, eta abar. Legazpiko zein eskualdeko oparotasun garai bati lotutako erakusketa arrunt batetik haratago, Lenbur Fundazioak “Langilearen ibilbidea” deiturikoa sortu zuen: herriko kapera, eskola eta etxebizitza baten eskenatokiak irudikatu zituen, garaiko girotzeak bisitariak iragan industrialaren bizimodu horretan barneratzea eragingo zuelako. Eta guzti hori bestelako ekipamenduetako programa bereziei loturik eratu zen “lanaren kultura” deiturikoa, “actitudes, sistemas, modos de funcionar” (Conde, 2012: 110).

9. Ama Xantalen museoa

Ama Xantaleko ermitan bisita gidatuek aurrera jarraitu zuten lehen urteetan; baina Oiasso Erromatar Museoaren irekierarekin batera ermitako kudeaketa eta bertako jarduerak museo berriaren baitan geratu ziren. Izan ere, Irunen bertan erromatar garaia bi buruzko bi espazio hauen loturak ezartzea ezinbestekoa zen eta Oiassok aukera hobek eskaintzen zituen zerbitzuak, espazioak eta lantaldearen aldetik funtzionamendu egoki bateraturako⁵⁰⁵.

10. Gorrotxategi Konfiteri Museoa

Museoko eskola taldeen bisitak Zuloaga Txiki ingurumen eskolak kudeatu ondoren, hamarkada berriarekin batera bestelako taldeen arreta zerbitzua eta jardueren dinamizazioaren txanda iritsi zen. Tolosaldea Garatzen agentziak herriko erdigunean ezarri zuen bere turismo bulegoa – Tolosaldea Tour izenpean – eta eskualdeko turismo lanez arduratzeaz gain 2005an Gorrotxategi Konfiteri Museoarekin hitzarmena sinatu zuen bertako jarduera didaktikoak ere bere gain hartzeko⁵⁰⁶. Horrela museoa Tolosako eskaintza turistikoaren parte bihurtu zen eta herrian zehar egindako ibilbide gidatuen ataletako bat izatera pasa zen. Gorrotxategi familiaren esku geratu ziren bestelako kudeaketa lanak, difusioa eta zenbait jarduera zehatzen gauzatzea – hitzaldi eta ikastaroak, adibidez – .

⁵⁰⁴ Zaila da Lenbur Lurralde Museoa osatzen duten ekipamendu eta ekintzen azterketa era independentean burutzea, banaezinak diren ekimen baten parte direlako. Horregatik, Mirandaola Parkearen abiapuntutik harturik, atal honetan Lurralde Museoari buruzko sorrera eta kudeaketa lanei buruzko informazioa eskaintzea erabaki da, Lenbur Fundazioak burutzen duen lanak ekipamendu hau izan zuelako lehen museo oinarria. Hala ere, 2005an inauguratuako Euskal Burdinaren Museoak bere gain hartuko zuen Parkeko antolaketa eta harrera zerbitzu osoa, burdinolako bisita gidatuak eta parkeko beste ekintzak honen esku geraturik. Horrekin batera, mende berrian sortzen joan ziren museo berriak ere Lenbur Fundazioaren esku geratu zen eta beraz, aurrerantzean aipatuko diren jarduera berezi eta baliabideen baitan guzti hauei erreferentzia egiten zaiela kontsideratzen da.

⁵⁰⁵ Ikus “Museo berriak” atala.

⁵⁰⁶ “Gorrotxategi konfiteri museoarekin lankidetzat hitzarmena. 2005”. TGA.



11. Eskoriatzako Museo-Eskola / Etnografia Museoa / Ibarraundi Museoa

Eskoriatzako museoak funtzionamenduan jarraitu zuen aurreko urteetan bezala, baina geroz eta dibertsifikatuagoa zegoen funtzio bat betetzen zuen. Erakusketa iraunkorrari lotutako ekintzez gain, oraingoan herriko kultur jarduera zein bestelako hezkuntza aktibitateei loturik zeuden ardurak bereganatu zituen museoak lantaldeak⁵⁰⁷. Horien artean 2004ko urrian Eskoriatzako ikastetxeek eta Udalak *Eskolako Agenda 21*aren hitzarmena sinatu zuten, programaren koordinazio eta gauzatzearen ardura Museoaren esku geratu zelarik⁵⁰⁸. Honek museoaren jatorrizko izaeratik aldentze bat suposatu zuen eta etorkizuneko museo berriak beteko zituen funtzioen dibertsifikatzearen adierazle zen. Eskoriatzako eta eskualdeko historiaren azalpenetik abiatu zen espazioa laster bihurtuko zen herriko kultur ekintzen bideratzailea.

Aldaketa horretan erabakigarria izan zen Eskoriatzako Udalak XVI.mendekoa zen Ibarraundi jauregia erosi izana, herriko funtzio ezberdinak beteko zituen espazio bat egokitzeko asmoz. Horien artean, eta Hidalgo kaleko lokala txikiegia geratu zela ikusirik, museoak ere bere lekua izango zuen. Eraikina zaharberritzeko obrekin batera lanean hasi ziren "(para) la redacción de un proyecto museográfico que permita presentar los contenidos de una manera didáctica y atractiva"⁵⁰⁹ eta azkenik, 2005ko ekainaren 27an Ibarraundi Museoa inauguratu zen.



25. irud: Ibarraundi Museoko areto bat (Ibarraundi Museoa)

Museoan aldi baterako erakusketa programa bat garatu zen hasieratik, herriko zein eskualdeko gizarte eta kultura eragile ezberdinekin ere elkarlanean arituta⁵¹⁰, "Eskoriatzako ondarearen sustapenak mantendu beharreko oreka eta [...] nolabaiteko balio aniztasun mailari (eutsita) [...] pertsonen eta aktibitateen arteko interakzioa posible egiteko, baliabideen optimizazio eta arrazionaltasuna lortzeko"⁵¹¹. Ibarraundi Museoaren baitan gainera Eskoriatzako beste espazio baten kudeaketa geratu zen: Zubiate Labea, jauregitik oso gertu kokatzen zen ondaregune eta zeramika museoa.

12. Pagoetako Parkea/ Iturran Parketxea

⁵⁰⁷ Beste hainbat museotan gertatu zen bezala, museoa ez da soilik eraikinean eta bilduma oinarri izanik lan egingo duen instituzioa, baizik lurraldearekin lotura duen edozein jardura kulturalaren gune bilakatuz joango dena.

⁵⁰⁸ "Eskoriatza 2005". GFAAA.A. Sig: 20734/2. 19 or.

⁵⁰⁹ "Propuesta de abono de la subvención concedida al Ayuntamiento de Eskoriatza". GFA. GFAAA. Sig: 28791/1.

⁵¹⁰ "Eskoriatza 2005". GFAAA. Sig: 20734/2. 19 or.

⁵¹¹ "Eskoriatza 2005". GFAAA. Sig: 20734/2. 6 or.

Urteetan zehar Iturraran, Agorregiko multzoa eta Sagastizabal Natura Eskolaren kudeaketa independenteki aurrera eramanez, mende berriak ekarri zuen espazio guztien bateratzea eta aldi bereko funtzionamendu bati ekiteak. Horrela, hezkuntza jarduerak Natura Parkeko baliabide eta espazio osoak gain hartuta garatu ziren eta Pagoetako irudi bihurtu ziren ekintza ugari eramanez aurrera. 2009an, GPS Fundazioaren sorrerarekin⁵¹² batera, Iturrarango harrera gunea Parketxea bilakatu zen eta Pagoetako ekintza guztietarako kudeaketa bertatik zuzendu zen. Natura Parkeak ordura arte eskaini zituen jarduera didaktikoekin aurrera egin zuen, urteek emandako esperientziak berebiziko eragina zuelarik kudeaketaren eta egunerokotasuneko funtzionamenduaren erritmo egokian. Eskola taldeen bisita eskaerak etengabekoak izaten jarraitu zuten irekiera urtetik bezala eta honen baitan sortu edota moldatuz joan ziren programa ezberdinak parkeko baliabideak eskaintzen zituen aukeren baitan.

13. Ingurugiro Etxea

Ingurugiro Etxeak sortu zuen eskaintza zabalarekin batera, eta Eskoriatzan gertatu zen moduan, funtzio berri bat gehitu zitzaion 2001tik aurrera: *Tokiko Agenda 21* ardatz izanik hezkuntza programa berri bat sortu zen, ikasturte berriarekin bat eginik eskola taldeei zein beste mota batzuetako bisitariari eskaintzeko asmoz⁵¹³ eta 2004tik aurrera *Herriko A21a* Ingurugiro Etxearen esku geratu zen⁵¹⁴, honen inguruko proiektuak indartu zituztelarik. Honekin batera talde mota ezberdinei zuzentzen ziren programak gehitu zituzten, 2004an 141 programa ezberdin izatera iristeraino. Eskualdeko eragile ezberdinekin elkarlanak, langileen trebakuntza jarraitua eta ekitaldi berezien bultzada nagusitu ziren garai honetan. Gainera museoaz gain bestelako azpiegitura batzuetara bisitak ere eskaintzen jarraitu ziren, gunek berriak ere gehituz. Horrela jarduerak “se desarrollan en equipamientos complementarios, como son el Museo Vasco del Ferrocarril, la Estación depuradora de aguas residuales de Lasao, la Estación potabilizadora de Oñatz, el vertedero de Lapatz, el molino de Igara”⁵¹⁵.

Guzti honekin batera aldaketa nagusi bat eman zen Ingurugiro Etxean: museografiaren zein espazioen lehen aldaketatik hamar urte igaro ondoren 2008an *Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020ra* moldatzeko lanak burutu ziren⁵¹⁶. Erakusketa berria etorkizunean lortu beharreko bost helmugei lotuta agertzen zen, eta hortaz museoaren helburuak ere berriz planteatu ziren: beharrei egokitutako eta curriculumari lotutako hezkuntza zerbitzu bat eskaintzea; *Eskolako Agenda 21* eta *Udal Agenda 21* programetan integratzea eskaintza hori; bost helmugen lorpenerako laguntza eskaintza eta ingurugiroari lotutako informazio eskariari erantzutea⁵¹⁷.

14. Urretxuko Mineral eta Fosilen Museoa / Urrelur

Urretxuko Museoa hasieratik oso ongi zehaztu zituen bere lan ildoak eta horiek indartzeko lan egiten jarraitu zen. Egunerokotasuna osatzen zuten eskola taldeen bisita gidatu eta tailerrez gain – baita banakako bisitari eta bestelako taldeak – urteko bi ekitaldik izan zuten protagonismoa. Alde batetik, maiatzean ospatzen zen MNE, zeinaren inguruan antolatzen ziren jarduerak didaktiko bereziak, eta beste alde batetik urria-azaroan gauzatzen zen Mineralogi eta Paleontologi Astea⁵¹⁸. Horrekin batera 2009an eman zen aldaketa bat museoan, izan ere Mineral

⁵¹² Ikus. “sareak eta elkarlanak” atala.

⁵¹³ “Museo medioambiental Ingurugiro Etxea. Memoria de actividades 2000”. IEA.

⁵¹⁴ Aurrez enpresa batek burutzen zuen lan hau. “Museo medioambiental Ingurugiro Etxea. Memoria de actividades 2004”. IEA.

⁵¹⁵ “Museo medioambiental Ingurugiro Etxea. Memoria de actividades 2004”. IEA. 4 or.

⁵¹⁶ Ingurugiro Etxearen historia laburra. IEA.

⁵¹⁷ Ibid.

⁵¹⁸ Ikus. “Ekitaldiak/ospakizunak” atala.



eta Fosilen Museoari izen berezi bat emateko bozkatzeko bat antolatu zen herritarren artean eta boto gehien jaso zituen "Urrelur" izena jaso zuen museoak ordutik aurrera⁵¹⁹.

15. Zumalakarregi Museoa

Aurreko hamarkadan hasitako ikerketa eta didaktika lan indartsuari jarraiki, Zumalakarregi Museoan aldi baterako erakusketa erakargarriak antolatzen jarraitu zuten. Dinamika berdinarekin baita, erakusketa hauek ibiltariak izan ziren eta bakoitzari lotutako material didaktikoak argitaratu ziren, jarduera espezifikoa antolatu eta beste hainbat ekintzen ardatz bilakatu ziren. Honekin batera, Zumalakarregi Museoak arlo birtualean esanguratsuak izan ziren proposamenak aurkeztu zituen eta teknologia berrien erabilerrari ere garrantzia ematen hasi ziren lehenengoetarikoa izan ziren Gipuzkoako museoaren artean: argitalpena batzuk web plataforman eskegitzen ziren, *online* jokoak sortu zituzten eta birtualki burutu zitzaizkien bildumagarriak eskaini zitzaizkien erabiltzaileari⁵²⁰. Guzti horrek museoaren inguruko kontzeptu tradizionalak haratago zuzendela erakusten zuen eta museoak eraikin itxi baten baitan gauzatzen ziren ekintzak baino gehiago eskaini ahal zutelako argi utzi zuten, beti ere ikerketa zein kontserbazio lan garrantzitsuak atzean utzi gabe.

2008an, apiriletik uztaila bitartean, museoak itxia egon zen birmoldaketa lanengatik, baina bitarte horretan ere lantaldeak aurrera jarraitu zuen eta ekintza ezberdinak burutu zituen⁵²¹. Moldaketaren ondoren museoak berriaz ireki zen publikoari, museografian, iragarritasun aldetik eta artxiboan aldaketak burutu zituelarik⁵²². Erakusketa berriak eragin zuen eskaintzaren baitan zenbait aldaketa burutu behar izatea, talde hartzaileen adina eta edukiak ere desberdinak zirelako eta horrek, noski, jarduera didaktikoen planteamenduan ere berrikuntzak ekarri zituen.

16. Untzi Museoa

Untzi Museoa inauguratu zenetik indar handiz eman zituen lehen pausoak eta horrela jarraitu zuen ondorengo urteetan ere. Museo eta bildumaren izaeratik oso ardatz finkoak ezarri ziren lehen unetik, kontserbazioa, ikerketa eta difusioan zentratuta. Baina horrekin batera, eta Zumalakarregi Museoan gertatu zen bezala, eraikinean ez ezik kanpoan ere bilduma eta ikerketen inguruan lan ugari burutu zen, batez ere kongresu eta hitzaldi ezberdinetan parte hartuz eta museoaren lana etengabe aurkeztuz. Era berean, aldi baterako erakusketa indartsuen baitan mugitzen zen museoko dinamika, eta hauei lotutako programa eta ekintza ezberdinak garatzen ziharduen lantaldeak proposamen esanguratsuak egin zituen; beti ere kontserbazio eta ikerketak egunerokotasuneko lanean pisu handia izaten jarraitzen zutelarik. Honekin batera eta museo zaharrenean kasu gertatu zen bezala, Untzi Museoak ere erakusketen zein bestelako espazioen berritze bat eskatzen zuen. 2007an zenbait hilabetez itxi zen museoak beharrezko erreforma horiek burutzeko, museografian ere aldaketa nabaria emanez⁵²³.

17. Donostiako Elizbarrutiko Museoa

Museoaren dinamizazio eskasa zela eta, bultzada baten beharra nabarmendu zen XXI. mende hasierarekin batera. Publikoaren irekiera hutsera mugatuko zen espazio bat izateko arriskuan zegoela ikusirik DEMren jardueretarako kultur zerbitzuak eskaintzen zituen enpresa baten esku utzi zuen museoaren kudeaketa 2002an. Honela DEMren ziklo berri bati hasiera eman zitzaion, ez soilik eskaintza eta programazio egonkor bat diseinatu eta gauzatu zelako,

⁵¹⁹ Museoaren izen aldaketari buruzko dokumentazioa. Urretxuko Udala K.S.

⁵²⁰ Ikus "baliabide materialak" atala.

⁵²¹ "Contrato K6 2008". GFAAA. Sig: 4718/2.

⁵²² "Memoria 2008". Zumalakarregi Museoa. ZMA.

⁵²³ "Airu 2007". GFAAA. Sig: 31025/3.



baita hiriko museoek ekintzetan parte hartzen hasi eta kultur zirkuituan txertatzea lortu zelako. Honekin batera ordutegia zabaldu zen eta informazio eta seinaleetikaren inguruko berrikuntzak gehitu ziren. Hala ere gutxi iraun zuen planteamendu honek eta 2005an museoaren irekiera mugatu zen: bisitari kopuruen jaitsiera nabarmenak oztopatzen zuen batez ere museoaren funtzionamendu egonkor bat. Ordutik aurrera aldizkako irekierak egin ziren, egun zehatzetan bisita gidatuak egiteko taldeekin edota ekitaldi bereziei lotutako jarduerak burutzeko – eguberrietako tailerrak edo MNEan adibidez –⁵²⁴ azkenik 2010an guztiz itxi zen arte.

DEMa ordea proiektu berri bat zuen martxan: Santa Teresa elizako espazio atxiki batean egokituko zuen bilduma eta egoitza berri horretan irekiko zituen ateak museoak. Obren iraupena eta plangintzaren inguruko prestakuntza lanek irauten zuten bitartean, DMSren ekintzetan parte hartzen jarraitu zuen museoak, hiriko beste espazio batzuetan gauzatuz jardura didaktiko ezberdinak; Artzai Onaren Katedralean, besteak beste⁵²⁵.

18. MUFOMI. Mineral eta Fosilen Museoak

Hamarkada honetan ere museoak bildumaren jabearen esku egon zen; pentsa daiteke eskaeraren arabera irekierak burutuko zituela eta taldeek eskatutako bisita gidatuak ere bere ardura izango zirela urte hauetan.

19. Trenaren Euskal Museoak/ Burdinbidearen Euskal Museoak

Trenaren Euskal Museoak ondare industrialaren berreskurapen, kontserbazio eta ikerketaren inguruan lan egiten jarraitu zuen. Era berean jardura didaktiko finko batzuk egonkortuz joan ziren urtetik urtera, lurrin trenak izan zuelarik oraingoan ere protagonismo nagusia. Aldi baterako zenbait erakusketa antolatzearekin batera – horietako batzuk ibiltariak izanik gainera –, museoak filmaketa ezberdinetarako kokagune izan zen, material ezberdinen zesioak burutu zituen eta zenbait ekitaldietan ere parte hartu zuen. Museoan eman zen berrikuntzetako bat Azpeitiko Ingurugiro Etxearekin batera gauzatu zen: Trenaren Euskal Museoan *Garraiobidearen Ingurugiro Gela* sortu zen, bi museoetan lantzen ziren gaiak elkarrekin ikasteko aukera eskainiz⁵²⁶. Honekin batera bigarren aldaketa bat ere museoaren kudeaketaren baitan eman zen, Burdinbidearen Euskal Museoaren fundazioa sortuz eta museoari ere izen berria emanaz.

20. PHOTOMUSEUM. Argazki Euskal Museoak / Argazki & zinema museoak

Photomuseumek ateak zabaldu zituenetik era jarraituan lan egin zuen aldi baterako erakusketa ugari antolatzen urtean zehar, ondare materiala berreskuratu eta kontserbatzen, ikerketa lan garrantzitsuak burutzen eta aldi berean publikoaren arreta zerbitzuaz arduratzen. Baina Udalak utzitako espazioa geroz eta txikiagoa suertatzen zen museoak berak aurrera eramaten zituen jardueretarako zein handitzen zihoan bilduma material zein bibliografikorako. Hori dela eta 2003an Zarauzko Udalak Villa Manuelako bi solairu soilik ordez, eraikin osoa Photomuseumera dedikatzea erabaki zuen, espazio hura okupatzen zuten beste sail eta elkarteak lekualdatuz. Urtearen amaieran museoak itxi zen beharrezko erreformak burutu eta erakusketa berriak egokitzeko; bitartean behin behineko erakusketa herriko Torre Luzea eraikinean ipini zen, museoaren funtzionamendua eten ez zedin. Zenbait urteko obren ondoren 2005ko azaroaren 7an Photomuseum berria inauguratu zen⁵²⁷, espazio gehiago eta zerbitzu hobeagoak eskainiko zituzten guneak aurkeztuz.

⁵²⁴ DEMren dokumentazioa. DEMA.

⁵²⁵ Urteko memoriak. DEMA.

⁵²⁶ "Memoria 2000". BEMA.

⁵²⁷ "Photo 2006". GFAAA. Sig: 30695/7.



21. Zerain Paisaia Kulturala

Zenbait urte lehenago hasitako berreskurapen eta sustatze proiektua ez zen eten museoarekin eta pixkanaka beste espazio interesgarri batzuen inguruko lanak bultzatuz joan ziren. Hamarkada berrian adierazgarria izan ziren Aizpitta Adieraztegiaren berritze lanak 2003-2004 ikasturtetik aurrera hasitakoak⁵²⁸, ondoan kokatzen ziren labe eta meategien zaharberritzeekin batera herriko beste ondaregune baten ezagupena ahalbidetuko zuena. Horretarako instituzio ezberdinen diru-laguntzak jaso zituzten, aurkeztu eta landutako proiektu sendoen aurkezpenei esker⁵²⁹. 2008an inauguratu zen Aizpitta Adieraztegia, minen harrera bulegoa eta erakustokia, eta aldi berean EJK "Burdinaren Mendia" bezala ezagutu zena monumentu multzo izendatu zuen⁵³⁰. Urtebete beranduago adieraztegiaren aldamenean existitzen zen "Polborina" galeria berreskuratu eta bisitetarako ireki zen⁵³¹ eta 2014an meategiko lanen inaugurazioa eman zen, karga lekua eta kablea berreskuratu ondoren⁵³². Multzoaren berreskurapen guztia gauzatzeko indusketa arkeologikoak burutu ziren lehen hamarkadaren amaieran eta aldi berean beharrezko diru-laguntza programen bilaketarekin jarraitu zen, burdin industriari lotutako multzo guztiaren zaharberritze osoari aurre egiteko.

Berrikuntza hauetaz gain aurreko urteetan bezala, eliza, museoa eta beste ondarelekuak erakusten jarraitu zuten. Gainera, aterpetzeko egonaldiaren eskaintzak⁵³³ ere aldaketak ekarri zituen eta programa luzeagoak osatu zituzten bisitarientzat. Azken finean, Zerain Paisaia Kulturalaren proiektuak bere gain hartzen zituen herriko arlo ezberdinak, kultura eta herri bati lotutako ondareguneen erakuste hutsetik haratago zihoazenak eta benetako proiektu aurrerakoa mantentzea ahalbidetu zutenak.

22. Lizarrusti. Aralarko Interpretazio Zentroa/ Lizarrusti Parketxea

GFaren jabetza zen Lizarrustiko Interpretazio Zentroaren irekieratik hamar urte igaro ondoren, eraikinaren berritzea eta irisgarritasun neurrietara egokitzea beharrezkotzat jo zen. Hori dela eta, 2006 eta 2009 bitartean zentroa itxita mantendu zen, obra hauen baitan museografia berri bat ere prestatu zelarik: "esta reforma estructural ha dotado al centenario edificio de nuevas tecnologías que permiten interpretar el patrimonio natural y cultural del parque de Aralar" (Ruiz, 2009: 11). Lizarrustiren berrirekierak⁵³⁴ ordura arteko zerbitzuak mantendu zituen – aterpetxea eta taberna – baina aldi berean zentroaren kudeaketa eta dinamizazioan ere garai berri baten hasiera suposatu zuen; GPS Fundazioaren menpe geratu zen ekipamendu berria⁵³⁵, Gipuzkoako beste Natur Parkeetan gertatu zen bezala Lizarrustikoa ere Parketxea bihurtuz.

23. Munduko tximeleten erakusketa iraunkorra

Hasierako proiektuari jarraiki, Manuel Aguirresarobek Irungo Udalaren lokal batean egokitutako erakusketa iraunkorraren arduradun izaten jarraitu zuen, eskaeraren araberako bisita gidatuak egiten eta aldizkako jarduerak

⁵²⁸ *Zerain urtekaria* 2004. ZUA. 24 or.

⁵²⁹ Aurreko hamarkadan egin zen bezala, Zerain Dezagun Fundazioak herriko proiektua aurrera eramatea ahalbidetuko zuten diru-laguntzen lorpena eta ekimen ezberdinen parte izateko ahaleginak egin zituen.

⁵³⁰ *Zerain urtekaria* 2008. ZUA. 36 or.

⁵³¹ *Zerain urtekaria* 2010. ZUA. 26 or.

⁵³² *Zerain urtekaria* 2014. ZUA. 22 or.

⁵³³ "Aldabe 2001". GFAAA. Sig: 19252/11.

⁵³⁴ GFAk eta "La Caixa"k sinatutako espazioen kudeaketa eta kontserbaziorako elkarlan hitzarmenaren baitan. Ruiz, L. (2009). Inaugurado el Nuevo Parketxe de Lizarrusti en Aralar. *Sustrai, revista agropesquera*, 89, 10-11.

⁵³⁵ Ikus "Beste elkarlan batzuk" atala.



antolatuz. 2006an eman zen aldaketa bat: Irungo Udalak bilduma osoa erosi zion bere jabeari⁵³⁶, oraindik ere azken honen esku geratzen zelarik bisita gidatuak aurrera eramateko ardura. Eta azkenik, 2013an museoaren berririekiera egin zen Irunen: lokalaren erreformak burutu ziren eta kontserbaziorako egokiak ziren baldintzak ziurtatzeko egokitzapen lanak egin ziren⁵³⁷.

24. Larraulgo Ekomuseoa

Museoaren irekieratik bi urte pasa ondoren, espazioaren kudeaketa lanen etengabeko aldaketa garai bati eman zitzaion hasiera. Aldi baterako langileen kontratazioek – museoaren irekiera eta harrerarako, bisita gidatuak egiteko edota bildumaren inguruko lanetarako – lantalde egonkor baten eraketa eragotzi zuten, eta horrek ezinbestean eragin zuen museoaren egunerokotasunean zein bertatik burututako lanetan. Horrekin batera publikoaren erantzuna ez zen izan espero bezain ona eta bisitari eskasiak eragin zuen Udalak irtenbide bat emateko nahian etengabeko aldaketak burutzea museoaren kudeaketa formatuan. Hala ere, urte hauetan zehar zenbait berrikuntza puntual eman ziren, hala nola ondare gune berrien gehitzea museoaren eskaintzara edota jarduera bereziak antolatzea, batez ere Larraulgo jai eta ospakizunei loturik.

Azken aldaketa eta museoaren sustapenerako esfortzu esanguratsuenaz azken urteotan eman zen: herriko boluntario talde bat museoko eta beste espazioetako bisitez arduratzen hasi zen, hala nola hauei lotutako taldeentzako programak aurrera eramaten. Egoera hark eragin zuen 2009an Larraulgo Udalak talde honen esku uztea museoaren kudeaketa⁵³⁸ eta ordutik eurek hartu zuten museoko jarduerak aurrera eramateko ardura⁵³⁹.

25. Makina-erremintaren Museoa

Museoak ateak ireki zituenetik, erakusketa iraunkorraren osagarri izango ziren jarduera programa baten diseinuaren inguruan lan egin zuen. Oro har, kontserbazio eta zaharberritze lanekin jarraitu bazen ere jendea erakartzeko eta gaiaren inguruko interesa pizteko ahaleginak egin zituen museoko zuzendariak, horretarako bestelako eragileekin elkarlanak burutzeko proposamenak landu zituelarik⁵⁴⁰. Gainera bilduma handitzeko lanean jarraitu zuten eta museoan lagungarriak izango ziren baliabide eta tresnen sorrerarako etengabeko esfortzuak burutu ziren, kartelak, ikus-entzunezkoak eta beste hainbat elementuek publikoaren bisita erabilgarriago bat ziurtatuko zutelakoan⁵⁴¹.

26. Igartza Jauregia / Igartza Monumentu Multzoa

2000. urtean Igartza Jauregia – ermita, zubia eta errotarekin batera – Ondare Kultural izendatu zuen EJK, eta horrekin batera Beasaingo Udalak multzo historikoa erosi zuen. GFAk emandako diru-laguntzei esker aurreko hamarkadan indusketa arkeologiko ezberdinak burutu baziren ere, oraindik zaharberritze eta arkeologia lanen jarraipena beharrezkoa zen. Hala ere Jauregia irekita mantentzen zen publikoak bisitatu zezan eta aldi berean

⁵³⁶ "Irungo Udala. Mariposas del mundo. 2006". GFAAA. Sig: 30822/2.

⁵³⁷ Sagarzazu, X. (2013, urriak 9). El museo de las mariposas vuelve a Irun. *Diario Noticias de Gipuzkoa*.

⁵³⁸ "Museo". LUA. Sig: 361-01.

⁵³⁹ *Larraulgo Ekomuseoaren eskuorria*.

⁵⁴⁰ "MH 2000". GFAAA. Sig: 17840/3.

⁵⁴¹ "MH 2003". GFAAA. Sig: 26438/2.



turismo bulego bezala funtzionatzen jarraitu zuen, herriko kultur jarduera asko espazio honetan gauzatzen hasi zirelarik⁵⁴²; aldi baterako erakusketak, liburuen aurkezpena, elkarte eta talde ezberdinen ekintzak eta abar.

Multzoan berrikuntza lanen fase berri bati hasiera eman zitzaion 2007an, Beasaingo Udala eta GFaren arteko hitzarmena sinatu ostean – EJ eta Kutxak emandako laguntzari esker ere –, lau urte iraungo zuten obrei hasiera emanaz. 2011an eraberritze obrak amaituta inauguratu zen Igartza Multzoa deiturikoa – Jauregiak gain beste ondare guneak ere barne hartuz –. Lehenbiziko urteetan multzoaren funtzio museistikoa alde batera geratu zen eta aldizkako eta eskaerapeko bisita gidatuak soilik eramaten ziren aurrera, hala nola aldi baterako erakusketak edota beste zerbitzu batzuen funtzioak betetzeko. 2014an ordea eta multzoaren ezaguera bultzatzeko asmoaz kudeaketarako lehiaketara atera zen eta bide berri bati ekin zitzaion, ondareguneak eskaintzen zituen aukera guztiak hezkuntza zein turismora bideratzeko⁵⁴³.

27. San Martin ondaregune

Irekieratik lehen hilabeteak pasa ondoren ondaregunea eta Azkoitiko historia lantzeaz gain, Munibe Kultur Taldeak proposamen berri bat gehitu zuen museoak eskaintzen zion programari, “Orain 13.000 urte. Historiaurrea bizitzen” izenekoa, horri lotutako bideo bat ere sortuz bisitaldien aurretik museoan ikusteko⁵⁴⁴. Lehenengo urteetan bisita antzeztuak alderatu eta tailerrak gehitu ziren; hots, aurrehistoriako gaiak protagonismo gehiago hartu zuen. Programazioaren eraketa planak aurrera egin bazuten ere 2003tik 2009ra bitartean⁵⁴⁵ museoak aldizkako irekieran bakarrik oinarritzen zuen bere jarduera eta batez ere Azkoiti zein Azpeitiako eskola taldeei zuzendutako programa gauzatzen zuen. Asteburuetak publiko eskasiak eta hezkuntza formalera bideratzeko programa indartsu baten gabezia San Martin ixtea erabaki zen.

⁵⁴² Beste herri batzuetan gertatu zen bezala, museoaren funtzioak eta herriko kultur etxearenak nahasten ziren askotan, bilduma edo multzoarekin erlaziorik ez zuten ekintzak aurrera eramanez bertan.

⁵⁴³ “Igartzako kudeaketa 2014. Igartzako monumento multzoaren kudeaketa eta ustiapena kontratatze baldintza orokorren agiria”. BUA. Sig: 3871-02.

⁵⁴⁴ *San Martin ondaregunearen dokumentazioa*. Azkoitiko Udala K.S.

⁵⁴⁵ Itxiera data finkoaren frogarik ez da gorde, baina Azkoitiko Udaleko arduradunek 2009 inguruan kokatzen dute itxiera definitiboa (2014ko abenduaren 10ko elkarriketa).



28. Gatz Ekomuseoa

Leintz-Gatzagako herrian mendeetako jatorria zuen gatz produkzioaren arrasto materialak aurkitzen ziren: Gatzaren ustiaketarako azken lantegia 1974 arte funtzionamenduan egon bazen ere, aurreko mendeetako ondare ugari aurki zitzakeen. 1975an Udalak lantegi zaharra erosi eta zenbait urte beranduago, 80ko hamarkadaren amaieratik aurrera, indusketa arkeologiko batzuk burutzen hasi ziren zonaldean (Urteaga, 1990), oso garrantzitsuak suertatu ziren aurkikuntzak eginez. Ordutik Leintz-Gatzagako Udalak zonaldearen berreskurapenaren inguruan lanean hasi zen, gatz lantegi multzoa berreskuratzeko asmotan eta publikoarentzat zabaltzeko ideiarekin. Indusketen ondorengo urteetan garatzen joan zen Udalak sorturiko proiektua, zaharberritze lanak 1998 aldera amaituz eta museoa izango zenaren piezak eramaten hasita⁵⁴⁶. Gauzak honela 2000ko uztailaren 19an museoa inauguratu zen⁵⁴⁷, lehen urteak museoaren irudi korporatiboa, difusio lanak eta museografiaren osaketari dedikatuz, beti ere proiektua amaitutzat jo gabe. Izan ere, oraindik ondare material ugari eta berritzeko zonaldeak geratzen ziren. Leintz Gatzagako Udalaren lana izan zen proiektuarekin jarraitu eta pixkanaka multzo guztiaren berreskurapena lortzea, aldi berean museoaren azpiegiturak hobetuz eta publikoari zuzendutako eskaintza egonkor bat sortu nahian.



26. irud: Gatz Museoko barrualdea (Gatz Ekomuseoa)

29. Chillida-Leku

80ko hamarkadaren hasieran Eduardo Chillida bere obrarentzako kokagune baten bila hasi zen Gipuzkoan, urte luzez bere lanak mundu osoan zehar barreiatu ondoren garai bakoitzaren adierazle izango ziren piezak ipintzeko leku egoki bat izateko helburuaz. Espazioaren bilaketa horretan aurkitu zuten 1983an Chillidak eta bere emazteak Zabalaga baserria eta lursaila, Hernani eta Donostiako mugan (Plazaola, 2001; Guillén, 2008). Baserriaren zaharberritze lanei ekin zion orduan, urtetan luzatutako proiektu batean murgilduz. 1997an baserriko zaharberritzea aurreraturik zegoen eta tamaina handiko zenbait obra lorategira eramanez ere⁵⁴⁸. Orduan gun e hura bere lantegi bilakatu zen, baita adiskide eta arte-munduko ezagunei erakusteko lekua ere.

⁵⁴⁶ "Gatz museoa 1998". GFAAA. Sig: 14562/4.

⁵⁴⁷ Crespo, T. (2000ko irailak 9). "La memoria de un manantial salado". *El País*. In http://elpais.com/diario/2000/09/09/paisvasco/968528418_850215.html (2015ko martxoaren 10an ikusia).

⁵⁴⁸ "10 urte betetzen ditugu". Chillida Leku. In <http://www.museochillidaleku.com/2000-2010/content/eusk.html#d0> (2015ko otsailaren 1an ikusia).

Baserriaren ondoren, museoaren proiektuan lanean jarraitu zuen Chillidak, lantegia eta lursaila museo ireki bat bihurtzeko asmotan. Orduan eraiki ziren denda eta harrera guneko eraikina, hala nola bulegoak eta liburutegi espezializatu bat ere⁵⁴⁹. 2000. urtean obra guztiak amaitu eta irailaren 16an Chillida-Leku izenez inauguratu zen, museotik haratago lurralde-museo bilakatutako espazioa bihurturik. Laster bilakatu zen aditu eta bisitari ugarietzako *arte garaikidearen kobazuloa* (Guillén, 2008) eta inaugurazioaren unetik aurrera publiko ugariaren bisita jasoko zuen. 2002an, Eduardo Chillidaren heriotzaren urtetik aurrera, familiak proiektuarekin aurrera jarraitu zuen, artistaren lana mundura zabaltzen jarraituz. Museoan ez ezik, kanpora begirako ekimen ugari martxan jarri ziren hamar urtetan zehar, elkarlanak gauzatu eta kultur ekintza askoren eskenatoki bilakaturik. Baina kudeaketaren baitan izandako arazoak – politikoak eta ekonomikoak – eragin zuten hamarkada oso bateko ibilbidearen ondoren 2010ko abenduan⁵⁵⁰ museoa ixtea. Ondorengo urteak Chillida Lekuko berririkieraren inguruko eztabaida zein akordio saiakeren baitan murgilduko zen instituzioa, aldi berean nazioarte mailako proiektzioa zuten ekimenetan lanean jarraitzen zuelarik Fundazioak.

30. Museum Cemento Rezola

Donostiako Añorga auzoa Cementos Rezola enpresaren inguruan sortu zen gunea da. XIX.mendearen erdialdetik aurrera bertan eraikitzen joan ziren langileen bizitzarako beharrezko azpiegitura guztiak. Hain zuzen ere auzoko ikastetxe izandako eraikina berreskuratuz eta Cementos Rezolaren 150. Urteurrena ospatzeko ireki zen Museum Cemento Rezola 2000ko urriak 4an⁵⁵¹. Enpresa eta lantegiaren inguruko ezagutzaz gain "industria honek gizartean eginiko ekarpena gogorarazi eta ikusleei egunero gurekin bizi den ezezagun hori, zementua alegia, hurbilarazteko"⁵⁵² helburua izan zuen hasieratik museoak.

Honekin batera Añorgako auzoaren bilgune izateko asmoa nagusia zen: bertako bizilagunek elkartzeko espaziorik ez zutenez⁵⁵³ ekintza ezberdinak gauzatzeko museoaren erabilera egiten hasi ziren pixkanaka, horrek ere espazioa eta auzo-dentitatearen arteko eraketa indartu zuelarik. Biztanle horiek lantegiarekin – eta bide batez museoan erakusten zenarekin – zuten lotura ikusirik, lantaldeak indartsuak bilakatu ziren proiektuei ekin zitoten, memoria industrialaren berreskurapenerako ekimenekin: argazki artxiboa, testigantzen jasotzea, liburu eta dokumentalen edizioa, eta abar. Aldi berean museoaren egunerokotasunaren baitan aurrera egin zen, aldi baterako erakusketa ugari antolatuz eta mota ezberdinetako taldeak hartuz⁵⁵⁴.

31. Miramon Zientziaren Kutxagunea/ Eureka! Zientzia Museoa

Donostiako Aurrezki Kutxak Miramon Parkea erosi zuen 1960.urtean, eta ordutik zenbait azpiegitura sortu ziren espazio horretan (Euskal Telebista, Gipuzkoako Poliklinika eta abar). 1990. urtean lursailaren erabileraren oinarriak finkatu ziren, Miramon Parke Teknologikora bideratutako gunea ezarri eta bestea etxebizitzetarako dedikatu. Lehenengoaren kasuan, museo bat sortzeko ideia planteatu zuen Kutxak, hasiera batean ekonomia eta banku munduaren teknologiarik lotutako proiektu batean pentsatuz, baina ideia hura ez zen gauzatu. Alabaina, ekimen honen prozesuan kolaboratu zuten aditu batzuen artean *Zientzia XXI Elkarte*a sortu eta zientzia museo bat

⁵⁴⁹ "10 urte betetzen ditugu". Chillida Leku. In <http://www.museochillidaleku.com/2000-2010/content/eusk.html#d0> (2015ko otsailaren 1an ikusia).

⁵⁵⁰ Chillida Leku. Prentsa oharra. In <http://www.museochillidaleku.com/Detalle-Noticia-General.207+M57ac076b3c4.0.html> (2010ko otsailaren 4an ikusia).

⁵⁵¹ Marín, M. (2000ko irailak 27). Rezola inaugura el 4 de octubre en San Sebastián un museo que repasa la historia del cemento". *El País*. In http://elpais.com/diario/2000/09/27/paisvasco/970083622_850215.html (2015ko martxoaren 27an ikusia).

⁵⁵² Museum Cemento Rezola. Historia. In <http://museumcementorezola.org/museoa/> (2015ko maiatzaren 10an ikusia).

⁵⁵³ Llorente, Amaia. "Añorgatarrak". In *II Ondare Bizia Jardunaldiak*. Donostia, 2015ko maiatzaren 14 eta 15.

⁵⁵⁴ *Museum Cemento Rezolako urteko memoriak*. MCRA.



eratzeko proiektu bat sortu zuten. Horrela “el proyecto llegó a la Obra Social de Kutxa, quien estimó que el proyecto de museo de la ciencia encajaba en un edificio libre que había sido un centro educativo en Miramón, y compró el proyecto a aquella asociación. Ya bajo la responsabilidad de Kutxa se empezó un nuevo diseño tanto del edificio como de los contenidos”⁵⁵⁵. Obrek iraun bitartean etorkizuneko espazio berri hark eskainiko zuen guztiaren berri eman zen, hainbat jarduera antolatzeari ekin zitzaizkion.

Azkenik, Zientziaren Kutxagunea Miramon Zientziaren Museoa inauguratu zen 2001ko urtarrilaren 17an⁵⁵⁶, zientzia herritarrengana hurbiltzeko helburua zuen espazioa, izaera ludikoa eta aldi berean dibulгатiboa uztartuz. Erakusketa iraunkor bat eratu zen arlo ezberdinetan banatuta eta 160 esperimendu elkarreragileekin, hala nola Planetario Digital bat (Ares, 2005). Honekin batera aldi baterako erakusketak, espazio aldakorrak eta jarduera didaktikoak sortuz joan ziren, urtean zehar ekitaldi ezberdinak antolatu eta ekintzen aldetik etengabeko berrikuntzak eta planak aurkeztu zituztelarik hasieratik.

Urteetan zehar Kutxaguneko erakusketa aretoak ez ziren zerbait egonkorra izan; esperimendu eta makinaren aldaketa eta berrikuntzak etengabekoak ziren, espazio berrien gehitzea ematen zen eta beste batzuen desagertzea ere gauzatu zen. Aipagarriak dira horien artean GAIA espazio elkarreragilea, 2009an ireki zena ingurumenari loturik (Santamaría, Rubio eta Tomasa, 2011) edota TXIKIKLIK, haurrentzako espazio berria non zentzumenak lantzeko aukera eskaintzen zen. Azkenik, 2011an Miramon Zientziaren Kutxagunea izatetik Eureka! Zientzia Museoa izatera pasa zen, hain justu museoaren 10. Urteurrena bete zenean.

32. Txingudi Ekoetxea

EJk Eremu Babestua izendatu zuen Plaiaundiko Parke Ekologikoa, horren ondoriozko berreskuratze eta kontserbaziorako neurrien beharrak nagusituz. Parkearen inguruko lanek ingurumenaren berreskuratzea ekarri zuen, garrantzi handiko espazio izanik: hezegune berezia, balio ekologiko handia eta hegazti espezi askotako migrazio bidean kokatuta⁵⁵⁷. 1994an Irungo Udalerrian eta apur bat beranduago, 2001an, Hondarribian, “Txingudiko Baliabide Naturalak Babestu eta Antolatzeako Plan Berezia”-ren onarpena egin zuen EJk⁵⁵⁸. Honen baitan inauguratu zen 2001ko apirilean⁵⁵⁹ Txingudi Ekoetxea, Plaiaundiko Interpretazio Zentroa. Irekiera urtetik espazio museografikoaz gain inguruko guneetan jarduera ezberdinak programatu ziren eta inguruko bestelako eragileekin ekimenak buru ziren; beti ere ingurumen hezkuntzara zuzendutako jarduerak garatu ziren eta bisitarien parte-hartzea eta interesa piztea izan zen helburua.

33. Igartubeiti Baserri Museoa

Ezkio-ltsason kokatzen zen Igartubeiti Baserria GFAk erosi zuen 1992an, berau zaharberritzeko asmotan, hau erakin paregabea baitzen arkitektura tradizionala eta baserri giroa ezagutzeko (Santana eta Izagirre, 2003). Foru Aldundiko “Kultura Sailak eraikin berezi hau birgaitzea eta Museo bilakatzea ditu helburu, eta museo honek XVII. mendeko Gipuzkoako baserri bateko bizimodua islatu nahi du, giroa eta baserri barneko altzaritan bezala etxe esparruaren arkitektura-egituran ere” (Santana eta Torrecilla, 1995: 460). Honela, interbentzioaren ondorioz galdutako atalak berreraiki eta XVI. mendeko baserriaren forma berreskuratu zen. 2001eko udan museo bihurtu zen

⁵⁵⁵ Ares, F.; Martínez, A. (2010). “Historia de Zientziaren Kutxagunea”. *Auñamendi Eusko Entziklopedia*. In <http://www.euskomedia.org/aunamendi/152190> (2015ko martxoaren 14an ikusia).

⁵⁵⁶ *Ibid*

⁵⁵⁷ Txingudi. Aurkezpena. In http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-3036/eu/contenidos/informacion/txingudi/eu_1099/presentacion.html (2015ko maiatzaren 2an ikusia)

⁵⁵⁸ *Ibid*

⁵⁵⁹ 2005ko Aste Santutik aurrera asteburu eta jaiegunetan ere irekitzen hasi eta publiko orokorrari zuzendutako ekintzak burutzen hasi ziren.



baserria, eta kanpoaldean egokitutako kaseta batean egiten zitzairen harrera bisitariei, gerora baserri barnera sartzeko. Honela, GFaren jabetzako hirugarren museoa bihurtu zen, Zumalakarregi eta Untzi Museoarekin batera; lehiaketara atera eta lehen urtetik K6 K.K.ren esku geratu zen museoaren kudeaketa.



27. irud: Igartubeiti Baserri Museoa
(Igartubeiti Baserri Museoa - K6 K.K
)

Urte batzuk beranduago proiektuaren fase berri bati hasiera eman zitzaion, izan ere “era imprescindible dotarse de un espacio, un centro de interpretación, donde se ofreciera la información necesaria para contextualizar y entender Igartubeiti y, por extensión el caserío vasco” (Goenaga, Vives, Ugarteburu eta Azpiazu, d.g.). Horrela erakusketarako gune ez ezik bestelako jarduera publikoak zein administraziokoak burutzeko leku aproposa izango zen eraikina altxatu zen baserriaren ondoan, Interpretazio Zentroa 2007ko ekainean inauguratuz⁵⁶⁰. Hasieratik baserriak berak eskaintzen zituen aukeraz gain, baserri mundua eta euskal historiari lotutako ikerketa eta hezkuntza lanek izan zuten protagonismoa, adin desberdinetara egokitutako eskaintza eta elkarlanetan oinarritutako programazio esanguratsuak gauzatuz, horietako batzuk urteetan zehar egonkortu eta benetako Igartubeitiko marka bilakatzera heldu direnak⁵⁶¹.

34. Herri Musikaren Txokoa/ Soinuenea

Jose Mari Beltran oiartzuarrak urte luzetan osatutako bilduma musikal interesgarria zuen. 1994an Herri musikaren dokumentazio zentro bat osatzeko asmotan Oiartzungo Udalarekin harremanetan jarri zen, eta elkarrekin sinatutako akordioaren baitan ireki zen HMT, Ergoiengo eskola zaharretan. 1995 urtearen hasieran eta behin espazioa egokituta, Beltranen bilduma guztia eramane zen: liburuak, instrumentuak, diskak, zintak, filmaketak eta abar⁵⁶². Guzti horrekin pixkanaka liburutegi, fonoteka eta irudi artxibo bat sortuz joan zen – boluntario askoren laguntzaz – hala nola tresnak egin eta konpontzeko tailerra egokitu ere (Beltran, 1999). Erakusketa iraunkorreko prestakuntza lanek zenbait urte iraun ondoren 2002ko martxoaren 1an inauguratu zen HMT museo bezala, ordutik publikoaren harreraz arduratzeaz gain herri musikaren ikerketa eta difusiorako etengabeko lanean aritu zirelarik. Pauso nagusienetako bat 2011ko abenduaren eman zen: Soinuenea Fundazioa sortu zen zentroari egonkortasuna eta izaera juridikoa emateko⁵⁶³.

⁵⁶⁰ “Igartubeitiko Interpretazio Zentro Berria”. *Gipuzkoa Kultura*. GFA. In <http://www.gipuzkoakultura.eus/index.php/eu/museoak-eta-ondareak/51-museos-y-patrimonio-2/476-nuevo-centro-de-interpretacion-de-igartubeiti.html> (2015ko apirilaren 18an ikusia)

⁵⁶¹ Ikus “ekitaldiak” atala.

⁵⁶² (2011ko abendua). Nace la Fundación Soinuenea. *HM Berriak*. *Herri Musikaren Txokoko buletina*, 40.

⁵⁶³ Ibid.



35. Santa Maria La Real. Zarauzko Arte eta Historia Museoa. Arkeologia eta monumentu multzoa

Zarautzen, Santa Maria La Real elizako kanpandorreko dorrean indusketa arkeologikoak burutzen hasi zen Aranzadi Z.E 1997an, Erdi Aroko nekropoli baten aurkikuntzarekin. Espazio honen eta herriko historia eta arteari lotutako museo baten proiektua garatzen hasi zen orduan, 2002ko ekainean Arte eta Historia Museoa inauguratuz⁵⁶⁴. Behin museoa irekita ekimen desberdinak eraman ziren aurrera. Alde batetik indusketa arkeologiko berriak burutu eta burdin aroko zein erromatarkuntza garaiko arrastoak aurkitu ziren; Santa Maria La Real monumentu multzoa bezala ezagutu zen espazioaren integrazioa eman zen orduan museoaren programazio eta kudeaketan, 2005. urte inguruan (Vicent, 2013). Garai horretan ere museoko erakusketa guztiaren aldaketa eta zerbitzuen berrikuntza burutu ziren⁵⁶⁵, pixkanaka multzoaren baitan Zarauzko arte eta historiari lotutako ekimen ezberdinak bilduz joan zirelarik.

Aipagarria da museoaren inguruan sortu ziren proiektu berriak ere egon zirela urte hauetan zehar. Horien artean indusketen bidez azaleratutako ondarea eta multzoari buruzko ikerketen emaitzetatik gauzatutako *Territorio Menosca*, "como representación de un territorio, y de una nueva idea de visualizar el mismo" (Correa eta Ibáñez, 2004: 1). Honela, museoaren espazio birtuala bihurtuko zen plataforma bat zein IKT tresna berriak sortu ziren, Arazi S. Coop. Eta Euskal Herriko Unibertsitatearen elkarlanetik (Vicent, 2013). Hauen bitartez ondare hezkuntzako programa berritzaileak sortu ziren⁵⁶⁶.

36. Luberri. Oiartzungo Ikasgune Geologikoa

Aranzadi Z.E.ko geologia sailaren eskutik zenbait fosil eta mineralen erakusketa ibiltari mugitu ziren herriz herri, lurraldeko bisitari banakoek zein eskola taldeek bisitatu zitzen. Erakusketen interesa ikusirik eta ikaskuntzarako baliagarriak izan zitezkeen aukerak eskaintzen zituela antzemanda, Oiartzungo Udalak eta Aranzadi Z.E.ak hitzarmen bat sinatu zuten, zeinaren bitartez museo bat egokitzeko espazioa, materiala eta laguntza ekonomikoan eskaintzen zitzaion elkarteari. Horrela jaio zen Luberri, Oiartzungo Ikasgune Geologikoa 2003ko martxoan. Espazio horretan bilduma kokatzeaz gain geologiaren ezagupenerako hainbat ekimen burutu ziren, beste eragile batzuekin elkarlanean eginda edota Aranzadiren eskutik abiatutakoak⁵⁶⁷. Adierazgarria da eraikineren mugatzen ez zen museo honek irteera geologikoen baitan zein ekitaldi ezberdinetan burututako ekintzetara luzatzen zuela bere jarduera didaktikoa (Tolosa, 2004).

37. Bentalekua

Mutrikun XVI.mendeko arrantzaileek osatutako San Pedro kofradiaren eraikinetako bat zaharberritu eta bertan kokatu zen Bentalekua Museoa, herria eta itsasoaren arteko erlazio estuaren erakusgarri izango zen gune bilakatzeko helburuaz⁵⁶⁸, "Mutriku ete itsasoa" erakusketa iraunkorraren bitartez⁵⁶⁹. 2003an museoa inauguratu ondoren hurrengo urtean atxiki zitzaion turismo informazioarako funtzioa izango zuen espazio bat, "un punto de

⁵⁶⁴ "Zarauzko Arte eta Historia Museoa 2003". GFAAA. Sig: 25440/4.

⁵⁶⁵ "Valoración del año 2005 en el Museo de Arte e Historia de Zarautz. Zarautzko Udala K.S.

⁵⁶⁶ Ikus "baliabide materialak" atala.

⁵⁶⁷ "Luberri memoria 2003". LIGA.

⁵⁶⁸ "Proyecto Debarrena turismo. Elaboración del Documento del Plan de Dinamización 2004-2006". In DEBEGESA. Debarrenako garapen ekonomikorako elkarre. "Memoria global. Fondo social europeo. 2000-2006"

⁵⁶⁹ Bentalekua. Mutriku turismoa. In http://www.mutriku.eus/turismoa/museoak/bentalekua/bentalekua/view?set_language=eu (2015ko apirilaren 4an ikusia).



información exterior y recepción de visitantes”⁵⁷⁰. Orduetik Bentalekua turismo bulego funtzioa betetzen hasi zen, Mutrikun bertan zein kostaldeko jarduera turistikoak kudeatuz.

38. Egurraren Museoa/ Aizkorriko Ataria/ Anduetza Parketxea

Imanol Artolak urte luzez jaso eta bildu izan zituen egur pieza ezberdinak, bertakoan zein atzerrikoak ziren egur moten bilduma garrantzitsua osatuz. Arantzazuko seminario zaharrean hainbat urtetan gordeta izan ondoren pieza haiek museo batean erakusteko proposamenaren inguruan lanean hasi zen Zegamako Udala⁵⁷¹. GFaren laguntzari esker Anduetza Baserria zaharberitu zen, herriaren tontor batean aurkitzen zen eraikin historikoa, eta bertan inauguratu zen Egurraren Museoa 2003ko uztailan. Lehen urteetan Zegamako turismo bulegotik bideratzen ziren talde edo banakakoen bisitak, herriko beste ondare gune batzuekin batera kudeatzen zelarik. Hasieratik museoaz gain Aizkorriko inguruak ere ezagutzea zein herriko historiari loturik zeuden beste ondare-guneak bisitatzea ere oinarritzakoa izan zen, berriz ere museoak bildumatik at bestelako funtzio batzuk betetzen zirelarik museoan. Museoak berak programazio propio bat eratu eta aldi berean herriari buruzko ezagutza sustatzeko espezializatutako bi enpresek kudeatu zuten museoa lehen hamarkadan zehar.

2010an museoaren museografia eta diskurtsoa aldatu eta Aizkorriko Natura Parkeko harrera gunea izateko prestatu zen, “para poner en conocimiento de la sociedad el valor de los recursos naturales de este lugar” (Rekondo, 2010). Berririo ireki zenetik urte batzuetara Anduetza Parketxea bilakatu zen, Arantzazurekin batera Natura Parkeko harrera gune izango zena, eta horren baitan GPS Fundazioaren kudeaketaren barne ere geratu zen. Aldi berean ingurugiro hezkuntza programazioa eta taldeei zuzendutako jarduera didaktikoen planak indartzeari ekin zitzaion fase berri honetan.



28 irud: Aizkorriko Parketxearen egur bilduma (Artelatz ingurumen zerbitzuak S.L.)

39. Artzaintzaren Ekomuseoa

Legazpin Erreizabal baserrian hasiak ziren 90k hamarkadatik zenbait hezkuntza jarduera burutzen, baserriko bizitza eta artzaintzaren inguruko programa ezberdinetan parte hartuz. Edukien erakusketarako eta jardueren garapenerako espazio bat egokitzea erabaki zen orduan eta hala sortu zen Artzaintzaren Ekomuseoa, 2003an inauguratu zena. Museoa Lenbur Fundazioaren menpe geratu zen, Lenbur lurraldearen barnean geroz eta osatuagoa eta egonkorragoa zen sare bat osatuz. Artzaintzaren Ekomuseoa kokatzen zen baserria ordea bizirik

⁵⁷⁰ “Bentalekua 2004”. GFAAA. Sig: 28794/1.

⁵⁷¹ Requena, J.M. (2007). El tesoro de la madera en Zegama. *El Diario Vasco*. In http://www.diariovasco.com/prensa/20070223/gipuzkoa/tesoro-madera-zegama_20070223.html (2015ko maiatzaren 15an ikusia).

zegoen espazioa zen, non lanean jarraitzen zuten eta artisautza zentro bezala gaztagintzaren produkzio eta salmentara dedikatzen zen⁵⁷².

40. Ardixarra Etxea. Erdi Aroko Interpretazio Zentroa

Segurako herriak hoberen kontserbatu den Erdi Aroko herri gunetako bat du lurraldean, monumentu-multzo izendatua izan zena. Hainbat mendetan zehar mantendu izan zuen bere forma urbanoa eta baita zenbait eraikin eta egitura ere. Segurako Udalak herrigunean aurkitzen zen XVI.mendeko Ardixarra Etxearen balio historikoa kontutan izanik eraikina erosi zuen 90eko hamarkadan, eta jarraian hasi ziren bertan turismo eta kulturara bideratutako espazio baten sorrerarako birgaitze lanetan⁵⁷³ GFAk eta EJak emandako diru-laguntzak izanik. Zenbait urteko lanen ondoren ireki zen etxea 1999an, hasiera batean soilik Segurako turismo bulego bezala⁵⁷⁴. Baina espazio hark eskaini ahal zituen aukerak antzemanda eta bide batez herriko historiarekin lotura izango zuen gun bat eratze beharraz, Ardixarra Etxean Erdi Aroari lotutako erakusketa iraunkor bat sortzeko proiektuari ekin zitzaion. Honela, 2004ko uztailaren 30an inaguratu zen Erdi Aroko Interpretazio Zentroaren, turismo bulegoa eta erabilera anitzeko espazioarekin partekatzen zuen eraikineko hirugarren solairuan⁵⁷⁵. Ordutik aurrera I.Z.a eta turismo bulegoa aldi berean kudeatu zen, herriko kultura jarduerak ere gauzatzeko koordinazio lanen parte zelarik bertako lantaldea.

41. Algorri. Zumaia Natur Baliabideen Interpretazio Zentroa

Zumaiaiko antzinako hiltegia zaharberrian inauguratu zen 2005ko ekainean Algorri, Zumaiaiko Natur Baliabideen Interpretazio zentroa “con el objetivo de investigar, proteger y sobre todo divulgar el impresionante patrimonio geológico de uno de los afloramientos más espectaculares e importantes del mundo: el Flysch de Zumaia” (Hilario, 2006: 54). Ondare natural honen ezaguera sustatzeko helburuaren baitan ikerketak garrantzi berezia izan zuen hasieratik; izan ere, erakusketa areto eta kanpoko jardueretarako koordinazio gun izateaz gain, ikerlariarentzat laguntza eta aholkularitza zerbitzu bezala funtzionatu zuen, lanak burutzeko beharrezko elementu guztiak eskainiz: Internet, liburutegia, egonaldiak burutzeko erraztasunak eta abar. Algorriren irekieratik urte batzuk igaro ondoren Flyscha biotopo babestua izendatua izan zen; horrek, noski Interpretazio Zentroaren erabilgarritasuna eta funtzioa indartu zituen eta etorkizunean espazioaren egokitzapen planen garapenerako ezinbestekoa bilakatu zen (Hilario, 2008).

42. D'Elikatuz: Gastronomia eta Elikadura Zentroa

2003an Ordiziako Udalak “Plan de Actuación Municipal. Plan Estratégico y de Gestión de D. Unanue” aurkeztu zuen, Barrenetxe izenez ezagutzen zen eraikinaren erabilpenerako proiektua. Honen baitan espazio horretan turismoari lotutako zein elikadurarekin erlazioa zuen gun bat irekitzeko ideia planteatzen zen; hau aurrera eramateko obrak zein zentroaren museografiarako lanak hasi zituen Udalak⁵⁷⁶. 2005ko martxoaren 17an⁵⁷⁷

⁵⁷² Artzaintzaren Ekomuseoa. Gipuzkoako Museoak. In <http://www.gipuzkoakomuseoak.net/museos/museo.php?id=eu&Nmuseo=1261654097> (2015ko maiatzaren 22an ikusia).

⁵⁷³ “1.997ko URTARRILAREN 30eko Ohiko bilkura”. Segurako Udala. SUA. Sig: P97-1-30.

⁵⁷⁴ *Ardixarra etxearen historia laburra*. Segurako Udala K.S.

⁵⁷⁵ *Erdi Aroaren Interpretazio Zentroko irekiera prentsaurrekoa 2004an*. Segurako Udala K.S.

⁵⁷⁶ K6 enpresak aurkeztutako “Proyecto del Espacio de Alimentación y Gastronomía” eraman zen aurrera. “Contratación K6. Espacio Alimentación y Gastronomía 2004”. OUA. Sig: K831.

⁵⁷⁷ “Proyecto de dinamización del centro D'elikatuz”. OUA. Sig: K688.



inauguratu zen ofizialki D'Elikatuz Gastronomia Zentroa eta turismo bulegoa, "(para) ser un centro de referencia en la cultura de la gastronomía y la alimentación saludable a nivel del estado, con proyección mundial"⁵⁷⁸.

Hasieratik bi ardatzen inguruan lan egin zen: Goierriko turismoa sustatzea eta elikadura osasuntsuaren inguruko zentro eredugarria izatea. Lehenengoari loturik indar berezia egin zen Zentroa eta Goierriko erreferentziazko elikadura guneak lotzeko – Ordiziako Azoka protagonista izanik – eta bigarrenarekin erlazionatuta D'elikatuzetik kanpo difusio eta ikerketa lan ezberdinak abian jarri ziren, elikadura osasuntsuaren inguruko kanpaina adierazgarriak gauzatuz.

43. Euskal Burdinaren Museoa

Mirandaolako Parkean existitzen zen harrera bulegotik burdinolako bisitak bideratu eta informazioa eskaintzen bazen ere, aspalditik existitzen zen Legazpin burdinari dedikatutako museo edota erakustareto bat sortzeko ideia. Lenbur Fundazioaren aurreko dokumentazioan jada honi buruzko erreferentziak agertzen ziren, hasiera batean Bikuña Jauregian ipintzea proposatzen zelarik (Arrieta, 2012). Azkenik, 2005an inauguratu zen zaharberritutako eta egokituako Parkeko pabiloi batean Euskal Burdinaren Museoa. Ordutik Mirandaolako Parkeko jarduera guztien harrera puntu bihurtu eta informazio gune nagusia bilakatu zen; beti ere Lenbur Fundazioaren programazioaren baitan aurrera eramandako ekimenen parte izanik.

44. Ogiaren Txokoa

Legazpiko Tibur Agirre auzoan kokatzen zen Igaralde baserrian museo bezala inauguratu zen 2005an, Ogiaren Txokoa izena hartuz. Bertan errota hidrauliko baten kontserbazioa eta funtzionamenduan ikusteko aukera eta ogiaren produkziara dedikatutako familia baten lana ezagutzeko aukera eskaintzen zen. Etxebizitza berak museografiarako espazio bat dedikatu bazuen ere, ogia egiteko lantokia, labea eta errota bera ziren protagonista hasieratik. Museo hau Lenbur Fundazioak kudeatutako espazioei gehitu zitzaion eta honela lurralde-museoak eskaintzen zituen aukerak geroz eta osatuagoak bihurtuz ari ziren.

45. MATER Itsasontzi Museoa

Pasaian itsasoarekin erlazio estua zuen lagun talde bat Elkarte bezala eratu zen 2001an Itsas Gela izenaz, itsas kulturaren ezagutza sustatu eta hau udalerriaren garapen jasangarriaren medio bihurtzeko asmoz (Suberbiola, Gartzia, León, Aramberri eta Correa, 2012). Zenbait urtetan Pasaian gordetzen zen ondare materiala gorde eta itsas munduarekin erlazioa zutenen testigantzak jaso zituzten.



29. irud: MATER Itsasontzi museoaren barrualdea (Itsas Gela Fundazioa)

⁵⁷⁸ "Proyecto de dinamización del centro D'elikatuz". OUA. Sig: K688.

Desagertzeaz zegoen ondare ugariaren artean Mater izeneko Getariako ontzi bat berreskuratu zuten, izan ere garai hartan EJak egurrezko flota zaharkitua ordezkatzeko diru-laguntzak eskaintzen hasia zen eta ontzi hauetako asko galtzeko arriskua zegoen. Itsasontzia museo bezala egokitu zen 2005an, Espainian ur gaineko lehen museo bihurtuz (Suberbiola et.al., 2012). Mater itsasontzitik haratago, Pasaia eta gertuko kostaldearen ezagupena zabaltzea zuen helburu; espazio horretara mugatu baino beste jarduera ezberdin asko burutzeko oinarria izan zen museoaren jarduera eta ekintza guztiek bi bide jarraitu zituzten hasieratik: turismo arduratsua eta ingurugiro hezkuntza.

46. Idiazabal Gaztaren Interpretazio Zentroa

Idiazabalgo herria gaztagintzari estuki lotuta zegoen gunea zen; 90ko hamarkadan gaztaren jatorrizko denominazioaren inguruko ekimen bati ekin zion Udalak, eta honetatik abiatuta aipatzen zuten bezala “museo bat beharrezkoa ikusi genuen, praktikan gertatzen den bezala, asko dira, Idiazabalen, gaztaiaren inguruko gaiak, eta herriak ez du honen inguruan zer eskeinia (sic). Adibideak izan dira. Batere publizidade (sic) eta propagandarik gabe, jende batek, gaztaia (sic) egiten zen lekua ikusi nahi zuela eta, herrira hurbildu ziren”⁵⁷⁹. Honela artzainen lana ikusteko zenbait bisita gidatu burutu zituzten eskualdeko elkarte batzuk, baina izandako arrakastak eta eskaini ahal zena gehiago izanik espazio museistiko baten beharra gailendu zen. Proiektu sendoa eta arrakastatsua burutzeko asmoz beste herrialde batzuetako gazta museoak bisitatu ziren, espazioaren antolaketa eta zerbitzuak ezagutzeko, hala nola jarduera didaktiko eta turistikoa nolakoa zen ezagutzeko⁵⁸⁰. 90ko proiektu horrek oso argi zuen ikuspegi bat planteatu zuen hasieratik: “Potenciar, dinamizar y desarrollar actividades relacionadas con el queso de Idiazabal desde un enfoque tractor para el turismo”⁵⁸¹. Urteetan zehar museoaren sortzeko lanak zein herriko interes guñe ezberdinak egokitzeak igaro ondoren, 2005ko abenduaren 14an inauguratu zen Idiazabal Gaztaren Interpretazio Zentroa⁵⁸². Espazio horretara mugatu baino, beste zentro askotan gertatu zen bezala, I.Z.aren ekintza indartsuenetako bat bertako gazta produktoreekin egindako elkarlan ekimenetan oinarritzen zen, museoan ikusitako eta landutako edukiek gazta munduarekin erlazio zuzena eta egunerokoa zutenen espazioetan ezagutzeko aukera eskainiz.

47. Oiasso Erromatar Museoa

Irun eta Oarsoaldeako eskualdean 60ko hamarkadaren amaieratik burutzen hasiak ziren zenbait indusketa arkeologiko, zonaldearen iragan erromatarraren aztarnak agerian uzten hasiak zirenak: Ama Xantaleko ermitakoak, Juncalleko elizaren plazako aurriak edota antzinako portu batekoak. 90ko hamarkadatik aurrera indusketak areagotu ziren Arkeolan entitatearen eskutik (Barandiaran eta Urteaga, 2007). Erromatar garaiko aztarna guztien garrantzia ikusirik Irungo Udala museo baten sorrerarako proiektuaren inguruan lanean hasi zen 1996tik aurrera. Lehenengo pausoa espazio egoki baten bilaketa izan zen, Irunen bertan existitzen ziren eraikin zaharrak birgaitu eta museo bezala egokitzeko. Ekimena martxan hasia zen bitartean Udalak aukeran zuen eraikinetako baten atzealdean erromatar garaiko terma batzuk aurkitu ziren; gertaera hori erabakigarria izan zen eta bertan, antzinako eskola publikoetan erromatar museoaren ipintzeko lanei ekin zitzaion (Urteaga, 2012). Ordutik aurrera zaharberritze obrak hasi ziren, proiektu museografikoa prestatu zen eta lehen jarduera didaktiko eta difusiozkoak gauzatu ziren, herritarrek irekiko zen museoaren eta bere bildumaren berri izan zezaten⁵⁸³.

⁵⁷⁹ *Gazta* Museoaren inguruko dokumentazioa. IDUA. Sig: 223-4. 1 or.

⁵⁸⁰ Ibid. 3 or.

⁵⁸¹ “Turismo-Idiazabal Gazta_1993”. IDUA. Sig: 180/5. 1 or.

⁵⁸² “Turismo”. 2005. IDUA. Sig: 507/1.

⁵⁸³ Ikus “Ekitaldiak” atala.



2006ko uztailaren 21an Oiasso Erromatar Museoa inauguratu zen, “resultado de dinámicas que han podido desarrollarse gracias a la permeabilidad de la administración municipal” (Urteaga, 2012: 15) . Museoak zentro aktiboa, dinamikoa eta jasangarria izateko helburua izan zuen hasieratik eta filosofia horren baitan ekin zioten lanari. Gipuzkoako beste museo batzuk bezala, bildumagatik zein lantaldearen filosofiagatik, lurraldetik at ere erreferentziatzeko espazio bat bilakatu zen. Arkeologia arloko adituen ikerketa jarraituek, difusio lanek eta aldi berean museologia arloko ekimenetan esperientzia zuten profesionalen proiektuek Erromatar Museoaren garrantzia areagotu zuten.

48. Sagardoetxea. Euskal Sagardoaren museoa

Sagardoari dedikatutako espazio bat sortzeko proiektua aspalditik existitzen zen Gipuzkoan; 1986an jada GFaren Kultura Sailak lehen proposamenak egin zituen: “a lo que se recomendó se incentivase la recuperación de materiales y se estudiase la ubicación definitiva como 1ª medida” (Izaguirre, 8326). Zenbait urte beranduago, 2003an, Sagardun Elkartea sortu zen, “turismoaren bitartez Euskal Herriko sagardoaren kulturaren sustapen soziokulturala egiten duen Partzuergo publiko-pribatua”⁵⁸⁴, Astigarragako Udalak eta zenbait sagardotegiak eta Kultur Taldek osatuta. Elkartearen ekimenenetako bat izan zen sagardoari dedikatutako museoaren sorrera eta hórrela, zenbait urteko lanen ondoren, 2006an inauguratu zen Sagardoetxea, Astigarragako Kultu Etxe izandako erakinean. Horrela, sagarraren historiara zein egungo egoerara gerturatzeko espazio ezberdinak sortu ziren, museoaren barneko erakusketara mugatzen ez zirenak eta jardueren baitan aukera zabala eskainiz: erakusketa gunea, sagastia eta dastaketa-gunea. Beste espazio batzuetan gertatu zen bezala, kasu honetan ere museoak ez zuen funtzionatu entitate isolatu bat bezala eta Elkartek berak garaturiko programei estuki lotuta egon zen, askotan bien arteko jarduerak banaezinak bihurtuz eta beraz museoaren funtzioak zeintzuk ziren mugatzeko oztopoak izanik. Baina dudarik gabe, lurraldeko sagardogintzari lotutako ikerketa eta difusio espazio nagusienetakoa bilakatu zen Sagardoetxea.

49. Antonio Oteiza Museoa

Antonio Oteiza Fundazioak artistaren bildumarako espazio baten bilaketan Azkoitiko Udalarekin harremanetan jarri zen. Herrian bertan Kukuherri aterpetxean existitzen zen antzinako Karmeliten kapera bat, eta gunea hori aukeratu zen museoa ezartzeko. Antonio Oteiza Museoa 2007ko martxoan inauguratu zen, Fundazioa, Kukuherri, Udala eta Luciano Soraluek sustatuta⁵⁸⁵. Urtebete baino gehiago bertan egon ondoren Antonio Oteiza Fundazioaren egoitza berria inauguratu zen Azkoitiko Aingeru kalean, Oteiza pilotalekueetatik oso gertu. Museoan erakusketa iraunkorra ikusgai ipini zen, eta aldi baterako erakusketaren bat ere antolatu bazen ere orokorrean gunea estatiko bat izan zen – nahiz eta Fundazioak museotik at eta beste gai batzuei loturik jarduera ezberdinak burutu zituen – . Lokal berri haietatik hirugarren eta azken lekualdatze bat gauzatu zen urte hauetan ere: Azkoitiako Udalaren jabetza zen Intsausti Jauregiko espazio batean egokitu zen bilduma. Programazio egonkor baten gabezia eta dinamika indartsurik gabe, museoa itxita mantendu zen gunea berrian⁵⁸⁶.

50. Arrikrutz - Oñatiko kobak

⁵⁸⁴ Sagardun. Sagardoaren bizitza. Astigarraga. In <http://www.sagardun.com/eus/nor-gara/> (2015ko ekainaren 1an ikusia).

⁵⁸⁵ Antonio Oteiza Fundazioa. Jarduerak. In <http://www.antoniooteiza.org/fundacion/eu/actividades-detalle.php?id=5> (2015ko ekainaren 10an).

⁵⁸⁶ Antonio Oteiza Museoaren egoitzei buruzko dokumentazioa. Azkoitiko Udala K.S.



Oñatiko Arrikutz kobak zenbait hamarkada aurreagotik ezagutzen ziren, geologo, espeleologo eta arkeologo ezberdinek berau aztertu zutelarik. Baina egindako aurkikuntzen garrantziaz jabeturik zein ikerketen emaitzek agertutakoarekin lotuta, Oñatiko Udalak kobak publikora irekitzeko proiektuari ekin zion, natur eskaintza hobeto eta kultur ondarearen balioa handitzeko helburuaz (Irazabal, 2012). Horrela, 2007ko ekainean inauguratu ziren Arrikutzeko kobak (Rekondo, 2007), kobazulotik gertu aurkitzen zen harrera eta erakusketa eraikinarekin batera. Honela ikusgai ipini zen Iberiar Penintsulan aurkitutako lehen haitzetako lehoiaren eskeletoa, Arrikutzeko 53 galeriaren elementu erakargarrienetakoa bihurtuz; baina baita paisaia karstiko beraren ikuspegia ere, lurpeko munduaren erakuslehoi aproposa⁵⁸⁷. Gipuzkoako multzo karstiko handiena eta Euskadiko luzeenetako bat zena (Rekondo, 2007) publiko mota ezberdinak bisita zezan egokitu zen honela, pasarela baten bitartez eta soinu zein argi jokoez lagundutako ibilbide bat egin zezaketelarik.

51. Nautilus. Mutrikuko Geologiaren Interpretazio Zentroa

Nautilus, Mutrikuko Geologiaren Interpretazio Zentroa, bilduma pribatu bat oinarri izanik sortutako espazioa da. Jesus Mari Narvaez eta Esperanza Azkarraga senar-emazteek urte luzeetan jasotako fosil piezak oinarri hartuta⁵⁸⁸ 2006an proiektuari hasiera eman zitzaion. Espazio berri honekin herriko eskaintza turistikoa osatzea zen helburua, Bentalekutik burutzen ziren ibilaldi gidatuen parte bilakatuz. 2007ko abuztuaren 3an inauguratu zen, Mutrikuko Udala, Debegesa eta Aranzadi Z.E.ren arteko lankidetzatik⁵⁸⁹.

52. Aikur Erle Museoa

Urretxun, Irimo mendiaren magalean kokatzen zen baserri batean ezarri ziren Josune Epelde eta Elías Otegi senar-emazteak erlezaintzara dedikatzeko. Natur Eskola Bizia proiektuaren barnean erlategietara eta euren baserrira bisitak eskaintzen zituzten 1995tik⁵⁹⁰, baina museo didaktiko bat sortzeko ideiaren inguruan lan egiten ere hasiak ziren, publiko guztiari zabaltzeko asmotan⁵⁹¹.

Honela, proiektu museografikoa diseinatu eta gauzatu eta 2007ko irailean inauguratu zen Aikur Erleen Museoa. Hasieratik Lenbur Fundazioak zuen eskaintzan eta lurraldeko sarean barneratu zen espazio hau, Urola garaiko eskualdeko ondarea kultural eta naturalaren baitan beste ekipamendu bat gehitzen zitzaielarik. Oro har, Artzaintzaren Museoan gertatu zen bezala, espazio bizi bat zen hau, egunerokotasunaren lanaren adierazgarri eta honen baitan landa eremuko bizimodua erakusteko aukera ezin hobea.

⁵⁸⁷ Arrikutz – Oñatiko kobak. In <http://www.gipuzkoakomuseoak.net/museos/museo.php?id=eu&Nmuseo=1271770340> (2015ko maiatzaren 3an ikusia).

⁵⁸⁸ (2007). Nautilus nuevo Centro de Interpretación geológico sobre el Flysch cretácico de la costa vasca. *Aranzadiana*, 128, 260-261.

⁵⁸⁹ Chico, A. (2007ko abuztua). Mutriku según los fósiles. *El Diario Vasco*.

⁵⁹⁰ Aikur Erle Museoa. Aurkezpena. In <http://www.aikur.com/> (2015ko ekainaren 1an ikusia).

⁵⁹¹ "Aikur 2009". GFAAA. Sig: 5051/3.





30. irud: Aikur Erleen Museoa (Lenbur Fundazioa)

53. Arkaka. Uraren Interpretazio Zentroa

Zaldibian, Txindokiren magalean eta Aralarko Natura Parkearen barnean, CAF enpresak zenbait hamarkadetan erabilitako zentral hidroelektrikoa aurkitzen zen, Amundarain errekaaren ondoan eta zentralerako eraikitako putzu artifizial bat aurrean zuena. Inguruneak berak zuen balio naturalak eta azpiegiturak eskaini ahal zituen aukerak antzemanda, Zaldibiako Udalak espazio horretan Uraren Interpretazio Zentroa eta Arrantza Eskola bat sortzeko proiektuari ekin zion, GFaren laguntzaz eta CAF zein Naturgintza Fundazioaren lankidetzari esker⁵⁹². Lehen fase batean Arrantza Eskola inauguratu zen 2007an, kanpoaldeko zonaldea txukundu eta arrantzarako egokiak ziren plataformak egokituz. Bertako jardueren kuadetzaileak Zaldibiako Gaztelu ehiza eta arrantza elkarteak izan zen lehen urteetan, zenbait lehiaketa eta jarduera burutuz. Bigarren fasean Uraren Interpretazio Zentroa inauguratu zen, 2008an. Honen bitartez publikoari erakusketa aretoa zabaltzeaz gain Arrantza Eskolarako baimenen kudeaketa ere bertan burutuko zen. Honela espazio berean “(se) une(n) varios objetivos como la práctica del deporte, el aprovechamiento del ocio, el fomento de las relaciones familiares y el respeto por la naturaleza”⁵⁹³. Lehen urteetan Interpretazio Zentroak irekiera ordu finko batzuk izan zituen eta espazioaren kudeaketarako Arazi S.Coop. enpresa kontratatu zen.

54. Arditurri meatze gunea/ Arditurri Parketxea

Oiartzunen, Aiako Harria Natura Parkearen barnean aurkitzen zen meatzaritza gune garrantzitsu bat, erromatarren garaitik ustiatzen zena. Mendez mende kokaleku hark gizatalde ezberdinentzako lehengai iturri izan zen, 1985 bertako ustiaketa lanak eten ziren arte (Rekondo, 2009). Meategi zuloa eta horren inguruan sortutako azpiegitura guztiak utziak zeuden garaian Arkeolan taldeak, Felix Ugarte Elkartearen laguntzaz, bertako zonaldearen azterketa burutu zuen (Rementeria, 2005). Aurkitutako aztarnen garrantzia zela eta, Oiartzungo Udalak 1989an erositako lursail haien berreskuratze ekimena martxan jarri zuen 2006an, “bailarako natura, kultura eta ondasun aberastasunak babesteko eta bultzatzeko” (“Arditurri Albisteak”, 2007: 1). Meategiaren berreraikuntza eta publikoaren bisitarako egokitzearekin batera – non 800 metrotako pasarela bat ipini eta argiztapen sistema bat ezarri zen –, bertako harrera gune izango zen laborategi zaharren eraikina zaharberritu zen. Espazio honetan Arditurriko Interpretazio Zentroa ireki zen 2008ko ekainean⁵⁹⁴, oraindik lanean ziharduen arkeologo taldearen ikerketak guztiz amaitu baino lehen. Urtebete beranduago GPS Fundazioan integratu zen ekipamendu hau, Arditurri Parketxea bilakatuz.

⁵⁹² Iraola (2006, martxoak 22). “ZALDIBIA PATXI AIERBE URBISTONDO ALCALDE / «Queremos que los jóvenes se queden a vivir aquí»”. *El Diario Vasco*. In <http://www.diariovasco.com/pg060322/prensa/noticias/Tolosa/200603/22/DVA-TOL-253.html> (2015ko ekainaren 16an ikusia).

⁵⁹³ Requena, J.M. (2007, urtarrilak 11). Aprender a pescar en Zaldibia. *El Diario Vasco*. In http://www.diariovasco.com/prensa/20070111/gipuzkoa/aprender-pescar-zaldibia_20070111.html (2015ko ekainaren 16an ikusia).

⁵⁹⁴ Oiartzungo Udalak sustatuta eta GFA zein EJren laguntzaz. Rekondo, J. (2009). La apertura de arditurri en Oiartzun permite recorrer 2.000 años de historia minera. *Sustrai*, 87, 26-27.

55. Leitzarano. Uraren Interpretazio Zentroa

Andoainen, Leitzarango biotopoaren natur ondarea ezagutzeko espazioa ireki zen 2008ko uztailaren 31an: Leitzarano Bisitarien Etxea. Multzo hau bi espazioz osatuta zegoen; Alde batetik Uraren Interpretazio Zentroa, eta bestetik Arrantza Eskola⁵⁹⁵. Proiektu hau Andoaingo eta eskualdeko turismoa sustatzeko helburua izateaz gain, natur ondarearen inguruko kontzientiazio eta kontserbaziorako jarreraren sustapena zuen hasieratik, horretara bideratutako jarduerak eta baliabideak sortuko zirelarik. Ekimena Andoaingo Udalak jarri zuen abian, GFA eta EJRen laguntzarekin batera eta Bisitarien Etxeko bi espazioek elkarlanean burutu zituzten euren jarduerak eta eskaintzak, osagarriak ziren programak publikoari eskainiz. Espazio natural honen inguruko ekimen ezberdinak burutu ondoren, 2012.urte inguruan Bisitarien Etxea Turismo Aktibo Gune bihurtu zen⁵⁹⁶; I.Z. edo museo izaera alde batera utzi zen eta kirol jarduerak eta natura uztartzen zituen proiektu berri baten baitan garatu zen

56. Ekainberri

Zestoako herriaren inguruan aurkitu ziren Ekaingo kobak 1969an, Andoni Albizuri eta Rafael Rezabal Antxieta K.E.ko kideen eskutik. Horren ondoren Jose Migel Barandiaranek – Aranzadi Z.E. – lehen indusketa arkeologikoak zuzendu zituen 1969 eta 1974 bitartean (Barandiaran eta Altuna, Asensio et.al.ek aipatua, 2012).

Baina gunearen garrantzia zela eta, espazioaren erakusketa beharrezkotzat jo zen; kontserbazio eta irisgarritasun gaitzat koba originala erakusteko oztopoei aurre egiteko erreplika baten eraikuntza proposatu zen orduan (Asensio, Ibañez, Caldera, Asenjo eta Castro, 2012), gerora Ekainberri izena hartuko zuena. Ondaregune honen zein proiektuaren kuadeaketarako Ekain Fundazioa sortu zen 2004an, GFA, EJ eta Zestoako Udalak osaturiko erakundea⁵⁹⁷. Zortzi urte iraun zuten Ekainberriko obrek, neokoba bera erakusketa areto batez eta espazio didaktikoaz osatuz (Asensio et. al. 2012) eta azkenik 2008ko irailean inauguratu zen⁵⁹⁸. Museoak hasieratik sustatu ditu ikerketa lan ezberdinak, aurrehistoriaren inguruan zein gaiaren lanketa didaktikoaren inguruan, publiko mota ezberdinetara bideratutako ekintza eta ekitaldien programazioak atzean utzi gabe.

57. Real 100 Museoa

Real Sociedad klubak bere 100.urteurrena ospatu zuen 2009an, ekitaldi ezberdinak burutu zirelarik. Urte berean eta ospakizunarekin bat eginik, Real 100 Museoa inauguratu zen irailaren 7an. Anoetako estadioaren espazio batean kokatu zen erakusketa iraunkorra, hilabete gutxiren buruan osatutako ekimena izanik: edukiak landu, proiektu museografikoa diseinatu, piezak jaso eta ikus-entzunezko ezberdinak bildu ziren⁵⁹⁹. Orduetik museora zein estadiora bisita gidatuak burutu ziren, banakako zein taldeei eskainiz.

58. Done Jakue Bidearen Interpretazio Zentroa

⁵⁹⁵ Olano, M. (2008, uztailak 30). El centro de interpretación del agua abre sus puertas. *El Diario Vasco*. In <http://www.diariovasco.com/20080730/comarca/centro-interpretacion-agua-abre-20080730.html> (2015ko ekainaren 4an ikusia)

⁵⁹⁶ "Leitzarano Turismo Aktibo Gune aisialdi eta kirol ekintzetara zuzenduta dago" In <http://www.leitzarano.org/> (2015ko ekainaren 24an ikusia).

⁵⁹⁷ Ekain Fundazioa. In <http://www.ekainberri.com/historiaurreko-ibilbidea/> (2015ko maiatzaren 14an ikusia).

⁵⁹⁸ Ekainberri gain Zeraingo turismo bulegoaren kudeaketaren ardura ere jaso zuen UTEak. "Ekain Fundazioaren Patronatua. Ekainberri Proiektuaren kudeaketa eta gainbegiraketa tekniko eta Fundazioaren Sekretaritzaren Teknikoa". GFAAA. Sig: 5052/5.

⁵⁹⁹ "Dossier de prensa. Museo Real 100 Museoa. 2009ko irailaren 7an". RMA.



Orion museo edo Interpretazio Zentro bat sortzeko proiektuaren inguruko eztabaiden ondoren, 2009ko urrian inauguratu zen Done Jakue Bidearen Interpretazio Zentroa, Kale Nagusiko Iturraga Jauregi Zaharbertutuan. Bertan kokatu zen ere Orioko turismo bulegoa, udalerriko zein zonaldeko informazioa eskaintzeko. Museografiak berak eskaintzen zituen baliabideak eta teknologia berriei esker bisita auto-gidatua ezarri zen hasierako momentutik, erakustaretoa espazio finkoa izanik eta bitartekotzarik gabe ikusteko pentsatua. Hori dela eta ez zen bertatik inongo hezkuntza programarik garatu.

59. TOPIC. Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroa

Gipuzkoako museoaren artean eredu berezietakoa izan zen TOPIC, “el único centro dedicado al arte de la marioneta de manera integral [...] que existe en Europa” (“El TOPIC de Tolosa”, 2011: 63). C.I.T.ek⁶⁰⁰ – Centro de Iniciativas de Tolosak⁶⁰¹ – urteetan zehar udalerrian burututako ekimenen artean garrantzitsuenetakoa izan zen proiektu hau: Tolosako antzinako Justizia Jauregiaren eraikina birgaitu eta bertan ezarri zen Txotxongiloei dedikatutako espazioa, 2009ko azaroan inauguratuz⁶⁰². Zentroa sail ezberdinez osatuta zegoen, nazioarte mailako txotxongilo konpainia ezberdinei irekitako gune bat izanik eta aldaketa etengabe batean murgildutako proiektuei ekiteko aproposa. Kontserbazio eta difusio lanekin batera, hezkuntza programa ezberdinak aurrera eramaten ziren, beti ere sormen tailerra, Dokumentazio Zentroa eta museoaren arteko banaketarik eman gabe, izan ere TOPICen barnean jasotzen ziren ekintza eta espazio guztiak kudeaketa eta jardura bateratu bat izan zuten hasieratik. Horregatik esaten zen TOPIC “museo bat baino gehiago” zela eta tradizionalki gune hauen inguruan dagoen kontzepzioetik haratago zihoala: “Horrelako espazio batek ez luke espazio publiko ofizial baten antzik izan beharrik ezta Museo edo Antzoki baten antzik ere. Bakarrik bere antza, Txotxongiloen etxe baten antza”⁶⁰³.

60. Ondartxo Itsas Kulturaren Zentroa / Albaola Itsas Kultur Faktoria

Egun Albaola Itsas Faktoria bezala ezagutzen denaren historiaren abiapuntua 90ko hamarkadaren amaieran kokatu behar dugu. Orduan, Estatu Batuetako Maineko ontzigintza eskolari esker “Ameriketatik” izena jaso zuen XIX.mendeko trainerua eraiki zuen, eta Euskal Herriari oparitu zion eta hona ekartzean Gipuzkoako kostaldean nabigatu zuen denbora batez. Itsasoaren kulturaz ardura berezia agertu zuten pertsona talde bat hasi zen orduan proiektu berri baten inguruan lan egiten eta Albaola Elkartu zuten 1998an⁶⁰⁴. Elkartearen helburua “euskaldunen itsas ondarea ezagutaraztea eta bultzatzea” (Calderón, 2004: 1) zen eta horretarako hainbat ekimen sustatu zituen. Horietako nagusia, proiektu guztien muina, Ontziola izan zen, 2000an irekitako Itsaso Tradizionalen Ikerketa eta Eraikuntza Zentroa. Pasaian kokatzen zen espazio honetan Albaola Elkartek hainbat ontzi eraiki zituen teknika tradizionalak jarraituz eta beste zenbait ondare elementuren berreskurapenean ere parte hartu zuen⁶⁰⁵. Zentro ireki bat bezala funtzionatzen zuen, bai fisikoki zein kontzeptualki, bisitariei prozesu guztien nondik norakoak erakutsiz, nabigaziorako frogak burutuz eta itsas kulturarekin erlazioa zuen proiektu ezberdinetan parte hartuz.

⁶⁰⁰ Tolosako Udala, GFA, Sustapen Ministerioa, EJ eta Kutxaren laguntzaz. “TOPIC gida”. TGA.

⁶⁰¹ C.I.T. 1967an osatutako Elkarte Kultural Pribatua da, Tolosako ekimen ugariaren sortzaile eta sustatzaile izan zena sorrera urtetik. In http://www.cittolosa.com/index.php?option=com_content&task=view&id=12&Itemid=31 (2015ko ekainaren 4an ikusia).

⁶⁰² Obrak amaitu aurretik Tolosaldea Tourren eskutik zenbait bisita gidatu burutu ziren Zentrora, eraikuntza eta sortze prozesu guztia ikusi eta etorkizunean izango zenaren zabalkuntza lanak egiteko. “TOPIC gida”. TGA.

⁶⁰³ Museoa. TOPIC. In <http://www.topictolosa.com/eu/museoa.html> (2015ko ekainaren 4an ikusia).

⁶⁰⁴ “Albaola Itsas Kultur Faktoria Prentsa Dossiera 2014”. In https://www.google.es/search?q=albaola+prentsa+dossiera&aq=chrome..69i57j69i60.3065j0j9&sourceid=chrome&es_sm=93&ie=UTF-8 (2015ko ekainaren 5an ikusia).

⁶⁰⁵ Zentroko eraikitze lanez gain, itsasontzi tradizionalen egindako zenbait nabigazio esperientzia burutu ziren; horien artean ezagunena izan zen *Apaizak Obeto*, arkeonabigazio espedizioa. Ibid.



Espazio handiago baten beharra ikusirik, 2010. urtean Ondartxo, Itsas Kulturaren Zentroa inauguratu zen, Pasaiaiko antzinako ontziolan kokaturik. Bertan jarraitu zuten lanekin batera, GFAko itsasontzi bildumaren zati bat gorde eta kontserbatu zuten. Hamarkada honetan gainera egun existitzen den proiektu handiari hasiera eman zitzaion: Kanadako Red Bay-en aurkitua izan zen 70ko hamarkadako San Juan galeoia, Euskal Herriko XVI.mendeko itsasontzia eta munduan hoberen kontserbaturikoa. Hortik abiatuta San Juanen erreplika bat eraikitzeari ekin zitzaion Albaola Elkartetik, beti ere eraikuntza garaiko teknikak eta tresnak errespetatuz. Institutuzio ezberdinen laguntzari esker eta Elkartek buruturiko proiektu guztia aurrera eramateko 2014an inauguratu zen ontziola eraberrituta eta lanerako egokituta, Albaola Itsas Kultur Faktoria izenaz.⁶⁰⁶, era berean Donostia Kultura 2016 proiektuarekin baitan gauzatuz. Faktoriaren filosofia dinamismoa eta parte-hartze etengabeko batean oinarritzen da, bisitariak beti ere partaide izanaz.



31. irud. San Juan itsasontziaren eraikuntza Albaola Itsas Kultur Faktorian (Albaola Fundazioa)

61. Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroa

Elgetako kokaguneak zein jazoera historiko ezberdinen garrantziak berak bultzatu zuen Elgetako Udala Historikoari dedikatutako espazio bat sortzera. Herriko boluntario askoren lanari esker zein Intxorta 1937 Kultur Elkartea, GFA eta EJren laguntzaren bitartez inauguratu zen museo 2010ko maiatzean. Herriko Kafe Antzokiaren beheko solairuan kokatuta, Espainiako Gerra Zibileko ondarea zein informazioa erakusten duen gunea egokitu zen, horrekin batera frontean bertan babesleku, lubaki eta parapetoak ere erakusgai ipiniz⁶⁰⁷.

62. Barandiaran Museoa

Ataungo Udalak zenbait urte zermatzan Jose Migel Barandiarani dedikatutako espazio bat sortu nahian. Etnografo eta arkeologoaren bizitzak zein obra bolumenak zaila egiten zuen museo batetara egokitzeko diskurtso bat

⁶⁰⁶ Erakunde kolaboratzaileen artean GFA, EJ, Pasaiaiko eta Donostiako Udalak, Oarsoaldea Garatzen, Espainiako Gobernua, Pasaiaiko Portua eta Kanadako Parkeak. "Albaola Itsas Kultur Faktoria Prentsa Dossiera 2014". In https://www.google.es/search?q=albaola+prentsa+dossiera&oq=albaola+prentsa+dossiera&aqs=chrome..69i57j69i60.3065j0j9&sourceid=chrome&es_sm=93&ie=UTF-8 (2015ko ekainaren 5an ikusia).

⁶⁰⁷ Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroa. Gipuzkoako Museoak. In <http://www.gipuzkoakomuseoak.net/museos/museo.php?Nmuseo=1320313869> (2014ko ekainaren 12an ikusia).

eratzek. Azkenean, eta zenbait urtetako obren ondoren, 2010ko ekainaren amaieran inauguratu zen Barandiaran Museoa, Ataungo San Gregorio auzoan. Bertan kokatzen zen Larruntza multzo hidraulikoa, garai bateko errota, zerrategi eta labe batez osatua; Udalak espazio haien zaharberritzeari ere ekin zion⁶⁰⁸ eta museoari atxikita geratu ziren ondareguneko elementu gehigarri bezala.

Irekiera urtetik jada Barandiaran Museoa GPS Fundazioaren barne geratu zen, eta Aralar Natura Parkeak Ataungo herrian zituen bi ekipamenduek era isolatuan lan egitea zentzua ez zuela ikusirik Lizarrusti Parketxearekin batera kudeatzeko erabakia hartu zen, horrela sortuz Lizarrusti-Barandiaran Parketxe hedatua⁶⁰⁹. Ordutik herriko zein Natura Parkeko edukien inguruan lan egiten zuten, eragile ezberdinekin elkarlanak burutuz eta paisaia kulturalaren inguruko ekimen ugari aurrera eramanez. Pixkanaka, eta GPS Fundazioko beste ekipamenduetan gertatu zen bezala, Gipuzkoako lurraldeko ingurumen hezkuntzako proiektu nagusien baitan kokatu ziren bertako proiektu batzuk, eta aldi berean Ataungo sustraletan aurkitzen zen ondare materiagaberaren inguruan ere ekitaldi berezi eta ikusgarriak antolatu ziren.

63. Chillida Lantoki

Legazpiko ondare industrialaren berreskurapena eta honen zabalkuntzarako azken espazioaren irekiera 2010ko uztailean burutu zen, Chillida Lantoki inauguratuz. Herriko antzinako papelera baten espazioa erabiliz industrializazio prozesuko makinak, bideoak eta argazkiak eskaintzen ziren; eta aldi berean Chillidak hauekin izan zuen harreman artistikoaren espazioa ere erresebatu zen; izan ere, artistak siderometalurgia enpresa handietako tailerretan sortu zituen tamaina handiko eskulturak. Bertako langileen testigantzak industria munduaren egunerokotasuna eta bizimodua ezagutzeko oinarritzeko elementua izanik, zenbaiten elkarriketak entzuteko aukera ere eskaintzen zuen museoak. Honela, Lenbur Fundazioak kudeatzen zuen lurralde-museoaren panorama geroz eta osatuagoa bilakatu zen eta bide batez industrializazioko garai eta prozesu ezberdinen – antzinakoak zein modernoak – inguruko eskaintza zabaltzen zuen.

64. Arantzazuko Parketxea

Aizkorri-Aratz Natura Parke izendatu zuten 2006an⁶¹⁰, eta 2011an ireki zen bertako Parketxea Arantzazuko auzoan, Gandiaga II Topaguneko eraikin berrian. Espazio handiak eskaintzen zituzten erakustaretoetan paisaia kulturalaren inguruko informazioa eskaintzen zen, ikus-entzunezko zein teknologia berrien bidezko elementuen bitartez. Aizkorri ez ezik, Parketxeak Gipuzkoako babestutako beste eremuen erakusleihu ere izateko asmoa zuen. Aldi berean, Parkeari lotutako elementuak ardatz hartu ziren: artzaintza, paisaia karstikoa eta santutegiko izpiritualtasuna. Arantzazuko Parketxea GPS Fundazioak sustatutako lehen espazioa izan zen, eta noski, kudeaketa honen baitan geratu zen. Dinamizazio lanei dagokienez banakako bisitari zein taldeei eskaintzeko jardura ezberdinen programazioari ekin zioten hasieratik, Gipuzkoako beste Natura Parkeetako ekipamenduekin batera ekimen ezberdinak burutuz.

65. Cristobal Balenciaga Museoa

⁶⁰⁸ 90ko hamarkadan, Gipuzkoako beste zenbait ondareguneeetan gertatu zen bezala, Larruntza Multzoaren inguruko garbiketa lanak egin izan zituzten auzolandegietan parte hartu zuten gazteek.

⁶⁰⁹ "Museoaren historia laburra". LBPHA.

⁶¹⁰ 76/2006 DEKRETUA, apirilaren 4koa, Aizkorri-Aratz aldea Parke Natural deklaratzeko duena. EHAA - 2006ko apirilak 21, ostirala. 76 zkia.



Cristobal Balenciagaren Fundazioak, Getariako Udalak eta arte-sortzailearen jarraitzaile talde batek, honen lana gorde, kontserbatu, ikertu eta erakusteko gune baten sorreraren inguruan lanean hasi ziren, 90ko hamarkadaren amaiera aldera. Lehenbizi herriko Aldamar Jauregia zaharberritzeari ekin zitzaion, eta gerora museoa bertan ipintzeko lanekin jarraitu zen, espazio handiago bat atxikiko zitzaiolarik⁶¹¹. Obrak zenbait urte iraun ondoren, museoa 2011ko ekainean inauguratu zen, ordura arteko lurraldeko panorama museistikoan – zein Euskal Herrikoan – modari dedikatutako lehen museoa bihurtuz. Aldi berean Gipuzkoan irekitako museoetatik nazioarte mailan oihartzun handiena sorrarazi zuen espazioa izan zen, goi klaseko bizimoduari ezinbestean lotutako ondarea izanik zein mundu osoko diseinatzailearen famagatik bestelako ikuspuntu batetik begiratu zelarik. Hala ere, lurraldeko panorama kulturean txertatzeko lanari ekin zitzaion eta ordura arteko edukiak gizarteratzeko indar berezia egin zen. Adierazgarria da publiko orokorrari heltzeko jardueren programazio bat eratzeaz gain Balenciaga Museoak ikerketa eta sormen gunea izateko helburua ere zuela bere baitan eta hortaz moda profesionali zuzendutako ekimenak ere ugariak izan ziren hasieratik.

66. Uliako Interpretazio Zentroa

Donostiako Uliak mendian ireki zen I.Z. hau 2012ko uztailaren 28an, bisitariei espazioari buruzko informazioa eskaintzeko gunea (Gómez eta Sáez, 2013). Cristina Enea Fundazioaren esku geratu zen espazio honen kudeaketa, “herritarren artean sustatu nahi duen ingurumen eta iraunkortasun baloreetara bideraturiko eraldaketa adeitsua lortzeko tresna eta baliabide didaktiko garrantzitsuak”⁶¹² proposatuz. Erakusketa aretoaz gain zen aldizka antolatutako jarduerekin batera, I.Z.ak baratza ekologiko bat ere zuen, tailer esperimentalak eta ekologiarekin lotutako jarduera praktikoak burutzeko egokia.

67. Lili Jauregia

Zestoan herrian XV.mende amaiera- XVI.mende hasiera bitarteko Lili Jauregia aurkitzen zen, familia boteretsu baten bizileku izandakoa. Eraikinaren zaharberritzeko obrei ekin zitzaion 2009 urte inguruan eta azkenik 2013an inauguratu eta publikoari ireki zen. Ekain Fundazioaren pean geratu zen bertako bisiten ardura eta dinamizazioa eta museo edo eraikin historiko baten musealizazio tradizionaletik urrunduz, Lili Jauregia modu berri batean erakustea erabaki zen: garaiko espazioak birsortu ziren San Telmo Museoa eta Gordailuko pieza historikoekin⁶¹³ eta bisita gidatu arruntak egin ordez bisita antzeztu edota dramatizatuekin burutzeari ekin zitzaion, publikoari Lili Jauregiaren historia ezagutzeko aukera desberidin bat aurkeztuz⁶¹⁴.

⁶¹¹ Obra hauek burutzeko 2005an sortu zen Berroeta Aldamar, S.L. (Getariako Udala, GFA eta EJ) eta geroago Cristobal Balenciaga Fundazioaren parte izatera pasa ziren azken bi instituzioak. Museoaren historia. In <http://cristobalbalenciagamuseoa.com/Historia-2.html> (2015ko ekainaren 22an ikusia).

⁶¹² Uliak Interpretazio Gunea. In <http://www.cristinaenea.org/pagina.php?queidioma=2&pg=91> (2015ko ekainaren 15an ikusia).

⁶¹³ Lili Jauregia. In <http://www.lilijauregia.com/palacio-lili/?lang=eu> (2015ko ekainaren 25an ikusia).

⁶¹⁴ Ikus “Bisita antzeztuak” atala.



Museo sareak eta elkarlanak

Donostiako Museoen Sarea

2005an Donostiako museo ezberdinek Udalak sustaturiko programa batean parte hartu zuten, "Gabonak Zuretzat" izenekoa. Proiektu honetako elkarlana koordinazioan oinarritzen zen: museo bakoitzak jarduera bat proposatzen zuen eta horiekin egutegi bat osatzen zen, ekintzen gainjartzerik gerta ez zedin. Bi urte beranduago, eta hamarkadaren hasieran Udalak egindako "Donostiako Plan Estrategikoa"ren txosteneko emaitzetan oinarrituta, Udalak hiriko museoen arteko koordinazioaren gabeziaren aurreko irtenbide bat aurkitu behar zela adierazi zuen. Egoera honetan Donostiako Udalak elkarlanean aritzeko ekimen baten proposamena luzatu zien, honela jaio zelarik Donostiako Museoen Sarea⁶¹⁵, San Telmo Museoa, Zientziaren Kutxagunea Zientzia Museoa – egun Eureka! Zientzia Museoa – Aquariuma, Museum Cemento Rezola, Untzi Museoa eta DEMk osatuta. Bi urte beranduago inauguratutako Real 100 Museoa ere sarera batu zen. DMSren baitan sail ezberdinetan banatu ziren museoetako arduradunak, ekimen ezberdinei aurre egiteko era eraginkorrean lan egin ahal izateko, eta hiriko kultur jardueretan parte hartzeaz gain, eurak antolatutako ekimenak ere sortu zituzten⁶¹⁶.

Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioa

GFaren Kultura eta Euskararen Sailak 2009an kaleratu zuen Gipuzkoako Lurraldea historikoko museoak antolatzeko plana, "lurraldeko museoen mapako baliabideen plangintza, diseinu eta banaketari buruz erabakiak hartzeko oinarritzko tresna izateko" (GFA, 2009: 4). Plan honen baitan etorkizunean burutzeko ekintza ezberdinak aurkeztu ziren, horien artean diskurtsoak adierazgarrienak eta hauekin erlazionatutako espazio eta baliabideen taldekatzeen bitartez sareak osatzea proposatu zen. Diskurtso hauetako bat ardatz hartuta – natura – sortu zen 2009ko abenduan GPS Fundazioa, irabazi-asmorik gabeko erakundea zeinak Gipuzkoako Natura Parke eta biotopoak bildu eta horien ekipamenduak kudeatuko zituen. Fundazioaren eragile nagusiak GFA, ekipamenduak aurkitzen ziren herrietako Udalak – Aia, Ataun, Oiartzun, eta Oñati – eta Donostiako Kutxa ziren⁶¹⁷. 2014an gainera, Zegamako Udala ere gehitu zitzaion eta Anduetza Baserria Parketxe bilakatu eta Natura Parkeetako ekipamenduen parte bilakatu zen.

Beste elkarlan batzuk

Elkarlanez hitz egitean zaila da benetako proiektu landua eta helburu komun eta zehatz baten lorpenetarako eratutako proiektuen sailkapena egitea. 2000. urtetik aurrera eta esfortzuen batzeak indartsuago egiten gaituela kontutan izanik, museoen panoramaren aurrean elkarlank proposamen ezberdinak gauzatu ziren. Horietako batzuk programa zehaztua izan zuten, helburu definitu eta mugatuekin edota behin behineko ekintza batetarako lankidetzaren proposamenekin; beste batzuk publikoaren talde zehatzei eskaintzeko jardueren burutzearako egin ziren; baina beste askok elkarlan deiturikoaren baitan eskaintza bateratu bat besterik ez zuten eratu, hau da, promozio eta difusio lanetarako eratutako izen edo *leitmotiv* baten pean aurkeztzen ziren museoaren ohiko ekintzak, lankidetzaren taldeen eta ordutegiaren koordinazioan soilik oinarrituz⁶¹⁸. Hori dela eta ezinezkoa litzateke guztien arteko banaketa eta

⁶¹⁵ Aurrerantzean DMS.

⁶¹⁶ Ikus "jarduera didaktikoak" atala.

⁶¹⁷ Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioa. <http://parketxesarea.org/gps-fundazioa/> (2015 apirilaren 24an ikusia).

⁶¹⁸ Askotan produktu turistikoaren erakundeak berak eragin zuen elkarlan proiektu bezala izendatu izatea museo askoren arteko lotura horiek, errealitatearen eskuorri edota promozio lanetarako taldekatze baten pean soilik – gaiaren aldetik edota eskualdeka – aurkeztuz.



aztertzea burutzea, bakoitzaren inplikazio maila eta izarearen limiteak ezartzeak subjektibitateak jokatzea eskatuko lukeelarik.

Hala ere aipagarria da Euskal kostaldean sortutako lehen Geoparkea, 2010an eratu zena Mutriku, Zumaia eta Debako udalerrien baitan. Geoparkeak “garapen jasangarriaren alde egiten duten lurralde berriztatzaileak dira, beraien natur eta kultur-balioetan oinarrituz”⁶¹⁹, eta beraz, museo zein beste ondaregune natural zein kulturalen inplikazio eta koordinazio lanak honetan oinarritukoak bihurtu ziren, eskaintza bateratua eta jarduera ezberdinen proposamenak bideratzen zizuztelarik. Honekin batera, Basquetour - Turismoaren Euskal Agentziak – Euskal Kostaldeko Museoen Sarea osatu zuen, Euskal kostaldeko (Bizkaia- Gipuzkoa) kultura ekipamendu guztien lankidetzarako gune izan nahirik eta museoak ere horien parte izanik⁶²⁰.

⁶¹⁹ Euskal Kostaldeko Geoparkea. In http://www.geoparkea.com/geoparkeari-buruz?lang_code=eu (2015ko ekainaren 29an ikusia).

⁶²⁰ Basquetour. Informazioa. <http://www.basquetour.net/noticia.aspx?idmp=123&idnoticia=444&language=4> (2015ko ekainaren 29an ikusia).



III. GIPUZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA

XXI.mendearekin batera eta museoak irekieraren *boom*-ari jarraituz, jarduera didaktikoen eztanda bat ere eman zela esan daiteke: Gipuzkoako Museoak mota guztietako ekintzak eta gai zabalekin erlazionatutako ekitaldiak antolatzen hasi ziren, aisialdirako proposamenen panorama ia itoz eta talde ezberdinei zuzendutako hamaika programa eskainiz, Díaz Balerdik (2010: 119) “multiplicación y atomización de la oferta” deitu zuena. Egoera honetan museo batzuk ildo finkorik jarraitu gabe antolatu eta eskaini zituzten jarduera ezberdinak, funtzio didaktikoa eta museoarekin lotura izan ala ez, publikoa erakartzeko asmoa soilik kontuan harturik (Anguiano, 2008); beste batzuk herriko turismo bulego bihurtu ziren eta museoaren izena – eta izana – titulu hutsa bihurtu zen, askotan herriak edo eskualdeak eskaini ahal zutenaren sarrera bat besterik ez. Hala ere museo askoren biziraupenerako justifikazioa hezkuntza programa egonkor eta indartsu baten baitan garatu zen: aztertutako eta landutako hausnarketa batetan oinarritu ziren eta askotan instituzio beraren *marka* bihurtu ziren ekitaldi eta ekintza ezberdinak burutu zituzten⁶²¹. Horrekin batera, lantalde geroz eta profesionalizatuagoak eratzen joan ziren, bildumetan adituak izan ez ezik, museologia arloan eta pedagogia museistikoan trebatuz; horrek ezinbestean eragin zuen baliabide material egokien sorreran eta hezkuntza programen arrakastan.

Jarduera motak

1. Bisita gidatuak

Bisita gidatuak museo ororen oinarritzko eskaintza bihurtu ziren; esan daiteke hauen irekierarekin batera zetorren jarduera banaezina zela, eta zenbait kasutan gainera publikoari begira burutzen zen ekintza bakarra zen. Bisita hauek publikoaren eskaeraren arabera egiten ziren gehien bat – batez ere taldeei zuzendutako neurrirako eskaintzaren baitan – edota asteburu eta jaiegunetan ordutegi finko baten barnean. Honekin batera gai zehatz batzuk ardatz harturik erakustaretoetan zehar bisita programa edo bideak diseinatu ziren, publikoaren beharren eta interes ezberdinei erantzuna emateko.

Kasu gehienetan jarduera hauek museoak eraikinaz gain bestelako gune batzuez osatzen ziren, askotan museo edo I.Z.ak espazio horien harrera gune edota informazio osagarria eskaintzeko elementuak bilakaturik⁶²². Zerainean Burdinaren Mendia ezagutzeko sortua izan zen Aizpita Adieraztegia eta bertako bisita gidatuak bi espazioak hartzen zituzten; ren bisita eta bertako mina baten sarrera zein Aizpita Adieraztegiaren osagarria; Gatz Ekomuseoa ezin zen ulertu dorlak bisitatu gabe; Txingudi Ekoetxeak ezinbestekoa zuen Plaiaundi ezagutzeko inguruko pasabideetatik bisitak burutzea I.Z. ezagutu ondoren; Igartubeitin I.Z. Baserriaren osagarritzat eraiki zen; Arrikutzeko koben bisita oinarritzkoa zen eta Arditurri meategira sarrera ere.

⁶²¹ Adierazi behar da sailkapen honen barnean aipatu diren jarduerak museoak programazio egonkorrari lotuta zeudenak izan direla, edota behin-behineko funtzionamendua izan zutenak inongo egun bereziari lotuta egon gabe. Izan ere, ospakizun eta ekitaldi atalean biltzen dira ekimen bereziei lotuta eta programazio oso baten barne burutu ziren jarduerak didaktikoak. Ikus “Ekitaldiak” atala.

⁶²² Museo edo I.Z.a beste espazio baten osagarria deneko kasuak aipatu dira; hau da, ondare-gune baten garrantzia dela eta beraren harrera gune eta informazio puntu izateko sortuak izan direnak.



Eta azkenik, museoko bisitaz gain beste ondare-gune batzuetako bisita gidatuak⁶²³ egiten zituzten zenbait museo eskaerapean, baina derrigorrez museoeko bisitari loturik agertu gabe: Ingurugiro Etxean gaiari lotutako espazioak ikusteko aukera zuten bisitatiek – errota, zabortegia, araztegia – ; Larraulen eliza eta errota; Eskoriatzan Zubiate labea; Zerainen eliza, ermita eta kartzela; Ormaiztegin Trenzubia; eta Oiassok Ama Xantalen ermita eta indusketa guneak. Rezolak fabrikara.

Egoera horretan museo askok “bisita gidatua eta zerbaite gehiago” eskaintzen saiatu ziren, besteengandik desberdintzeko ahalegin baten moduan edota museo beraren izaerari eta lanari lotutako elementu bat zelako. Edukien transmisio hutsetik haratago joateko baliabide eta estrategiak ugariak izan ziren, baina batez ere zentzumenei eta sentipenei zuzendutakoak nagusitu ziren, publikoaren pertzepzio-gaitasuna areagotuz.

1.1. Bisitak erakustaldiekin

Museo batzuen bildumak, inguruko ondareak edota aldi baterako erakusketaren baten gauzatzeak ahalbidetu zuen bisita gidatu soilez gain erakustaldiak eskaintzea. Batzuk, erakusketa eta harreraz gain, antzinako burdinola edota errotaren bisitak ere burutzen zituzten, hauek funtzionamenduan ikusteko aukerarekin: Mirandaolako burdinola, Agorregiko burdin-errota Pagoetan, Leintz-Gatzagako errota, Igarako Errota Azpeitin eta Ogiaren Txokoan aurkitzen zen irin errota eta Barandiaran Museoko Larruntza multzo hidraulikokoa, non zerrategi bat ere funtzionamenduan ikusteko aukera zegoen. Makina modernoagoen funtzionamendua ere ikusgai zegoen Elgoibarko Makina-erremintaren Museoan, zaharberritutako makinariari esker.

Beste museo batzuk landa munduko zein baserriko lan eta tradizioen erakusleiho izan ziren: Zerainen aurreko hamarkadatik egiten ziren Basozabal baserrira bisitak gazta nola egiten zen ikusteko eta museo berrietako batzuk ere dinamika bera jarraitu zuten: Legazpiko Artzaintzaren Ekomuseoan, D'Elikatuz Elikadura eta Gastronomia Zentroa eta Idiazabalgo Gaztaren I.Z.; Sagardoetxean produkzioaren prozesuko erakustaldi ezberdinak eskaini ziren eta Larraulen behi ukuilu batean nola lan egiten zen erakusten zen⁶²⁴. Bisita motan honetan erlezaintzak bere lekua izan zuen, Aikur Erleen Museoko jardueren ardatza bihurturik edota beste museo batzuen osagarri bezala: Pagoetan erlategi didaktikoak martxan jarraitu zuen eta Zerainen Segurako Ermaso baserrira ere bisitak antolatzen segitu zuten erleak ikusteko⁶²⁵, eta Igartubeitin otargile eta abarkagile erakustaldia ere egin zen 2008an. Erakustaldi mota hauekin lotuta aipatu beharrekoa dugu Albaola Itsas Kultur Faktoria, zeina museoa bera untiaren eraikuntzaren baitan antolatzen zen – baita aurrez Ontziolan eta Ondartxon ere – .

Artearekin lotutako erakustaldiak ere ekintza bereziak bihurtu ziren zenbaitetan: artisten lan egiteko modua zuzenean erakusten lehenengo ekimena burutu zen ZAHMen “Hi bai artista!” programaren baitan⁶²⁶ eta Herri Musikaren Txokoan instrumentu ezberdinekin frogaketa eta erakustaldi laburrak egiten ziren bisita gidatuetan. Esperimentuek ere euren lekua izan zuten zenbait museoan eskaintzan. Kasurik aipagarriena dugu Zientziaren Kutxagunean, non esperimentuen emanaldiak egin ohi ziren, horrek ere edukien transmisioaren indartzea eragiten zuelarik; eta baita Urretxuko Mineral eta Fosilen Museoan eta Luberrin, zeinetan elementu ezberdinen ezaugarriak aztertzeko esperientazio frogak burutzen ziren taldeekin. Azkenik, Txingudin ere hegaztien eraztun-jartzaile espezialisten lan egiteko modua ikusteko aukera eskaintzen zen⁶²⁷.

⁶²³ Beste ondare-gune batzuetara bisita gidatu bezala ulertzen da museoeko arduradunek espazio hauek ireki eta bertan ematen zituztela beharrezko azalpenak, bi espazio edo gehiagoren arteko bide gidatu bat osatu gabe. Ibilbideen kasuan bi punturen arteko lotura ezartzen den bide batez ari gara, non ibilbidean zehar egiten diren geldialdiak bertan aurkitzen diren kokaleku interesgarriak buruzko azalpenak emateko.

⁶²⁴ “Museoa 2009”. Larraulgo ekomuseoa. LUA. Sig: 361-01.

⁶²⁵ *Zerain urtekaria 2000*. ZUA. 7 or.

⁶²⁶ “Zarauzko Arte eta Historia Museoa 2003”. GFAAA. Sig: 25440/4.

⁶²⁷ Eskaintza. Txingudi Ekoetxea. In <https://www.euskadi.eus/informazioa/txingudi-ekoetxe-ko-jarduerak/r49-4152/eu/> (2015ko ekainaren 25an ikusia).



1.2. Bisita antzeztuak

Bisita antzeztuak batez ere ekitaldi edota egun berezi solteen elementu erakargarrienetako bat izan ziren: museoaren historia eta bildumarekin lotura zuten pertsonaien edota pasarte historikoen irudikapenak ziren hauek⁶²⁸. Museoetako programa egonkorren baitan ordea oso eskasak ziren horrelako proposamenak. Hala ere zenbait instituziok honelako jardueren aldeko apostua egin zuten, antzeztutako bisitak edukien transmisiorako medio egokiak zirelakoan. Aurreko hamarkadan jada aipatutako Azkoitiko San Martin ondareguneko bisitek aurrera egin zuten zenbait urtez, baina laster beste jarduera mota batek ordezkatu zituen hauek taldeen eskaerarekin batera mantendu ezin zen ekintza zelarik. Donostiako Untzi Museoan programa egonkorren parte izan zen 2004tik "Bailearen antzerkia" ekintza, non euskal baleazaleen lanari buruzko historia ezagutu ahal zuten "(mediante) una representación teatralizada en la que intervienen diferentes instrumentos"⁶²⁹. Haurrentzako eskaintzaz gain, publiko orokorrari zuzendutako Erdi Aroko bisita gidatuak ere egiten ziren Segurako kaleetan zehar Ardiarra Etxetik, baina era egonkor batean eta jarduera bakar eta nagusi bezala Lili Jauregian soilik egiten ziren. Honetan bisita gidatu arruntak alde batera utzi eta dramatizazio bidezko emanaldi batean murgiltzen zen publikoa eraikina bisitatzen zuen aldiro, lilitarren leinuko azken biztanleak aretoetatik gidatzen zituelarik⁶³⁰. Seguran ere egiten ziren⁶³¹.

Bisita antzeztu hauetan errekreazio historikoei lotutakoak ez ziren bestelako bisita antzeztu batzuk aipa daitezke: pertsonaia desberdinen eskutik egiten ziren bisita gidatuak, normalean hurrei zuzendutako jardueren baitan. Hauetan lehene proposamena Zerain Pasaia Kulturala eta Irrien Lagunen Klubaren elkarlanetik sortu zen: herriko ondaregune ezberdinak erakusten zizkioen Klubeko pertsonaia ezberdinek, era dibertigarri eta ludikoan Zerain eta bere historia ezagutzeko aukera berria eskainiz⁶³².



32.irud: Zerain Pasaia Kulturean bisita gidatuak Irrien Lagunen klubeko kideen eskutik (Zerain Pasaia Kulturala)

⁶²⁸ Ikus "Ekitaldiak" atala.

⁶²⁹ "Airu 2004". GFAAA. Sig: 28787/1.

⁶³⁰ Lili Jauregia. Bizipena. In <http://www.lilijauregia.com/experiencia-teatral/?lang=eu> (2015ko ekainaren 25an ikusia).

⁶³¹ Erdi Arora Bidaia. Aldabe Z.T. In <http://aldabe.com/top-esperientziak/erdi-arora-bidaia/> (2015ko ekainaren 26an ikusia).

⁶³² Bisita antzeztuak burutzen ez baziren ere, adierazgarria da Irrien Lagunen Klubak ere Albaola ITsas Faktoriarekin egindako elkarlanaren baitan pertsonaia berri bat sortu zutela, Txo, eta hauentzako espazio berezi bat ere egokitu zela Faktoriako instalakuntzetan. Aldizkako jarduerak antolatzearekin batera material didaktiko berezia ere sortu zen pertsonaia berria protagonista izanik.

Azkenik, eta publiko zehatz batetara bideraturi kasu honetan ere, GPS Fundazioak eta Jentilbaratzako Lagunen Elkarteko (Ataun) elkarlanetik ere proposamen berri bat sortu zen. Honen bitartez Lizarrusti-Barandiaran parketxe hedatuaren hezkuntza eskaintzaren barnean Haur Hezkuntzako ikasleei ibilaldi gidatu eta bisitak egiteko aukera ematen zitzaien euskal mitologiako pertsonaiekin batera – hauek Elkarteko kideak ziren –⁶³³.

1.3. Bisita gastronomikoak⁶³⁴

Gastronomiarekin erlazio zuzena zein zeharkakoa izan zuten museoek elikagaien dastaketan aurkitu zuten elementu erakargarrienetakoa publikoarentzat. Gorrotxategik aurreko hamarkadan bisiten amaierako txokolatearen dastatzea eskaini zuen moduan, oraingoan ere beste museo askok bide bera jarraitu zuten. Igartubeiti Baserri Museoak, I.Z.ko eraikin berriaren baitan sagardo dastaketarako gune bat egokitu zuen; Sagardoetxean ere espazio berdina aurki zezaketen bisitariak erakusketa areto eta sagardiaz gain, eta sagardoa zein pintxoa jateko aukera ematen zitzaien. Idiazabal Gaztaren I.Z.an, noski, gazta probatzeko burutzeko aukera zegoen eta Zerainen “Gazta eta Sagardoaren mendia” programa aurkeztu zen azken urteetan, honi lotuta “Gozagunea” deiturikoa egokitu zelarik, bi produktuen katak burutzeko espazioa, alegia. Pagoetan, erlategi didaktikoaren bisita ondoren egiten zen tailerrari lotuta ezti dastaketa ere eskaintzen zen⁶³⁵ eta Leintz-Gatzagako Gatz Museoan ere gatza ukitu, usaindu eta probatu egiten zen.

1.4. Gaueko bisitak/ egonaldi didaktikoak

Gidatua den museoko bisita bat kontsideratu ezin dezakegun arren, museoko ohiko ordutegitik haratago zihoazen gaueko bisitak eta egonaldiak antolatu izan zituzten zenbait museoek. Aquariumek kristalezko tunel barnean lo egiteko eskaintza bat sortu zuen, museora gerturatu eta esperientzia berriak izateko aukera zutelarik haur eta gazteek. Honi jarraiki Zientziaren Kutxagunean ere antolatu izan ziren “kanpaldi zientifikoak” deiturikoak⁶³⁶ eta Mater Itsasontzi Museoan “Itsastar gaua” ekintza aurkeztu zen 2008tik aurrera⁶³⁷. Helduentzako eskaintzaren baitan, Balenciaga museoak ere

1.5. VIP bisitak

Museoko bisitak esperientzia bakar eta eksklusiboa izateko helburuaz sortu ziren VIP bisitak deiturikoak. Gipuzkoan Cristobal Balenciaga Museoak soilik aurkeztu zituen honelakoak: talde murriztu batek burutzekoak, ohiko ordutegitik kanpo eta erakusketa aretoez gain normalean publiko orokorrarentzat ikusgai ez zeuden espazioak ezagutzeko aukeraz.

2. Ibilaldi gidatuak eta irteerak

80ko hamarkadaren amaieran proposatu ziren lehen ibilaldi gidatuetatik abiatuz, museo gehienak txertatu zuten jarduera hau euren eskaintzetan. Batzuetan museoak kokatzen zen udalerriko beste ondare-gune batzuetara egiten ziren – eliza, errota, plaza edota beste edozein kokagune historikora –; beste batzuetan ordea eskualdetik haratago zeuden espazio interesgarrietara antolatu ziren irteera eta ibilaldi zehatzak.

⁶³³ Lizarrusti-Barandiaran Parketxe hedatuko hezkuntza eskaintza. LBPHA.

⁶³⁴ Ez dira aipatu jatetxe eta sagardotegiekin elkarlanean eskaintako paketeak, koordinazio ekintza batean oinarritzen direlako.

⁶³⁵ “Pagoetako Parke Naturalean ikasleei zuzendutako bisitaldiak” 2004. GFAAA. Sig: 28787/6.

⁶³⁶ Zientziaren Kutxaguneako jardueren eskuorriak. EZMA.

⁶³⁷ “Itsas Gela jarduera programa - Ikastetxeak 08-09”. MIMA.



2.1. Hiri / herrian zehar

Zenbait museoen izaeragatik – lurralde museoak, paisaia kulturalak – ezinbestekoa suertatzen zen zentro edo harrera guneko eraikinetik at inguruko espazio garrantzitsuak lotzen zituzten ibilbideez osatzea; gehienetan museo horiek ekipamendu nagusiak ardatz edo oinarri funtzioa betetzen zuen eta inguruko espazioak elkartzen zituzten ibilaldi gidatuak.

Donostian San Telmo Museoak proposatu zuen bere lehenengoetariko ibilbidea, “Kalejira. Bulebarretik San Telmora” izan zen, hiriburuko alde zaharreko ibilbide didaktiko bat⁶³⁸. Untzi Museoak ere Donostian zehar bi ibilbide eskaini zituen⁶³⁹. Pasaian Victor Hugok zonalde historiko tradizionalena ibilaldi gidatuak egiten zituen; Materrek itsas kulturari lotutako espazio biziak: “Ontziola” Ikerketa eta ontzi eraikuntza zentroa⁶⁴⁰, San Pedroko arrai lonja, Koxtape arraun instalakuntzak eta AZTI ikerketa ozeanografikoen zentroa⁶⁴¹. Beste herrietako kasko historikoa erakutsi zutenak ere izan ziren, Zerain, San Martin ondaregune, ZAHM, Bentalekua, Ardiarra Etxea, Egurraren Museoa, Lenbur Lurralde-Museoa eta D'Elikatuz. Azken honek gainera elementu bereizgarri bat gehitzen zuen ibilaldi gidatu hauetara, Ordiziako azoka egunetan zuzenean ezagutzeko aukera eskainiz.

2.2. Mendi eta natur-guneetara ibilaldiak

Hiriko ibilaldiez gain, mendira egindako bisita mota hauek ere Gipuzkoako museoetako egutegiak bete zituzten, natur ondarearen ezagupenak – eta horrek zekartzan kontserbaziorako kontzientzia zioa sortzea – geroz eta garrantzi handiagoa hartuz. Lurraldeko Natura Parkeetan burutu ziren lehen mendi ibilaldi hauek: Pagoetan 80ko hamarkadan hasitakoekin jarraitu eta berriak eskaini ziren Aiako Harria, Aizkorri eta Aralarren, bertako Parketxeetatik antolatutako irteerak panorama museistikoaren ezagunenetako batzuk bihurtuz eta gai ezberdinei lotutako proposamenekin lotuz: narrasti, saguzarrak eta anfibioak ezagutzekoak, txorien kantuak entzutekoak, sarioei buruzkoa, meatzaritzaren ingurukoak eta abar luze bat. Helburua ohiko mendi irteera horietan ezagutzen ez ziren arloak tratatzea zen, eta aldi berean Natura Parkeen kontserbaziorako eta zainketarako kontzientzia zioa sustatzea. Itsas ondareak ere berebiziko indarra hartu zuen eta kostaldeko ibilaldi gidatu erakargarriak osatu ziren, batez ere Zumaia Flyscharen inguruan – Algorritik, Nautilusetik – eta gertakizun historiko zehatzei lotutako ibilbide gidatuen baitan, Elgetan Intxortara egiten zena oinarritzkoa zen museoan ikusitakoa kokaleku errealean ezagutzeko.

Aipagarriak dira funtzio edo ekintza zehatz batetara bideratzen ziren ibilaldi gidatuak: Urretxun ibilaldi geologikoak egiteko aukera eskaintzen zitzairen taldeei gerora museoan jasotakoaren inguruan azterketa burutu eta edukiak lantzeko; eta Luberrin ere *Geolantegiak* deiturikoak egiten ziren: “Salidas, visitas guiadas, prospección supervisada de rocas y minerales, talleres de clasificación, excavaciones paleontológicas”⁶⁴². Mater Itsasontzi Museoak antolatutako zenbait irteeretan ere hondartza zein kostako zonaldeak garbitzen ziren, espazio hauen kutsaduraren eta egoeraren agerari zirenak. Espeleologiak ere garrantzia izan zuen eta publikoa ekintza honetara gerturatu zedin ibilaldi gidatu bereziak antolatu ziren *Espeleoabentura* deiturikoa Arrikrutzen; Kobazuloetan espeleologia abentura bat bizitzeko aukera eskaintzen zen; baita txikiagoentzat ere. GPS Fundazioak ere, lau Natura Parkeetan barna irteera espeleologikoak antolatzen zituen, maila desberdinetara egokitutako bide eta kokapenetan abenturazko esperientziak sortuz, Felix Ugarte espeleologia taldearekin batera.

⁶³⁸ *Ibilbide didaktikoaren sorrerari buruzko txostena*. 2002. STMA. Sig: 277/1.

⁶³⁹ “Airu 2004”. GFAAA. Sig: 28787/1.

⁶⁴⁰ Geroago “Ondartxo” izena hartuko zuena eta zenbait urte beranduago Albaloa Itsas Faktoriaren oinarria.

⁶⁴¹ “Propuesta de abono de la subvención concedida a Itsas Gela- Aula del Mar”. GFAAA. Sig: 30824/3.

⁶⁴² “Memoria Luberrí 2009”. LIGA.



2.3. Garraiobideetan ibilaldi gidatuak

Bisita gidatuen baita eta elementu erakargarrienetako bat moduan, garraiobide ezberdinen erabilerak aukera aproposa izan ziren bisitariei esperientzia bat zein gune bateko bestelako ikuspuntu bat eskaintzeko. Euskal Trenaren Museoren oinarrietako bat ziren lurrin treneko bidaiak mantendu ziren; Irun zein Oiartzunen Tren Berdea gehitu zuten euren eskaintzara.

Itsasoz egiten ziren bisitak arrakasta handia izango zuten 2000. urtetik aurrera; lurretik ikusi ezin ziren paisaiak eta elementuak aztertzeko egokiak ziren Zumaiaiko Flyscharen inguruan egindako barku irteerak Bentalekua edota Algorrik antolatuta, hala nola Txingudi Ekoetxeak Plaiaundiko ezagutzeko eskaintzen zituenak. Mater Itsasontzi Museoak, Espainiar Estatuko lehen ur gaineko museoa izanik, jarduerak portuan zein itsas barrenean burutzeko aukera zuen, bidai gidatu hauek itsasgizonen bizimodua ezagutu eta ulertzeko oinarritzkoak bilakatu zirelarik; eta Nautilusen hamarkadaren amaieratik eskaini ziren Saturraran aldera barku bidaiak⁶⁴³ eta Victor Hugo Etxeak bateleren ibilbidea deituriko txalupazko jarduera burutzen zuen.

Arlo honetan berrikuntza bat aurkeztu zuen Arantzazuko Parketxean, "Bizi Pottoka" programaren baitan pottoketan ibilaldiak egiteko aukera eskaintzen zen, ingurumen hezkuntza zein sentipenen inguruko lanketa bat eginez eta animalia hauen bizimodua ezagutzeaz gain eurekin esperientzia bat bizitzeko asmoz.



33. iruda: Tren bisitiak Burdinbidearen Euskal Museoan (Burdinbidearen Euskal Museoa)

2.4. Irteerak eskualdetik kanpo

Aurrez Urretxuko Mineral eta Fosilen Museoan egin zen bezala⁶⁴⁴, oraingoan ere museo batzuk eskualdetik at irteerak antolatu zituzten, egun bakarrekoak zein egonaldi luzeagokoak. Honela museoaren bilduma edo gaiarekin erlazioa zuten espazioak ezagutzeko aukera ematen zitzairen, eta bertan nahasten ziren ibilaldi gidatuak adituekin, bisitak beste museoetara, hitzaldiak eta beste hainbat ekintza. Gehienak Euskal Herriko beste museo batzuetara egindako irteerak izan ziren: San Telmo Museoak Baionako Euskal Museora eta Elorriora antolatu zituen 2001an⁶⁴⁵; Igartubeitin Sagardoetxeara irteera bat burutu zuten 2009an⁶⁴⁶; ZAHMen Gasteizera, Oiasso Erromatar Museora eta Oteiza Museora ere antolatu izan zituzten irteerak; eta Zientziaren Kutxagunean txango zientifikoak deiturikoak antolatzen ziren⁶⁴⁷. Urretxuko Mineral eta Fosilen museoak urtero, maiatzean, tradizioa bihurtu ziren

⁶⁴³ "Memoria Nautilus 2009". NMA.

⁶⁴⁴ Hamarkada honetan ere Urretxuko Mineral eta Fosilen Museoak urteroko irteerak antolatzen jarraitu zuen.

⁶⁴⁵ 2001ko jarduerak. STMA. Sig: 329/09.

⁶⁴⁶ "Memoria 2009". IBMA.

⁶⁴⁷ "V aniversario del museo. 5 urte etengabe berritzen". *Prentsa oharra*, 2005. EZMA.

irteerak antolatzen jarraitu zuen, bere irekiera urtetik bezalaxe⁶⁴⁸. Baina Europako beste herrialde batzuetara bidaiak antolatu izan zituztenak ere izan ziren, Oiasso Erromatar Museoak gaiari lotutako ondareguneak eta hiriak ezagutzeko aukera eskainiz egun batzuk irautean zuten egonaldietan. Rezolak bunkerrak ikustera Hendaiara, zumak ehko beste guneeetarako.

3. Hitzaldiak, jardunaldi eta topaketak

3.1. Hitzaldiak

90ko hamarkadan eman ziren berrikuntzen ondoren – hitzaldi ziklo gehiago antolatzea, museotik irten eta beste espazio batzuetan eskaintzea – bide berdina jarraitu zen oraingoan ere. Hasieran museo zehatz batzuk soilik izan baziren honelako jarduera didaktikoak eskaini zituztenak, sortutako espazio berriek ere ikerketa ezberdinen ondorioak zabaltzeko zein bildumari edota erakusketa berri bati buruzko informazio osagarria eskaintzeko hitzaldiak burutu zituzten, Gipuzkoako Museo gehienetara zabalduz ekintza mota hau.

Baina museoan bertan hitzaldiak antolatu zutenek gain, garai honetan jada eraikinetik haratago joateko kontzeptua barneratuta agertzen zen, eta hortaz ohikoak bihurtu ziren eskola, jubilatuei edota unibertsitateetan emandako hitzaldiak.

3.2. Jardunaldiak eta topaketak

Hamarkada honetan gipuzkoar museoek geroz eta presentzia gehiago izan zuten beste instituzio batzuk antolatutako jardunaldietan. Aurretik Untzi Museoa eta Zumalakarregik egin zuten bezala, Oiasso Erromatar Museoak, Mater Itsasontzi Museoak, San Telmoko, Albaola Itsas Kultur Faktoriak eta Igartubeiti Baserri Museoak, besteak beste, ponentzia ezberdinak aurkeztu zituzten nazioarte mailako jardunaldi ezberdinetan.

Honekin batera museo batzuk urteetan zehar errepikatu eta egonkortu ziren jardunaldiak eta topaketak antolatu zituzten, urtero berrikuntzak eskainiz eta aditu ezberdinen eskutik hitzaldiak burutuz:

- Photomuseum. Argazkigintzaren Historia Kongresua (2005-2009)⁶⁴⁹
- HMT: Herri Musikaren Jardunaldiak (2002tik aurrera)
- Oiasso Erromatar Museoa: Museoei buruzko Kongresua. Elkarlana EHU. (2000tik aurrera)
- Ondare Bizia (2012; 2014). Oiasso eta Rezola
- Bizitza Zientifikoak. Eureka (2012tik)⁶⁵⁰

⁶⁴⁸ Urteko irteerak, Urretxuko Mineral eta Fosilen Museoa. Urretxuko Udala K.S.

⁶⁴⁹ "Photo 2005". GFAAA. Sig: 20730/3.

⁶⁵⁰ Hau izan zen Gipuzkoako Museoen artean agian proposamen berriena, ideien azoka moduan funtzionatu zuena. Zientzia gizartera gerturatzeko helburuari jarraiki, zientziari ezberdinen lanak ezagutzeko aukera eskaintzen zitzaizkien ikasleei.





34. irud: Bizitza Zientifikoak
(Eureka Zientzia Museoa)

Beste batzuk ordea behin behineko jarduera bezala proposatu zituzten jardunaldi batzuk:

- Igartza Multzoa. "Errota eta energia berriztagarriak Euskal Herrian" (2000)⁶⁵¹
- Zumalakarregi Museoa. "Los marginados en Euskal Herria (siglos XVIII-XIX)" (2002)⁶⁵²
- Ibarraundi Museoa. "Gazte Topaketak". Historia eta ondarea. Eusko Ikaskuntzarekin elkarlanean (2007)⁶⁵³
- D'Elikatuz Elikadura eta Gastronomia Zentroa. "Idiazabal gaztaren eragin *turistikoa*" (2009)⁶⁵⁴
- Sagardoetxea. Sagardo Forum (2009)⁶⁵⁵
- Sagardoa eta sagar motei buruzko jardunaldiak. Igartubeiti Baserri Museoa (2010 eta 2011)⁶⁵⁶
- Cristobal Balenciaga Museoa. "International Fashion Code Event (2014)⁶⁵⁷

4. Ikastaroak

Aurreko hamarkadako jardunaldiak – eskasak izanik ere – irakaslegoa izan zuten hartzaile nagusi bezala gehiengo batean. Pixkanaka trebakuntza hezkuntza formalaren eremutik haratago joan eta publiko orokor batetara zuzendutako ikastaro ezberdinak burutu ziren, biztanleriak eskatzen zuen ikaskuntza jarraituaren baitan.

Honela gai ezberdinak ardatz hartu zituzten ikastaroak antolatu ziren. Gastronomiarekin erlazionatutakoak Gorrotxategi Konfiteri Museoa egin zituen, txokolatea egitekoak hain zuzen ere⁶⁵⁸; D'Elikatuzen 2008tik aurrera sukaldaritza osasuntsu ikastaroak eta elikadura jokabideei buruzko kurtsoak egin ziren eta baita Ingurugiro Etxean ere 2010an⁶⁵⁹; eta honetan barazaintza, hondakinen prebentzioaren ingurukoak eta beste hainbat.

⁶⁵¹ "Igartza 2000". GFAAA. Sig: 17839/1.

⁶⁵² "2002 memoria". Zumalakarregi Museoa. ZMA. 2002ko kutxa.

⁶⁵³ "Eskoriatzako Udala 2007. Hedapen eta komunikazioa diru-laguntza". GFAAA. Sig: 31025/6.

⁶⁵⁴ "Memoria 2009 urria". DEGZA.

⁶⁵⁵ "Gran afluencia de gente en «Sagardo Forum»". Sagardoetxea. In http://www.sagardoetxea.com/noticias-y-agenda/noticia-detalle/archive/2009//news/gran-afluencia-de-gente-en-sagardo-forum/?tx_ttnews%5BbackPid%5D=22&cHash=d7295d5a2271e59ad420153a04f6e9ee (2015ko ekainaren 22an ikusia).

⁶⁵⁶ *Igartubeiti Baserri Museoko memoriak*. IBMA.

⁶⁵⁷ Cristobal Balenciaga Museoa. Programazioa. In <http://cristobalbalenciagamuseoa.com/International-Fashion-Code-Event--2.html> (2015ko ekainaren 22an ikusia).

⁶⁵⁸ "JM Gorrotxategi Pikasari 2004". GFAAA. Sig: 28790/4.

⁶⁵⁹ "Memoria 2010-2011". IEA.



35. irud: Sukaldaritza ikastaroa Ordiziako D'Elikatuz Elikadura eta Gastronomia Zentroan (D'Elikatuz Elikadura eta Gastronomia Zentroa)

Teknika zehatzei lotutakoen baitan Euskal Trenaren Museoak lurrin tren-makinak gidatzeko ikastaroa eskaintzen jarraitu zuen aurreko urteetan bezala⁶⁶⁰; Photomuseum-en bromoleoari, argazki zaharberritze eta Polaroidari buruzko kurtsoak antolatu zuen⁶⁶¹ eta Arditurriin zein Arantzazun argazkigintzako ikastaro batzuk burutu ziren; eta Albaolak nabigazio eta ontzigintza eskoletan ikastaroak zein artisau eta maketagitza ikastaroak eskaini zituen⁶⁶². Natur Zientziei begiratzuz gero ere aukera zabala eskaini zuten gipuzkoar museoek: Txingudin ornitologiaren hastapenei buruzko ikastaro bat egin zen eta hegaztien behaketenak, Sagardoetxean frutikulturari buruzkoak, Arantzazuko Parketxean sai arrea begiztatzekoa eta Zientziaren Kutxagunean ugariak izan ziren astronomia, robotika, astrofisika eta beste hamaika zientzia gaiei lotutakoak⁶⁶³. Giza Zientziek ere izan zituzten ikastaro bereziak: HMTk 2004tik musikari lotutakoak egin zituen eta Zumalakarregi Museoak historiari buruzkoak ere. Eta sormenari lotutako ikastaro ugari ere eskaini zituen Balenciaga Museoak, moda ilustrazioari buruzkoak edota sortze-diseinu laborategiak.

Honekin batera profesionalen zuzendutako ikastaroak ere antolatu izan zituen zenbait museoek: Cristobal Balenciaga Museoak *Master Class* deiturikoak egin zituen, non moda komunikazioa, argazkigintza, jostakuntza eta beste hainbat arloren inguruko goi mailako trebakuntza eskaintzen zen. Sagardoetxeak ere fruituen kudeaketarako, udako zainketarako, analisirako eta sagardoaren inguruko beste hamaika ikastaro tekniko gauzatu zituen.

Irakasleentzako ikastaroak ez ziren ordea guztiz atzean utzi eta zenbait espaziotan oraindik hauei bideratutako trebakuntza saioak antolatu ziren. Guztien artean aipagarria da *Suspertu* egitasmoa, 2008an Zientziaren Kutxaguneak, EJKo Hezkuntza Saileko Unibertsitate eta Ikerkuntzako arloak⁶⁶⁴ hezkuntza zientifikorako sinatutako lankidetzak-hitzarmena, "hezkuntza zientifikoa hobetzen eta irakasleen etengabeko trebakuntza sustatzen"⁶⁶⁵ lan

⁶⁶⁰ Adierazgarria da ikastaro mota honen interesa nazioarte mailan ere nabarmendu zela: 2000. Urtean bapozeko tren-makinaren mantentze-lanen ikastaroa eman zen Contumilén (Oporto, Portugal). EBMA.

⁶⁶¹ "Photo 2000". GFAAA. Sig: 17842/5.

⁶⁶² "Albaola Itsas Kultur Faktoria Prentsa Dossiera 2014". In https://www.google.es/search?q=albaola+prentsa+dossiera&oq=albaola+prentsa+dossiera&aqs=chrome..69i57j69i60.3065j0j9&sourceid=chrome&es_sm=93&ie=UTF-8 (2015ko ekainaren 5an ikusia).

⁶⁶³ *Zientziaren Kutxaguneako jardueren eskuorriak*. EZMA.

⁶⁶⁴ Hezkuntzarekiko erlazioa hainbat ikerketetan gauzatu da, batez ere Euskal Herriko Unibertsitateko Matematikaren eta Zientzia Esperimentalen Didaktikako Saitetik. Aipagarriak dira Jenaro Guisasola eta Maite Morentinen lanak, besteak beste.

⁶⁶⁵ *Suspertu* egitasmoaren akordioa. Prentsa oharra. In http://www.eurekamuseoa.es/images/stories/AreaEducativa/Nota_prensa_9_07_2008_suspertu_bilingue.pdf (2015ko apirilaren 24an ikusia)

egiteko. Horrekin batera, TOPICek ere *Garatu* proiektuaren baitan irakasleei zuzendutako ikastaro ezberdinak burut ziren, txotxongiloen erabilpena hezkuntza arloko esparru ezberdinetan erabiltzen ikasteko hala nola balore eta hizkuntzarekin lotutako proposamenak aurkezteko⁶⁶⁶.

5. Ikuskizunak

Mota guztietako ikuskizunak programatzea geroz eta ohikoagoa bihurtu zen Gipuzkoako Museoetan. Askotan kanpoko eragileek antolatutako ekimenen parte soilik izan ziren, baina beste kasu batzuetan museoek aldi baterako erakusketari zein museo berari lotutako ikuskizunak antolatu zituzten, urteetan zehar errepikatuz.

5.1. Musika, dantza, bertso eta olerki emanaldiak⁶⁶⁷

Museoetatik programatutako ekintzen barnean Chillida Lekuk proposamen ezberdinak burutu zituen musika eta dantzari lotuta, 2006rik aurrera *Udako Musikariak* antolatuz eta baita *Neguko Kontzertuak* ere 2004-2008 bitartean⁶⁶⁸. Dinamika bera jarraituz, HMT falta ezin zitezkeen musika emanaldi ezberdinak eskaintzen ziren urtaro bakoitzari loturik, eskaintako kontzertuen zerrenda bukaezin bat osatuz eta Igartzako Jauregian ere antolatu izan ziren zenbait urtetan *Igartzako Musikaldiak*⁶⁶⁹ eta *Igartzako ostegunak*⁶⁷⁰.

Zikloak izan ez arren, behin behineko musika emanaldiak eta dantzaldiak antolatu zituzten zenbait museoek: San Telmo Museoan kontzertuak egin ziren 2005an⁶⁷¹, Zumalakarregi Museoan aldi baterako erakusketa bati loturik ere 2009an⁶⁷², Armagintza Museoan 2007an eibartar industriarekin lotutako musika emanaldia egin zen, Zientzia Kutxagunean ere solstizio egunean Euskadi Orkestrarekin elkarlanean antolatutakoa, Arantzazuko Parketxean poesia errezitaldiak egin ziren, Photomuseumen rock kontzertu bat eta Ibarraundi Museoan Musika Eskolako ikasleek burututakoak⁶⁷³. Albalola Itsas Kultur Faktorian ere irekiera urtetik burutu ziren kontzertuak eta bertso emanaldiak, eta Balenciaga Museoan urtero kontzertu ezberdinak burutzen ziren, gehienetan musikari ospetsuenak eta gastronomiarekin lotutako ekintza bati lotuta, festa kutsua zuten ekitaldiak eratuz.

5.2. Zinea, bideo proiektzioak, dokumentalak

Arlo honetako emanaldien baitan mota ezberdinetakoak desberdindu daitezke. Alde batetik, museoeko bildumari, aldi baterako erakusketari edota museoari lotutakoak aurkitzen ditugu. Photomuseumen zine proiektzio batzuk burutu izan ziren⁶⁷⁴ eta zenbaitetan horiei jarraitzen zioten mahai-inguru eta hitzaldiak ere; Chillida Lekun artistari lotutako bideo proiektzioak eskaini ziren⁶⁷⁵, D'Elikatuzen Zentroari zein herriko historiari buruzko dokumentalen emanaldiak egin ziren eta Oiasson erromatar gaiekin lotutako bideo emanaldiak ugariak izan ziren. Museo batzuk gainera zine forum eta zikloak antolatzeraino ere iritsi ziren, ZAHM, Balenciaga Museoan, Makina-erremintaren

⁶⁶⁶ TOPIC urteko memoriak. TTNTZA

⁶⁶⁷ Ez dira aipatu beste instituzio/ entitate batek antolatutako Musika Hamabostaldi, jazzaldi edota kontzertu ziklo ezberdinak. Izan ere, nahiz eta emanaldi horietako batzuk museoan burutu ziren ez da kontsideratzen instituziotik jaiotako edo programatutako ekintza bat dela.

⁶⁶⁸ "Hamar urte bete ditugu". Chillida Leku. Kultura. In <http://www.museochillidaleku.com/2000-2010/content/eusk.html#d4> (2015ko ekainaren 6an ikusia).

⁶⁶⁹ "Igartzako II musikaldia". BUA. Sig: 2603-09.

⁶⁷⁰ GFAk emandako dirulaguntzetarako proiektua. *Igartza Jauregia*. BUA. Sig: 2995-05.

⁶⁷¹ "2005ko memoria". GFAAA. Sig: 20736/3. 4. or.

⁶⁷² "Memoria 2009". Zumalakarregi Museoa. ZMA. 2009ko kutxa.

⁶⁷³ "Eskoriatza 2005". GFAAA.A. Sig: 20734/2.

⁶⁷⁴ "Photo 2006". GFAAA. Sig: 30695/7.

⁶⁷⁵ Kultura jarduerak. Chillida Leku. In <http://www.museochillidaleku.com/2000-2010/content/eusk.html#d4> (2015ko martxoaren 4an ikusia).



Museoa eta Zientziaren Kutxaguneak bezala. Bestalde, museoeko programazioaren baitan antolatu ziren marrazki bizidun eta filmeen emanaldiak ere aurki daitezke, bilduma edo museoarekin erlaziorik ez izan arren nolabaiteko funtzio didaktikoa betetzen zutelako proiektatzen zirenak.

5.3. Antzerkiak, ipuin-kontaketak eta txotxongiloak

Haurrei zuzendutako ipuin kontaketen eredu oso gutxi aurki daitezke Gipuzkoako Museoetan, eta aldizkako gertaerak izaten ziren gehienetan. San Telmo Museoan Koldo Ameztoyen ipuin kontaketa egin zen⁶⁷⁶; Untzi Museoan 2005an Musika Hamabostaldiaren lankidetzaren baitan ipuin kontaketa bat aurkeztu zen⁶⁷⁷; baita Arantzazuko Parketxean zein Barandiaran Museoan ere; azken honetan gainera antzerki saioak ere antolatu ziren, haur eta gazteei zuzendutako mitologiako pertsonaien emanaldiekin. Txotxongilo emanaldiei dagokienez, noski, TOPICek eskaini zituen ikuskizun ezberdinak programa egonkor baten baitan, konpainia ezberdinek proposaturiko ikuskizun hauek benetako arrakasta izaten zutelarik.

Hala ere, zenbait museoek era egonkorrago batean eta hezkuntza programazioari jarraituz eskaini zituzten ipuin kontaketa museoeko edukiak lantzeko medio egokia zirelakoan eta hezkuntza jardueretarako elementu erakargarriak. ZAHMen 5-9 urte bitarteko haurrei monumentu multzoaren bisita programa ipuin kontalari baten bitartez egiten zen⁶⁷⁸; Arantzazuko Parketxean ipuin baten bitarteko bisita gidatua egiten zen⁶⁷⁹; eta Sagardoetxean Dasti Ipuin kontalariaren bidez egiten ziren.

6. Irratsaioak

Irratsaio ezberdinetan parte hartu eta saio txikiak eskaintzeko praktika oso museo gutxi burutu zuten aurrez, eta mende berriarekin batera galduko zen ekintza bat izan zen. Zumalakarregi Museoak soilik jarraitu zuen Euskadi Irratiarekin sinatutako hitzarmenari esker zenbait urtetan irrati saio batean kolaborazioa egiten, horrek eskaintzen baitzuen “acercarnos a públicos potenciales del museo y a la vez promover nuevas perspectivas y aproximaciones de esos públicos hacia el museo”⁶⁸⁰. Hala ere jarduera didaktikoen baitan sortutako proposamen berriek eta edukian zabaltzeko tresnen dibertsifikazioak ekarri zuen museoek irratsaioen praktika uzten joatea, batez ere ere Internetek eta beste teknologiko tresnek eskaintzen zituzten aukerak egokiagoak zirelako.

7. Tailerrak eta jolasak

7.1. Tailerrak

Bisitarien parte-hartzearen garrantziaz jabetuta eta haur zein gazteen eskaintzan derrigorrezko elementu bat zela kontsideraturik, tailerrak museoetako programa askoren jarduera ohikoa bihurtu ziren. Mota guztietako tailerrak sortu ziren, hezkuntza eskaintza arruntari lotuta, aldi baterako erakusketekin erlazionatuta edota behin behineko jarduera berezi bezala; beti ere haur eta gazteak publiko hartzaile nagusia izanik. Baina dudarik gabe hauek ziren “una de las alternativas fundamentales para la transmisión de conocimientos procedimentales” (Asensio eta Pol, 2003: 1)

⁶⁷⁶ 2001ko jarduerak. STMA. Sig: 329/09.

⁶⁷⁷ “Airu 2005 hileko txostenak”. GFAAA. Sig: 20737/1.

⁶⁷⁸ “Memoria 2006”. ZAHM. Zarauzko Udala K. S.

⁶⁷⁹ Arantzazuko Parketxea. Hezkuntza eskaintza. In <https://parketxesarea.files.wordpress.com/2014/01/heziketa-eskaintza-eta-txango-gidatuak-arantzazu.pdf> (2015ko martxoaren 21an ikusia).

⁶⁸⁰ “Contratación K6 2008”. GFAAA. Sig. 14562/2. 8 or.



Sormenezko tailerrak izan ziren praktika nagusia Gipuzkoako Musoeetan, arte museoetako herentzia jasoaz: arte plastikoak, serigrafia, pintura, birziklatze, jantzigintza eta beste hainbat teknikak erabiliz museoak bilduma edo erakusketarekin lotzen saiatzen ziren. Adierazgarria da bisita + tailer binomioa hezkuntza formaleko taldeei zuzendutako ekintza nagusi izan bazen ere, helduei zuzendutako sormen tailerrak antolatu izan zituzten museoak ere egon zirela garai honetan. Balenciaga Museoak, adibidez, zetazko zapiak eta kapelak bezalakoak apaintzeko teknikaren edota oihalen lanketa bidezkoak aurkeztu zituen.

Eskulangintzatik desberdinduz adierazgarriak izan ziren Oiasson antzerkigintzari lotutako errepresentazioak egiteko tailerrak, hauek grabatu eta bideo edizioari lotutako praktika burutzeko aukera eskainiz⁶⁸¹.

Aurreko hamarkadan zenbait saiakera egin baziren ere, oraingoan ogibideei lotutako tailerrak izan ziren protagonistetako batzuk lurraldeko museoetan: Ogia egiten zen Pagoetan, Zerainen, Igartzan eta Ogiaren Txokoa Legazpin; gaztagintza Artzaintzaren ekomuseoan; kandelagintza tailerra Pagoeta, Zerain eta Aikurren; konfiteria praktikak ere eskaintzen ziren Gorrotxategi Konfiteri Museoan, Tolosa Goxoa programaren barnean⁶⁸²; Sagardoetxeak ere garai bateko usadioari jarraituz sagarra zanpatzeko tailerrak egin zituen; eta Lizarrusti-Barandiaran P.H. an talo tailerra eta gerorako dastaketa burutu zen, hala nola Iturarrango Parketxean.

36.irud: Talo taierra Barandiaran Museoan
(Artelatz ingurumen zerbitzuak S.L.)



Eskoriatzako Museo-Eskolak praktikan ipinitako lehen historiaurreko tailerrei jarraiki, mende berrian ere museo batzuk ildo bera jarraitu zuten, harria landuz, sua eginaz, ehizako teknikak ikasiz eta labar arteko pintatzeko modua praktikan ipiniz: San Martin ondaregunean lehen urteetan egiten jarraitu zen eta museo berriek ere praktika bera proposatu zuen: ZAHMeK, Ekainberrik, Arditurriko Parketxeak eta Lizarrusti-Barandiaran PHak ere. Azken honetan gainera indusketa arkeologiko tailerra ere eskaintzen zen, non arkeologoek teknikak eta lan egiteko modura gerturatzeko zein ondarearen kontserbaziorako edukiak ezagutzeko aukera zuten⁶⁸³. Adierazgarria da ere Oiasso

⁶⁸¹ "K6- Arkeolan UTE IRUN" 2008. GFAAA. Sig: 4721/6.

⁶⁸² "JM Gorrotxategi Pikasari 2004". GFAAA. Sig: 28790/4.

⁶⁸³ Adierazgarria da hamarkada hauetan jada tailerrak ez zirela museoetako espazioetara mugatu eta Lizarrusti-Barandiaran P.H.ak zein Arditurriko Parketxeak adibidez edozein gunetara - eskola, aisialdi gune edota euskaltegia - tailerra eraman eta gauzatzeko aukera eskaintzen zuen, museoetako jarduerak didaktikoen hedapenaren ikuspegi berri bat agertuz.

Erromatar Museoak lehen aldiz helduei zuzendutako tailerrak ere eskaini zituela – normalean haur eta gazteei zuzendutako ekintza kontsideratua – eta hala arkeologia esperientzia bizitzeko ekintza bat proposatu zuten⁶⁸⁴. Natur Zientzia eta ikerketa teknikei lotutakoak berrikuntza nabaria suposatu zuten eta zientzia bisitariei gerturatzeko baliabide didaktiko erakargarrienetakoa. Plaiandin espezie ezberdinen azterketak egiten ziren, behaketaren bitartez lehenbizi eta Ekoetxeako fitxen bidezko sailkapenekin osatuz; eta Zientzia Kutxagunean esperimentu ezberdinak probatzeko aukera eskaintzen zen. Geologiari dagokionez Luberrin material geologikoa atera, garbitu, osatu eta sailkatzeko teknikak ikasten ziren, baita hauen azterketa burutzen ere mikroskopio eta lupen bitartez eta harri eta mineralen ezaugarriak ikertzeko prozesuak ere ikusi ahal zituzten⁶⁸⁵, azken hau Urretxuko Mineral eta Fosilen Museoan jada egiten zelarik. Eta Sagardoetxean urtaroei lotutako tailerrak egiten ziren sagardoaren urteko prozesu osoa ezagutzeko: hazien landatzea, polinazioa, sagarren haztea eta jasotzea eta tolarako lanak⁶⁸⁶. Jarduera mota hauek taldeei soilik zuzentzeaz gain – eta askotan ikasleei bakarrik – egutegi finko bati lotutako tailer eskaintzak proposatu zituzten zenbait museoek. Zumalakarregi Museoan eta Igartubeiti Baserri Museoan adibidez larunbateroko tailerrak egiten hasi ziren gai desberdinei lotuta, eta beti ere publiko hartzailea eta gaiak desberdinak izaten ziren: sukaldaritza, mozorroak, antzerkia, zeramika, eta abar.

7.2. Belaunaldiarteko tailerrak

Belaunaldi ezberdinak elkartzen zituzten lotura baten gabezia sumatu zuten zenbait museoek, eta aldi berean espazio eta bildumak erlazio hori sortzeko elementu aproposak zirela pentsatu zuten. Museoak berak eskaini ahal zuenetik haratago, jaso gabe eta galtzear zeuden ideia, pentsamendu, oroitzapen eta istorio ezberdinak gordetzen zituzten adin nagusiko pertsona askok⁶⁸⁷ eta horri lotuta jaio zen lehen belaunaldiarteko tailerra Museum Cemento Rezolaren eskutik. “Memoria industrial” izena zuen eta gazte eta helduen arteko esperientzia transmisioan oinarritzen zen, edukien transferentzia helduek gogora ekarritako esperientzia, oroitzapen eta ezagutzen bidez burutuz. 2005tik aurrera. Memoria industrialaren tailer hark ekarri zituen ekarpen guzti horiek jasoz.

37. irud: Belaunaldiarteko tailerra Museum Cemento Rezolan (Museum Cemento Rezola – K6 K.K.)



⁶⁸⁴ “Oiaso Erromatar Museoko memoria 2009”. OEMA.

⁶⁸⁵ “Memoria Luberrin 2009”. LIGA.

⁶⁸⁶ *Sagardoetxeako memoriak*. SESMA.

⁶⁸⁷ XIX eta XX.mendeen tradizio eta ohituren jasotzaile bihurtu ziren ikerlari ugari, antropologia eta etnografiaren dedikaziotik sortutako lan ugari argitaratuz. 90ko hamarkadatik aurrera ere museo batzuk hasiak ziren honen inguruan lan egiten, batez ere barne ikerketaren bitartez eta bildumen osagarri izateko helburua. Baina UNESCOren ekimen batzuetan oinarrituz, 2000.urteetik aurrera indar berezia izan zuen ondare mota honek, ondorengo testuen baitan: “Recomendación de la UNESCO sobre la salvaguardia de la cultura tradicional y popular de 1989”, “Declaración Universal de la UNESCO sobre la Diversidad Cultural de 2001” eta “Declaración de Estambul de 2002”, “Convención para la salvaguardia del patrimonio cultural inmaterial de 2003”.

Bide honi jarraiki, Chillida Lekuk ere belaunaldi arteko bisita hezigarria osatu zuen, non eskultura arteko bisiten ondoren sentipenen esploraziorako lantegi bat egiten zen⁶⁸⁸. Oiasso Erromatar Museoak “Las escuelas del museo”⁶⁸⁹ programa eskaini zuen 2009an: “Se trata de encuentros entre personas mayores y niños de 7 a 11 años, en los que las diferentes generaciones comparten un espacio de intercambio y de transmisión de la memoria vivida por lo mayores hacia los jóvenes” (Barandiaran et.al., 2007: 95). Armagintza Museoan “Ze nolako biharra, emakumeena” 2011tik aurrerako programa garatu zen, Zumalakarregin ere belaunaldiarte programa egonkor bat eskaini zen eta TOPICen, Manoviva Proiektuaren aurrera eramane zen, “un proyecto intergeneracional y terapéutico que pone en contacto a niños y ancianos con adolescentes de diferentes contextos, con objetivos y consecuencias diferentes en cada caso”⁶⁹⁰. Lenbur Fundazioak ere, memoria industrialaren berreskurapenerako egindako ikerketa lan sakonei jarraiki, “Iraganera bidaia” tailerra proposatzen zuen, garaiko eskola bizipenei eta herri industrialaren eguneroko bizimoduari buruzko pasadizo eta kondairak elkar-trukatze⁶⁹¹.

7.3. Jolasak

Museo gehienetako jolasak haur eta gazteei zuzenduta egon ziren; bisita gidatu arruntean integratuz edota honen ondoren burutuz eskaini ziren, museoeko gaiaren eta edukien ezaguera modu ludiko batean burutzeko. Ohikoenak mahai jolas tradizionalen bertsio moldatuak izan ziren, galdera-erantzunetan oinarritzen zirenak: Untzi Museoak, Arditurriko Parketxeak eta Lizarrusti-Barandiaran P.H.ak oka jolas bat egin zuten⁶⁹², DEM⁶⁹³ eta Txingudik puzzleak sortu zituzten eta azken honek Trivial jolas bat ere; eta “altxorren bila” moduko frogak burutu izan zituzten ere Igartza Jauregian⁶⁹⁴, Mater Itsasontzi Museoan, Arditurriko Parketxean, Lizarrusti-Barandiaran P.H.an ere eta Cristobal Balenciaga Museoan, besteak beste.

Hauekin batera aipagarriak dira ere era berritzailean aurkeztu ziren bestelako jolas batzuk, museoeko bildumarekin edota gaia oinarri hartuta sortu zituztenak. Zumalakarregi Museoak “Munduari bira 80 egunetan” jolasa egin zuen⁶⁹⁵, Mater Itsasontzi Museoak pirata eta arrantza jokoak eskaintzen zituen⁶⁹⁶, Museum Cemento Rezolan “Denboraren bidaia” arkitektura eta paisaia jolasa egiten zen, D’Elikatuzen “A ze marka” jolas didaktikoa egiten zuten ikasleek bisitetan⁶⁹⁷, Ingurugiro Etxeak uraren kontzientziarioari buruzko “Tantaz tanta” jolasa⁶⁹⁸, Oiassok “Alea jacta est” izeneko erromatar garaiko jolas erraldoiak sortu zituen eta bost Parketxeetan ere natur-jolas ezberdinak sortu zituzten zuhaitzen identifikazioa eta eztingintzari lotutakoak, besteak beste. Azken hauen baitan adierazgarria da ere Arantzazuko Parketxean Itsu-mitsuka jolasa egiten zela ibilbide irisgarri batean zehar.

8. Ekitaldiak/ Ospakizunak

Museoen baitan emandako aldaketen adierazgarri nagusienetakoa programazio zabalek eta jarduera didaktikoen hedapen infinitua izan baziren, are gehiago nabarmendu zen ekitaldi eta ospakizunekin batera. Aurreko mendearen lehen erdian udaldiek soilik hausten bazuten museoetako egunerokotasunaren monotonia – turisten etorrerak

⁶⁸⁸ Chillida Leku. Hezkuntza. In <http://www.museochillidaleku.com/2000-2010/content/eusk.html#d5> (2015ko martxoaren 4an ikusia).

⁶⁸⁹ “Oiasso 2009”. GFAAA. Sig: 5057/2.

⁶⁹⁰ “TOPIC memoria 2012”. TGA.

⁶⁹¹ Tailerrak. Lenbur Fundazioa. LFA.

⁶⁹² Ikus “publikoa/bisitariak/erabiltzaileak”

⁶⁹³ Donostiako Elizbarrutiko Museoaren dokumentazioa. KOMA K.Z. artxiboa.

⁶⁹⁴ Igartzako jarduerak 2002. BUA. Sig: 2994-02.

⁶⁹⁵ “Contratación K6. 2005”. GFAAA. Sig: 20736/4

⁶⁹⁶ “Itsas Gela jardueren txostena 2005-2006”. MIMA.

⁶⁹⁷ “Memoria 2005”. DEGZA.

⁶⁹⁸ “Museo medioambiental Ingurugiro Etxea. Memoria de actividades 2001”. IEA.



suposatzen zuenarekin batera – XXI.mendearekin mota guztietako egun berezi, nazioarteko aste, ospakizun eta ekitaldiak nagusitu ziren. Alde batetik, aisialdi egun guztietan eta oporraldietan geroz eta gehiago kontsumitzen zen turismo kulturala eta bisitariak eskatzen zituzten jarduera desberdinen eskaerari erantzuteko; bestetik, museoek aitzakia ezin hobea izaten zutelako publikoa erakartzeko eta bide batez komunikabideetan ere difusio lan indartsuak burutzeko. Ekitaldi hauetako askok, beraren izaeragatik, originaltasunagatik edota programazioagatik, benetako ekintza nagusi bihurtu ziren museoek urteko programazioetan.

8.1. MNE: Museoen Nazioarteko Eguna

MNEaren ospatzea museo gutxi batzuk aurrera eramandako ekintza izan bazen aurreko hamarkadan, oraingoan indar berezia hartu zuen eta ekipamendu gehienek eskaini zuten ekintza bereziren bat egun honi lotuta. Ohiko ohikoena ate irekien eguna edota museoak urtean zehar egiten zuten ekintzaren bat errepikatzearena izan zen; tailerrak, bisita gidatu bereziak, emanaldiak eta erakustaldiak, besteak beste. Hala ere, zenbait museoek egun horretan aglutinatu zituzten urtean zehar egiten ez ziren ekintza bereziak, bisitariak zerbait berria eskaini nahian. Museo batzuk jada mende berriarekin batera – zein aurretik – ospatu bazuten ere, museo gehienak 2010tik aurrera burutu zituzten ekintza bereziak MNE.

Baina MNEn biderkatzen ziren proposamenen aurrean eta museoek programazioan zegoen eskaintza gehiegizkoari aurre egiteko, zenbait museoek sarean lan egiteko aukera hautatu zuten. Honelako ekimena burutu zuten lehenengoak izan ziren DMSko museoak, 2008tik aurrera koordinatutako ekintza programa bat eskainiz eta era bereko difusio jarduerak eginez⁶⁹⁹; ekintza oso desberdinak eta erakargarriak aurrera eraman zirelarik: museoek olinpiadak, pasaporte bitartezko bisitak, belaunaldiarteko tailerrak museo bakoitzari egokituta eta abar⁷⁰⁰. Azken urteetan Tolosaldea Tourrek ere eskualdeko hiru museoetako jarduerak koordinatzearen ekimena eraman zuen aurrera MNEn, hala nola Gau Zuria ospatzeko⁷⁰¹.



38. irud: DMSko ordezkariak MNEn aurkezpenean (DMSA)

8.2. Beste Nazioarteko egunak / asteak

Museo gehienek Nazioarteko Eguna edo Estatu Mailako Eguna bereziren bat hautatu zuten programa berezi bat eskaintzeko, instituzioaren izaerari lotuta zegoena noski. Honela, mota guztietako egunen ospakizunak hedatu ziren: Zuhaitz Eguna Ibarraundi Museoan, Argazkigintzarena Photomuseum⁷⁰², Europako Tren Turistikoan

⁶⁹⁹ 2007an lehen aldez programazioaren difusioa egin zen sare bezala baina museo bakoitzak bere kabuz diseinatu zuen eskaintza bakarka.

⁷⁰⁰ 2010eko jarduerak. DMSA.

⁷⁰¹ MNE eta Gau Zuria eskuorriak. TGAA.

⁷⁰² Abuztuaren 19an Daguerreren monumentuan omenaldia egin eta beste jarduera batez osatzen zen eguna: hitzaldiak, proiektzioak edota erakusketa bereziren bat. "Argazkigintzaren Nazioarteko Eguna/ Día Internacional de la foto. Resumen". PA.

Eguna Burdinbidearen Euskal Museoan, Elikaduraren Eguna eta Nutrizioaren Estatu Mailako Eguna D'Elikatuzen, Haurrena Chillida Lekun eta ZAHMen, Hizkuntzena Sagardoetxean, Urarena Zientzia Kutxagunean; Bide Berdeena Leitzarain, Arditurri zein Zumalakarregin eta geologia eguna Zerainen, Arrikutzen eta Arantzazun, bestak beste. Egun berezien artean, museo batzuk azken urteotan aurkeztu izan dituzte programa bereziak Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko. Igartubeitin landa ingurunean emakumeak izan duen paperari lotutako jardunaldi ezberdinak antolatu ziren eta Balenciagan ere emakume sortzaile eta moda munduko protagonisten hitzaldi zein tailerrak burutu ziren.

8.3. Urteurrenak eta ospakizunak

Ezin dugu ahaztu museo batzuk irekiera urtearen urteurrena ospatu ohi zutela edota berarekin erlazionatutako egun berezi baten ospakizuna. Lehenengoaren kasuan aipatu beharrekoak dira Zumalakarregi Museoaren 20. urteurrenako festa, puzgarriak, Lizarrara txangoa, kontzertuak eta jolasak eskainiz⁷⁰³; Untzi Museoaren 15. Urteurrenarekin batera egindako animazio marrazkiak, *performance* eta musika kontzertua⁷⁰⁴; eta baita Makina-erremintaren museoaren 10. urteurrena, armagin eta errementari grabatzaileen erakustaldi batekin⁷⁰⁵. Chillida Lekun ere Haizearen Orraziaren 30. Urteurrena ospatzeko ekitaldi programa zabala osatu zuen, eskultura multzoaren gunean bertan tailerrak eskainiz eta museoan dantza, musika emanaldiak eta erakusketa bereziak eginaz eta Ataunen, Jose Migel Barandiaranen jaiotzaren 125. Urteurrena ospatzeko programa zabala eskaini zen Lizarrusti-Barandiaran P.H.an: hitzaldiak, ipuin kontaketa, erakusketa berezia, eta abar. Armagintza Museoak ere bere urteurrenak ospatu izan zituen olerki saio eta musika emanaldiekin, eta Museum Cemento Rezolako 10. Urteurrenako festan gainera kontzertu eta dantzaz gain interbentzio artistikoak ere burutu ziren.

8.4. Oporraldietako programak

Museoek, aisialdirako beste espazio eta eragilek egin zuten antzera, oporraldi garaietarako programazio bereziak sortu zituzten oraingoan, ikasturtean zehar zeuden etenaldi horietan haur eta gazteentzat bereziki entretenigarriak ziren jarduerak eskainiz. Horrela, gabonak, aste santua eta uda bihurtu ziren plan zehatzak sustatzeko garaiak eta esan daiteke ia museo gehienek sortu zituztela honelako programa bereziak. MNErekin gertatzen zen bezala, oporraldietan ere gainjartze bat ematen zen eta askotan urtean zehar egiten ziren ekintzen errepikapenak besterik ez ziren, ordutegi zabalago batean eta egun gehiagotan eskainiz. Horregatik museo batzuk eskaintza bateratu bat osatzeko erabakia hartu zuten: DMSk "Gabonak Zuretzat" koordinatutako programazioa eratu zen⁷⁰⁶ eta Zumalakarregi Museoak eta Igartubeiti Museoak "Jolastera Museora" sortu zuten, uda eta neguko eskaintza bezala⁷⁰⁷. GPS Fundazioak ere oporraldietan programazio berezia osatu zuen Parketxeetan, Natura Parkeetan burutzen ziren ekintzen arteko gainjartzea ere eragotziz. Lenbur Lurralde Museoan, urtero errepikatu ziren urtarotako programak ere eratu ziren: udaberriaren Artzaitxo Egunak ospatuz edota gabonetan "Olentzero Ikazkina Mirandaolan" ekimena burutuz⁷⁰⁸.

Aipatu beharra dago Gipuzkoako museo batzuentzat uda garaiak izaten zirela jarduera gehien burutzeko momentuak eta espazio hauek "pizteko" aukera. Egoera hau ematen zen Urgull Historiaren Etxean, zeinak historiara gerturatzeko era erakargarri eta berritzaileak eskaini zituen. 2002an "arkeologia eta arkitektura" antolatu

⁷⁰³ "Contratación K6 2009". GFAAA. Sig: 5059/4.

⁷⁰⁴ "Airu 2006". GFAAA. Sig: 30838/1.

⁷⁰⁵ (2008, abenduak 21). "El Lehendakari presidió el X aniversario del Museo de Máquina-herramienta de Elgoibar". In <http://www.imh.eus/es/noticias/el-lehendakari-presidio-el-x-aniversario-del-museo-de-maquina-herramienta-de-elgoibar> (2015ko ekainaren 28an ikusia).

⁷⁰⁶ Aipagarria da 2009an lehen aldiz DMSko museo guztiek antolatutako eguberrietako programan "belaunaldi arteko tailerrak" burutu zirela ekipamendu guztietan.

⁷⁰⁷ "Contratación K6. 2004". GFAAA. Sig: 28791/2.

⁷⁰⁸ Urtaroetako programak. Lenbur Lurralde Museoa. LFA.



zen, bi asteko iraupeneko egitasmo bat non gai hauetan adituak ziren profesionalen eskutik zientzia hauetara gerturatzeko teknikak, jolasak eta tailerrak burutu ziren⁷⁰⁹. Ondorengo udetan ere tankerako ekintzak egin ziren, *gymkana*, simulazio jolasak eta rol jokoak bateratuz⁷¹⁰. Urte osoan ekintza ugari antolatzen baziren ere, kasu berezi bat aurkitzen dugu D'Elikatuz Elikadura eta Gastronomia Zentroan, non 2006tik aurrera antolatzen zen “Gabonak D'Elikatuz” programa. Honetan hurrei dedikatutako jardueraz gain – jolasak eta tailerrak – lehenengo aldiz helduei zuzentzen ziren ekintza bereziak ere osatu zituzten eguberrietako ekintza berezien baitan, kafe-kontzertuak eta hitzaldiak bezalako planak eskainiz.

8. 5. Birsortze historikoak eta antzerkiak

Estatu mailako beste lurralde batzuetan garatu baziren ere, birsortze historikoak – museoen eskutatik behintzat – berandu heldu ziren panorama museistikora, baina euren arrakasta eta eraginkortasunak oso emaitza positiboak utzi izan zituen beti ere. Birsortze historikoetan antolatzen dira “una serie de actos en los que la reconstrucción histórica y arqueología experimental son el eje central [...] (y) potenciando el carácter didáctico y lúdico de las actividades” (Noain, 2012). Horrela, garai historiko bati buruzko edukiak lantzeko bestelako formatu bat eskaintzen zaio publikoari, festa giroan murgilduz eta parte-hartze maila sustatuz.

Historikoki jarraipen kronologikoa eginaz, aurrehistoriako festa ospatzen zen urtero Ekainberrin, *Ekainfest* deiturioa, non olinpiada jolasak, tailerrak, erakustaldiak eta beste hainbat ekintza biltzen ziren egun osoko ospakizun batean. Zarautzen, ZAHMek eta Zarauzko Udalaren eskutik *Erromatar Jardunaldiak* sortu ziren 2006an. Hauetan erromatar garaiko birsortzea burutzen zen⁷¹¹, artisauen erakustaldiak, kanpaldi baten birsortzea, antzerkia, tailerrak eta abar. Zenbait urtetako errepikapenaren ondoren jardunaldi hauek burutzeari utzi zitzaion orea. Aro historiko berdinari jarraiki, Oiasso Erromatar Museoak *Dies Oiassonis* deiturikoak antolatu zituen 2010tik aurrera, urteroko ekintzak geroz eta osatuagoak zirelarik eta Irungo panorama kulturalaren txertatze arrakastatsu batekin (Noain, 2012). Honetan ere musika emanaldiak, kaleko errekreazioak, tailerrak eta beste hainbat jarduera burutzen ziren, herriko eta eskualdeko eragile ezberdinekin elkarlanean.



37. irud: *Dies Oiassonis*
(Oiasso Erromatar Museoa).

Denboran aurrera eginez, Victor Hugo Etxean egin zen jarduera erakargarrienetako gauzatu zen 2002an: Victor Hugoren heriotzaren berrehungarren urteurrena ospatu zen Pasaian eta, honi loturiko hainbat jarduera eraman zirela aurrera herrian: “La finalidad de estos actos es crear un producto turístico de gran atractivo basado en la

⁷⁰⁹ “Urgull verano 2002” eskuorria. STMA. Sig: 207/3.

⁷¹⁰ “Actividades pedagógicas 2007-2008”. STMA. Sig: AC_051.

⁷¹¹ “2008ko memoria”. ZAHMA.

filosofía del desarrollo turístico”⁷¹². Horren baitan arrakasta handia izan zuten ibilaldi erromantikoak eta antzeztutako bisitak, non Victor Hugok Pasaia izandako helduera birsortu zen uztaila eta iraila bitartean⁷¹³, eta baita literatura jardunaldiak eta zine emanaldiak, guztiak idazlearen bizitza eta obrari loturik. Birsortze historikorako sortu eta erabilitako jantzi guztiak gainera Victor Hugo Etxeko erakusketa areto berri bat eratzeko erabili ziren.

38. irud: Victor Hugoren heriotzaren berrehungarren urteurrena (Victor Hugo Etxea)



XIX.mendearen historiari lotuta ere, Zumalakarregi Museoak tailer bat abiapuntu izanik garatu zuen birsortze historikoari lotutako ekimen esanguratsuenetako bat. Esan daiteke urtez urte puztu zen proiektu bat izan eta jendearen erantzuna zein partehartzaileen inplikazioa handituz joan zela. Ormaiztegin, herri jaiekin batera ospatu ohi zen Eleganteen Eguna, baina beste hainbat herrietan bezala ospakizunaren izaera eta tradizioak galduz joan ziren, batez ere jantzigintzaren aldetik garaikidea zen estetika bat gailendu zelarik. Egoera horren aurrean eta jaia aitzakitzat hartuik, Museoak XIX.mendeko janzkeren irudi proiektzio bat eskaini zuen 2012an; hurrengo urtean ordea egun horretan ipintzeko jantzi tailer bat proposatu zen, hala nola hitzaldi eta erakusketa bat. Azken honen arrakasta ikusita pauso bat aurrerago joan eta ekimen honen edizio berri bat prestatu zen, jostun tailerraz gain herriko beste eragile batzuen partehartzea sustatuz: merkatariak eta hostalaritza zerbitzuak. Gainera, birsortze historikoaren errealismoa areagotzeko asmoz, urtetik urtera elementu gehiago gehitu ziren, XIX.mendeko eleganteen bilkura ospatzeko baliabide eta tresna geroz eta aberatsagoak izanik.

⁷¹² “Bicentenario de Victor Hugo”. PUA. Sig: 1238-11.

⁷¹³ “Bicentenario de Victor Hugo”. PUA. Sig: 1238-11.



39. irud: XIX. Mendeko Eleganteen Bilkura
(Zumalakarregi Museoa - K6 K.K.)

Amaitzeko eta jada XX.mendeko historiara gerturatuz, Elgetako Memoria Historikoaren I.Z.ak burutzen duen ekintza ezagunenetakoa aurkitzen dugu. 2013tik aurrerako apiril guztietan herriko boluntarioz osatutako talde handi batek Intxortako batailaren birsortzea gauzatu zuen, gertaera historikoa eman zen kokagune berean.

8.6. Beste ekitaldi batzuk

Nazioarteko Egunak, eguberrietako programak eta izaera bereziko ekitaldi guztiekin batera, sailkapen orokor baten baitan antolatu ezin daitezkeen izaera bereziko ekintza ezberdin ugari gauzatu ziren Gipuzkoako Museoetan. Esan daiteke museo bakoitzak bere festa propioa sortu zuela – nahiz eta askotan programazioan eta gaian antzekotasunak eman – eta hauek ere instituzio ezberdinek urtean zehar gauzatzen ez zituzten proiektuak aurrera eramateko egun egokiak izaten ziren. Normalean egun osoko programazioa eskaintzen zuten, baina zenbaitzuk asteburu edota aste oso batean zehar luzatzen ziren. Aurrez aipatu bezala, horietako batzuk museoetako berebiziko difusio elementu bilakatu ziren eta pixkanaka Euskal Herriko – zein Estatuko – mapa museistikoan kokatzeko aukera eman zien⁷¹⁴.

Aurreko hamarkadetan proposatu ziren ekitaldi batzuen iraupena ere eman zen mende berriarekin batera: Urretxuko Mineral eta Fosilen Museoak Paleontologia eta Mineralogia Astea zein Mikologia Jardunaldiak antolatzen jarraitu zuen eta Photomuseumek Argazki Bilerak. Zerainean urteetan zehar aurrera eramandako lanbide tradizionalen erakustaldiak – txondorra, karea egitea, lixiba egitea – beste espazio batzuetan burutuko zirenen oinarri bihurtu ziren, eta antzinako lanbide eta tradizioaren berreskurapena erakusten zuten ekimenak hedatu ziren. Igartubeiti Baserri Museoaren irekieratik urtero errepikatu ziren ekitaldi batzuek sekulako arrakasta lortu zuten. Hroien artean aipatu behar den lehenbizikoa dugu Sagardo Astea: bertako tolaean sagardoa egiteko erakustaldiaren izaten zen jarduera nagusia eta horren inguruan urtero ekintza gehigarri ezberdinak antolatzen ziren: aldi bateko erakusketak, hitzaldi bereziak, bertsolaritza saioak, musika emanaldiak eta gastronomiari lotutakoak. 2006an programaziora gehitu zen “Bizimodua Igartubeiti baserrian”, non XVI.mendeko giroa birsortzen zuten bisita antzeztuak eskaini ziren⁷¹⁵. Aste horretan egiten zen sagardo dastaketak ekarri zuen Barrikotea⁷¹⁶ deiturikoa ere ospatzea, herritar ezberdinak museoaren inguruan biltzeko aukera eskaintzen zuena. Martxoan

⁷¹⁴ Ekitaldi guztietatik elementu berritzaileak edo/eta ezagunenak bilakatu zirenak aipatzen dira.

⁷¹⁵ “Igartubeiti Baserri Museoa. Memoria txostena 2006”. IBMA. 2006ko kutxa.

⁷¹⁶ “Memoria 2007”. IBMA. 2007ko kutxa.

Bertsoa ekimenaren barnean⁷¹⁷ ere aurrera eraman ziren ekintza ezberdinak eta 2009tik aurrera Baserri Egunaren antolakuntza deituriko ekintza ere gauzatu zen, baserriarren lana omentzeko hitzaldi, dantza, bertsolari eta beste hainbat jarduera eginaz.

Sagardoaren bidetik jarraituz, Sagardoetxeak ere zenbait ekitaldi eskaini zituen: Sagardo Berriaren Eguna non Txotx denboraldiaren irekiera eta zuhaitz landaketak ziren ekintza nagusienak; Barrikotea; Sagar Uzta Festa, Astigarragan egiten zen erakusketa, tailer, erakustaldi eta abarrez osatutako programarekin; eta Kirikoketa eguneko jaia: aitzinean bezala sagardoa nola egiten zen ikusteko aukera bikaina.

GPS Fundazioaren barneko lau Parketxeetan ere ekitaldi berezi ugari antolatu ziren, horietako batzuk urteetan zehar egonkortu zirelarik. Lehen egitasmoetako bat Pagoetako Parkekoa izan zen, zeinak 2003an ospatu zen lehen aldiz Landare Azoka⁷¹⁸ zeina dudarik gabe publiko ikaragarria erakartzeko ekitaldi bat bihurtu zen: ekoizleek euren produktuak plazaratzea zen helburua eta aldi berean “ingurumenarekin errespetuz jokatzeko duen (eta) eskulangintzako jarduerak erabiliz”⁷¹⁹ lan egiten zutenen landareak ezagutzera ematea.



40. Irud: Pagoetako Landare Azoka
(Arreta S.L)

Arditurri Parketxean Arditurri Eguna eta Santa Barbara egunak ospatzen ziren urtero, zenbait jardueretarako Lubetri Oartzungo Ikasgune Geologikoa eta HMTko lantaldeekin elkarlana buruturik, eta tailerrak, musika emanaldiak eta ibilaldi bereziak eginaz. Horrekin batera, Zerainen txondorra egitea eta ikazkintza erakustaldia aurreko hamarkadetan egin bazen ere, oraingoan GPS Fundazioak jarduera hau berreskuratu eta zenbait urtetan antolatu zituen hura egiteko ekitaldiak Lizarrustin zein Arditurri, hezkuntza formalera bideratutako programa berezi bat ere osatuz. Arantzazun Parketxearen Eguna ere ospatu izan zuten, Geologo Eguna Arrikutzekin batera eta Txarrijaia deiturikoa ere egin zen urte batean, argazki erakusketa, hitzaldi eta gastronomia jardueraz osatuta. Eta Natura Parkeekin amaituz, Lizarrusti-Barandiaran P.H.an Errota, Talo eta Baserri Egunak egin ziren, multzo hidraulikoaren funtzionamenduarekin batera bisita bereziak, tailerrak, ibilaldi gidatuak eta XVIII.mendeko labean

⁷¹⁷ Ezkio-Itsasoko Udaletxearekin, Urretxu-Zumarragako bertso eskolarekin eta Yartu elkartearekin lankidetzan.

⁷¹⁸ Lehen urtean, gainera, bi alditan ospatu zen: udaberrian eta udazkenean; baina lehenengoak izan zuen arrakastarik handiena. Ia 8000 pasa ziren udaberriko aldian. “Agorregi 2003”. IPA.

⁷¹⁹ Aia Pagoeta. Landare Azoka. In http://www.aiapagoeta.com/index.php?option=com_content&view=article&id=23&Itemid=51&lang=eu (2015ko ekainaren 12an ikusia)

egindako ogia zein taloak frogatzeko aukerarekin. Baina dudarik gabe arrakasta handienetakoa izan zuen ekimena Ibilaldi magikoen izan zen, Jentilbaratza K.E.rekin batera antolatutako, non gaueko ibilaldi gidatu batean zehar gune ezberdinetan antzeztu zituzten eszena ezberdinak mitologiako pertsonaiek, antzinako ohiturak eta kondairak nahasten zirelarik historiaz betetako kokagune batean.



41. irud: Ibilaldi magikoa Aralar N.P.an
(Artelatz ingurumen zerbitzuak S.L.)

Zientziaren arloari begiratuz gero, aipagarria da Eureka Zientzia Museoak urtero 2006tik Experimentalia, Zientziaren Astea aurrera eramaten zuela: antzerkiak, jolasak, hitzaldiak eta beste hainbat jarduerak osatzen zuten programa ha. Horrekin batera, fenomeno ezberdinak ezagutzeko egun berezietan ere, eklipseak adibidez, ikustaldiekin erlazionatutako ekintzak burutzen ziren (Ares, 2005).

Arte espresio ezberdinek ere protagonismoa izan zuten mota hauetako ekitaldi berezietan. Chillida Lekun ugariak izan ziren antolatutako ikuskizun eta egun bereziak; horien artean *Udari ongietorria* deiturikoa aipaturik, non musika, dantza, olerki emanaldiak eta beste hainbat ekintza burutzen ziren⁷²⁰; eta Irungo Oiasso Erromatar Museoak nazioarte mailan ospe handia lortuko zuen beste ekitaldi bat sortu zuen: FICAB – Festival Internacional de Cine Arqueológico del Bidasoa – museo beraren irekiera aurretik jada martxan harri zena (Urteaga, 2012). Bertan arkeologia, historia eta ondarearekin erlazionatutako filmen proiektzioa eta lehiaketa ospatzen zen, hala nola beste hainbat jarduera osagarri, hala nola ikastaro eta hitzaldi zikloak. Zinemagintzari loturik ere, 2012an Albaola Elkartek antolatu zuen Pasaiake Itsas Zinemaldia, itsasoaren inguruko leienda, bidaia zein istorioak oinarrituzten filmen proiektzioa burutuz Ondartxo Zentroan⁷²¹. Eta azkenik, nahiz eta museoari soilik lotutako ekitaldi bat ez izan – gogoratu behar dugu Zentroaren irekieraren aurretik jada burutzen zela – Tiritijai, Tolosako Txotxongiloen Jaialdia aipatu behar da, TOPICen ospatzen zena. Astebeteko iraupena zuen ekitaldi honetan aldakuntza eta berrikuntza ugari izan ziren, baina beti ere nazioarte mailako konpainia ezberdinen lanak eta ikusizunaz gozatzeko aukera eskaini zuten.

Bisitariak/ publikoa/ erabiltzaileak

⁷²⁰ Kultura jardueren zerrenda. Chillida Leku. In <http://www.museochillidaleku.com/2000-2010/content/eusk.html#d4> (2015ko martxoaren 4an ikusia).

⁷²¹ Pasaiake Itsas Zinemaldia. In <http://www.naiz.eus/es/agenda/evento/pasaiake-itsas-zinemaldia> (2015ko ekainaren 4an ikusia).

XX.mende hasierako Gipuzkoako Museoen publikoari begiratu eta XXI.mendekoarekin konparatuz gero, argi ikusi daiteke museoaren demokratizaziorantzko bidean eman ziren aurrepausoak nabarmenak zirela. Publiko elitista bati bideraturiko programa eta ekintzetatik geroz eta heterogeneoagoa zen bisitari taldeetarako prozesua jarraitu zen. Museoetako bisitariak zein bertako zerbitzuen erabiltzaile desberdinen beharretara egokitzea eta erantzun aproposa ematea izan zen mende berriko erronka nagusienetakoa. Zenbait museo, oraindik ere, diskurtso bakar eta egonkor batekin aurrera egin bazuten ere, beste instituzio gehienek etengabeko aztertze eta birplanteaketa baten baitan gauzatu zituzten publikoari zuzendutako jarduera didaktikoak. Izan ere, “uno de los aspectos que caracterizan el cambio sufrido [...] es la consideración del público como elemento fundamental estructurador de la mayor parte de las facetas de la labor de desarrollo de las instituciones” (Antonella, et. al, 1998: 145). Garai honetan beraz jada asimilatuta zegoen ideia baten baitan mugitzen ziren museoak⁷²²: “(que) el Museo Tradicional no puede funciona sin adaptarse a los nuevos tiempos y si quiere sobrevivir se deberá encontrar al servicio total de su nuevo dueño: el público” (Palomero, 2001:142)

Teorien barneratze honen aurrean ordea oso bestelakoa zen erantzun bat ematen zitzaien museoetatik: Gipuzkoan bisitarien ebaluazio lanak oraindik oso eskasak ziren; zenbaitetan museoetako lantalde propioak buruturiko inkestetan edota ikerketa laburretan oinarritzen ziren emaitzak. Aukera izanez gero, museo batzuk programa zehatz baterako edota material berrien sorkuntzarako unibertsitate zein beste instituzio batzuekin elkarlanak burutu zituzten. Baina orokortzen zen egoera nagusia lantaldearen behaketa zuzenean zein intuizio hutsean oinarritzen ziren jarduera didaktiko programak ziren, kasu batzuetan erantzun positiboa jasotzen zutenak.

1. Hezkuntza formaleko taldeak

Museoetako hezkuntza programak eta jarduera didaktiko gehienak hezkuntza formaleko taldeei zuzendu izan zitzaizkion azken hamarkadetan eta mende berriarekin batera ez zen aldaketarik eman arlo horretan. Izan ere, egunerokotasunan museoetako jardueretan parte hartu zezaketen hartzaile nagusienak ziren, asteburu eta oporraldietako programak beste talde mota batzuei zuzentzen zitzaizkielarik. Aurreko hamarkadetako bisita gidatuetatik eta fitxa didaktikoen osaketatik haratago, oraingoan museo gehienek osatu zituzten hezkuntza programa bereziak espermentazioari eta jarduera aktiboari protagonismo gehiago eman zioten.

Maila desberdinetara bideratu ziren eskaintzak osatu baziren ere, oraindik ere Haur Hezkuntzako ikasleentzako programa bereziak eskasak ziren, museoak haurrentzako prestatatutako guneak zirela pentsatzen zuten askoren eszeptizismoa zein irakasleentzat eskolatik haur txikiekin irteteak suposatzen zituen oztopo eta zailtasunak zirela eta (Rodríguez, 2011). Hala ere, horren aurrean zenbait museok estrategia berriak landu zituzten txikienak museotara gerturatzeko eta haientzako espazio egokiak ere bazirela defendatzeko: ipuin kontalarien bidezko bisitak egitea, egokitutako espazioak eratzea museografiaren baitan eta material deigarriak eta erakargarriak sortzea. Beste mailai dagokionez dinamika bera jarraitu zen, eskolako maila desberdinen baitan proposatutako jarduerak eta gaiak desberdinak zirelarik.

⁷²² Espainiako Gobernuaren baitan sortu zen entitate berri bat “Laboratorio de público de Museos” izan zen, estatuaren jabetza ziren espazio hauen publikoaren inguruko ebaluazio eta ikerketa iraunkor bat ezartzeko asmoz. Honek, dudarik gabe, bisitarienganako ikuspegi berria erakusten zuen, non biztanleriaren itxaropen eta beharrei erantzuteko proposamenak eraberritzeko aukera eskaintzen zen.



42. irud: Ikasle talde bat TOPICen
(Josu Otaegi/ TOPIC Tolosako
Nazioarteko Txotxongilo Zentroa)



1.1. Hezkuntza programa bereziak

Haur Hezkuntzatik Lanbide Heziketarainoko programa ezberdinak eskaintzeaz gain aipagarriak diren beste zenbait proposamen aurkeztu zituzten zenbait museoek ikasle taldeekin loturik.

Alde batetik aipagarria da TOPICen aurrera eramandako *Manoviva* proiektua⁷²³. Honetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle taldeak protagonista bilakatzen ziren, jarduera ezberdinak burutzeko bai hirugarren adineko pertsonekin eta baita ospitaleetan behar terapeutiko bereziak zituzten haurrekin: “Se trata de un proyecto pionero en todo el Estado Español por el cual el TOPIC, junto con colegios de Gipuzkoa, está abordando diversos proyectos de utilización de la marioneta como herramienta terapéutica y como instrumento socializador”⁷²⁴

Bestalde, Albaola Itsas Faktorian Marinel gazteak programa sortu zen, dibertsifikazioko ikasleei zuzendutakoa eta esperientzia zein lankidetzan oinarritzen zena. Bertan “nabigazioan eta ontzigitza tradizionalean formakuntza ematen zaie ikasleei, lana aisiarekin uztartuz, boluntariotza sustatuz eta ikaslearen motibazio pertsonala bultzatuz. Formakuntzak elkarlana, adostasuna eta taldearekiko konpromezua lantzen ditu, partaide bakoitzak egiten duenaren arduran oinarrituz eta aniztasun kulturala eta ezberdintasunen aukera erabiliz mudura zabaltzeko”⁷²⁵.

1.2. Irakasleekin harremanak

80ko hamarkadatik irakasleek museoan programen baitan izan zuten protagonismoa zenbait kasutan mantendu bazen ere, orokorrean geroz eta banaketa handiagoa nabarmendu zen irakaslegoa eta museoaren artean, askotan museoeko bisitetarako bitartekari edo “eramaile” hutsak kontsideratzen zirelarik (Huerta, 2009). Gainera, irteera eta bisitak prestatzeko denbora gabeziari museoetatik aholkularitza zerbitzu egoki bat mantetzeko giza baliabideen falta gehitzen zitzaion⁷²⁶. Egoera horren aurrean harreman birtual batean gauzatzen ziren bi instituzioen arteko erlazioak, sareak ematen zituen aukera eta tresnetan oinarrituz: materialak eta irakasleen gidak museoeko web orrian ipintzen ziren irakasleek hura erabil zezaten, baina ez zen jarraipen lan orokortu bat ematen.

⁷²³ Aurrez ere aipatu den belaunaldiarteko tailrak barne hartzen dituen ekimena delako.

⁷²⁴ “TOPIC memoria 2013”. TTNTZA. 5. or.

⁷²⁵ Albaola Itsas Faktoria. Hezkuntza. In <http://www.albaola.com/eu/site/heziketa-eskaintza/marinel-gazteak> (2015ko ekainaren 26an ikusia).

⁷²⁶ Bi egoera desegokien bateratzea ematen zen: museoetako lantaldeen artean geroz eta zailagoa izaten zen irakasleekin harreman estua eta jarraitua izango zuten bitartekari lan eta proiektuak; eta aldi berea, irakaslegoaren funtzioen baitan ere ikasgelako ordu finkoei gehitzen zitzaizkien hamaika lan. Hortaz, elkartu, hausnartu eta eztabaidatzeko espaziorik – fisiko zein tenporalik – existitzea geroz eta zailagoa zen.

Zenbait museok ordea irakaslearekin aurre prestakuntza saioak antolatzea eta bisita egunean egingo zutenaren inguruko elkarrizketak izatea oinarritzotzat jotzen zuten, ate irekien zein hezkuntza programen aurkezpen jardunaldiak burutu zituztelarik – San Telmo eta Chillida Lekuk adibidez – lurraldeko museoaren gehiengoaren jokabideetatik aldenduz.

2. Familiak

Dudarik gabe, XXI.mendeko jarduera didaktikoen protagonista berriak familiak izan ziren, asteburu eta oporraldietako programa gehienak hauei zuzendu zitzaizkiolarik. Ordura arteko eskaintza publiko orokorrari zuzenduta bazegoen eta hauek ere talde honen barnean kontsideratzen baziren, oraingoan familien behar bereziei erantzuteko aukerak eskaini ziren era nabarmenean, kontutan izanik “(que) las familias necesitan un entorno social donde sus miembros puedan estar juntos y tener acceso a actividades que puedan compartir [...] (y) los museos son considerados como una oportunidad de estar juntos y de pasar un buen rato” (Hooper-Greenhill, 1998: 142). Aisialdiko denbora betetzeko jarduera arruntetatik haratago zenbait familiak museoetako eta beste hezkuntza eremuetako jarduerak bilatzen hasi ziren, “para un uso más enriquecedor, creativo, diversificado y autónomo del tiempo libre y de ocio” (Pastor, 2004: 19).

Gipuzkoako Museoak beraz, asteburu eta jaiegunetan jasotzen zuten publikoaren zati handi bat familiek osatzen zutela ikusirik espazio erakargarriak sortu zituzten museoetan hauei zuzenduta eta aldi berean jarduera interesgarriak zein material didaktiko egokiak osatu zituzten ekintza horiek probetxagarriak izan zitezen. Beraz, eta museo askotan euren programa egonkorren parte izan ez baziren ere, ia guztiek familiei zuzendutako ekimenen bat eraman zuten aurrera: larunbateroko tailerrak, bisitat-tailerrak, jolas frogak familian eta abar.

2. Beste talde batzuk

Museoen gehiengoak “beste talde batzuk” bezala aipatzen zituztenen barnean mota ezberdinetako tipologiaik sailkatu daitezke. Institutio gehienak publiko orokorrari edo helduei zuzendutako programa berdinen errepikapenak eskaintzen zizkieten talde hauei. Zenbaitetan eskaerapeko moldaketak eta eskaintza bereziak ere egiten zituztela aipatzen zuten, “zure gustura” edo “a la carta” delako bisita mota bat planteatuz. Baina Gipuzkoako museo batzuk ordea talde hauetako bakoitzaren izaeraren berezitasunak antzemanda, programa berri eta egokitutako eskaintzak gauzatu zituzten.

2.1. Aisialdi taldeak, udalekuak eta gazte txokoak

Talde hauek oporraldietan museora gerturatzen ziren haur eta gaztez osatuta zeuden. Normalean adin tarte ezberdinak nahasten zituzten bisitari taldeak ziren – hezkuntza formaleko zorrozetasunetik aldenduz – eta ekintza programen baitan izaera ludikoa zuten jarduerak nagusi zirelarik. Museoetako bisitak burutzeak programazioaren alderdi kulturala gehitzeko moduan agertzen ziren, edota kokapenagatik – herri edo eskualdeko taldeak izanagatik – espazio hauek ezagutzea ezinbestekotzat jotzen zelako. Museo askok eskaera zehatzen arabera proposatutako jarduera planak egiten bazituzten ere, beste zenbaitek talde hauen izaerari lotutako programa bereziak osatu zituzten, urtean egiten ziren ekintza motak moldatuz edota berriak sortuz.

2.2. Hirugarren adineko pertsonak / Jubilatuei

Ordura arte hirugarren adineko taldeak edota jubilatuei zuzendutako eskaintza publiko orokorraren berdina izaten zen. Askotan hauen partaide ziren pertsonen helburua sozializatzea eta irteera kultural bat burutzean zetzan, eta museoek ez zuten kontsideratzen eurak ere partehartzaile eta protagonista bilakatzeko aukera zutela. Ezer gehitu ezin zuten pertsona horien garrantzia XXI.mendean nagusitu zen, batez ere ondare materiagabeak garaian izan



zuen indar bereziari lotuta. Galtzear zeuden istorio, ohitura eta tradizio askoren gordetzaile ziren pertsona hauek bihurtu ziren informazio iturri nagusiak, eta hortaz, testigantzak jaso eta historiaren berridazterako oinarritzakoak bilakatu ziren. Gipuzkoako Museoetan lehenengo proposamenetako bat garatu zen Museum Cemento Rezolan: “Kontaiguzu” deituriko programa bat garatu zen, iragan industrial ardatz hartutako elkarrizketetan oinarritzen zena. Jarduera hau hirugarren adina, jubilatuta elkarte eta Egunekeo Zentroei eskaini zen⁷²⁷, memoriaren berreskurapenaren lanketa bultzatzeaz gain museoarentzako ere informazio iturri esanguratsuak bihurturik. Gainera, testigantza horien garrantzia zein museoaren eta auzoaren historiarekin zuen lotura estuagatik, proiektu zabalago batetara eraman zuen museoa, “Añorgatarrak” izenaren baitan gauzatu zena⁷²⁸. Zumalakarregi Museoak ere, 2007tik aurrera “Zuma kontakizuna” programa martxan jarri zuen, talde hauei zuzendutako ekintza bat proposatuz non objektu historiko baten inguruko solasaldiak burutzen ziren⁷²⁹.

2.3. Euskaltegiak

Beste taldeekin egin zen bezala, museoetako eskaintza orokor baten baitan burutu ziren talde hauen bisita gidatu eta ekintzak. Baina barnetegi eta euskaltegietak bisitariei zuzendutako programa egokituak sortu izan zituztenak ere izan ziren, nahiz eta oraindik oso eskasak ziren. Horien artean aipagarria da Sagardoetxeak euskaltegiarentzat eskainitakoa “Mintza praktika Sagardoetxean”: bisita gidatu batez gain sagardo munduko hitzak ezagutu eta lantzeko ekintzak burutzen ziren, hiztegia eta sagarren kulturaren inguruko material didaktikoa banatzen zitzaielarik⁷³⁰. Honekin batera Oiasso Erromatar Museoak ere “hitzetan murgilduz” programa eskaintzen zuen, euskaraz hitz egin eta praktikatzeko aukera eskainiz.

2.4. Dibertsitate funtzionaleko taldeak

Garai honetan irisgarritasun neurrietara moldatu behar izan zuten museo askok, instalakuntza zein museografiaren aldetik aldaketak eginaz. Zenbaitetan erakusketako elementuen baitan ere baliabide egokituak gehitu zituzten – testuak braillez, audioak zituzten kartelak - baina oraindik ere dibertsitate funtzionaleko taldeei zuzendutako programa bereziak oso eskasak ziren. Aurreko hamarkan Untzi Museoak hasitako urteroko zentzumen tailerra errepikatu zen, elkarlan desberdinak burutuz eta originalak zein eraginkorrak ziren ekintzak planteatuz. Honetaz gain beste museo guztiek eskaeraren araberrako moldaketak burutzen zituztela aipatzen zuten, baina hezkuntza eskaintzan bertan talde honentzako ekimen zehatzik agertu gabe.

2.5. Esklusio sozialeko arriskuan dauden taldeak

Dibertsitate funtzionaleko taldeekin bezala, esklusio sozialeko arriskuan zeuden pertsonentzako bisita eta jarduerak burutu zituzten museo askok, baina hauei bereziki bideratutako proposamenik osatu gabe. Horien artean berriz ere Untzi Museoak soilik agertu zuen hezkuntza eskaintzaren baitan hauentzako programa bat; eta TOPICek ere Adsis Fundazioarekin batera elkarlanean zenbait proiektu burutu zituen, gazteekin lan eginez eta txotongiloen hizkuntzaren bitartezko edukiak landuz⁷³¹.

⁷²⁷ Honi lotuta, Matia Fundazioarekin hitzarmen bat ere sinatu zen, helduentzako hezkuntza informal programa egonkor bat osatuz. 2004ko urtarrileko memoria. MCRA.

⁷²⁸ Testigantzak jaso ziren bideo grabaketen bitartez, editatu eta argitaratu egin ziren eta gainera liburu formatuan ere kaleratu ziren jasotako istorio guztiak.

⁷²⁹ “K6 contratación 2007”. GFAAA. Sig: 31025/1.

⁷³⁰ Sagardoetxea-Euskaltegiak: Jardunaldi baterako proposamena. In http://www.sagardoetxea.com/eu/berriak-eta-agenda/berri-xehetua/archive/2009/news/sagardoetxea-euskaltegis-propuesta-para-una-actividad-conjunta/?tx_ttnews%5BbackPid%5D=22&cHash=7cf0d06daae9e3e6d497ee578e324dbd (2015ko ekainaren 4an ikusia).

⁷³¹ “TOPIC memoria 2011”. TTNTZA.



3. Publiko orokorra

Azkenik, talde heterogeneo honen baitan biltzen ziren aurrekoetatik desberdintzen zen bisitari oro, normalean publiko orokorra edota heldua deitua. Hauei zuzendutako jarduera didaktikoak bilakatzen ziren museoek “eskaintza tipoa”, hau da, oinarritzko ekintzak deitzen zirenak – normaleak bisita gidatu tradizionalen oinarrituta –. Hauekin batera turistak ere agertu ohi ziren bisitari arruten taldearen barnean; baina zenbait museoek, bisitari hauek zituzten behar eta interes desberdinak antzemanda, produktu turistiko modukoak eratu zituzten, jarduerak moldatuz eta gehienetan egun osoko ekintza multzo baten programazioa osatuz, baita beste museoekin eskaintza bateratu bat eginaz ere.

Jardueretarako baliabideak

1. Giza baliabideak

1.1. Museoko hezitzaileak

Mende berriko museoetako hezkuntza zerbitzuak izen desberdinak hartu izan zituzten urte hauetan ere: Pedagogi kabineteak, difusio saila, dinamizazio saila, animazioa, didaktika, DEAC, eta abar. Hala ere, eta aurretik ikusi dugun bezala, museo gehienetako lantaldeak oso txikiak ziren, eta esan daiteke dudarik gabe “denok denetik” egiten zutela. Natalia Mirallesek aipatu zuen moduan museoeko hezitzailea edo dinamizatzailea orain “todólogoa” bihurtu zen, profesinal bere funtzioak ez baitziren soilik jarduera didaktikoen inguruko garatze eta gauzatzerak; administrazio, promozio, aholkularitza, kudeaketa, informazio eta beste hainbat zerbitzu eta lanetako arduradun ere bilakatua zen kasu gehienetan – lantalde handiagoak zituzten museoetan salbu –. Oztopo nagusia arlo honetan, museoetako hezkuntza sailetako profesionalizazio errekonozimendurik ez zegoela zen, eta hezitzaileen perfilak oso desberdinak izaten ziren: normalean museoaren bilduma edo gaian adituak ziren pertsonak kontratatzen ziren; beste batzutan hezkuntzak menperatu eta atzeritarren aurrean zerbitzu bat eskaintzeko aukera eskaintzen zutenak; eta beste batzuk, aldiz, pedagogia museistikoan edo hezkuntza arloan trebatutako pertsonak kontratatuta zituzten. Perfil profesionalari buruzko eztabaida desberdinak izan ziren adituen artean, baina orokortutako iritzia pertsona diziiplina anitzeko pertsona bat izan behar zuela errepikatzen zen, komunikatzeko gaitasuna zuena eta publikoaren beharretara moldatzeko kapazitateaz (Pastor, 2004).

Hala ere museoetako hezkuntza sailetako langileen egoera “(está) caracterizada por una mayor profesionalización y por la participación coordinada de equipos de diferentes disciplinas, encargados de vincular el estudio de sus contenidos con el diseño espacial y con las características de su acción difusora y educativa como instrumento transformador de la realidad” (Álvarez eta Benjumea, 2011: 37).

Gipuzkoako Museoek kasuan, jabetza, kudeaketa eta hezkuntza sailen arduradunen tipologia motak bikoiztu ziren mende berriarekin batera, sailkapen orokor bat egiteko edota ezaugarri antzekoak zituzten lantaldeak definitzeko zailtasunak zeudelarik⁷³². Hala ere, eta modu orokortu batean aipatuz, honela taldekatu zitezkeen:

- Museoko sortzaileak ziren Elkartek, Fundazio edota beste instituzioek kudeatzen zuen museoak, eta bertakoek kontratatzen zituzten langileak.
- Museoko sortzaile zirenek museoeko dinamizazioa eta kudeaketa lehiaketara atera zutenak. Enpresa espezializatuen baitan geratu ziren museoak.

⁷³² Ikus II Eranskina, non 2000-2014 urteren bitartean museo bakoitzean izandako kudeaketa forma eta hezkuntza sailen arduradunen sailkapen orokor bat agertzen den.



-Museoko sortzaile zirenek museoko hezkuntza saileko funtzioetarako lehiaketara atera zutenak, baina oraindik ere kudeaketa orokorra euren eskuetan geratuz.

Gipuzkoako Museoetako lantaldeei buruzko informazioa oso eskasa zen. Arkitektura, museografia eta bildumak bilakatzen ziren ikerketa eta artikulu ororen protagonista; zenbaitetan jardura didaktiko edota programa espezifikoaren inguruan ere aritu ziren, baina DEAC eta hezitzaileak oraindik ere bigarren plano batean geratutako profesional taldeak ziren – eta aldi berean museoaren eta publikoaren arteko lotura nagusia – .

Zenbait museoek ordea euren lantaldeari buruzko datuak aipatzen zituzten, museoek ekintzaren elementu oinarritzko bat zela ahaztu gabe. Chillida Lekun esaten zenez “Museoak gidari-talde iraunkor baten aldeko apustua egin du, eta horrek baditu abantaila batzuk gure bisitarientzat zerbitzu hobea lortzeko, hala nola prestakuntza jarraitua, inplikazioa handiagoa eta obraren ezagutza handi bat ahalbidetuko duena”⁷³³. Algorrin ere azpimarratzen zen, “(que) las salidas son guiadas por personal licenciado bien cualificado y buen conocedor del afloramiento, lo cual transmite sensación de seriedad y de calidad” (Hilario, 2008: 8). Beste museo gehienetan kontratazio dokumentuetan edota plangintza orokorreko aipamenen baitan jasotzen ziren lantalde honetako profesionalen perfilak, hauek izanik herriko kultur teknikariak, turismo dinamizatzaileak, gidak eta monitoreak, irakaleak eta museoek gaiari lotutako adituak – arkeologoak, historiatzaileak, biologoak, geologoak eta abar – .

Hala ere aipatu beharrekoa da, museoek hezitzaile eta lantalde gehienek trebakuntza jarraitu baten baitan egin zutela aurrera, eta jada aurreko hamarkadan hasiak ziren formakuntza ikastaro, zein kongresu eta jardunaldi ezberdinetako partehartzeak eragin nabaria izan zuen lurraldeko museoetako jardura didaktikoetan eman ziren berrikuntza eta hobekuntzetan. Izan ere, Pastorrek (2004) aipatzen zuenez, arlo kultural eta hezitzailean eragingo zuten profesionalak izateko beharrezkoa zen ikerketa, politika kulturala eta trebakuntzaren arteko loturak sortzea; trebakuntza eta birziklatze planak ezartzea eta hezkuntzan eragiten zuten beste eragilearen artean ondare hezkuntzaren inguruko trebakuntza ere sustatzea.

1.2. Beste eragile batzuk

Museoetako lantaldeak era isolatuan eta bakarkakoan lan egiteari aspaldi utzi bazioten ere, mende berriak ekarriko zuen museoa gizarteari eta batez ere komunitateari – lokala, eskualdekoa edota lurraldekoa – gehiago irekitzeak. Horren baitan udalerrietan batez ere txertatu ziren espazio museistiko berriek ezinbestean elkarreragin behar izan zuten bertan existitzen ziren elkarte, fundazio eta bestelako taldeekin. Hori dela eta etengabeko aipamenak agertzen ziren jada museoetako proiektu berrietan – orain arte ikusi dugun bezala – non elkarlana eta beste talde batzuen laguntza ezinbestekoa suertatzen zen.

Herrietako elkarte hauetaz gain, aipatu beharrekoak dira museoetako lantaldeen parte bilakatzen ziren aldizkako langileak: praktiketako ikasleak. Hauek unibertsitate edo lanbide eskoletatik zetozen ikasleak ziren, museologian, hezkuntzan edo turismo arloan trebatzen ari zirenak. Normalean ikasle hauen esku utzi ohi ziren bisita gidatuak burutzea edota tailerrak aurrera eramatea; zenbaitetan museoek atzeratuta zuten lanaren osaketara bideratzen ziren: material didaktikoa egokitu, lan koaderno eta fitxak sortu, artxiboa ordenatu, estatistika eta datuen inguruko txostenak osatu, bildumako piezak garbitu edo sailkatu eta abar.

Unibertsitatearekin elkarlana ere oso garrantzitsua izan zen museoetan, eta ez soilik pertsonalaren kontratazio arloan; baita berriak ziren proposamen eta proiektuak aurrera eramateko: ZAHMen Menosca Espedizioa sortu zen, Museum Cemento Rezolan material didaktikoa sortzeko Gizarte Zientzien Didaktikako Sailarekin elkarlana burutu zen, Eureka Zientzia Museoak ere Didaktikako sailarekin etengabeko ebaluazio lanak burutu zituen eta Untzi Museoan hasieratik ere proiektu ezberdinak martxan ipini unibertsitate ezberdinekin batera .

⁷³³ Bisitak eta gidariak. Chillida Leku. In <http://www.museochillidaleku.com/2000-2010/content/eusk.html#d8> (2015ko otsailaren 2an ikusia).



2. Baliabide espazialak

Aurreko hamarkadararte sortu ziren museoen baliabide espazialak ez ziren asko aldatu XXI.mendearekin batera; orokorki guztiek jarraitu izan zuten egokitutako espazioen gabeziarekin edota erabilera anitzeko espazioak moldatzen jarduera bakoitzaren arabera. Adierazgarria da publikoaren garrantzia eta programa didaktikoaren gauzatzerako beharrezko espazioak zein ziren ezagututa ere, oraindik museo askok obrak burutu edota museo berriak sortuta ere ez zituztela ekintza hauetara bideratutako espazioak kontutan izan.

Zenbait museoek ordea moldaketa ezberdinak burutzearekin batera kontuan izan zituzten jarduera didaktiko berriak aurrera eramateko espazioak sortzea oinarritzkoa zela. Horien artean San Temo Museo berrian sortu ziren tailer gelak, bideo gelak eta erabilera anitzeko beste espazioak; Aquarium berriarekin batera egokitutako proiektzio eta tailer aretoak; Alabaola Itsas Kultur Faktorian *Txoren txokoa* deiturikoa edota Iturraran Parketxeko birmoldatzean utzi ziren espazio irekiak ikasle taldeekin aurrera eramaten ziren programak gauzatu ahal izateko.

3. Baliabide materialak

Museoak bisitarientzako baliabide didaktikoen garrantziaz aurrez jabetu baziren ere, hauen diseinu eta euskarrien inguruko aurrerakuntza nabaria eman zen hamarkada honetan, geroz eta elementu erakargarriagoak, koaderno landuagoak eta jolas eta material originalagoak eskainiz. Hala ere adierazgarria da mundu teknologiko batean murgilduta ere museo gutxi eskaini zituzteka IKTetan oinarritutako baliabide material didaktikoak. Horren ordeztasuna bihurtu zen museografia berrien baitan zen sortutako museoetako erakusketa aretoetan ukimen bidezko pantailak, ikus-entzunezkoak edota ordenagailuak txertatzea – zenbaitetan egokiak eta eraginkorrak ez ziren moduluak sortuz –.

3.1. Informatiboak

Materia nagusia oraingoan ere baliabide informatiboak izan ziren. Esan daiteke Gipuzkoan ez zela existitzen museorik euskarri informatiborik ez zuena, bai formatu fisikoan zein digitalean. Horien artean ugariena eskuorriak izan ziren, forma, kolore eta tamaina ezberdinekoak baina batik bat informazio zuzena eta argia eskaintzen zutenak. Eskuorri hauek museoaren datu orokorrak eskaintzeaz gain zenbaitetan hezkuntza eskaintza agertzeko edota jarduera bereziren bati buruzko informazioa eskaintzeko sortzen ziren. Sarean – web orrian zein sare sozialetan – ugaritu ziren formatu honetako baliabideen agerpenak, baina oraindik ere paperezko formatukoek arrakasta izaten zuten, batez ere publiko helduaren artean.

Horrekin batera, museoetako biduma eta historiari lotutako baliabideen agerpena urriagoa izan bazen ere, zenbait museoek argitaratu izan zituzten katalogo eta liburu ezberdinak, hala nola ikerketa taldeen eskutik sortutako aldizkako argitalpen indartsuak. Aurreko hamarkadan jada hasitako ikerketa lan garrantzitsuak kaleratzen jarraitu zuten Untzi Museoak, eta Photomuseumek euren argitalpen propioen bitartez, eta honi gehitu zitzaizkion beste zenbait museoek osatutako artikulak eta komunikazio ezberdinak, geroz eta aberasgarriagoak suertatzen ziren materialak eskainiz publikoari.

3.2. Lan eta fitxa koadernoak

Mende honetan hezkuntza eskaintza burutzen zuen ia edozein museoek derrigorrean osatu izan zituen lan fitxa eta koaderno zehatzak adin tarte desberdinei lotuta. Koaderno hauen bi hartzaile desberdinak izan ziren: irakaleak eta ikasleak. Lehenengoentzako dossier edo informe moduko bat osatzen zen, ariketek helburuak eta egin beharrekoak azalduz; bigarrenari ariketetan eta jolasetan oinarritutako proposamenak agertzen zitzaizkien. Gainera, aurreko urteetako galdera-erantzun fitxak edota denborapasa ariketetatik haratago, oraingoan landu ziren material



didaktikoak beste maila bat aurkezten zuten: edukiak eskuratzeko modu egokiagoak, diseinu eta estetika aldetik erakargarriagoak ziren elementuak txertatzea eta izaera ludikoa nagusi izatea.

Museo gehienek eskaintzaren arabera koaderno desberdinak sortu zituzten, bai adinaren arabera edo ibilbide/programaren arabera, eta hauek formatu fisikoan banatu ohi zitzaizkien ikasleei bisita egunean. Hala ere, zenbait museo hasiak ziren material hauen bidalketa egiten formatu digitalean edota web orrian txertatzen edonork erabili zezan. Azken kasu hau oraindik oso gutxitan ematen zen eta material didaktikoaren lanketa museoko zerbitzu edo programen erabiltzaileei soilik eskaintzen zitzaien.



43. irud: Luberrin koaderno didaktikoak. Lehen maila
(Luberrin Oinartzearen Ikasgune Geologikoa)

3.3. Grafikoa eta ikus-entzunezkoa⁷³⁴

Elementu grafikoak eta ikus-entzunezkoak sortu baziren, normalean erakusketan bertan eta museografiako elementu bezala txertatu ziren. Baina zenbait museo, fitxa didaktiko zein jolasak sortzearekin batera, ikus-entzunezko espezifikak eta material grafiko egokituak sortu zuten talde ezberdinei bideratuta, normalean irudi eta erreprodukzioak erabili zirelarik bisita gidatueta laguntza moduan: mapak, grabatuak, laminak, argazkiak, eta abar. Hauen baitan, elementu berri bat aipatzen zen Luberrin, non karroak erabili ziren bisita gidatueta zehar – Estatu mailako beste zenbait museotan jada erabiltzen zirenak – ; hauetan eramaten zituzten erakusketan zehar landuko zituzten gaiei lotutako ereduak, bisitariak ikusi, ukitu eta ezagutu zezaten modu zuzenago batean⁷³⁵.

3.4. Esperimentala

Baliabide esperimentalen baitan bisitarien eskuhartzea eta inplikazioa beharrezkoa suertatzen direneko elementuez ari gara. Alde batetik, aurreko hamarkadan jada existitzen ziren maleta didaktikoen erabilera mantendu zen zenbait museoan: Urrelurren sortutako lehen eredueta gain ez ziren berriak egokitu eta Zumalakarregi Museoan aipatzen zenez, zaharkituta geraturiko maleta didaktikoak lantegian ipini ziren edonork erabili zitzan eta erakusketan berriei lotutako maleta berriak sortu ziren. Hauetaz gain, San Telmo Museoan, Txingudi Ekoetxean eta Igartubeiti Baserrian ere proposatu ziren horrelako maletak.

Baina dudarik gabe, esperimentazio eta partehartze zuzena eskaintzen zuten baliabideak jokoak izan ziren. Jarduera didaktikoen atalean aipatu den bezala, ohikoak bihurtu ziren mahai jolas moldatuak museoko gaiarekin

⁷³⁴ Museoeko produkzio propioak ziren baliabideak aipatzen dira, museografia egonkorretik at sortuak eta erabiliak zirenak.

⁷³⁵ "Luberrin Memoria 2005". LIGA.

lotura ezartzeko, hala nola museoaren produkzio propioetik sortutako jolasak. Hori dela eta, garai honetan ere jolas frogertarako fitxak eta tableroak eratu ziren.




44. irud: Jolasak Ingurugiro Etxean (Ingurugiro Etxea)

3.5. Baliabide digitalak

Baliabide digitalak – batez ere Interneten – informazioa eskaintzeko eta difusio lanetarako erabili ohi zuten museo gehienek. IKTek jarduera didaktikoetarako eskaini ahal zituzten onurak ezagututa ere, zeinak “aportan un escenario de gran novedad y potencia en la renovación de la oferta educativa de los museos” (Asensio eta Pol, 2003:1) , oztopo handia suposatzen horrelako elementuen erabilera eta programa berezien sorrerak, batez ere ekonomikoki finantzazio handia beharrezkoa zelako eta zaharkituta ez geratzeko etengabeko moldaketak eta mantentze lanak beharrezkoak zirelako.

Hala ere salbuespen batzuk izan ziren Gipuzkoako Museo batzuetan. Horietako lehenengoa – eta agian mundu digitalean aktiboena izan zena hasieratik – Zumalakarregi Museoa izan zen: material didaktikoa, ikerketa lanak eta beste hainbat elementu web orrian ipintzeaz gain, izaera ludikoko zenbati proiektu ere aurrera eraman zituen, joko elkarreragile bat bezalakoa edota XIX.mendeko bildumagarriak. Zegaman, Anduetza baserriak ere eskaini zuen galdera-erantzunetan oinarritutako online joko batzuk, web orrian ipini zirenak. Baina hauetaz gain azken urteetan eman ziren zenbait proposamen berri arlo digitalean eta museoko ekimenei loturik. *M-learningean* oinarritutako zenbait proposamen egin ziren adibidez, kasu honetan unibertsitateko ikerketa taldeei loturik. ZAHMen ere, Menosca Lurraldearen proiektuaren baitan PDA eta GPSak erabiliz ibilaldi gidatu bat egiteko proiektu bat eraman zen aurrera; eta Mater Itsasontzi Museoan ere honen inguruko programa bat planteatu zen (Suberbiola et.al., 2012). Zenbaitetan elementu hauek bisita birtualak egiteko modulu ibiltarietarako sortu ziren – Zumalakarregi Museoko Von Humboldtten modulua adibidez, Igartubeiti Baserri Museokoa edota D'Elikatuz Elikadura eta Gastronomia Zentroaren “D'Elikatuz bizi” izenekoa – eta beste batzutan bisita autogidatua egiteko aplikazioak ere sortu ziren, Ekainen edota Oiasso Erromatar Museoan bezala.

GIPUZKOAKO MUSEOAK. 2000-2014



ONDORIOAK

Museoen hezkuntza funtzioaren agerpen eta eraginari buruz asko idatzi da azken hamarka hauetan; horren baitan gauzatu dira gaur egungo museo guztien egitasmo asko, mugiezina eta itxia zen espazio baten zabalpen progresiboa biziturik. Baina Gipuzkoako Museoen kasuan eskasak izan dira aldaketa horien arrazoi zehatzak zein abiapuntuan sortutako oinarritzko ekimen eta proposamenen azterketak.

Ikerketa historiko honek erakutsi digunez, XX.mendearen lehen erdian museo gutxi existitu ziren gure lurraldean, eta sortu ziren horiek egoera kaskarretan egin behar izan zuten aurrera, babes eta laguntza minimo batetik abiatuta. Bilduma baten kontserbazio eta erakusketarako zein zientziaren baitan egindako ikerketetatik abiatutako espazio hauek aditu eta interesatu talde baten esfortzuari esker egin zuten aurrera, ahaleginak eginda ere oraindik gizartearen talde murriztu batetara mugatzen ziren jarduerak buruturik. Hala ere, lehen museo hauetako bakoitzak funtzio jakin bat bete zuen garaian, eta giro kultural batean murgildutako hiri batean existitzen zen hutsune txikia bete zuten hein batean. Demokraziaren iristearekin batera, museo ezberdinak irekitzen joan ziren, hiriburu eta kostaldetik haratago barnealdean ere egitasmo desberdinak martxan ipiniz. Aldi berean espazio hauek publikoari begira sortu ziren eta bertatik burututako ekintza orok pertsonak izan zuen ardatz, aurreko hamarkadetako objektuaren begirada desbideratuz. 90ko hamarkadatik aurrera irekitako museo kopurua handituz joan zen, galtzear zegoen ondarearen berreskurapenean, bilduma pribatuen erakusketan zein lurraldeko zonalde ezberdinetako garapen programen baitan. Oro har, gizartearen hezkuntza beharrak betetzeko ereduak bihurtu ziren museoak, sistema formaletatik at bestelakoak ziren espazio, baliabide eta esperientziak eskaintzen zituztelako. XXI. mendearekin batera eman zen Gipuzkoa mailako eztanda museistikoa, aurreko mendean sortutako instituzioen biderkatzea gauzatu zelarik. Honen baitan lurralde osoko mapa estaltzen zuten proposamenak gauzatu ziren, gai eta arrazoi ezberdinak oinarritzat izanik ia udalerrri guztietan museo bat ireki zelarik. 90ko hamarkadaren erdialdetik aurrera sustatutako turismo, kultura eta ekonomia planen elkartze eta nahastea eman zen, beste lurralde batzuetan izandako museoen efektu sozial zein ekonomikoa errepikatzeko desioaz kasu askotan.

Museoen hezkuntza funtzioa II. Mundu Gerra ostetik 70.hamarkada arte lantzen joan zen ideia izan zen, Europako herrialde batzuetan zein Ameriketako Estatu Batuetan garatu zena. Gipuzkoara berandu iritsi ziren kontzeptu eta teoria berrien oihartzunak; alde batetik, diktadura luzeak eragotzitako kanpoko eraginak nagusi izan zirelako, eta bestetik, demokraziako lehen urteetan lurraldearen birrantolaketa eta oinarritzko sistemaren ordena ezartzeko lanak gailendu zirelako. Era berean, museologia zientzia berriaren hastapeneko urteak izanda zein Estatuan museoetako langileen profesionalizazio ezak – kontserbadoreak salbu – funtzio berri bat asimilatu behar izan zuten museoetako langileen prestakuntza nagusitu zen. 80ko hamarkadaren amaierako programazio didaktikoen proposamen nagusiak irakasleen eskutik etorri ziren, hezkuntza sistema formalak eskaintzen ez zituen aukera eta proiektu berriak museoetara eramanez. Oro har, lehen hezkuntza jarduerak – aurreko urteetako hitzaldi eta ikuskizunehararago – haurrei zuzenduta egon ziren. Edukiak transmititzeko modu berriak, egokitutako materialak eta izaera ludikoa zuten jarduerak sortu eta gauzatu ziren. 90.mendearen erditik aurrera eta XXI.mendeko museoetan bereziki, jarduera didaktikoen dibertsifikazio bat eman zen. Alde batetik, museoak bisitatzen zituen publiko mota zabaldu zelako: eskola taldeez gain, asteburu eta jaiegunetan aisialdian kultura ekintzak burutu nahi zituzten heldu eta familien agerpena eman zen; eta hezkuntza eskola urteetara soilik mugatzen ez zenaren ideien zabalpenarekin batera, beste mota batzuetako taldeak jasotzen hasi ziren museoak. Bestalde, edukiak landu eta erakusteko modu berriak agertu ziren: museografiako teknikez gain, jarduera didaktiko programaketarako kontutuan izan zuten gizarte kontsumista berriak esperientzia baten bizipena eskatzen zuela, edukien transmisio huts tradizioaletik haratago zihoazen ekintzen bitartez. Askotan egoera hark sentsazio horiek eskaintzen zituzten beste aisialdirako ekipamenduekin lehiatzera eraman zituen museoak. Eta azkenik, aldaketa hauek geroz eta



profesionalizatuagoak ziren lantaldeei esker sortu ziren, zeinak nazioarte mailako proposamenak ezagutu, trebakuntza espezializatuagoa izan eta esperientziak partekatu eta eztabaidatzeko bide eta espazio berriak sortu zituzten. Hala ere, oraindik museo hezkuntzan prestakuntza egokia edota perfil profesional oinarritzkoen definitze ezak eragiten du jarduera didaktikoen ildoak eta proposamenak era intuitiboan garatu eta momentuko beharrei erantzuteko behin behineko moldaketa jarraituen baitan lan egitea. Gipuzkoako museoen baitan hasierako bisita gidatu arrun eta aldizkako hitzaldietatik era guztietako jarduera didaktikoen eskaintza batetara heldu gara. 80ko hamarkadan lehen tailerrak txertatu ziren, haurraren ikaskuntza prozesuaren baitan ematen ziren faktoreei lotuta eta pedagogia ideia berrien baitan. Aldi berean eta museoen irekierarekin bat eginik, espazioak ezartzen zituen mugak hautsi eta kanpora atera ziren, ibilaldi gidatuen bitartez museoarekin harremana zuten lekuak ezagutzea eskainiz eta ospakizun eta ekitaldiekin bisitari gehiago erakartzeko aukera izanik. Azken hamarkadetan gertatutako museoen irekiera masiboak zein bestelako aisialdi guneen eskaintzarekin sortutako lehiakortasunak eragin zuen jarduerak dibertsifikatzea eta museo orok originaltasuna zein bestengandik desberdinduko ziren ekintzak aurrera eramatea, erakustaldi, ikuskizun, irteera berezi, tailer, jolas eta ekitaldien programazio zabal batetara iritsiz.

Azkenik, ikerketatik ondoriozta dezakegu ehun urte baino gehiagotan Gipuzkoan ireki diren museo guztien historia era orokor batean eta zehazki hezkuntza funtzioaren baitan aurrera eramandako ekimenak aztertzen dituen lanik ez dela existitzen. Are gehiago, berau ezagutzeko dokumentuak desagertu, galdu edota gutxietsi dira kasu askotan, museoen historia gertuena aztertzeke arazoak ere izanik. Horren aurrean, garapen planak, arkitekturako birmoldaketak edota bildumen katalogoei buruzko informazioa sistematizatu bada ere, jarduera didaktikoen inguruko testigantzak – dokumentalak edota ahozkoak – jaso, aztertu eta zabaltzeko egitasmorik ez da buru. Alabaina, salbuespen batzuk aurkitu dira lurraldeko zenbait museotan, irekiera urtetik modu eraginkorrean burututako ekimen guztien txostenak osatu dituztenak, eta horiek zabaltzeko lan garrantzitsua ere egin dutenak. Jarduera guzti hauek aurrera eramateko helburuak eta oinarri teorikoak zein izan diren ezagutzea eta egun burutzen ari diren programa didaktiko guztien izaera eta eraginkortasuna aztertzea oinarritzkoa litzateke ordea. Ikusi dugun moduan, historian zehar aldaketak eman dira eta garai ezberdinei egokitzuz joan diren programa didaktikoak zein baliabideak eratu dituzte museoek. Baina, guztiek izan al dute helburu didaktiko bat? Eta izan badute, lortu al da? Nola neurtu da? Galdera horiek eta gehiago erantzun gabe geratu dira oraindik.

Beraz, zimenduak finkatzeko asmoa izan duen ikerketa honetatik abiatuz, etorkizunean etxe guztiaren osaketarako atalak bilatu eta gehitzen joatea litzateke helburua, galtzeaz dauden testigantza guzti horien azterketa eta sailkapenaren baitan, Gipuzkoako Museoen eta burututako proiektu didaktikoen historia ezagutzeak etorkizuneko pausoak emateko zein erabakiak hartzeko balioko duelarik.



INFORMAZIO ITURRIAK

ARTXIBOAK

Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren Artxibo Nagusia. Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundiko Administrazio Artxiboa

UDAL ARTXIBOAK

Azkoitiko Udal Artxiboa
Azpeitiako Udal Artxiboa
Beasaingo Udal Artxiboa
Donostiako Udal Artxiboa
Eskoriatzako Udal Artxiboa
Idiazabalgo Udal Artxiboa
Irungo Udal Artxiboa
Larraulgo Udal Artxiboa
Ordiziako Udal Artxiboa
Pasaiaiko Udal Artxiboa
Urretxuko Udal Artxiboa

UDALETAKO KULTURA SAILAK

Azkoitiko Udala. Kultur saila
Eibarko Udala. Kultura saila
Urretxuko Udala. Kultur saila
Zarauzko Udala. Kultur saila

MUSEOAK

Aquariuma
Arditurri Parketxea
Burdinbidearen Euskal Museoa
Cristobal Balenciaga Museoa
Chillida-Leku
D'Elikatuz Elikadura eta Gastronomia Zentroa
Donostiako Museoen Sarea
Eureka Zientzia Museoa
Igartubeiti Baserri Museoa Ingurugiro Etxea
Ibarraundi Museoa Iturrarango Parketxea Makina-erremintaren Museoa
Lenbur Fundazioa
Lizarrusti-Barandiaran Parketxe Hedatua
Luberri Oiartzungo Ikasgune Geologikoa
Mater Itsasontzi Museoa
Oiasso Erromatar Museoa
Photomuseum
San Telmo Museoa



Tolosaldeia Tour. Tolosaldea Garatzen Garapen Agentzia
TOPIC. Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroa
Zerain Paisaia Kulturala
Zumalakarregi Museoa

BIBLIOGRAFIA

- Abós Ugarte, Á. (1987). Bases para el estudio de museos y monumentos de Euskal Herria. *Mediatika: Cuadernos De Medios De Comunicación*, (2), 11-86.
- Abt, J. (2006). The origins of the public museum. In S. Macdonald (Ed.). *A companion to museum studies* (115-134). Oxford: Blackwell Publishing.
- Aguirre Iturralde, C. (1995). Un museo para la cultura vasca: Renovación del museo de San Telmo en San Sebastián. *RdM. Revista De Museología: Publicación Científica Al Servicio De La Comunidad Museológica*, (4), 39-41.
- Ait Moreno, I. (2007). Modernización y política artística: El Centro Nacional de Exposiciones entre 1983 y 1989. *Anales De Historia Del Arte*, (17), 223-245.
- Akordagoitia Murua, M. (2004). El Caserío Igartubeiti: Análisis de la musealización de un museo desde su vertiente presencial y virtual. *Iber: Didáctica De Las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, (39), 77-83.
- Alberdi Sagardia, M. (2008). El Museo Zumalakarregi de Ormaiztegui. *Gerónimo De Uztariz*, (23), 234-243.
- Alderoqui, S. (1996). *Museos y escuelas: socios para educar*. Buenos Aires: Paidós.
- Almeida, F., Coll, M., Brunet, P., Monteserín, O. (2005). Los planes de excelencia y dinamización turística (PEDT), un instrumento de cooperación a favor del desarrollo turístico. *Boletín de la Asociación de Geógrafos Españoles*, 39, 201-226.
- Alonso Fernández, L. (1993). *Museología: Introducción a la teoría y práctica del museo*. Madrid: Istmo.
- Alonso Sanz, M. A. (2011). El uso de materiales didácticos de exposiciones por parte del profesorado y su adecuación a la visita al museo universitario. *Educación Artística: Revista De Investigación (EARI)*, (2), 19-22.
- Álvarez Domínguez, P., Benjumea Cobano, J. (2011). Aproximación al museo contemporáneo: Entre el templo y el supermercado cultural. *Arte y Políticas De Identidad*, (5), 27-42.
- Amondarain, L., Urteaga, M., Seva, R. (2009-2010). Producciones cerámicas altomedievales en Gipuzkoa. *Boletín Arkeolan*, 16, 59-76.
- Anguiano, A. (2008). Los museos y las exposiciones temporales, Espacios de comunicación social y cultural. *Sociedad, consumo y sostenibilidad: Actas y textos elaborados a partir del "XIII congreso de sociología en Castilla-La Mancha"* (214-228). Toledo: Instituto de Consumo de Castilla-La Mancha.
- Antoñazos Cristóbal, M. V., Zulaika Ruiz, R. (1992). ¡Vive tu museo! ¡Zure museoa bizi!: El visitante individual descubre el DEAC. *VII Jornadas de Departamentos de Educación y Acción Cultural de Museos* (39-42). Madrid: Ministerio de Cultura, Dirección General de Bellas Artes y Archivos.
- Aramburu, N. (2013). Procesos de hibridación: La evolución de las infraestructuras museísticas, gestión independiente y autogestión como reinención del sistema del arte. In Arrieta Urtizberea, I. (koord). *Reinventando los museos* (65-82) Bilbao: Universidad del País Vasco, Servicio Editorial = Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.
- Arditurri Albisteak. (2007). Oiartzungo Udala
- Ares de Blas, F. (2004). Cómo satisfacer las expectativas de un centro. *Cuadernos De Pedagogía*, (340), 75-77.
- Ares, F. (2005). Miramón. KutxaEspacio de la ciencia: Un espacio para la divulgación en san sebastián. *Boletín Informativo De La SEA*, (14), 2-4.



- Arguiñano, J. L. (2004, abuztuak 22). Erdi Aroaren ispilu. *El País*.
- Armengol, M. (2000). Maletas didácticas: El museo viaja a la escuela. *Iber: Didáctica De Las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, (23), 103-112.
- Arriaga, A. (2011). Desarrollo del rol educativo del museo: Narrativas y tendencias actuales. *Revista Digital do LAV*, 7(4), 1-23.
- Arrieta Urtizberea, I. (2003). Expectativas y limitaciones en la puesta en marcha de un proyectos patrimonial y turístico en un municipio rural vasco. *Pasos. Revista De Turismo y Patrimonio Cultural*, 1(1), 111-122.
- (2006). Elites, instituciones públicas, identidad cultural y turismo en los orígenes del Museo Municipal de Donostia-San Sebastián. *Museos, memoria y turismo* (45-76). Bilbo: Universidad del País Vasco, Servicio Editorial = Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.
- (2009). Comunidades, científicos y especialistas en los proyectos patrimoniales y museísticos: De "arriba-abajo", de "abajo-arriba". *Activaciones patrimoniales e iniciativas museísticas: ¿por quién? y ¿para qué?* (11-20). Bilbo: Universidad del País Vasco, Servicio Editorial = Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.
- (2010). *El campo patrimonial y museístico: Un espacio cultural conflictivo*. Revista de dialectología y tradiciones populares, 65 (2), 303-335.
- (2012a). Hacia una aproximación compleja al patrimonio cultural. In Díaz Balerdi, I. (koord). *Otras maneras de musealizar el patrimonio* (41-61). Vitoria-Gasteiz -Donostia: Artium; Euskal Herriko Unibertsitatea/ Universidad del País Vasco.
- (2012b). Historia centenaria del Museo San Telmo: Breve crónica político-cultural de idas y venidas. *Her&Mus: Heritage & Museography*, 4 (2), 38-48.
- (2012c). Los museos del País Vasco. *Her&Mus: Heritage & Museography*, 4 (2), 5-6.
- (2012d). Museologías tradicional, posmoderna y social en el País Vasco. *RdM.Revista De Museología: Publicación Científica Al Servicio De La Comunidad Museológica*, (53), 80-90.
- (2013). Museos en la posmodernidad: Retos y desafíos. *Reinventando los museos* (11-26) Bilbao : Universidad del País Vasco, Servicio Editorial = Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua, 2013.
- Arrizabalaga Valbuena, I. (1993). Introducción al estudio de los depósitos cuaternarios en el complejo kárstico de Arrikutz (Oñati. Gipuzkoa). *Vasconia: Cuadernos De Historia - Geografía*, (20), 55-82.
- Arruti, C., Kortadi, E. (1988). Propuesta Museo de Arte Sacro de la Diócesis de San Sebastián. In *X Congreso de Estudios Vascos: Pamplona 1987. Archivos, Bibliotecas y Museos* (385-387). Iruñea: Eusko Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos.
- Artola, M. (2004). *Donostiaren historia*. Donostia: Nerea.
- Asensio, M., Aramburu, J. J., Ibáñez, A. (2012). Vislumbrando el arte en la penumbra: Ekainberri, sensaciones e impactos de sus públicos. In Asensio, M., Asenjo Conde, Y. Castro Ríos, A. Ibáñez Etxeberria, A., Caldera de Castro, M.P. (Eds.), *SIAM. series iberoamericanas de museología*. Vol. 3 (37-55). Madrid: Laboratorio de Interpretación del Patrimonio de la Universidad Autónoma de Madrid, Internacional Council of Museums.
- Asensio, M., Pol Méndez, E. (2003). Aprender en el museo. *Iber: Didáctica De Las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, (36), 62-77.
- Ávila, N., Megías Martínez, C. (2011). Cuando el museo sale del museo. *Perspectivas: Situación actual de la educación en los museos de artes visuales* (106-109) Ariel: Fundación Telefónica.
- Barandiaran, K. (2008). El museo Zumalakarregi Virtual. Un servicio virtual de formación y aprendizaje. *RdM.Revista De Museología: Publicación Científica Al Servicio De La Comunidad Museológica*, (41), 45-51.
- Barandiaran, K. Urteaga, M. (2007). Museo Romano Oiasso (Irún). Un museo de gestión novedosa y prácticas culturales innovadoras. *RdM. Revista De Museología*, (40), 86-98
- Barandiaran Maestu, I. (1973). Irun romano. *Munibe*, 1, 19-28.



- Bello, M. (2011). Nuevos modos de educación en museos: Exploración del entorno próximo a través de la creatividad y del arte. *Perspectivas: Situación actual de la educación en los museos de artes visuales* (110-112) Ariel: Fundación Telefónica.
- Beltrán Argiñena, J. M. (1999). Herri musikaren dokumentazio zentru bat egiteko, antolatzeko eta funtzionamendurako egitasmoa. *Musiker: cuadernos de música*, 11, 183-201.
- Benejam Arguimbau, P. (2003). Los objetivos de las salidas. *Iber: Didáctica De Las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, (36), 7-12.
- Beola, A. (1999). *Antonio Maria Labayen (1898-1994)*. Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
- Bilbao, B., Pérez, K. (2008). Euskal curriculum lehen eta orain. *Ikastaria: Cuadernos De Educación*, (16), 83-108.
- Bolaños, M. (2002). *La memoria del mundo: Cien años de museología (1900- 2000)*. Gijón: Trea.
- (2008). *Historia de los museos en España*. Gijón: Trea.
- Bueno, C. (2003). La producción de las exposiciones temporales: Los aspectos museológicos de las exposiciones temporales. *Museo: Revista De La Asociación Profesional De Museólogos De España*, (8), 189-195.
- Caballero Zoreda, L. (1980). El museo: Funciones, personal y su formación. *Boletín De La ANABAD*, 30 (3), 377-385.
- Calderón, E. (2004). Pasai Donibaneko Ontziola Museoa. *EuskoNews & Media*, 278.
- (2004). Victor Hugo Wtxea. Pasai Donibane. *EuskoNews & Media*, 278 .
- Camino Ortiz de Barrón, I., & Olarra Villanueva, A. (2009). Espainiako Bigarren Errepublikaren garaia hezkuntza berrikuntzari begira. *Tantak: Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza Aldizkaria*, 21(1), 23-54.
- Cañellas Mas, A. (2014). Las políticas del Instituto de Cultura Hispánica. 1947-1953. *Historia Actual Online*, (33), 77-91.
- Cárcamo Martínez, J. (1995). El museo, tradición y arqueología industrial. *Estudios vascos en el sistema educativo = euskal ikaskuntzak hezkuntza sarean* (447-460). Donostia: Sociedad de Estudios Vascos, Eusko Ikaskuntza.
- Carreño, M. (2008). Los nuevos museos de educación, un movimiento internacional. *Encounters on education=Encuentros sobre educación=Recontres sur l'éducation*, 9, 75-91.
- Castellanos Pineda, P. (2008). *Los museos de ciencias y el consumo cultural: Una mirada desde la comunicación*. Barcelona: Uoc.
- Chico, A. (2007, abuztuak 4). Mutriku, según los fósiles. *El Diario Vasco*.
- Conde Rodrigo, O. (2012). La fundación LENBUR recupera la memoria industrial y del trabajo. *Patrimonio inmaterial e intangible de la industria: Artefactos, objetos, saberes y memoria de la industria* (107-116). Gijón: Centro de Iniciativas Culturales y Sociales, CICEES.
- Coombs, P. H. (1985). *La crisis mundial de la educación: Perspectivas actuales*. Madrid: Santillana.
- Correa Gorospe, J. M., Ibáñez Etxeberria, A. (2004). Territorio, museo y nuevas tecnologías: Propuestas de desarrollo en Territorio Menosca. In Vera Muñoz, M.I., Pérez i Pérez, D. *Formación de la ciudadanía: Las TICs y los nuevos problemas. XV Simposio Internacional de Didáctica de las Ciencias Sociales: Alicante (España), del 30 de marzo al 2 de abril de 2004*. Alicante: Asociación Universitaria de Profesores de Didáctica de las Ciencias Sociales.
- Correa Gorospe, J. M., Losada Iglesias, D., Jiménez de Aberasturi Apraiz, E. (2012). Ideas y opiniones del educador de museos en relación a las tecnologías de la información y la comunicación. *Revista Complutense De Educación*, 23 (1), 61-74.
- Cuenca López, J. M., Martín Cáceres, M., Ibáñez Etxeberria, A., Fontal Merillas, O. (2014). La educación patrimonial en las instituciones patrimoniales españolas. Situación actual y perspectivas de futuro. *Clío: History and History Teaching*, 40.



- Dávila Balsera P. (koord.) (2004). *Las políticas educativas en el País Vasco durante el siglo XX*. Madrid: Biblioteca Nueva.
- De la Calle, R. (1975). Munari, Bruno "diseño y comunicación visual". *Teorema: Revista Internacional De Filosofía*, 5 (2), 308-311.
- De Pascual, A. (2011). ¿Dónde empieza la educación de adultos?. *Perspectivas: Situación actual de la educación en los museos de artes visuales* (100-103). Ariel: Fundación Telefónica.
- de Puelles Benítez, M. (1991). Historia de la educación en España. In Servicio de publicaciones del Ministerio de Educación (Ed.), *Historia de la educación en España. tomo III (de la Restauración a la II República)* (11-44). Madrid: Ministerio de Educación y Ciencia.
- Eskoriatzako Museo Eskola ya es Ibarraundi Museoa (2005). *Aranzadiana*, (126), 108.
- Delgado Buscalioni, A. (2007). Luberri, Centro de Interpretación Geológica de Oiartzun. *Rutas por museos y colecciones de paleontología: Asturias, Cantabria, Galicia, La Rioja y País Vasco* (125-127). Madrid: Instituto Geológico y Minero de España.
- (2007). Museo de minerales y fósiles de Urretxu. *Rutas por museos y colecciones de paleontología: Asturias, Cantabria, Galicia, La Rioja y País Vasco* (122-124). Madrid: Instituto Geológico y Minero de España.
- Desvallées, A., Mairesse, F. (2009). *Conceptos claves de la museología*. París: ICOM.
- Díaz Balerdi, I. (1988). Formación de museólogos y programas de museología. In *X Congreso de Estudios Vascos: Pamplona 1987. Archivos, Bibliotecas y Museos* (447-450). Iruñea: Eusko Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos.
- (1994). El museo: Territorio, ritual y metáfora. *Bitarte: Revista Cuatrimestral De Humanidades*, (4), 135-146.
- (1996). La formación del museólogo. *Museo: Revista De La Asociación Profesional De Museólogos De España*, (1), 43-57.
- (1997). Historia, museos e imaginarios objetuales. *PH: Boletín del Instituto Andaluz del Patrimonio Histórico*, 5 (19), 100-103.
- (2006a). Museos y patrimonio: De la distancia retórica a la interlocución democrática. In Arrieta Urtizberea, I. *Museos, memoria y turismo* (15-32). Bilbo: Universidad del País Vasco, Servicio Editorial = Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.
- (2006b). Universidad, museos, museología: una ecuación inacabada. Marin Torres, M.T., Belda Navarro, C. *La museología y la historia del arte* (21-50). Murcia: Universidad de Murcia, Servicio de Publicaciones.
- (2008). Museos en la encrucijada. Estructurars, redes y retos en el País Vasco. In Roigé I Ventura, X., Arrieta Urtizberea, I. *El futuro de los museos etnológicos: Consideraciones introductorias para un debate* (69-86). Donostia: Ankulegi Antropologia Elkarte.
- (2010a). *Archipiélagos imaginarios. Museos de la Comunidad Autónoma del País Vasco*. Donostia- Vitoria-Gasteiz: Nerea – Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzua.
- (2010b). La formación de profesionales de museos. De la mística de la conservación al absolutismo de la gestión. *RdM.Revista De Museología: Publicación Científica Al Servicio De La Comunidad Museológica*, (47), 8-16.
- (2010c). Nuevos museos: Nuevas (viejas) museologías. In Iglesias Gil, J.L. *Actas de los XX cursos monográficos sobre el patrimonio histórico: [Reinosa, julio de 2009]* (369-384). Santander: Universidad de Cantabria, Servicio de Publicaciones - Ayuntamiento de Reinosa.
- (2012a). De ciudadano a consumidor. Los retos de la participación en las mecánicas museísticas y patrimoniales. *RdM.Revista De Museología: Publicación Científica Al Servicio De La Comunidad Museológica*, (53), 35-42.
- (2012b). Heráclito en el museo. In Díaz Balerdi, I. (koord). *Otras maneras de musealizar el patrimonio* (271-283). Vitoria-Gasteiz -Donostia: Artium; Euskal Herriko Unibertsitatea/ Universidad del País Vasco.



- (2012c). Un siglo de museos en el país vasco. *Her&Mus: Heritage & Museography*, 4(2), 8-14.
- Domínguez, C., Estepa, J., Cuenca, J. M. (1999). *El museo: Un espacio para el aprendizaje*. Huelva: Universidad de Huelva.
- El TOPIC de Tolosa: Un centro único en Europa. (2011). *Primer Acto: Cuadernos De Investigación Teatral*, 339, 63-66.
- Errekondo, J. (2002). Zerain Parque Cultural. In *Actas del Congreso Vasco De Patrimonio Industrial. Gestión Del Patrimonio Industrial en La Europa Del Siglo XXI. Bilbao, Octubre 2001* (289-294). Bilbao: AVPIOP:Asociación Vasca de Patrimonio Industrial y Obra Pública.
- (2011). Zerain Paisaje Cultural: Patrimonio, paisaje y sostenibilidad. *Ambienta: La Revista Del Ministerio De Medio Ambiente*, (97), 106-117.
- (2013). Zerain Paisaje Cultural. Paisaje y sostenibilidad. El patrimonio y la participación comunitaria son el futuro.
- Escolano Benito, A. (2002). *La educación en la España contemporánea: Políticas educativas, escolarización y culturas pedagógicas*. Madrid: Biblioteca Nueva.
- Escuela de armería de Eibar (1914). *Inventario del Museo de la Escuela de Armería de Eibar*. Eibar: Escuela de Armería de Eibar.
- (1962). *Cincuecentenario 1912-1962. Catálogo de la Escuela Armería*. Eibar: Escuela de Armería de Eibar.
- Esteban, I. (2007). *El efecto Guggenheim. Del espacio basura al ornamento*. Barcelona: Anagrama.
- Estepa Gjiménez, J. (2013). *La educación patrimonial en la escuela y el museo: Investigación y experiencias*. Huelva: Universidad de Huelva.
- Eusko Jaurilaritza - Gobierno Vasco (2001). *Museoak Euskadi Museos. Vitoria-Gastezi*: Eusko Jaurilaritza = Gobierno Vasco.
- Fernández, M. (1998). Gabinetes didácticos, servicios pedagógicos, servicios educativos... ¿para qué?: Hablemos de didáctica y difusión. *Iber: Didáctica De Las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, (15), 51-56.
- (2003). Los museos: Espacios de cultura, espacios de aprendizaje. *Iber: Didáctica De Las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, (36), 55-61.
- Fontal Merillas, O. (2003). *La educación patrimonial: Teoría y práctica para el aula, el museo e internet*. Gijón: Trea.
- Fornells, M. (2003). *SanTelmo: Crónica de un centenario*. Donostia – San Sebastián: Michelena.
- Galarraga Aiestaran, A. (2007). Algorri, iragana haitz bihurtua. *Elhuyar: Zientzia Eta Teknika*, (231), 32-37.
- García Blanco, A. (1996). El departamento de Educación y la exposición. *IX jornadas estatales DEAC-museos, 3 al 6 marzo de 1994: La exposición* (55-82). Jaén: Diputación Provincial de Jaén.
- García Fernández, J. (2007). La regulación y la gestión del Patrimonio Histórico-Artístico durante la Segunda República (1931-1939). *E-rph: Revista electrónica de Patrimonio Histórico*, 1, 1-46
- García García, M.I. (2013). Barrios intervenidos artísticamente durante el último franquismo. *Arte y Ciudad: Revista de Investigación*, 3, 611-640.
- Géal, P. (2002). La creación de los museos en España. *Anuario Del Departamento De Historia y Teoría Del Arte*, (14), 289-298.
- Eusko Jaurilaritza - Gobierno Vasco (2003). *Informe Museos Euskadi. Plan Vasco de Cultura*.
- Goenaga, N., Vives, G., Ugarteburu, K., Azpiazu, L. (d.g.) El Caserío Museo Igartubeiti. *ICOM CE Digital*, 7, 46-73.
- Goenechea Permisán, C., Benítez Muñoz, F. J. (2007). El aprendizaje a través de las visitas teatralizadas: Un estudio empírico. *Iber: Didáctica De Las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, (54), 95-104.
- Gómez Alonso, R. (2006). El turismo no es un gran invento: aperturismo y recepción del ocio y consumo a través del cine español de los 60. *Area abierta*, 15.
- Gomez Izaguirre, S. (1952). El museo municipal donostiarra va a cumplir medio siglo. 1902-1952. *Diario De San Sebastián*, 18, 35-41.



- Gómez Piñeiro, J., Sáez García, J. A. (2013). *Geografía e Historia de Donostia-San Sebastián*. Donostia-San Sebastián: Instituto Geográfico Vasco "Andrés de Urdaneta" = Euskal Geografi Elkargoa.
- Goñi Santamaría, M., Rubio Odériz, M. L., Tomasa i Garrosset, E. (2011). Nueva interactividad, al servicio de una nueva relación con el público. "Gaia", exposición permanente en KutxaEspacio de la ciencia (Donostia-San Sebastián). *RdM.Revista De Museología: Publicación Científica Al Servicio De La Comunidad Museológica*, (50), 97-105.
- González de Durana Isusi, F.J. (2013). Fulgor y crisis de los museos en España: Tres décadas de un desarrollo impredecible. *Anales De La Real Academia Canaria De Bellas Artes De San Miguel Arcángel*.: RACBA, (6), 93-104.
- González Rodríguez, E. (1988). *Sociedad y educación en la España de Alfonso XIII*. Madrid: Fundación Universitaria Española.
- González, A. (2012). Museo Territorio Lenbur. In Díaz Balerdi, I. (koord). *Otras maneras de musealizar el patrimonio* (245-257). Vitoria-Gasteiz -Donostia: Artium; Euskal Herriko Unibersitate/ Universidad del País Vasco.
- Grau Lobo, L. A. (2006). Redes de museos: Un ensayo de supervivencia. *Museo: Revista De La Asociación Profesional De Museólogos De España*, (11), 17-27.
- Guillén, D. (2008). Museo Chillida-Leku. *Revistart: Revista De Las Artes*, (131), 4-5.
- Guisasola Aranzábal, J., Intxausti, S. (2000). Museos de ciencia y educación científica: Una perspectiva histórica. *Alambique: Didáctica De Las Ciencias Experimentales*, (26), 7-14.
- Guisasola Aranzábal, J., Morentin Pascual, M. (2007). ¿Qué papel tienen las visitas escolares a los museos de ciencias en el aprendizaje de las ciencias?: Una revisión de las investigaciones. *Enseñanza De Las Ciencias: Revista De Investigación y Experiencias Didácticas*, 25(3), 401-414.
- Hernández Cardona, F. X. (2002). Sociedad, patrimonio y enseñanza: Estrategias para el siglo XXI. In Anadón Benedicto, J., *La geografía y la historia, elementos del medio* (245-277). Madrid: Ministerio de Educación Cultura y Deporte, Subdirección General de Información y Publicaciones.
- Hernández Díaz, J. M. (2011). *La renovación pedagógica en España al final de la transición: El encuentro de los movimientos de renovación pedagógica y el ministro maravall (1983)*. Educació i història: Revista d'història de l'educació, 18, 81-105.
- Hernández Hernández, F. (1992). Evolución del concepto de museo. *Revista general de información y documentación*, 2 (1), 85-98.
- (1998). *El museo como espacio de comunicación*. Gijón: Trea.
- (2002). *El patrimonio cultural: La memoria recuperada*. Gijón: Trea.
- (2006). *Planteamientos teóricos de la museología*. Gijón: Trea.
- Herrera Escudero, M. L. (1980). *El museo en la educación: Su origen, evolución e importancia en la cultura moderna* (2a ed.) Junta Coordinadora de Actividades y Establecimientos Culturales.
- Hilario Orús, A. (2006). El Flysch de Zumaia (País Vasco). Centro de Interpretación Algorri. *Tierra y Tecnología: Revista De Información Geológica*, (30), 54-59.
- (2008). El Flysch de Zumaia y Centro Algorri: Divulgación geológica y gestión de un afloramiento espectacular (Zumaia, País Vasco). *De Re Metallica (Madrid): Revista De La Sociedad Española Para La Defensa Del Patrimonio Geológico y Minero*, (10), 1-9.
- Hilario Orús, A., Arrese-Zabala, A., Mendiola Gómez, I., Zulaika-Isasti, J. (2011). El Flysch de Zumaia: Gestión integral de un biotopo muy geológico. In Fernández Martínez, E., Castaño de Luis, R. (Eds.). *Avances y retos en la conservación del patrimonio geológico de España: Actas de la IX reunión nacional de la comisión de patrimonio geológico (Sociedad Geológica de España), León, 14-18 de junio de 2011* (145-151). León: Universidad de León, Servicio de Publicaciones.
- Hooper-Greenhill, E. (1998). *Los museos y sus visitantes [Museums and their Visitors]*. Gijón: Trea.



- (1999). *The educational role of the museum*. London: Routledge.
- Huerta, R., De la Calle, R. (2008). *Mentes sensibles: Investigar en educación y museos*. Valencia: Universitat de València.
- Ibáñez Etxeberria, A., Aranburu Lasa, J. J. (2005). Del yacimiento de Santa María La Real al Territorio Menosca: Origen, evolución y perspectivas del museo de arte e historia de zarautz. De Francia Gómez, C., Erice Lacabe, R. *De la excavación al público: Procesos de decisión y creación de nuevos recursos* (287-292). Zaragoza: Ayuntamiento de Zaragoza, Area de Cultura y Turismo, Servicio de Cultura: Institución Fernando el Católico.
- Igartza: El descubrimiento de la ferrería. (2002). *Aranzadiana*, (123), 83-88.
- Insa, Y. (2002). Itinerarios urbanos, recursos y materiales didácticos para explicar la ciudad. *Iber: Didáctica De Las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, (32), 89-95.
- Iraeta Usabiaga, A. (2000). Trenaren Euskal Museoa. *Euskonews&media*, 70, 19-26.
- Irazabal Tamayo, N. (2012). Euskal herriko hiru kobazulo ikusgarri: Pozalagua, Arrikruz eta Mendukilo. *Elhuyar: Zientzia Eta Teknika*, (292), 48-53.
- Iza, F. d. (1952). Lo que es y lo que puede ser nuestro Museo Naval Provincial. *San Sebastián: Revista anual ilustrada*, 18, 43-46.
- Izaga, C. (2003). Juanjo Aramburu, director del Museo de Arte e Historia de Zarautz: El museo está relacionado con la arqueología y la historia de zarautz. *Aranzadiana*, (124), 98-99.
- Izaguirre Lacoste, M. (1988). Museos de Guipuzcoa. In *X Congreso de Estudios Vascos: Pamplona 1987. Archivos, Bibliotecas y Museos* (325-328). *Iruñea: Eusko Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos*.
- Izarzugaza Lizarraga, I. (2001). Tres proyectos museológicos para tres industrias: La Encartada, la Algaba, y Agorregi. In Álvarez Areces, M.A. (koord). *Arqueología industrial, patrimonio y turismo cultural* (221-232). Gijón: Incuna. Asociación de Arqueología Industrial.
- Jiménez de Aberasturi Apraiz, E., Ibáñez Etxeberria, A., Correa Gorospe, J. M., Noarbe De la Casa, R. (2005). Aprendizaje del patrimonio: Una experiencia de integración del m-learning en el Museo de Arte e Historia de Zarautz. *Comunicación y Pedagogía: Nuevas Tecnologías y Recursos Didácticos*, (203), 36-39.
- Jiménez-Clavería Iglesias, L. (2007). Museos: De templos del arte a empresas de gestión cultural. *Museo: Revista De La Asociación Profesional De Museólogos De España*, (12), 67-87.
- Juanola, R., Fàbregas, A. (2012). Los efectos de la sociedad en los museos: Del boom a la crisis de ideas. *Her&Mus: Heritage & Museography*, 4(3), 52-59.
- Kerejeta, X. (2006). TICs al servicio de la comunicación cultural: El caso del Museo Zumalakarregi. In Alzua-Sorzabal, A. (Ed.), *Tecnologías de la información y comunicación (TICs), arte y patrimonio cultural: Aplicaciones, desarrollo local y aprendizaje informal: Primer seminario internacional celebrado en Donostia-San Sebastián el 5 de mayo de 2003* (237-244). Bilbo: Universidad de Deusto; Deustuko Unibertsitatea, Servicio de Publicaciones.
- La fiesta es también cultura. (1980). *ERE*, 54.
- Labandeira, S. (2008). Breve recorrido por la evolución del concepto museo. *Museo: Revista De La Asociación Profesional De Museólogos De España*, 13, 320-325.
- Laburu, M. (1986). *75 años de historia de la Sociedad Oceanográfica de Guipúzcoa (1908-1983)*. Donostia-San Sebastián: SOG.
- Larrañaga Fernández de Arenzana, R. (1984). *Museo de Armas de Eibar*. Escuela de Armería. Donostia-San Sebastián: Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Guipúzcoa.
- Larrumbe, G. (2006, 2006, urtarrilak 16). Los museos pierden visitantes. *El Diario Vasco*.
- Leizaola Egaña, A., Leizaola Calvo, F. (2008). Un ejemplo de no-museo: El proyecto zaharkiñak. Roigé I Ventura, X., Arrieta Urtizberea, I. *El futuro de los museos etnológicos: Consideraciones introductorias para un debate* (195-214). Donostia: Ankulegi Antropologia Elkartea.
- León, A. (1996). *El museo: teoría, praxis y utopía*. Madrid: Cátedra.



- León Guereño, M. S., Suberbiola, I., Gartzia, L., Aramberri Miranda, J., Correa Gorospe, J. M. (2013). Pedagogía pública en participación a través de la construcción de un retrato transmedia de un territorio: Caso de estudio en el Barco Museo Mater. Arrieta Urtizberea, I. (koord.). *Reinventando los museos* (185-200) Bilbao: Universidad del País Vasco, Servicio Editorial = Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.
- Llorens Serra, T., Bozal Fernández, V. (1996). Los Museos en España. *Revista De Occidente*, (177), 85-101.
- Llorente, A. (2009). Los programas intergeneracionales en los museos. Mosquera Cobián, M. (koord.). *Museos para la participación: Actas 15 Jornadas Estatales de Departamentos de Educación y Acción Cultural, Museo de Bellas Artes da Coruña, octubre 2008* (326-332). La Coruña: Museo de Belas Artes da Coruña, D.L..
- López, E., Alcaide Suárez, E. (2011). Una historia sobre los departamentos de educación y las educadoras en los museos españoles: Mirando atrás para poder seguir adelante. Acaso, M. (koord.). *Perspectivas: Situación actual de la educación en los museos de artes visuales* (13-30). Madrid: Fundación Telefónica.
- López Atxurra, J. R. (1995). Cultura, educación y estudios vascos: Hitos para la recuperación de nuestra memoria histórica (cronología). *Estudios vascos en el sistema educativo = Euskal ikaskuntzak hezkuntza sarean* (55-88). Donostia: Sociedad de Estudios Vascos, Eusko Ikaskuntza.
- López Rodríguez, J. R. (2010). *Historia de los museos de Andalucía, 1500-2000*. Sevilla: Universidad de Sevilla.
- Luberri, un museo didáctico sobre la geología vasca. (2002). *Aranzadiana*, (123), 170-172.
- LUBERRI, Oiartzungo ikasgune geologikoa. (2003). *Aranzadiana*, (124), 212-215.
- Mairesse, F. (1998). El album familiar. *Museum International*, 197, 25-30.
- (2013). Museos y ética. un enfoque histórico y museológico. *Museos.Es: Revista De La Subdirección General De Museos Estatales*, (9), 25-39.
- Manso de Zúñiga, G. (1976). *Museo San Telmo. San Sebastián*: Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián.
- Marqués Sureda, S. (2008). Los testimonios de los maestros en Historia de la Educación. *Ikastaria: cuadernos de educación*, 16, 47-61.
- Martínez Medrano, E. (1999). El boletín de la institución libre de enseñanza. BILE. *Contextos Educativos: Revista De Educación*, (2), 71-78.
- Mayrand, P. (2012). La museología, boca abajo: Miradas a la museología actual (Panfleto de un altermuseólogo). In
- Medizabal Idiazabal, M. (2004). Arditurriko mina eremuaren antolaketa proposamena: Ingurumen zentro baten sorkuntza proiektua. *Azkoaga: Cuadernos De Ciencias Sociales y Económicas*, (12), 207-245.
- Melgar, M. F., Donolo, D. S. (2011). Salir del aula...aprender de otros contextos: Patrimonio natural, museos e internet. *Revista Eureka Sobre Enseñanza y Divulgación De Las Ciencias*, 8(3), 323-333.
- Memoria, realidad, expectativas. ACTAS XI Jornadas estatales DEAC - MUSEOS Bilbao, 30I09I96 03I10I96. (1996). Bilboko Arte Eder Museoa-Museo de Bellas Artes
- Montanyà, O. (2007). Caserío Zabalaga (Euskadi). el sueño de Chillida. *Cambio 16*, (1859), 69.
- Montero, M. (2008). El periodo contemporáneo. *Historia general del País Vasco* (253-536). Donostia-San Sebastián: Txertoa.
- Montero, Y. (2006, 2006, urriak 1). Los secretos de la manzana. *El País*.
- Moreno Burriel, E. (2004). La educación durante la guerra civil (1936-1939). *Educación y modernización en aragón en el siglo XX* (83-112). Zaragoza: Diputación de Zaragoza.
- Morentin Pascual, M., Guisasola Aranzábal, J. (2005). Museos de ciencias y aprendizaje de las ciencias: Una relación compleja. *Alambique: Didáctica De Las Ciencias Experimentales*, (43), 58-66.
- (2013). Visitas escolares a centros de ciencias basadas en el aprendizaje. *Alambique: Didáctica De Las Ciencias Experimentales*, (73), 61-68.
- Mottola Molino, A. (2013). Museos en la encrucijada. entre negocio, espectáculo, marketing, exposiciones y educación. *Museos.Es: Revista De La Subdirección General De Museos Estatales*, (9), 54-69.



- Museo Zumalakarregi de Ormaiztegui. (2002). *Album, Letras, Artes*, (71), 76.
- Nautilus nuevo Centro de Interpretación geológico sobre el Flysch cretácico de la costa vasca. (2007). *Aranzadiana*, (128), 260-261.
- Nieto Gallo, G. (1973). *Panorama de los museos españoles y cuestiones metodológicas*. Madrid: Anaba.
- Noain Maura, M. J. (2012). *Dies oiassonis*: Una propuesta de recreación histórica desde el Museo Romano Oiasso de Irun. *Her&Mus: Heritage & Museography*, 4(2), 60-69.
- Olaizola Elordi, J. J. (2002). La recuperación del patrimonio ferroviario en Euskadi. *Gestión del patrimonio industrial en la Europa del siglo XXI: Octubre 2001* (129-132). Bilbao: Asociación Vasca de Patrimonio Industrial y Obra Pública.
- (2004). Museo Vasco del Ferrocarril. *Kobie (Serie Anejos)*, 2(6), 751-756.
- Olivé Morgado, G. (1998). Photomuseum (Zarautz): Recorrido didáctico por la historia de la fotografía. *FV: Foto-Vídeo Actualidad*, (113), 73-76.
- Ormazabal Altuna, J. Á., Aranzasti, M. J., Doria Bajo, I., Sáenz de Urturi Rodríguez, F., Setién Laboa, M. (1987). Censo de Museos del País Vasco. *Mediatika: Cuadernos De Medios De Comunicación*, (3), 11-127.
- Padró i Puig, C. (2011). La culpa es del swing o ¿por qué no hablamos de relaciones pedagógicas también en los museos?. In Acaso, M. (koord.) *Perspectivas: Situación actual de la educación en los museos de artes visuales* (52-55). Madrid: Fundación Telefónica.
- Parcerisa Aran, A. (2010). Materiales didácticos de los museos: Un recurso para el aprendizaje. *Recursos y estrategias para estudiar Ciencias Sociales* (13-19). Caracas-Barcelona: Graó - Editorial Laboratorio Educativo.
- Pastor Homs, M. I. (1987). El museo como espacio socioeducativo. In Colom Cañellas, J.A. (koord.) *Modelos de intervención socioeducativa* (80-102). Madrid: Narcea.
- (2001). Orígenes y evolución del concepto de educación no formal. *Revista Española De Pedagogía*, 59(220), 525-545.
- (2002). La pedagogía museística ante los retos de una sociedad en cambio. fundamentos teórico-prácticos. *Aabadom: Boletín De La Asociación Asturiana De Bibliotecarios, Archiveros, Documentalistas y Museólogos*, 13(1), 13-22
- (2003). La oferta educativa museística destinada a las personas mayores. tendencias actuales. *Revista Española De Pedagogía*, 61(226), 527-546.
- Poldi Allai, P. (1991). In Poldi Allai, P., Calidoni, M., Laeng, M. (Eds.), *Pedagogie del museo*. Genova: Sagep.
- Polo Herrador, M., González, M. (1994). Los departamentos de Educación y Acción Cultural en los museos. *Iber: Didáctica De Las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, (2), 7-28.
- Querejeta Erro, F. J. (1993). El visitante individual en el Museo Zumalacárregui de Ormaiztegui, Guipuzcoa. *VIII jornadas estatales DEAC-museos: Museo nacional de Arte romano, Mérida 7, 8, 9 y 10 de noviembre 1991* (119-120). Madrid: Ministerio de Cultura, Dirección General de Bellas Artes y Archivos.
- Recalde Rodríguez, I. (2002). Las Misiones Pedagógicas en el País Vasco. *Boletín De La Institución Libre De Enseñanza*, (47), 107-122.
- Requejo Osorio, A. (1998). Sociedad del aprendizaje y tercera edad. *Teoría De La Educación*, (10), 145-167.
- Rico, J. C. (1994). *Museos, arquitectura, arte: Los espacios expositivos*. Madrid: Silex.
- (2003). *La difícil supervivencia de los museos*. Gijón: Trea.
- Rico de Estasen, J. (1932). Zumaya, la bella. *Vida Vasca: Industria, Comercio, Arte, Literatura*, (IX), 95-97.
- Ramos Lizana, M. (2007). *El turismo cultural, los museos y su planificación*. Gijón: Trea.
- Rekondo, J. (2007). Arrikutz, un vistazo a las entrañas de Gipuzkoa. *Sustrai: Revista Agropesquera*, (81), 24-25.
- (2009). La apertura de Arditurri en Oiartzun permite recorrer 2.000 años de historia minera. *Sustrai: Revista Agropesquera*, (87), 26-27



- (2010). El Parque Natural de Aizkorri-Aratz estrena un nuevo centro de interpretación. *Sustrai: Revista Agropesquera*, (94), 52-53.
- Rementeria Argote, N. (2005). Arditurri, mendeetan aberastasun-iturri. *Elhuyar: Zientzia Eta Teknika*, (215), 20-22.
- Rojas Claros, F. (2006). Poder, disidencia editorial y cambio cultural durante los años sesenta. *Pasado y memoria: Revista de historia contemporánea*, 5, 59-80.
- Ruiz Goñi, L. (2009). Inaugurado el nuevo parketxe de Lizarrusti en Aralar. *Sustrai: Revista Agropesquera*, (89), 10-11.
- Sada, J. (2007, 22/04/2007). La casa natal de oquendo. *El Diario Vasco*
- (2008). La Sociedad de Oceanografía de Gipuzkoa. *Revista Internacional De Estudios Vascos*, 53(2), 621-646.
- (2009). 125 agostos En la Historia de San Sebastián. Andoain: Txertoa.
- Sáenz Aliaga, A. M. (1991). La educación en el museo. *Boletín De Arte*, (12), 79-100.
- Sagarzazu, X. (2013, 09/10/2013). El museo de las mariposas vuelve a irun. *Diario Noticias De Gipuzkoa*
- Sagües Subijana, M. (2005). *Urgull: Historia de san sebastián*. Donostia: Hariadna.
- San Martín, N. (2002). Museo Chillida-Leku, el aroma de Chillida. *RdM.Revista De Museología: Publicación Científica Al Servicio De La Comunidad Museológica*, (23), 78-80.
- Sánchez de Serdio, A., López, E. (2011). Políticas educativas en los museos de arte españoles. Los Departamentos de Educación y Acción Cultural. *Desacuerdos* 6, 205-225.
- Sánchez Erauskin, J. (1998). El nacionalcatolicismo como instrumento cultural y legitimador del franquismo en el País Vasco (1936-1945). *Vasconia: Cuadernos De Historia - Geografía*, (27), 235-244.
- Sánchez Vigil, J. M. (2012). La biblioteca del Photomuseum de Zarautz. *Primeras jornadas sobre bibliotecas de museos: Nuevos medios y nuevos públicos* (203-214) Ministerio de Educación Cultura y Deporte.
- Santacana Mestre, J. (1998). Museos, ¿al servicio de quién? *Iber: Didáctica De Las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, (15), 39-50.
- Santamaría, M., Rubio, M.L., Tomasa, E. (2011). Nueva interactividad, al servicio de una nueva relación con el público. "Gaia", exposición permanente en KutxaEspacio de la Ciencia (Donostia-San Sebastián). *RdM.Revista de Museología*, 50, 97-105.
- Santana Ezquerria, A., Torrecilla Gorbea, M. J. (1995). Caserío igartubeiti (Ezkio-Itsaso). *Arkeoikuska: Investigación Arqueológica*, (1995), 460-468.
- Santana, A., Izaguirre, M., Sagarzazu, I., Ibáñez, M., Torrecilla, M. J., Zabala, M., Tellabide, J. (2003). *Igartubeiti: Gipuzkoako baserri bat: Ikerketa, zaharberrikuntza, zabalkundea = un caserío guipuzcoano: Investigación, restauración, difusión*. Donostia-San Sebastián: Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentua = Departamento de Cultura, Euskera, Juventud y Deportes.
- Sarasola Etxegoien, N. (2010). El poblamiento medieval de Gipuzkoa. Revisión crítica del registro arqueológico. *Munibe*, 61, 339-393.
- Soto Aranzadi, S. (2009). San telmo, hacia un nuevo museo. *Museos.Es: Revista De La Subdirección General De Museos Estatales*, (5), 198-207.
- Soto, S. (2008). El museo de San Telmo en donostia-san sebastián. *Museo: Revista De La Asociación Profesional De Museólogos De España*, (13), 189-198.
- Suárez Suárez, M. Á., Gutiérrez Berciano, S., Calaf Masachs, R., San Fabián Maroto, J. L. (2013). La evaluación de la acción educativa museal: Una herramienta para el análisis cualitativo. *Clío: History and History Teaching*, (39)
- Suberbiola, I., Gartzia, L., León, M., Aramberri, J., Correa, J. M. (2012). Barco Museo Mater: Testigo y voz de la cultura marítima de pasaialdea. *Patrimonio inmaterial e intangible de la industria: Artefactos, objetos, saberes y memoria de la industria* (1st ed., pp. 491-496). Gijón: Centro de Iniciativas Culturales y Sociales, CICEES.
- Taller Escuela de San Pedro de Andatza (1980). San Telmo o el abandono hecho institución. *ERE*, 39, 52-53.



- Tenorio Vera, R. (1997). Museo diocesano de San Sebastián. *RdM.Revista De Museología: Publicación Científica Al Servicio De La Comunidad Museológica*, (11), 79-83.
- Tolosa, Iker (2004) Luberrri, harrizko biografiak irakasgai. *Aranzadiana*, 125, 240-242.
- Trilla, J. (1997). *Animación sociocultural: Teorías, programas y ámbitos*. Barcelona: Ariel.
- (1998). La educación no formal. Definición, conceptos básicos y ámbitos de aplicación. In J. Sarramona (Ed.), *La educación no formal* (9-50). Barcelona: Ceac.
- Tusell García, G. (2003). La internacionalización del arte abstracto español: El intercambio de exposiciones con los Estados Unidos (1950-1964). *Espacio, Tiempo y Forma.Serie VII, Historia Del Arte*, (16), 223-232.
- Unsain Azpiroz, J. M. (1997). Recuperación patrimonial, investigación y difusión etnográfica en el Museo Naval de Donostia. *Zainak. Cuadernos De Antropología-Etnografía*, (15), 301-305.
- (1998). El Untzi Museoa-Museo Naval y la protección del patrimonio flotante. *Itsas Memoria: Revista De Estudios Marítimos Del País Vasco*, (2), 483-486.
- (2002a). Gestión de la memoria marítima: La experiencia de untzi Untzi Museoa-Museo Naval (San Sebastián). *RdM: Revista De Museología*, (23), 70-74.
- (2002b). Untzi museoa. Museo naval: San Sebastián. *Album, Letras, Artes*, (71), 74-75.
- (2003). Museos en Donostia: Luces y sombras de una pequeña historia. In E. Ayerbe (Ed.), *Donostia-San Sebastian: Vida, paisajes, símbolos* (242-250). Donostia: Sendoa.
- (2009). La Casa-torre del consulado, edificio de servicios portuarios transformado en museo marítimo/ Untzi Museoa-Museo Naval). *Itsas Memoria: Revista De Estudios Marítimos Del País Vasco*, (6), 565-580.
- Urkizu, U. (1997). Urretxuko Mineral eta Fosilen Museoa. *Elhuyar*, 120, 42-44.
- Urteaga Artigas, M. M. (1990). Arqueología medieval en Guipúzcoa: Estado actual y perspectivas de futuro. *Munibe Antropología - Arkeologia*, (42), 389-398.
- (1998). El museo de la ermita de Santa Elena, Irún. *Boletín Arkeolan*, (4), 22-27.
- (2012). El Museo Romano Oiasso de Irun. *Her&Mus: Heritage & Museography*, 4(2), 15-23.
- (1993). Ermita de San Martin de Iraurgi (Azcoitia). *Arkeoikuska: Investigación Arqueológica*, (1993), 352-362.
- (1999). El ondarelekua de San Martin de Iraurgi. *Boletín De Arkeolan*, 6, 22-28.
- (2009). El museo Romano Oiasso de Irun. Un ejemplo de iniciativa público-privada. *Quinto Encuentro Internacional. Actualidad En Museografía. ICOM-España*, 183-205.
- Urteaga Artigas, M. M., Gereñu Urzelai, M. A., López Colom, M. d. M. (1997). El territorio guipuzcoano: Análisis de los elementos romanos. *Isturitz: Cuadernos De Prehistoria - Arqueología*, (8), 151-173.
- Valdés Sagüés, C. (1999). *La difusión cultural en el museo: servicios destinados al gran público* Trea.
- Vasco Press. (2011, 08/03/2011). Inauguran el restaurado palacio de igartza tras cuatro años de obras. *Diario Vasco*
- Velez de Mendizabal Etxabe, Z.. (2000). Leintz Gatzagako ekomuseoa. *Euskonews & Media*, 93.
- Vicent Otaño, N., Asensio, M., Ibáñez Etxeberria, A. (2011). Evaluación de las unidades educativas "Zarautz en tus manos" y "Expedición Menosca". Aprendizaje informal a través del patrimonio mediante el uso de tecnología móvil. *La evaluación en el proceso de enseñanza y aprendizaje de las ciencias sociales* (305-312) Asociación Universitaria de Profesores de Didáctica de las Ciencias Sociales.
- Vives Almandoz, M. (2012). *Museos de Gipuzkoa. compartir para sumar*. *Her&Mus: Heritage & Museography*, 4(2), 94-102.
- Zabala Uriarte, A. (1988). Financiación de Archivos, Bibliotecas y Museos. In *X Congreso de Estudios Vascos: Pamplona 1987. Archivos, Bibliotecas y Museos* (181-188). *Iruñea: Eusko Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos*.
- Zabala, M.E., Roura, I. (2006). Reflexiones teóricas sobre patrimonio, educación y museos. *Revista de Teoría y Didáctica de las Ciencias Sociales*, 2006, 11, 233-261.



- Zabala LLanos, M. (2007). Ferrerías-museo. patrimonio y difusión de la siderurgia tradicional vasca. *Revista Internacional De Los Estudios Vascos, RIEV*, 52(1), 287-302.
- Ziarrusta Campo, J. J. (2001). Photomuseuma, aisiarako ekimen bat. *Adoz: Revista De Estudios De Ocio*, (21), 12-14.
- Zugaza, L. (1999). Photomuseum. Argazki Euskal Museoa.. *RdM.Revista De Museología: Publicación Científica Al Servicio De La Comunidad Museológica*, (16), 53-55.
- (2006). Photomuseum. Argazki Euskal Museoa. Zarautz. *Rev. Int. Estud. Vascos.*, 51(1), 205-215.
- Zulaika, R. (2002). El Museo Municipal de San Telmo. *Album, Letras, Artes*, (71), 56-61.



ESKERTZEKOAK

Eskerrak eman nahi nizkioke Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Saileko arduradunei, ikerketa hau egiten ahalbidetzeagatik eta eskainitako laguntza guztiagatik. Nola ez, Iñaki Diaz Balerdiri, etengabe emandako aholkuak eta animoak ezinbestekoak izan zaizkidalako.

Bide batez, tarte bat eskaini eta euren etxeko ateak ireki dizkidaten museoko arduradun eta langile guztiei ere eskerrak eman nahi dizkiet, hala nola Udal artxibo eta kultura sailetako teknikariei.



ERANSKINAK



I. eranskina: Gipuzkoako museoek irekiera urteak

	MUSEOA	IREKIERA	ITXIERA
1	Donostiako Udal Museoa/ San Telmo Museoa	1902	
2	Victor Hugo Etxea	1902	*
3	Armagintza Museoa	1914	
4	Zuloaga Etxea/ Z Espacio Zuloaga	1921	
5	Itsas Jauregia-Aquarium	1928	
*	Oquendo Etxea	1950	1986
6	Urgull Historiaren Etxea	1963	
*	Miniatura Militar Museoa	1963	1973
7	Julio Beobide tailer-etxea	1969	
8	Mirandaola Parkea	1952-1996	**
9	Ama Xantalen ermita	1981***	
10	Gorrotxategi Konfiteri Museoa	1982	
11	Eskoriatzako Museo-Eskola / Ibarraundi Museoa	1983	
12	Pagoetako Parkea/ Iturritan Parketxea	1986	
13	Umeen Museoa/ Ingurugiro Etxea	1987	
14	Urretxuko Mineral eta Fosilen Museoa/ Urrelur	1987	
15	Zumalakarregi Museoa	1989	
16	Untzi Museoa	1991	
17	Donostik Elizbarrutiko Museoa	1991	
18	MUFOMI.Mutrikuko Mineral eta Fosilen Museoa	1992	
19	Tren Euskal Museoa/ Burdinbidearen Euskal M.	1992	
20	PHOTOMUSEUM. Argazki eta Zinema Museoa	1993	
21	Zerain Paisia Kulturala	1993	
22	Lizarrusti Parketxea	1993	
23	Munduko Tximeleten Erakusketa Iraunkorra	1994	
24	Larraulgo Ekomuseoa	1997	
25	Igartza Monumentu Maltzoa	1998	
26	San Martin Ondaregune	1998	
27	Makina erremintaren museoa	1998	
28	Gatz Ekomuseoa	2000	
29	Chillida-Leku	2000	2010
30	Museum Cemento Rezola	2000	
31	Kutxaespacio / Eureka! Zientzia Museoa	2001	
32	Txingudi Ekoexea	2001	
33	Igartubeiti Baserri Museoa	2001	
34	Herri Musikaren Txokoa/ Soinuenea	2002	
35	Santa Maria La Real Arte eta Historia Museoa	2002	
36	Luberri	2003	
37	Bentalekua	2003	



38	Egurraren Museoa/ Aizkorriko Ataria /Anduetza Parketxea	2003	
39	Artzantzaren Ekomuseoa (Lenbur)	2003	
40	Ardixarra Etxea - Centro de Interpretación Medieval	2004	
41	Algorri, CI de los Recursos Naturales de Zumaia	2005	
42	D'Elikatuz	2005	
43	Euskal Burdinaren Museoa	2005	
44	Ogiaren Txokoa (Lenbur)	2005	
45	Itsas Gela. MATER Barku-museoa	2005	
46	Idiazabal Gaztaren Interpretazio Zentroa	2005	
47	Oiasso erromatar museoa	2006	
48	Sagardoetxea, Euskal sagardoaren Museoa	2006	
49	Antonio Oteiza Museoa	2007	
50	Oñati-Arrikutz kobak	2007	
51	Nautilus.	2007	
52	Aikur	2007	
53	Arkaka.Uraren Interpretazio Zentroa	2008	2010***
54	Arditurri Parketxea	2008	
55	Leitzaran. Uraren Interpretazio Zentroa	2008	2012***
56	Ekainberri	2008	
57	Museo Real100	2009	
58	Donejakue Bidearen Interpretazio Zentroa	2009	
59	TOPIC Tolosa	2009	
60	Ondartxo, Itsas Kulturaren Interpretazio zentroa/ Albaola	2010	
61	Elgetako Memoria Historikoaren Interpretazio Zentroa	2010	
62	Barandiaran Museoa. Lizarrusti-Barandiaran Parketxea	2010	
63	Chillida Lantoki (Lenbur)	2010	
64	Arantazuko Parketxea	2011	
65	Cristobal Balenciaga Museoa	2011	
66	Uliako Interpretazio Zentroa	2012	
67	Lili Jauregia	2013	

**Itxiera partziala zenbait urtetan*

*** Irekiera urtetik Lenbur Fundazioa sortu arte behin behineko irekierak*

****Data orientatiboak dira. Ez da daturik gorde*



II. eranskina: Gipuzkoako museoek kudeaketa orokorra eta hezkuntza sailak (2000-2014)

ENPRESA KUDEATZAILEAK 2000-2014				
		Kudeaketa	Dinamizazio/ Hezkuntza saila	Hezitzaileak
1	San Telmo Museoa	Donostia Kultura		KOMA Z.K.
2	Victor Hugo Etxea	Oarsoaldea Garapen Agentzia		
3	Armagintza Museoa	Eibarko Udala		
4	Zuloaga tailer etxea	Zuloaga familia		
5	Aquariuma	GOE / GOF		
6	Urgull Historiaren Etxea	Donostia Kultura		KOMA Z.K.
7	Julio Beobide tailer etxea	Beobide familia		
8	Mirandaola Parkea/ Lenbur Lurralde Museoa	Lenbur Fundazioa		
9 - 47	Oiasso Erromatar Museoa eta Ama Xantalen museoa	UTE Arkeolan-K6		
01	Gorrotxategi Konfiteri Museoa	Xaxueta S.L.	Tolosaldea Tour eta Artelatz Ingurumen Zerbitzuak S.L.	
11	Eskoriatzako Museo Eskola/ Ibarraundi Museoa	Eskoriatzako Udala – EJ Hezkuntza		
12	Iturraran Parketxea	GPS Fundazioa	Arreta Pagoeta S.L.	
13	Ingurugiro Etxea	Eusko Jaurlaritzaz – Azpeitiako Udala		
14	Urretxuko Mineral eta Fosilen Museoa / Urrelur	Urretxuko Udala	Urretxuko Udala eta Artelatz Ingurumen Zerbitzuak S.L.	Artelatz Ingurumen Zerbitzuak S.L.
15	Zumalakarregi Museoa	K6 K.K.		
16	Untzi Museoa	Airu Z.K.		
17	Donostiako Elizbarrutiko Museoa	Donostiako Elizbarrutia	KOMA Z.K.	
18	MUFOMI	Bildumaren jabea		
19	Trenaren Euskal Museoa	Burdinbidearen Euskal Museoaren Fundazioa		
20	PHOTOMUSEUM	Photomuseum Fundazioa		
21	Zerain Paisaia Kulturala	Aldabe Z.T.		
22	Lizarrusti Interpretazio Zentroa	Arazi IKT. S.L.		
		GPS Fundazioa	Artelatz Ingurumen Zerbitzuak S.L.	
23	Munduko Tximeleten Erakusketa Iraunkorra	M. Aguirresarobe		
24	Larraulgo Ekomuseoa	Larraulgo Udala	Larraulgo Udala/ Tolosaldea Garatzen	
		DIN A7		



25	Igartza Jauregia / Igartza Monumentu Multzoa	Igartzako Udal Batzordea	Aranzadi / Dolarea / Aldabe Z.T.
26	San Martin ondaregune	Azkoitiko Udala	Azkoitiko Udala/ Munibe Taldea/ Kulturelanbi S.L.
27	Makina-erremintaren Museoa	MH Fundazioa	
28	Gatz Ekomuseoa	Labidea Kudeaketa enpresa/ Leintz Gatzagako Udala	
29	Chillida Leku	CHILLIDA - LEKU S.L.	
30	Museum Cemento Rezola	K6 K.K.	
31	Zientziaren Kutxagune / Eureka! Zientzia Museoa	Kutxa Gizarte Ekintza	Ereiten K.Z.
32	Txingudi Ekoetxea	Eusko Jaurlaritza	
33	Igartubeiti Baserri Museoa	K6 K.K.	
34	Herri Musikaren Txokoa	J.M. Beltrán/ Soinuenea Fundazioa	
35	Santa Maria La Real. Zarauzko Arte eta Historia Museoa	Arazi IKT S.L.	
36	Luberri Oiartzungo Ikasgune geologikoa	Aranzadi Z.E.	
37	Bentalekua	Mutrikuko Udala	
38	Egurraren Museoa / Anduetza Baserria/ Anduetza Parketxea	Aldabe Z.T. / Aizkorri Bidean	
		GPS Fundazioa	Artelatz Ingurumen Zerbitzuak S.L.
39	Artzaintzaren Ekomuseoa	Lenbur Fundazioa	
40	Ardixarra Etxea. Erdi Aroko Interpretazio Zentroa	Segurako Udala / Aldabe Z.T.	
41	Algorri. Zumaiaiko Natur Baliabideen Interpretazio Zentroa	Arazi IKT S.L.	
42	D'Elikatuz: Gastronomia eta Elikadura Zentroa	Arazi IKT S.L. / Erro S.coop	
44	Euskal Burdinaren Museoa	Lenbur Fundazioa	
45	MATER Itsasontzi Museoa	Itsas Gela Elkartea	
46	Idiazabal Gaztaren Interpretazio Zentroa	Arazi IKT S.L. / Aldabe Z.T./ Idiazabal Gazta Elkartea/ Erro s. koop.	
47	Oiasso Erromatar Museoa	UTE Arkeolan- K6 K.K.	
48	Sagardoetxea	Sagardun Partzuergoa	
49	Antonio Oteiza Museoa	Horregatik / Azkoitiko Udala	
50	Arrikutz- Oñatiko kobak	Oñatiko Udala	
51	Nautilus	d.g.	
52	Aikur Erle Museoa	Lenbur Fundazioa	
53	Arkaka. Uraren Interpretazio Zentroa	Arazi IKT S.L.	
54	Arditurri meatze gunea/ Arditurri Parketxea	Arkeolan - Artelatz Ingurumen Zerbitzuak S.L.	
		GPS Fundazioa	Artelatz Ingurumen Zerbitzuak S.L.
55	Leitzar. Uraren Interpretazio Zentroa	Artelatz Ingurumen Zerbitzuak S.L.	
56	Ekainberri	UTE Arazi - Aranzadi	
57	Real 100 Museoa	Real Sociedad	

58	Done Jakue Bidearen Interpretazio Zentroa	Orioko Udala	
59	TOPIC. Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroa	CIT Tolosa	
60	Elgetako Memoria Historikoaren Interpretazio Zentroa	Elgetako Udala	
61	Barandiaran Museoa	GPS Fundazioa	Artelatz Ingurumen Zerbitzuak S.L.
62	Chillida Lantoki	Lenbur Fundazioa	
63	Ondartxo Itsas Kulturaren Interpretazio Zentroa / Albaola Itsas Kultur Faktoria	Albaola Elkartea	
64	Cristobal Balenciaga Museoa	Balenciaga Fundazioa	Arazi IKT S.L.
65	Arantzazuko Parketxea	GPS Fundazioa	Naturgintza Fundazioa
66	Uliako Interpretazio Zentroa	Cristina Enea Fundazioa	
67	Lili Jauregia	UTE Arazi IKT S.L. - Aranzadi	

III. eranskina: Gipuzkoako museoetan burutu diren jarduera didaktikoak (1902-2014)

		BG						IG				HIT		IKAS	IKUS			IRRA	TAI			EKI					
		Ar	Er	An	Ga	Eg	VIP	Hir	Me	Gar	Irt	Hit	Jar		Mus	zin	Ipu		Tai	Bel	Jol	MNE	Egu	Urt	Opo	his	Bes
1	San Telmo																										
2	Victor Hugo Etxea																										
3	Armagintza																										
4	Zuloaga																										
5	Aquariuma																										
*	Okendo Etxea																										
*	Minitatura																										
6	Urgull																										
7	Julio Beobide																										
8	Mirandaola Parkea																										
9	Ama Xantalen																										
01	Gorrotxategi																										
11	Ibarraundi																										
12	Iturran																										
13	Ingurugiro Etxea																										
14	Urrelur																										
15	Zumalakarregi																										
16	Untzi Museoa																										
17	DEM																										
18	MUFOMI																										
19	Tren																										
20	PHOTOMUSEUM																										
21	Zerain																										
22	Lizarrusti																										



		BG						IG				HIT		IKAS	IKUS			IRRA	TAI			EKI					
		Ar	Er	An	Ga	Eg	VIP	Hir	Me	Gar	Irt	Hit	Jar		Mus	zin	Ipu		Tai	Bel	Jol	MNE	Egu	Urt	Opo	his	Bes
23	Tximeletak																										
24	Larraul																										
25	Igartza																										
26	San Martin																										
27	Makina-erreminta																										
28	Gatz Ekomuseoa																										
29	Chillida Leku																										
30	Rezola																										
31	Eureka!																										
32	Txingudi																										
33	Igartubeiti																										
34	HMT																										
35	ZAHM																										
36	Luberri																										
37	Bentalekua																										
38	Anduetza																										
39	Artzaintzaren																										
40	Ardixarra																										
41	Algorri																										
42	D'Elikatuz																										
44	Burdinaren																										
45	MATER																										
46	Idiazabal																										
47	Oiasso																										
48	Sagardoetxea																										
49	Antonio Oteiza																										



		BG						IG				HIT		IKAS	IKUS			IRRA	TAI			EKI					
		Ar	Er	An	Ga	Eg	VIP	Hir	Me	Gar	Irt	Hit	Jar		Mus	zin	Ipu		Tai	Bel	Jol	MNE	Egu	Urt	Opo	his	Bes
50	Arrikutz																										
51	Nautilus																										
52	Aikur																										
53	Arkaka																										
54	Arditurri																										
55	Leitzaran																										
56	Ekainberri																										
57	Real 100 Museoa																										
58	Done Jakue																										
59	TOPIC																										
60	Elgetako																										
61	Barandiaran																										
62	Chillida Lantoki																										
63	Albaola																										
64	Balenciaga																										
65	Arantzazu																										
66	Ulia																										
67	Lili																										

BG **Bisita gidatuak**

Ar Arrunta

Er Erakustaldiekin

An Antzeztua

Ga Gastronomikoa

Eg Egonaldia/ gauekoa

VIP VIP



IG	Ibilaldi gidatua
Hir	Hirian/ herrian
Me	Mendian edo natur inguruneetan
Gar	Garraiobideetan
Irt	Irteerak
HITZ	Hitzaldiak eta jardunaldiak
Hit	Hitzaldiak
Jar	Jardunaldiak eta topaketak
IKAS	Ikastaroak
IKUS	Ikuskizunak
Mus	Musika, dantza, bertsoak
Zin	Zinema, bideo eta dokumentalak
Ipu	Ipuin kontaketak, txotxongiloak, antzerkiak
IRRA	Irratsaioak
TAIL	Tailerrak
Tai	Tailerrak
Bel	Belaunaldiarteko tailerrak
Jol	Jolasak
EKI	Ekitaldiak
MNE	Museoen Nazioarteko Eguna
Egu	Beste nazioarteko egunak / asteak
Urt	Urteurrenak eta ospakizunak



Opo	Oporraldietako programak
His	Birsortze historikoak
Bes	Beste ekitaldi batzuk

